

Monumenta linguae Vasconum:
Studia et Instrumenta

- i. Blanca Urgell, *Larramendiren "Hitzegi Hirukoitza"-ren Eranskina: saio bat hiztegiaren testukritikaz* (= Gehigarriak xl vii).
- ii. Íñigo Ruiz Arzalluz, *"Aitorizun" historia eta testua: Orixeren eskuizkributik Lekuonaren edizioa*, 2003 (= Gehigarriak xlviii). 21 €.
- iii. Oroitz Jaur egui, *Correspondencia de Gerhard Bähr con R. M. Azkue, H. Schuchardt y J. Urquijo (1920-1944)* (= ASJU xxxvi-2), 21 €.
- iv. Céline Mounole Hiriar t-Urr uty, *C. H. de Belsunce Bizkondea. Tableau analytique et grammatical de la langue basque (1858): azterketa eta edizioa* (= ASJU xxxvii-2). 21 €.
- v. Joseba A. Lakarra, *Ikerketak euskararen historia eta euskal filologiaz* (= Gehigarriak xlv). Argitaratzeko.
- vi. Iñaki Camino, *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat (1782)-Edizioa eta azterketa*, 2015 (= ASJU xlvii-1). 21 €.
- vii. Dorota Kraje wska, Eneko Zuloaga, Ekaitz Sant azilia, Borja Ariztimuño, Oxel Uribe-Etxebarria, Urtzi Reguero, *Esteve Materraren Do(c)trina Christiana (1617 & 1623)-Edizioa eta azterketa*, 2017 (= ASJU li 1/2). 21 €.

ASJUren Gehigarrietarako ikus:
www.anejos-del-anuario-del-seminario-de-filologia-vasca-julio-de-urquijo

Euskararen Lekukoak Bilduma

Mendez-mende, edozein euskalki eta edozein literatura motatan euskara landu duten autore eta hizlariekin eta arrazoi batengatik edo bestegatik estudiatuak izatea merezi duten testuekin liburu bilduma bat osatu nahi du Euskaltzaindiak. Euskararen lekuko horiek gaurko eta etorkizuneko ikasle, irakasle, idazle, euskaltzale, euskalari eta abarren eskuetan modu egoki eta artatuan jarri nahi genituzke Bilduma honi esker.

Monumenta linguae Vasconum:
Studia et Instrumenta

ASJU 1954an sortutako euskal linguistika eta filologiako aldizkaria da eta iker-eremu horietatik eta horietan ere interesgarri izan daitezkeen urrutiagoko beste batzuetatik goi mailako artikulu, ohar, liburu-iruzkin nahiz monografikoak argitaratzen ditu (urtero bi zenbaki). ASJU-k badu orobat Gehigarri sail bat non artikulu formatuaz gorako lanak argitaratzen dituen; bertan dagoeneko euskal linguistika eta filologiako 70 liburu biltzen dira.



el.
28

ASJU
LI 1/2
2017

DOROTA KRAJEWSKA, ENEKO ZULOAGA,
EKAITZ SANTAZILIA, BORJA ARIZTIMUÑO,
OXEL URIBE-ETXEBARRIA, URTZI REGUERO

ESTEVE MATERRAREN
DO(C)TRINA CHRISTIANA (1617 & 1623)

Edizioa eta azterketa



Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» LI 1/2 (2017)
Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta VII

Euskararen Lekukoak Bilduma, 28

ESTEVE MATERRAREN
DO(C)TRINA CHRISTIANA
(1617 & 1623)

Edizioa eta azterketa

Dorota Kraje wska, Eneko Zuloaga, Ekaitz Santazilia,
Borja Ariztimuño, Oxel Uribe-Etxebarria, Urtzi Reguero



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskararen Lekukoak Bilduma - zuzendaria:
Joseba Lakarra, *euskaltzain osoa*.

Azken tituluak

22. *Gueroco guero*
PEDRO ANTONIO AÑIBARRO
Blanca Urgellek paraturiko edizio kritikoa · 2001
23. *Eusqueraren berri onac*
AITA AGUSTIN KARDABERAZ
Patxi Altuna eta Esther Zulaikak paraturiko edizio kritikoa · 2004
24. *Birjina, edo donceil christaba*
Ikerketak eta edizioa
Jose Antonio Mujika prestaturiko lana · 2009
25. *Egiategiaren filosofo huskaldunaren ekheia*
Bigarren liburua
Txomin Peillenek prestaturiko lana · 2010
26. *Kadet eta Bettiriño edo Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera*
Manuel Padillak prestaturiko ikerketa eta edizio kritikoa · 2011
27. *Alphonsa Rodriguez Jesus Compagnhaco Aita guiristinho perfeccioniaren praticaren pparte bat (1782)*
Iñaki Caminok prestaturiko lana · 2015
28. *Esteve Materraren Do(c)trina Christiana (1617 & 1623)*
Dorota Kraje wskak, Eneko Zuloagak, Ekaitz Santaziliak, Borja Ariztimuñok, Oxel Uribe-Etxebarriak eta Urtzi Reguerok prestaturiko edizioa eta azterketa · 2017

Euskararen Lekukoak Bildumaren gainerako tituluak in:
www.euskaltzaindia.eus/iker_jagon/bildumak/lekukoak

Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”
International Journal of Basque Linguistics and Philology
(ASJU)

Sortzaileak / Fundadores / Founded by
Manuel Agud - Luis Michelena

Zuzendariak / Directores / Directors
Joseba A. Lakarra - Ibon Sarasola

Argitaratzailea / Editor
Joseba A. Lakarra

Idazkaritza / Redacción / Board

Gidor Bilbao	Iván Igartua	Miren Lourdes Oñederra
Iñaki Camino	Julen Manterola	Javier Ormazabal
Gorka Elordieta	Céline Mounole	Íñigo Ruiz Arzalluz
Ricardo Gómez		Blanca Urgell

Idazkaritza arduradunak / Coordinadores / Editor's Adjunts
Íñigo Ruiz Arzalluz / Blanca Urgell

Aholku Batzordea / Consejo Editorial / Editorial Board

Jesús Antonio Cid (Complutense)	Jon Ortiz de Urbina (Deustu, Bilbo)
Lyle Campbell (Hawaii)	Beñat Oyharçabal (Iker, CNRS)
María Teresa Echenique (Valencia)	José Antonio Pascual (Carlos iii)
Ricardo Etxepare (Iker, CNRS)	Georges Rebuschi (Paris iii)
Jon Franco (Deustu, Bilbo)	Patxi Salaberri (UPNA)
Joaquín Gorrochategui (UPV/EHU)	Iñaki Seguro (EHHE)
José Ignacio Hualde (Urbana, Illinois)	Juan Uriagereka (Maryland)
Bernard Hurch (Graz)	Myriam Uribe-Etxebarria (UPV/EHU)
Jon Juaristi (Alcalá)	Charles Videgain (Iker / UPPA)
Itziar Laka (UPV/EHU)	Koldo Zuazo (UPV/EHU)
Francisco Oroz Arizcuren (Tübingen)	

Kide izandakoak / Antiguos miembros / Former Members

Jacques Allières, Patxi Altuna, Joan Coromines, Jean Haritschelhar, Jesús María Lasagabaster,
Rudolf P. G. de Rijk, R. Larry Trask

ASJU 1954an sortutako Euskal Linguistika eta Filologiazko nazioarteko aldizkaria da, “Julio Urkixo” Euskal Filologi Mintegi-Institutuak (JUMI) argitaratua, eta iker-eremu horietatik edo horietarako ere interesgarri izan daitezkeenatik goi mailako artikulu, ohar eta liburu-iruzkinak argitaratzen ditu. Urtero bi zenbaki ateratzen dira (orotara 750 bat orrialde). *ASJU*-k badu, orobat, *GEHIGARRI* sail bat, non artikulu formatuaz gorako lanak argitaratzen diren, epe jakinik gabe (ikus zerrenda zenbakiaren amaieran).

Originalei buruzko harremanetarako ikus bitez bukaerako egileen tzako oharrak. Harpidetza eta eskarietarako: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Leioa (luxedito@lg.ehu.es).

ASJU es una revista internacional de Lingüística y Filología Vasca fundada en 1954 y publicada por el Instituto-Seminario de Filología Vasca “Julio Urquijo” (JUMI). Se publican en ella artículos, notas y reseñas sobre los campos mencionados y afines, y otros de interés para los mismos. En la actualidad es de periodicidad semestral (unas 750 páginas). Sin regularidad preestablecida, *ASJU* publica en sus anejos trabajos de formato superior al de un artículo (véase la lista al final del volumen).

Para correspondencia relacionada con los originales véase la información para los autores al final del número. Para suscripciones y pedidos: Servicio de Publicaciones, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Leioa (luxedito@lg.ehu.es).

ASJU is an International Journal of Basque Linguistics and Philology founded in 1954, and published by the “Julio de Urquijo Seminar of Basque Philology” Institute (JUMI). It publishes high-quality papers, notes, squibs and reviews about the above mentioned and other related topics in two issues per year (up to a total of 750 pages). Longer works are published as supplements to the regular issues of the *ASJU* (see the list at the end of the issue).

For correspondence about papers see the information for authors at the end of this issue. For subscriptions and order: Servicio de Publicaciones, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Leioa (luxedito@lg.ehu.es)

Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» LI 1/2 (2017)
Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta VII

Euskararen Lekukoak Bilduma, 28

Esteve Materraren
Do(c)trina Christiana
(1617 & 1623)

Edizioa eta azterketa

Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Ekaitz Santazilia,
Borja Ariztimuño, Oxel Uribe-Etxebarria, Urtzi Reguero



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publications is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Eskubide guztiak jabeak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Egileek eskerrak eman nahi dizkiete ondoko Erakunde eta Ikerketa-Talde eta Egitasmoei:

- Eusko Jaurlaritzako «Lingüística histórica e historia de la lengua vasca» [GIC.IT486-10],
- Madrilgo Ministeritzako «Monumentae Linguae Vasconum (IV)» [= FFI2008-04516] eta «Monumentae Linguae Vasconum V» [= FFI2016-76032-P]
- UPV/EHU-ko UFI11/14 ikerketa talde eta egitasmoei laguntza.

© Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Ekaitz Santazilia, Borja Ariztimuño, Oxel Uribe-Etxebarria, Urtzi Reguero

© «Julio Urkixo» Euskal Filologia Instituto-Mintegia Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»

© «Julio Urkixo» Basque Philology Seminar Institute

© Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN (Euskaltzaindia): 978-84-946477-5-8

Depósito legal / Lege gordailua: BI - 1.767-2017

ISSN (UPV/EHU): 0582-6152

Depósito legal / Lege gordailua: BI - 794-2007

Aurreinprimatzea: Ipar, S. Coop. (Bilbao)

Inprimatzea: Grafo, S.A.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	1
2. Testuinguru historikoa eta autorea	5
2.1. XVII. mendeko Lapurdi	5
2.1.1. Erlijio-egoera	5
2.1.2. Egoera ekonomikoa eta politikoa	6
2.1.3. Euskararen egoera	9
2.2. Materraz dakiguna: bizitza eta obra	11
2.3. «Materre» ala «Matterra»?	15
2.4. Materraren dotrinaz esan direnak	16
3. Edizioaren atarikoak	19
3.1. Obrak izandako argitalpen eta aleak	19
3.1.1. 1617ko argitalpena	19
3.1.1.1. Alearen historia	19
3.1.1.2. Alearen deskribapena	20
3.1.2. 1623ko argitalpena	22
3.1.2.1. Alearen historia	22
3.1.2.2. Alearen deskribapena	23
3.1.3. Ondorengo argitalpenak	25
3.1.4. <i>Stemma</i>	26
3.2. 1617ko eta 1623ko argitalpenen arteko konparaketa	28
3.2.1. Grafia	28
3.2.2. Liburuaren makroegitura	29
3.2.3. Mikroegiturako aldeak	32
3.3. Edizio-irizpideak	34
4. 1617ko argitalpena: testua	39
5. 1623ko argitalpena: testua	65
6. Hizkuntza-azterketa	129
6.1. Grafia, hotsak eta fonologia	130
6.1.1. Bokalak	130
6.1.1.1. <u>/<v>	130
6.1.1.2. <i>/<y>	131
6.1.1.3. Bokal bikoitzez	131
6.1.1.4. /o/ bokalaz: sudurkari aurrean <i>o</i> > <i>u</i> bihurtzea	132
6.1.1.5. <i>-i-</i> epentetikoaren adizkietan	132

6.1.2.	Kontsonanteak	132
6.1.2.1.	/<v>	132
6.1.2.2.	Hasperena eta herskari hasperendunak	132
	a) Hasperena	132
	b) Herskari hasperendunak	133
6.1.2.3.	Palatalizazioa	134
6.1.2.4.	Txistukariak	135
	a) Igurzkariak	135
	b) Afrikatuak	136
	c) Ozen ondokoak	137
	d) Palatalak	137
6.1.2.5.	Herskari belar ahostuna	138
6.1.2.6.	Herskari belar ahoskabea	138
6.1.2.7.	Dardarkariak	138
6.1.2.8.	Igurzkari palatal ahostuna	138
6.1.2.9.	Irristari palatal ahostuna	138
6.1.2.10.	Ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabea	139
6.1.2.11.	<mb>, <mp> vs <nb>, <np> kontsonante-multzoak	139
6.1.3.	Grafia etimologikoak	139
6.1.4.	Dieresiak eta sudurkariak diakritikoak	140
6.1.5.	Hitz-banaketa	140
	6.1.5.1. Marratxoa	140
	6.1.5.2. Kontsonante-bilkurak (<i>ez</i> + kontsonantea)	141
6.2.	Izenaren morfologia	141
6.2.1.	Erakusleak eta hirugarren pertsonako izenordainak	141
	6.2.1.1. Graduak arteko aldeak	142
	6.2.1.2. Absolutiboa/ergatiboa sinkretismoa pluralean	143
	6.2.1.3. Hirugarren graduko izenordain indartua	144
	6.2.1.4. <i>Hargatik</i> eta <i>hura gatik</i>	144
	6.2.1.5. Aditzondoak	145
6.2.2.	Pertsona-izenordainak	146
	6.2.2.1. Pertsona-izenordain indartuak	147
	6.2.2.2. <i>Geurok</i> aldaera	147
	6.2.2.3. <i>Zerori</i> / <i>zerorrek</i> & <i>zeurk</i> aldaerak	147
6.2.3.	Izenordain zehaztugabeak	148
	6.2.3.1. <i>Nehor</i> eta <i>nihor</i>	148
	6.2.3.2. <i>Batzuk</i> eta <i>batzuek</i>	148
	6.2.3.3. <i>Bat</i> : forma mugatuak eta forma mugagabeak	148
6.2.4.	Bihurkariak eta elkarkariak	149
6.2.5.	Galdetzaileak	150
	6.2.5.1. <i>Zein</i>	150
	6.2.5.2. <i>Zeinez</i> eta <i>zeinetzaz</i>	151

6.2.6.	Deklinabide-gaiak	151
6.2.6.1.	Mugagabearen erabilera	151
6.2.6.2.	Forma hurbilak	153
6.2.6.3.	Bizidun/bizigabe bereizketa	153
6.2.6.4.	Genitiboa leku-denborazko kasu bizidunetan, motibatiboan eta elkarkarian	155
6.2.6.5.	Zenbait kasu-markaren formez	156
a)	Ergatiboa	156
b)	Datiboa	156
c)	Genitiboa	156
d)	Soziatiboa	156
e)	Instrumentala	157
f)	Ablatiboa	157
g)	Adlatiboa	157
h)	Destinatiboa eta helburua	157
i)	Muga-adlatiboa	158
6.2.6.6.	Postposizioak	158
a)	<i>Aitzin</i>	160
b)	<i>Alderat</i>	161
c)	<i>-en arauazl-en arauera</i>	161
d)	<i>Artean/arte(ra)ino</i>	161
e)	<i>Barrenal/barrenean</i>	161
f)	<i>-en gainera</i>	162
g)	<i>-tikl-z kanpoan</i>	162
6.3.	Hitz eratorriak	162
6.3.1.	Hitz eratorri mailegatuez	164
6.3.1.1.	<i>-an(t)za</i>	164
6.3.1.2.	<i>-os</i>	164
6.3.1.3.	Atzizki batzuen aldaerez	165
6.3.1.4.	<i>-ione</i>	165
6.3.2.	Atzizki ihartuez	166
6.3.2.1.	<i>-ari₂</i>	166
6.3.2.2.	<i>-ka</i>	166
6.3.2.3.	<i>-to</i>	166
6.3.3.	Zenbait atzizkiren formaz	166
6.3.3.1.	Atzizki bikoitzak	166
6.3.3.2.	<i>-ki₁</i>	167
6.3.3.3.	<i>-le, -tu, -zale</i> eta <i>-(t)zail(l)e</i>	167
6.3.3.4.	<i>-sun/-tsu</i>	167
6.3.3.5.	<i>-(t)asun</i>	168
6.3.3.6.	<i>-t(t)ol/-txo</i>	168
6.4.	Aditzaren morfologia	168
6.4.1.	Forma jokatu-gabeak	168
6.4.1.1.	Partizipioa	168
6.4.1.2.	Aditzoia	169

6.4.1.3.	Aditz-izena	170
6.4.1.4.	Geroaldia	171
6.4.1.5.	Bestelako berezitasun lexikoak eta aldaerak	171
	a) <i>Izan</i> iragankorra	171
	b) <i>Etzan</i> aditzaren aldaeraz	171
	c) <i>Igo</i> aditzaren aldaeraz	172
	d) <i>Ukitu</i> aditzaren aldaerez	172
6.4.2.	Forma jokatuak	172
6.4.2.1.	Trinkoak	172
	a) <i>Ethorri</i>	173
	b) <i>Egin</i>	173
	c) <i>Egin</i> sasi-laguntzaile	173
	d) <i>Ibilil</i> erabiliren eta <i>ik(h)usiren</i> adizkietako <i>-a</i>	174
	e) <i>-idi-</i>	174
	f) <i>Joanen</i> adizki hasperendunak	174
	g) Hitanoko formak	174
	h) Polimorfismoa	175
	i) <i>Etzanan</i> pluraleko formak	175
	j) Konparazioko adizki berezia	175
	k) Adizki trinko bat lexikoan gordetik	176
6.4.2.2.	Laguntzaileak	176
6.4.2.3.	Lokuzio eta perifrasiak	177
	a) Erresultatiboak	177
	b) Pasiboa	178
	c) <i>-z egon</i>	178
	d) Loari loturiko bi lokuzio	179
	e) <i>Harago izan</i>	179
	f) Uzkurdurak	179
6.4.2.4.	Pertsona	179
	a) 3. pertsona (datiboan).	180
	b) 1. eta 2. pertsonak	180
	c) Adizki hirupertsonaletako bokala	180
6.4.2.5.	Numeroa	180
	a) Absolutibo plurala	180
	b) Datibo plurala	182
	c) Ergatibo plurala	182
6.4.2.6.	Denbora	182
	a) Geroaldi trinkoa eta perifrastikoa	182
	b) Iraganeko/erlatiboko atzizkia	183
	c) Iraganeko aurrizki bikoiztua	183
	d) Pluralgilearekiko forma sinkretikoak	183
6.4.2.7.	Aspektua	183
	a) Progresibotasuna adierazteko: <i>hari izan</i>	183
	b) Ohitura: <i>-tzen ohi</i>	183
	c) Gertakizun hurbila: <i>-tzera joan</i>	184

6.4.2.8. Modua	184
a) Agintera	184
b) <i>Izan</i> eta * <i>edun</i> trinko arkaikoak	184
c) Orainaldiko baldintza erreal zaharra	184
d) Ahalera	185
e) Ahalera trinkoa	185
f) Orainaldiko ahalera vs erresultatiboko ahalera	185
g) <i>-te</i> zaharra	186
h) Preskriptiboa	186
i) Datibo-markaren berezitasun bat	186
j) Subjuntiboaren erabilera arkaikoa (edo subjuntibo berezi- rik ez zen garaiko arrastoa)	187
6.4.3. Zenbait erregimen (berezi)	187
6.5. Sintaxia	188
6.5.1. Perpaus nagusia	188
6.5.1.1. Hitz-ordena	188
6.5.1.2. Linschmann-Aresti legea	189
6.5.1.3. Objektu zuzenaren genitibizazioa	190
6.5.1.4. Elipsia	190
6.5.2. Perpaus konplexuak	191
6.5.2.1. Perpaus erlatiboak	191
6.5.2.2. Perpaus adberbialak	192
a) Kausazkoak	192
b) Helburuzkoak	192
c) Kontzesio-perpausak	193
d) Denborazko perpausak	193
6.5.2.3. Zehar-galderez: <i>-(e)nz</i> morfema	194
6.5.2.4. Harridura-perpausak	194
6.5.3. Materraren sintaxia eta xvii. mendeko lapurtera	194
6.6. Ondorioak	196
7. Hiztegia eta adizkitegia	197
7.1. Irizpideak	197
7.1.1. Hiztegia: irizpideak	197
7.1.2. Adizkitegia: irizpideak	198
7.1.3. Laburduren zerrenda	198
7.2. Hiztegia	199
7.3. Adizkitegia	264
7.3.1. Aditz laguntzaileak	264
7.3.2. Trinkoak	270
Bibliografia	275
1617ko argitalpena: faksimilea	281

TAULAK, DIAGRAMAK ETA IRUDIAK

Taulen zerrenda

1. taula: ur-marken banaketa (plegua, orria eta orrialdeak zehaztuta)	22
2. taula: ur-marken kokapena	25
3. taula: <i>ez</i> + kontsonantea (Mujika 2002: 222)	141
4. taula: erakusleak eta hirugarren pertsonako erakusle eta izenordainak	142
5. taula: 3. pertsonako erakusleen erabilera-maiztasunak, graduka	143
6. taula: 3. graduko izenordain indartuaren sinkretismoa.	144
7. taula: moduzko eta lekuzko aditzondoak, graduka.	145
8. taula: moduzko eta lekuzko adberbio zenbaiten erabilera-maiztasunak, graduka, xvii. mendeko lapurteraz	145
9. taula: pertsona-izenordainak	146
10. taula: izenordain zehaztugabeak.	148
11. taula: elkarkariak eta bihurkariak.	149
12. taula: izenordain galdetzailak	150
13. taula: absolutiboa eta genitiboa leku-denborazko postposizio bizidunetan eta moti- batiboan, autoreka	156
14. taula: testuan agertzen diren postposizioak	158
15. taula: Materraren testuko hitz eratorriak	162
16. taula: <i>-ino</i> eta <i>-ione</i> atzizkiak Materraren testuan	165
17. taula: <i>-ino</i> eta <i>-ione</i> xvii. mendeko lapurteraz	165
18. taula: erresultatiboko perifrasiak	177
19. taula: Materra eta xvii. mendeko lapurtar idazle batzuk: sintaxia erkagai	195

Diagramen zerrenda

1. diagrama: pleguaren berreraiketa-proposamena	21
2. diagrama: eskuizkribu eta argitalpenen <i>stemma</i>	27

Irudien zerrenda

1. irudia: ur-marka: zatiak elkartuta.	22
2. irudia: ur-marka: berreraiketa-proposamena	22
3. irudia: 1. ur-marka: 27. or.	24
4. irudia: 2. ur-marka: [xvi]. or.	24
5. irudia: 3. ur-marka: 363. or.	24

1

SARRERA

Lapurtera klasikoa da, seguru asko, xx. mendea baino lehenagoko euskarazko literaturaren agerpenik ezagunena, ezagutza hori oro har azalekoa edo nahi baino azalekoagoa bada ere: xvii. mendearen lehenengo hiruzpalau hamarkadetan Lapurdiko kostaldeko eta barnealdeko idazleak, eta Lapurdira joan ondoren euren lanak prestatu zituztenak (tartean euskara ikasi ei zutenak) nolabaiteko homogeneotasuna duen multzo zabalean sailkatu ohi dira: ikuspegi horretatik sortu zen, besteak beste, «Sarako eskola» izendapena eta mitoa, antza denez Axularrek *Geroren* hitzaurrean irudikatu zuen lagunarteko solasaldia abiapuntu duena, nahiz eta gaur-gaurkoz jakin badakigun ez zela halako «eskola»-rik egon. Izendapenak izendapen, sasoi hartako lapurtar idazle gehienek helburu ideologiko eta agindu bertsuei jarraituta prestatu zituzten euren lanak: kontrarreforma katoliko ortodoxoaren mesedetan eta burgesia ekonomikoaren babespean.

Euskal literaturaren edozein historia esku artean, erraz ikus daiteke, xvii. mendeko egileen loraldia aipatu arren, nolabaiteko mailakatzea egiten dela egileen artean; hain zuzen ere, euskal literaturaren historiografia-lanek norabide bertsuan epaitu izan dituzte lapurtar klasikoak, batzuk ezin gehiago goratuz eta beste batzuk bigarren mailan (oro har, lehenengo mailakoen itzalpean) utziz: Axular, euskal klasikoetan gorena eta, gehienez ere, Etxeberri Ziburukoa goraipatu eta landu izan dira, eta saio historiografiko gehienetan ez dugu gainerako egileen datu biografikoren bat eta prestatu zituzten lanen izenburuak besterik aurkitzen.

Materra eta bere *Do(c)trina christiana* esandakoaren adibide paregabeak ditugu: aipatu izan da, jakina, Lapurdiko klasikoetan aitzindaria izan zela, eta halako sinpatia batez azaldu izan da euskal literaturaren historian lehenbiziko egile euskaldun berria izan zela. Halaber, behin eta berriz esan izan da, gutxienez Villasantez (1961) gerotik, frantsesez ere idatzita zituela zenbait lan. Hortik aurrera ezer gutxi genekien, baina agerikoa da biografian zein lane(t)an apur bat sakonduta bestelako emaitza eta ikuspegiak lor zitezkeela; hain zuzen ere, horretara dator lan hau: hala Materrari nola bere *Do(c)trina christianari* gure ustez dagokien lekua ematera.

XIX. mende aurreko euskal testuekin lan egin nahi duen edonork hainbat arazo aurkituko ditu: batzuk orokorrak dira, beste hizkuntza batzuetako iturriekin lan egitean ere ageri direnak; beste batzuk, ordea, guri geuri dagozkigu, oraindik ere lan handia baitugu euskal testu zahar eta klasikoak finkatzen eta ikertzaileen eskueran jartzen. Materra lantzen hasi ginenean, artean 1617ko edizioa aurkitu gabe geundela, 1623ko edizioaren zenbait bertsio eskuratu genituen, eta guztiak zituzten arazoak. Alde batetik, Oxfordeko *unicumaren* mikrofilmen fotokopiak zeuden eskura,

baita fotokopia sorta baten baino gehiagoren zatiak bilduta osatutako aleren bat ere. Bestalde, Labayru Fundazioaren faksimilea genuen, Jose Mari Rementeriak (2008) Oxfordeko alea oinarri hartuta atondu zuena. Faksimile horrek, halere, baditu arazo zenbait; izan ere, edizioaren oinarria ez da Oxfordeko alea, ezpada ale horren fotokopiak. Gainera, iturritzat erabilitako mikrofilmekin edo fotokopian ikusten ez diren hainbat hitz eta letra eskuz osatu dira, eta ez beti zuzen. Badirudi bere buruaren profeta gisa jokatu zuela Rementeriak, hala azaltzen baitzuen Materraren faksimile «osatuaren» hitzaurrean: «Gaur egun, antzinako libururen bat birrargaritzen danean, gehien bat, lehen argitalpena (*editio princeps*) argitaratzen da. Egilearen lana batez ere hantxe agertzen dalako; hurrengoetan beste norbaiten ikutuak be egon leitekezalako» (2008: xx-xxi).

Edizio kritiko bat prestatzeko, ezinbestekoa da ale originalak esku artean ibiltzea. Hartara, gure lanerako, Oxfordeko alearen mikrofilm berriak eskatzeaz gain, testua are hobeto ezagut zitekeelakoan, Oxfordera bertara jo genuen, 2014ko udaberrian. Usteak ez ziren ustel suertatu: alea esku artean aztertuta, liburuaren historiari eta alderdi materialari buruzko informazioa ez ezik, testuari buruzko informazio zehatza ere lortu genuen. Oxfordeko 1623ko edizioaren *unicuma* du oinarri, beraz, hona dakartzagun edizioetako batek.

Gure helburua 1623ko edizioa finkatu eta iruzkintzea zen arren, ezin uka deza-kegu hasieratik izan genuela lehenengo edizioa aurkitzeko itxaropen gorabeheratsua. Nazioarteko katalogoak arakutzen hainbat ordu eman ondotik, «Materre»-ren ordez «Mattera» (Axularrek eta Guilantenak 1623ko edizioaren baimenetan baliatutako aldaera) bilatzea otu zitzaion Dorota Krajewskari, eta halaxe aurkitu zuen liburuaren ale bat Kopenhageko Errege Bibliotekan, erdizka katalogatuta. 1617ko alearen kopekin lan egin ondoren, Kopenhageko alea bera ere izan dugu esku artean, egiazta-tze-lanetarako. Ale horren faksimilea ematen dugu lan honetan, irakurleak jatorrizko testua zuzenean ikusteko aukera izan dezan.

Lan honetan hiru ekarpen nagusi egin nahi izan ditugu.

Lehenik eta behin, Materraren 1617ko eta 1623ko edizioak irizpide kritikoz finkatu eta eman nahi izan ditugu, lehenengo ale orain arte ezezagunaren testua ezagut dadin eta bi edizioak baliatu nahi dituen edonoren eskura egon daitezen. Testuak eura emateaz gain, Oxforden eta Kopenhagen gordetzen diren aleen ibilbidea ere argitzen saiatu gara, eta Materraren lanak ondoko mendeetan izandako edizioak aintzat hartuta, frantses saratartuaren obraren gorabeherak berreraiki ditugu.

Bigarrenik, geure buruak diakronizatzen izanik, argi daukagu lapurtera klasikoa zein euskararen historia hobeto ezagutuko baditugu, ezinbestekoa dela euskal testu zaharrak dagokien testuinguruan ahalik eta ondoena kokatzea. Horren lagungarri izango direlakoan prestatu ditugu Materraren euskararen hainbat alderdi biltzen dituzten hizkuntza-azterketak: gramatika eta hiztegia.

Hirugarrenik, egileaz arduratu nahi izan dugu: Materraren biografian harago joan zitekeelakoan hango eta hemengo biblioteketan ibili gara, eta hobeto ezagutu ditugu bai haren obra orain arte uste baino zabalagoa, bai euskarazko *Do(c)trina christianak* obra zabal horretan duen lekua. Zehazki, ez dirudi Mattera hain bigarren mailako izan zenik: frantsesez argitaratutako lan mardulak ikusita, gehiago ematen du autoritate erlijiosoan izan zela xvii. mendeko Frantzian.

Hiru esparru horiek landu ahala ikasitakoa aintzat hartuta, hemendik aurrera beselakoa izan beharko luke, gure ustez, Materraren inguruko ikuspegiak, egilearen ize-netik bertatik hasita, iritziak iritzi.

Sarrera honetako azken hitza esker-hitza da. Bihoazkie gure eskerrik zintzoenak proiektu honetan gehiago edo gutxiago lagundu diguten lagunei: denbora batez proiektuan bidaide izan dugun Udane Atutxari, baita lana arretaz irakurri eta iruzkindu dutenei ere: Gidor Bilbao, Iñaki Camino, Ricardo Gómez, Joseba A. Laskarra, Patxi Salaberri Zaratiegi eta Blanca Urgelli. Ezin ahantz ditzakegu, orobat, UPV/EHUko Monumenta Linguae Vasconum ikerketa-taldeko kideak, Aziti Bihia Filologo eta Hizkuntzalarien elkartekideak, IKER UMR5478-CNRS ikerguneko kideak, eta honako biblioteka hauetako arduradun eta langileak: Bibliothèque Sainte Geneviève (Paris), Bibliothèque d'étude et du patrimoine (Tolosa), Mediathèque de la ville de Rodez, Bibliothèque municipale d'Avignon, Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia), Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka (Bilbo), Bodleian Library (Oxford) eta Det Kongelige Bibliotek (Kopenhage).

Bestalde, honako proiektuen babesa jaso dugu: UPV/EHUko Euskararen Historia eta Hizkuntzalaritza Historiko-Konparatua (GIC10/83, IT 486-10) ikerketa-talde kontsolidatua; Eusko Jaurlaritzako Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuropearrak eta Euskara (HiTeDi) (UFI 11/14) Prestakuntza eta Ikerketa Unitatea; UPNA/NUPeke «LaCaixa»-k diruz hornitzen duen Nafarroako ondare materiagabearen Artxiboaren Katedra (30.31.10.3654), Monumenta Linguae Vasconum (IV): «Textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (MINECO, FFI2012-37696) eta Monumenta Linguae Vasconum (V): «Periodización y cronología» (MINECO, FFI2016-76032-P). Bestalde, D. Krajewskak UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzaren doktore aurreko beka jaso zuen.

TESTUINGURU HISTORIKOA ETA AUTOREA

Atal honetan xvii. mendean, Materrak dotrina argitaratu zuenean, Lapurdik bizi zuen egoera soziopolitikoaren, erlijiosoaren eta ekonomikoaren gaineko zertzelada batzuk emango ditugu, obraren xede, estilo eta eginkizuna hobeto uler dadin.

2.1. XVII. mendeko Lapurdi

XVII. mendean euskaraz idatzitako liburuak ordura arte ezagutu gabeko loraldia bizi izan zuten, eta bereziki Lapurdin (cf. Sarasola 1975: 107-109). Sarasolak (1976: 44) ohartarazten duenez, ezagutza handiko idazle jantzien eskutik etorri zen xvii. mendeko Lapurdiko ekoizpenean gorakada. Bi faktore nagusi bereizi behar dira literatura hori behar bezala testuingururatzeko: gatazka erlijiosoa eta egoera ekonomikoa (cf. Salaberry Muñoa 2002a: 71-75). Horiek ere izan zuten eragina euskararen egoeran, ikusiko dugunez.

2.1.1. Erlijio-egoera

XVI. mendean protestantismoak ekarritako erreformari erantzun nahian mende erdialdean abiatu zen Trentoko kontzilioak eragin sakona izan zuen bizitzaren alderdi ia guztietan, Mitxelenak ([1960] 2011: 119) gogorarazten duenez. Ondoren eta ondorioz, indartsu iritsi zen katolikoaren kontrarreforma xvii. mendean Frantziara eta Espainiara, alor politikoa bi herrialdeen arteko liskarrak ugari izan baziren ere.

Tradizio idatzian eta literaturan ere nabarmen eragin zuen Kontzilioak, herritarren kristau-heziketa erregularra eta eraginkorra izan zedin neurri sistematikoak hartu baitzituen Elizak. Erreformistek Biblia egiazko fede-arau bakartzat zuten eta Trentoko kontzilioak, aldiz, tradizioari eutsi eta Bibliaren irakurketa apaizentzat gorde zuten. Elizak *Index librorum prohibitorum* delakoa sortu zuen irakurri eta argitara zitezkeen irakurgaiak kontrolatzeko, eta zentsura zorrotza ezarri zuen (Salaberry Muñoa 2001: 12). Biblia bera herri-hizkuntzetan argitaratzea debekatu zuen. Horrekin batera, *Vulgata*ren edizio egokia finkatu zen, brebiarioa eta meza-liburua zuzendu ziren, eta Trentoko katixima sortu zen (Julia 1997). Helburu didaktikoa eta moralizantea zuten liburuak bereziki bultzatu ziren latina ez beste hizkuntzetan, eta Trentoko katixima izan zen Kontzilioak latinetik itzultzea prometatutako testu bakarra. Heziketa erlijiosoaren eta moralaren kontrola lortze eta irmotze aldera, katiximak eta heziketa erlijiosoarekin eta moralarekin edo asetikarekin lotutako era askotako lanak idatzi ziren: asko ozen irakurtzekoak ziren, eta batzuk apaizek predikatu eta eliztarrek

buruz ikastekoak. Pixkanaka haur-hezkuntzara bideratutako katiximak ere sortu ziren, edo idazten eta irakurtzen irakastekoak, baina baita, Materrarena kasu, «elizatik kanpo» irakurtzekoak ere (Salaberri Muñoa 2002a: 67-68).¹

2.1.2. Egoera ekonomikoa eta politikoa

Lafittek (1941) eta geroko ikertzaile batzuek (begiratu, esate baterako Sarasola 1976: 51) ekonomiaren susperraldiarekin lotu izan dute xvii. mendearen hasierako Lapurdiko literatur loraldia; izan ere, Baiona (Hourmat 1997, Pontet 1991), Donibane Lohizune (Nogaret 1925, Darrobers 1994b) eta Ziburu (Darrobers 1992) Lapurdiko portu nagusiak izan ziren. xvi. mendean nabigazioaren hazkunde izugarriak eragina izan zuen portuen populazioan: Ziburun xv. mendearen amaieran hamabost etxe zeuden, eta, handik mende batera, ehundik gora. Urrutiko arrantza oso garrantzitsua izan zen Lapurdiren ekonomian (Turgeon 2000). Arrantza-ontzi euskaldunak xvi. mendearen hasieran hasi ziren «mundu berria», hau da, Ipar Atlantikoa, esploratzen. Lehenengo ontziak bakailoaren bila joaten ziren; ondoren, baleak harrapatzera. Ipar Atlantikora joaten ziren ontzien kopuruak azkar egin zuen gora: Donibane Lohizunen eta Ziburun 1540 urtea baino lehen zeuden ontziak gutxi izanik ere, 1560rako 42 zeuden, eta xvii. mendearen erdian 60 bat ontzi (20 baleontzi) zeuden Lapurdin. Liskarrak ere ez bide ziren gutxi kostaldeko herrien artean. Testuinguru horretan, xvii. mendearen hasieran iritsi ziren frantziskotarrak lurralde hartara, eta komentua Donibane eta Ziburu artean eraiki zuten (Nogaret 1925). Datuen iturririk aipatzen ez badu ere, Dedieuk (1977: 97) dio Materra 1610ean Baionan izan zela; beraz, agian komentuaeren sorreran ere izan zuen esku-hartzerik.

Dena den, bestelako ikerketek (cf. Mitxelena [1981] 2011: 241-243, Oyharçabal 2001a, 2001b, 2001c, Arcocha & Oyharçabal 2009) erakusten dute xvii. mendeko jarduera ekonomikoaren eta euskal liburugintzaren arteko lotura ez dela hain argia: mendeak bi alditan aztertzen badira, ikusten da xvii. mendearen bigarren erdian hasi zela euskal liburugintzaren gainbehera, nahiz eta egoera ekonomikoa ona izan xviii. gizaldiaren erdialdera arte. Berez, lapurterazko letren tradizioa baino lehen hasia zen ekonomiaren gorakada (1580-1590), tartean zenbait gorabehera izanda. Ziburuko eta Donibane Lohizuneko itsas portuen gainbehera 1740 inguruan gertatu zen. Sorkuntzaren gainbehera, aldiz, askoz ere arinago gertatua zen. Bestalde, ez da erraza ongi zehaztea Espainiaren gerrek eta xvii. mendean sinatutako bake-itunek, mugako herrien arteko liskarrek, kortsarioen erasoek, nabigazioarako eraikitako azpiegitura berriek eta beste herrialdeen lehiak xvii. mendeko ekonomian izandako eraginak (begiratu honetaz Nogaret 1925, Darrobers 1992, 1994a, 1994b, Salaber & Pailoux 1994, Hourmat 2000) eta euskarazko testuen argitalpenen mailaren eta kopuruaren arteko harremanak. Azterketa sakonagoa mezezi luke honek.

¹ Juliak (1997: 406-407) dioenez, xvii. mendean Frantziako hegoaldean dotrina ahoz irakastea ohikoagoa bazen ere, iparraldean eskoletako haurrek testuliburuetan irakurtzen zuten, buruz ikasi baino lehen. xvii. mendekoa den Materraren dotrinak erakusten du hegoaldean ere bazegoekela dotrina irakurtzeko ohitura.

Literaturaren arlora etorrita, hain eremu txikian (Lapurdin bakarrik) horrenbeste idazle jantzi dagoela ikusita,² eta garaian inprimatu ziren liburuetako hitzaurreetako erreferentziak aintzat hartuta, zenbaitek pentsatu du (begiratu Villasante 1961) atzean talde antolatua egon zitekeela: *Sarako Eskola* deitu izan dena, alegia:

Frente a la escasa e inconexa actividad anterior, aparece aquí [Lapurdin] en el siglo xvii, de modo inesperado, un círculo de autores que trabajan en estrecha relación: los nombres de unos se repiten en las aprobaciones o en los elogios en prosa y verso que encabezan los libros de los otros. Se trata de un movimiento de eclesiásticos que cuentan entre sus lectores y animadores a un cierto número de seglares instruidos. La finalidad que persiguen es ante todo de formación religiosa y de edificación, conforme a la idea ya corriente de que tanto al pueblo como a la burguesía se le debe dar alimento espiritual en su lengua natural. (Mitzelena [1960] 2011: 127)

Bide beretik jotzen du Sarasolak (1976: 43) ere:

La enseñanza religiosa conoció en este período un aire renovador, dándosele al euskera una mayor importancia. La literatura vasca se llena de catecismos, pero al mismo tiempo aparece un grupo de autores que crea una literatura ascética digna de consideración: La Escuela de Sara, que se reúne bajo la dirección de Axular. Los escritores de este grupo emplearon, siguiendo el ejemplo de Leizarraga, una lengua literaria moldeada sobre el dialecto labortano y que se conoce con el nombre de labortano (o laburdino) clásico.

Eskola horretako kideetat aurkezten ditu Urkizuk (2000: 194-202) Materra, Haranburu, Argaiñaratz, Axular, Aranbillaga eta Pouvreau (cf. halaber Mitxelena [1960] 2011: 129-130).

Nolanahi ere den, eskola hau existitu izana zalantzan jarri eta mitotzat hartzeko arrazoiak badira. Sarako eskolaren existentziaren alde, besteak beste, Axularrek «Irakurtzaileari» hitzaurrean dioena hartu izan da aintzat; alegia, lana idazteko proposamena taldean bildu ziren batzuek egin ziotela Axularri. Sarasolak (1976: 45) dioenez, bilera hartan bildu ziren Axular, Materra, Haranburu, Etxeberri Ziburukoa, Harizmendi eta Argaiñaratz, besteak beste. Hala ere, Urgellek (1991: 909-910) azaldu duenez, ezin onar liteke horrelako «topos» arrunt batetik eskolari buruzko halako

² Hona xvii. mendeko lapurterazko lanen lehendabiziko edizioen zerrenda bat:

- 1617: Materra (*Doctrina christiana*)
- 1627: Etxeberri Ziburukoa (*Manual devotioñezcoa*)
- 1631: Etxeberri Ziburukoa (*Noelac*)
- 1635: Haranburu (*Debocino escuarra, miraila eta oraciondegua*)
- 1636: Etxeberri Ziburukoa (*Eliçara erabilteco liburua*)
- 1641: Argaiñaratz (*Avisu eta exortacione probetchosac bekhatorentçat*)
- 1642: Voltaire (*L'Interpret ou traduction du françois, espagnol et basque*)
- 1643: Axular (*Gvero*)
- 1656: Pouvreau (*Guiristinoaren dotrina*)
- 1658: Harizmendi (*Ama Virginaren hirur officioac*)
- 1664: Pouvreau (*San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren philotea*)
- 1665: Argaiñaratz (*Devoten breviariora*), Pouvreau (*Gudu spirituala*)
- 1677: Etxeberri (*Liburu hau da ixasoco nabigacioneoa*)
- 1684: Aranbillaga (*Jesu Christoren imitacionea*)
- 1686: Gazteluzar (*Eguia catholicac*)

teoriarik ateratzea, hain zuzen ere garaian ohikoa baitzen hitzaurreetan antzeko konbentzioak erabiltzea, autorearen umiltasunagatik egiletzaren ardura maiz existitzen ez zen talde bati egotziz. Salaberri Muñoak (2001: 23 eta hh., 2002a: 77-79) erdibidea nahiago du: «eskola» bat baino gehiago, idazleen arteko eraginak eta, zenbaitetan, harremanak eta proiektu komunak izan zirela aldarrikatu du.

Harremanak zenbaterainokoak eta nolakoak izan zitezkeen zehaztu gabe, Salaberri Muñoak (1997: 166) erakutsi zuen Materrak eta Axularrek Leizarragaren lana aurrean izan zutela, eta, beste lan batean (Salaberri Muñoa 2002b), Axularren eta Sarako Etxeberriren pasarteak erkatuz, euskaraz idatzitako testuen bidez kultura klasikoaren transmisioa ere egon zitekeela. Beste zenbaiten artean, Axularren eta Etxeberri Sarakoaren bi pasarte hauek erkatu zituen Salaberri Muñoak:

Erraiten du Spiritu Sainduak: *Adolescens iuxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea* (Prov. 22). Nor nola gobernatzen baita gaztean, hala komunzki egiten ohi da, zahartzean ere. Orduan hartzen duen bidea, plegua, eta usantza, edukitzen du gerorat ere: ezta handik aldaratzen, hari itxetkitzen zaika. (Axular 1643: 86, *apud* Urgell 2015a)

Adolescens iuxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea. Proverb. 22. Spiritu Sainduak erraiten du, nor nola gobernatzen baita gaztean, hala comunzqui eguiten ohi dela çahartzean-ere, orduan hartzen duen bidea, plegua, eta usantça edukitcen du guerorat-ere, ezta handic higitcen, ez aldaratcen, eta hari datcheco. (Etxeberri Sarakoa c. 1718: §13, *apud* Salaberri Muñoa 2002: 313)

Urgellek (1991, 2015b) Materraren eta Axularren arteko eraginak erakutsi zituzenez,³ Materra ere transmisioaren katean sar daitekeelakoan gaude, Materra > Axular > Sarako Etxeberri hirukotea sortuz; izan ere, aurreko pasarteei Materraren honako hau gehi dakieke:

(...) ceren (Espiritu Sainduac dioen beçala) nor nola gobernatzen bai-ta gaztean, hala comunzqui eguiten ohi da çahartzean ere: orduan hartzen duen bidea edukitcen ohi du guero-ere; hari itchetquitcen çaiça, gutitan handic higitcen edo aldaratcen da. (1617: 6-7)

Orobat, otoitzetan eta hainbatetan errepikatzen ziren pasarte eta testuetan autore batetik besterako intertestualitatea ere bazegokeen. Materraren eta Haranbururen artekoa bikain azaldu du Salaberri Muñoak (2013). Hona hemen otoitz baten zati bana, Materraren dotrinaren 1623ko ediziotik eta Haranbururen *Debocino Escuarra* (1635) lanetik atereak, konparagarri:

Hau cegoen gurucean burua beheitituric; beguiac cerraturic; beguitarte horituric; saihexa idequiric, bessoac çabalduric; çangoac hedaturic; çauriz betheric; thuz visaia sacratua lohituric, ukhabilacoz larrua levaturic, çainac odol husturic; eçpaiñac carmin-duric, bihotça khechoric eta miembro guztietan terriblequi deseguinic. (Haranburu 1635: 311-312)

³ Bide batez, Materrak Axularren lanean izandako eragina frogatzeko argudioen artean *iulgatu* aldaera aipatzen da Urgell (2015b: 352, 65-8. oharra) lanean, biek bakarrik erabiltzen baitute aldaera hori. Orain, 1617ko edizioa ezagutzen dugunetik, argudioa ez da horren sendoa, hartan *iuiatu* agertzen baita sistematikoki.

Gurutcean nola cegoen burua beheituric, beguiac cerraturic, beguitartea horituric, saihetsa idequiric, bessoaç çavalduric, çangoac hedaturic, çauriz betheric eta bere miembro guztietan deseguinic. (Materra 1623: 214-215)

2.1.3. Euskararen egoera

Euskarak xvii. mendean Lapurdin zuen lekuari buruz datu zehatz gutxi dago: orain arte erabili eta proposatu diren hipotesi gehienak euskal idazleen obretako paratestuetatik ateratakoak dira (cf. Oyharçabal 1999a, Orpustan 1999). Izan ere, sasoi hartan ohikoa zen egileek noizentzat idazten zuten adieraztea (itsasgizonak, herritar xumeak...) eta idazteko hautatutako eredu berri ematea. Beste alde batetik, lan batzuk zergatik egin ziren jakitea ere lagungarri da. Euskararen hautua ez zen sinbolikoa izan, ezpada beharrianak eragindakoa, dotrina katolikoa (lehenago protestantea bezala) herritarren artean zabalduko bazen, nahitaezkoa zelako euskaraz idatzita egotea. Izan ere, sasoi hartako herritar franko euskaldun elebakarrak ziratekeen Lapurdin, Baiona eta Aturri aldeko zenbait herritan izan ezik: okzitaniera zerabilten hango hiztunek (Oyharçabal 2001b).

Euskarak herritar arrunten artean zuen indarraren erakusgarri dira, halaber, zenbait administrazio-dokumentutan agertzen diren lekukotzak, hala nola Lancrena 1612. urtean: Oyharçabali jarraikiz (2001b), sorginen auzietan arazoak sortu omen ziren, sorginak eta lekukoak euskaraz aritzen zirela eta, abade batek bere burua itzultzaile gisa aurkeztu arren, ez zuelako frantsesa behar bezala menperatzen: «encore qu'il fût bien versé en la langue basque, il n'était pas si suffisant en la langue française» (*apud* Oyharçabal 2001b) idatzi zuen inkisidoreak. Ezin utz dezakegu aipatzeke, bestalde, xvii. mendean Baionan argitaratutako liburuen erdia-edo euskaraz inprimatu zela (Barbe 1935, Desgraves 1972). Euskara irakurriak zuen lekuaz oharrezko datu esanguratsua da hori.

Sasoi hartako egileen obren hitzaurreetara jota, esan bezala, informazio interesgarria ageri da, batik bat idazleek zehaztu egiten dutenean zein hartzaile duten gogoan. Materrak bi helburu aipatzen ditu bere lana dela eta (Oyharçabal 1999a). Bata orokorra da: Frantzia eta Europa kontrarreformistan dotrina kristaua zabaltzea («Eta nola lanak cimendutic behar baitu hassi, eta gure salbamenduco obraren cimendua baita *doctrina christiana*, halatan nic ere, handic hasten naicela, hartu dut gogo liburutto hunen eguiteco, eta iendartera atheratceco»). Bestea, espezifikoa: euskaraz nola idatzi eta irakurri irakastea («eta guero ikus dadin, halaber, nola behar den euscara esquiribatu eta iracurtu»). Nori? Euskaldun elebakarrei: «Eta ceren añhitz baita Euscal Herrian iracurtcen daquienic, baiña ez euscara baicen bertce hitzcunçaric aditcen, halatan eguin ditut halacoençat euscaraz debocinozco othoitz eta oracino batçuc», azaltzen du dotrinagileak «Iracurtçailleari» atalean.

Materraren azken esaldi hori irakurrita, ikertzaile batzuek nabarmendu dute kontraesana dagoela (Oyharçabal 2001b). Izan ere, irakurleria euskaldun elebakarri zuzendu zitzaion, baina aintzat hartu behar da sasoi hartan ezer gutxi zegoela oraindik ere euskaraz argitaratuta: urrun gelditzen bide ziren Etxepareren eta Leizarragaren lanak hala kronologiaren nola ideologiaren ikuspuntuetatik, nahiz eta badakigun, esaterako, Axularrek Leizarragaren lana esku artean izan zuela (Salaberri Muñoa 2001).

Ematen du erdibideko edo goi-mailako ikasketak eginak zituztenen artean ez ezik, behe-mailako herritarren artean ere (laborari eta itsasgizonen artean, esate baterako) bazela irakurtzeko gaitasuna zuenik: tokian tokiko oinarrizko eskoletan, *ororen eskoletan* (Oyharçabal 1999b) edo irakasle pribatuena bidez ikasi bide zuten herritarrek irakurtzen eta idazten, ziur asko latinez: «Materrek dioena testuinguru horretan ulertu behar da: baziren lapurtar batzuk latinean letra ariketa zerbait landua zutenak, baina hiztun gisa euskara baizik menderatzen ez zutenak egiazki. Haiak gogoan zituela bereziki idatzi zuen bere liburua» (Oyharçabal 2001a: 19).

Haatik, honi lotuta, bada 1617ko edizioan 1623koan aipatzen ez den informazio baliagarriarik, eta lehen edizio hura begiratzetik izan ez zutenek, Oyharçabalek kasu, ezin kontuan har zezaketenik. Lehen edizioa bereziki haurrei eskainia dagoela argi esaten da Etxauzi egindako eskaintzan:

Bada, iauna, ikhussiric cein gauça beharra eta premiazcoa den haurrei haste on baten emaita eta doctrinaren eracustea, eta hartan çure ipizpicutasun hunetan anhitz Eliça-guiçon traillaatcen eta nekhatcen dela, iduritu çait hei heltceco eta laguntceco on dela hitcez erraiten dena liburuan esquiribuz edireitea, han iracurtcen dela, nabusia eta discipulua-ere hambat pena eta trailla ez-titecin. Eta hartaracotçat deliberatu dut liburuchon hunen eguitera. (1617: 7-8)

Axularren baimenak ere badakar haurrei egindako erreferentziarik: «dela obra-bat (...) mereci duena ibil dadin iendartean eta guztiz-ere escolaco haur chipi guztien es-cuetan», baina 1623ko edizioan haurrei egindako erreferentzia horiek oro ezabatu dira. Bestalde, 1623ko edizioak, luzeagoa baita, badu marinelei eskainitako zati luzea, lehenak ez bezala.⁴ Horiek horrela, lehen argitalpenak bederen haur euskaldunei dotrina irakasteko tresna izan nahi zukeen eta bigarrenak helduak zituzkeen gogoan.

Frantsesaz denaz bezainbatean, xvii. eta xviii. mendeetan indarra hartu zuen euskararen eta gaskoiaren kaltetan. Ezinezkoa da frantsesak gizartean zuen lekua erabat definitzea edo mugatzea, baina jakina da goi-mailako zenbait lanbidetan aritzeko eta kulturaz landako obrak idazteko beharrezkoa (edo gero eta beharrezkoagoa) zela: legegizon, armagizon edo elizgizon izateko, besteak beste. Materrak uste zuen euskara sasoiko erromantzeen parean zegoela, «frantsesek bezala euskaldunek ere, latina ez jakinik, euskarazko otoitz liburuak eta dotrinak behar» zituztela (Oyharçabal 2001a: 19). Alabaina, hamarkadek aurrera egin ahala, euskarak ez zituen behe-mailaren mugak gaingitu, eta frantsesak lekua kendu zion pixkanaka.

Labur esanda, kontrarreformaren balioak hedatzeko eta erraz irakasteko sortutako liburu txiki eta merkeak ziren dotrinak, ahozko mintzotik gertukoak (Salaberri Muñoa 2001: 4-8), beste hizkuntzetatik itzuliak usu, eta erruz zabaldutakoak ziren European (Julia 1997). Erreformisten eta katolikoaren arteko liskargune izandako Lapurdin, garrantzi ekonomiko handiko eremuan eta euskaldun elebakarren kopuru garrantzitsua zuen lurrian, Eliza Katolikoak ere kontrol erlijiosoa eta morala izateko saioa egin zukeen (Salaberri Muñoa 2001: 9-11); hor kokatu behar da Materraren dotrina (cf. Aldekoa 2004: §3).

⁴ Irudi du ohikoa zela marinelei itsasoan eta ekaitza heldu zenean babes espiritualak emateko horrelako baliabideak eskaintzea (cf. Arcocha 1999, 2002a, 2002b).

2.2. Materraz dakiguna: bizitza eta obra

Ezer gutxi ikertu da Materraren bizitzaren inguruan. Dakiguna, oro har, haren euskarazko obraren hitzaurreetatik ateratako informazio apurra da. Materrak baditu, dena dela, euskarazko *Do(c)trina Christianaz* haratago, beste erdal obra batzuk, eta horien azterketatik ere atera daiteke Materraren bizitzaz datu berririk.

Guk dakigula, frantziskotarraren *opera prima* 1606an Parisen Sevestre-renean argitaratutako *L'Horologe spirituel des âmes dévotes et religieuses consacrées au service de Dieu...* izenekoa da (Mattera 1606); elizgizonei zuzendutako gida modukoa da, hitzaurrean bertan Materrak azaltzen duenez. Marguerite de Gramont Tolosa Okzitaniako Santa Klarako monasterioko abadesari eskaini zion obra, eta Mattera gaskoia izan zitekeela pentsatzeko argudiotzat har dezakegu hori.⁵ Eskaintza bera Parisen sinatua dago 1606ko urriaren 4an, eta baimenak Parisko Teologia fakultateko doktore F. Le Beuf agustindarrak eta F. Sibaud-ek sinatu zituzten Parisen bertan, 1605eko azaroan. Inprimatzeko baimena 1605eko azaroaren 24an jaso zen. Urte haietan Mattera Parisen zegoela erakusten digute aurreko datuek.

Interesgarria da datei erreparatzea; izan ere, baimenak hitzaurrea sinatu baino lehen eman ziren. Horren zergatia hitzaurrean berean azaltzen zaigu. Mattera 1605eko abuztuan Paristik urrun zebilen⁶ eta bitartean norbaitek, obraren eskuizkribua lapurtuta, bere izenean argitaratu nahi izan zuen.

[M]’en estant allé bien loin d’icy l’année passée au mois d’Aoust, sur le point que ce mien petit labeur estoit proche d’estre mis sur la presse, on vsa d’vne supercherie en mon endroit, au deceu de l’imprimeur, sçavoir est, qu’un certain personnage (qui n’a pas de nom pour le present) embla mon écriture, & fit imprimer le liure à son nom: imitant en cela la Perdrix qui a accoustumé de couvrir les œufs qu’elle n’a pas ponu. Ce qu’ayant sçeu à mon retour, ie me fuis resolu de faire racler le nom de l’autre & y faire mettre le mien, comme vray aucteur du liure. (Mattera 1606: [12])

Parisa itzuli zenean, plagioa salatu zuen Materrak. F. G. Cheheré teologian doktoreak eta Parisko frantziskotarren komentuko zaindaria, eskuizkribua eta Materraren hizkia erkatuta, Materrari eman zion arrazoia, eta azala eta hitzaurrea berridazteko eta berriz inprimatzeko baimena eman zion, haren izenarekin oraingoan. Horiek horrela, liburuaren testua aurretik inprimatu zen eta baimenak orduan jaso zituen, baina iruzurgilearen izena zeraman azala eta hitzaurreak azken momentuan kendu zitzaizkion, eta Materrak 1606an sinatutakoak sartu. Cheherék Materraren egiletza baieztatzen du liburuan bertan datorren 1606ko abuztuaren 26ko ziurtagirian, eta bertan esaten zaigu autorearen Parisko frantziskotarren komentuan teologia-ikasle zebilela.

Parisko Sainte Geneviève bibliotekan gordetzen den *L'Horologeren* aleak azala aski higatua du eta ez da dena ongi irakurtzen, baina irudi luke azala zaharra dela, iruzurtiare izena daramana; izan ere, F. Charles de Marin frantziskotarraren izena da aza-lean heldu dena.

⁵ Salaberri Muñoak (2016: 249-50) paristartzat du Mattera, baina ez du datu horren iturririk aipatzen edo proposamena funtsatzeko arrazoirik ematen.

⁶ Dedieuk (1980) dio 1606an Baionako komentuko zaindaria izan zitekeela Mattera, baina ez du datu hori bermatzeko inongo iturririk aipatzen.

Labur esanda, gure ustez, Materrak Teologia-ikasketak egin zituzkeen Parisko frantziskotarrekin, nahiz eta ziur aski jatorri gaskoia izan. Paristik urrun ibili zen denbora-tartean, 1605eko abuztuan, liburua plagiatu nahi izan zion Marinek. Hala ere, Parisa itzulita, azala eta hitzaurrea aldatuta, liburua bere izenean kaleratzeko aukera izan zuen Materrak.

1607an Juan Marquez Salamancako katedradunaren obra bat itzuli zuen gaztelaniatik frantsesera *Les deux estats de la spirituelle Hierusalem Militante et triumpante...* izenpean (Mattera 1607), eta Parisen argitaratu, Fosséren inprimategian. Ordurako, beraz, gaztelaniaz bazekien Materrak. Jean de Berthier Rieuxko apezpiku eta erregeren kontseilariari eskaini zion itzulpena; berriz ere Okzitaniara begira dugu autore. Aurreko obran bezala, predikatzailen garrantzia goraiatzeko du, fede katolikoa hedatzeko lanean. 1607ko irailaren 10ean jaso zuen inprimatzeko baimena Parisko frantziskotarren zaindari F. G. Cheheréren eta karmeldarren errent F. P. Matthiuren eskutik. Erregeren pribilegioa urte bereko abuztuaren 11n lortua zuen. 1605ean Paristik urrun zegoela badakigu *L'Horologeren* hitzaurreari esker: baliteke orduan Espainian egon eta bertan hizkuntza ikasi edo hobetu izana. *Les deux estats* liburuaren hitzaurreak hori iradokitzen du:

Il semble que ce docte personnage [Juan Marquez] ayant composé cest œuvre en son langage maternel [gaztelaniaz], l'ayt voulu esclorre pour le seul profit de l'Espagne sa Patrie: Mais ainsi *qu'estant sur le lieu* i'en euz fait la decouverte, ie m'en saisy fort à propos pour le donner a nostre France. (Mattera 1607: [3], etzana gurea da)

XVII. mende hasieran Diego de la Vega frantziskotar espainiarraren lanen frantses itzulpenak argitaratzen hasi ziren. G Chappuis edo Didaco izan ziren horietako batzuen itzultzaileak, baita gure Mattera ere. Hartara, 1608an De la Vegaren lanaren izenburua *Employ et saint exercice sur les Evangiles des dimanches de l'année...* frantseseratu zuen Materrak. Hori ere Parisen inprimatu zen, Nicolas du Fosséren, bi liburukitan: bigarrenaren azalean, bide batez, *Mattere* dator idatzita idazlearen abizena.

Ordukoan Bordelera joan zen eskaintza. Estienne D'Arche Bordeleko unibertsi-tateko zuzenbide-irakasle eta hiri bereko parlamentuko abokatuari eskaini zion lana 1607ko abuztuaren 15ean, hura izan baitzen letrak lantzerako bultzatu zuena. Honetan ere Cheheré eta Matthieu Parisko Teologia fakultateko doktoreak dira baimen-emaileak; 1607ko ekainaren 25ean sinatu zuten baimena, eta urte bereko ekainaren 27an iritsi zen erregeren pribilegioa inprimatzailearentzat. Bigarren liburukian Parlamentuaren erregistroaren ebazpena ere badator, Voisin-ek sinaturik, 1607ko abuztuaren 28an.

Materraren 1617ko euskarazko *Doctrina Christiana* ere itzulpena edo moldaketa da segur aski, dotrinen generoan ohi bezala.⁷ Liburu horren atarikoek ere informazio baliagarria dakarkigute. Bordeleko Pierre de la Courten inprimategian atera zen, Baionako apezpiku Beltran Etxauzkoari eskainia dago, eta, besteak beste, bertan esaten zaigu dotrina haurrei zuzendua dela eta Etxauz izan zela Materrak euskara ikas

⁷ Horrek, gaiarekin batera, hizkuntza garatzeko eta sormenerako aukerak murrizten ditu (Salaberri Muñoa 2001: 18-22).

zezan Sarara igorri zuena. Materrak berak hitzaurrean dioenez, Saran ikasi zuen euskara, eta bertako hizkera darabil.

P. de Axularrek, P. de Guilantenak eta I. de Miguelenak sinatu zituzten, Baionako bikario orokorraren manuz, liburuaren baimenak. 1616ko abenduaren 1ean Saran eman zuen baimena Axularrek, urte bereko abenduaren 5ean Guilantenak eta hiru egun geroago Miguelenak Azkainen. Bigarrenak diosku Materra orduan Reoleko komentuko zaindaria zela. Axularrek berriz errepikatzen du liburuaren xede didaktikoa, eta eskoletan ibil dadin aholkatzen du; erreferentzia hori kendu egin zen 1623ko baimenean.

Miguel D'Oiharard bikario orokorraren baimena zeharo desberdina da 1617ko argitalpenean eta 1623koan. Bigarrenekoa latinez dago, eta laburra da; lehena, ordea, 1616ko abenduaren 12an emana, euskaraz dago «hitz latinez eguina, cençua euscaraz edireiten dela», eta luzeago dihardu. Hark azaltzen du ez dugula larritu behar euskararen akatsik topatzen badugu, Materrak hamar edo hamabi hilabetean ikasi baitzuen euskaraz, Jainkoa lagun.

Guillermus a Sancto Dionisio frantziskotarren Akitaniako probintziako ministroak ere bere baimena eman zuen Reolen 1617ko urtarrilaren 9an, eta autoreak hiri hartako komentuko zaindaria zela beste behin ziurtatu. Hori horrela, Materra Saran egon zela badakigu, agian Reoletik bertaratua, edo dotrina egin eta gero Reolera joana.

1623ko argitalpenean, esan bezala, haurrei egindako erreferentziak kendu ziren hitzaurreetatik, bikario orokorrak latinezko testu laburragoaz ordezkatu zuen euskarazkoa, eta aldaketa txikiak egin ziren gainerako baimenetan; hala ere, 1616ko eta 1617ko datak atxiki zituzten, 1623 ingurukoak ezarri gabe. 1623ko dotrina Claude de Rueil apezpikuari eskaini zion Materrak frantsesez, ordurako Etxaux Toursera joana baitzen. Guilantenaren baimenak eta Oihararden baimen laburtu eta latineratu berriak Reoleko zaindaritzat dute Materra orduan ere.

Dotrinaren lehen bi argitalpenak, 1617koa eta 1623ko bertsio zabaldua, Materraren beraren eskupean egongo ziratekeen, ez haatik dotrinak 1623koa oinarri hartuta izan zituen ondoko argitalpenak.

Ez du ematen, dena den, dotrinaren ondotik Materraren idazteko zaletasuna apaldu zenik. Badago *Estienne Materre* sinaturik agertzen den 1628ko liburu bat, *Recueil de prières en temps de contagion...* deiturikoa (Materra 1628), Rodezen Amans Gransaigne-k argitaratua.⁸ Lana Bernardin de Corneilhan Rodezko apezpikuak garai hartan zegoen izurriteari kontra egin nahian Materrari egindako enkargua da, apezpikuak berak 1628ko ekainaren 20an emandako baimenetik idoki daitekeenez. Mouyssetek (1992: 136), testua begiratuta, diosku Materra orduan Rodezko frantziskotarren komentuan zegoela, eta segur aski hala zen, liburuan argi esaten ez den arren; izan ere, Materrak hitzaurrean dioenaren arabera, izurritearen eraginpeko eremuan dagoela ematen du: «La pesante nécessité dans laquelle nous nous trouvons, à raison de l'effroyable fleau de la peste, qui nous environne de tous costez...».

1645ean *Le Directeur familial monstrant la confession...* idatzi zuen E. Materre frantziskotarra eta gurea berberak badira (Materra 1645), bazituen ordurako zenbait

⁸ Bihoakie gure esker ona Rodezko mediatekako langileei, bertan gordetzen den alearen irudiak doan igortzeagatik.

urte Materrak.⁹ Tolosan Boudereanean atera zen argitaraturik. Liburuko lehen eskaintza Simplician eta Landon Tolosako unibertsitateko Teologian doktoreek sinatu zuten, agustindarrak biak, 1644ko abuztuaren 21ean. Flous bikario orokorrak 1645eko uztailaren 24an eman zuen berea. Azkenik, San Frantziskoren ordenako obserbantzia erregularreko Akitania Zaharreko probintzialak ere Tolosako San Frantziskoko komentuan sinatu zuen bere baimena 1644ko urtarrilaren 23an. Azken horrek esaten duenez, Materra bere probintziako erlijiosoa zen. Liburu honen hitzaurrean Materrak urte batzuk lehenago liburutxo edo *livret* bat argitaratu zuela dio, *Adresse pour bien faire sa confession* izenpean, eta honakoa liburu haren bertsio osatua dela, baina ez dugu lan horren erreferentziarik inon aurkitu.¹⁰

Oso litekeena da obra horiek guztiak autore berberarenak izatea, baina 1650ean Wadding-ek ateratako katalogoan (Wadding 1650: 320) *L'Horologe* eta dotrina bairik ez ziren jaso. XVIII. mendean ateratako Juan de San Antonioren katalogoak ere horiek berak jaso zituen (San Antonio 1733: III, 108). Bertan, Baionako komentuko zaindaritzat dute Materra.

Materraren abizena kontuan izanda eta bere obrak nori zuzendu zizkion ikusita, ematen du autoreak Frantzia hegoaldean izan zezakeela jatorria. Parisen ikasten egon ondoren berriz itzuli zen sorterrri aldera. xvii. mende hastapenerako Parisen dugu ikasle Materra, eta, 1645ean oraindik argitaratzen bazuen, xvi. mendearen azken laurdenean jaiotakoa behar zuen izan. Parisen zegoenean handik urrun egindako egonaldia Espainian izatea ezin daiteke baztertu, bertan ikasiko edo hobetuko baitzuen hizkuntza, eta bertan ezagutuko baitzuten frantsesera bihurtutako gaztelaniazko obrak.

Paristik abiatu zenerako lau liburu edo itzulpen eginak zituen; beraz, 1617an euskarazko dotrina argitaratu orduko bazuen eskarmentua erdarazko testuetan. Urte hartan dotrina egiteko Sarara joan zenerako ziur aski Baionan egona zen eta Reoleko komentuko zaindaria zen. 1628an Rodezko komentuan dugu, eta 1645ean Akitania Zaharrean berriz.

Ez bide zen, horiek guztiak ikusita, edonolako fraidea Materra. Parisen ikastera iritsi zen eta kontrarreformaren mesedetan, predikarien lagungarri, liburu mordo bat idatzi eta itzuli zituen; gainera, aski bidaiari ageri zaigu. Horrekin batera, ezin utzizkoa da honako galdera hau: ez ote zen inor Lapurdin kristau dotrina euskarara itzultzeko gai, erdaldun bat ekarrarazi eta euskara ikastera bultzatzeko? Bertan genituen Etxeberri Ziburukoa, Haranburu edo Axular bera, Materraren liburuaren baimena sinatzeaz gain hamarkada gutxi batzuk geroago lapurtera klasikoaren bitxi den *Gero* idatzi zuena. Bestalde, Materrak Lapurdin denbora gutxi eman zuela kontuan izanik, zertarako hizkuntza ikasi, gero bertan apaiz edo predikari ibili ez bazen?

Datuok kontuan izanik, bestelako hipotesirik ere plazara daiteke. Materrak bazukeen izena eta fama kontrarreformaren defendatzaile sutsu gisa, dotrina idatzi zuenerako bazituelako beste lau lan kalean. Ezaguna da kontrarreformaren zabalkuntzan eta kristau-ikasbidea herri xeheari bere hizkuntzan helarazteko predikari gisa frantzis-

⁹ Eskertu nahi genieke Tolosako *Bibliothèque d'étude et du patrimoine* erakundeko langileei han gordetzen den alearen irudiak igorri izana.

¹⁰ Aurkitu dugun lanik antzekoena Zelestinoen kongregazioko Célestin Becoux izeneko beneditar batek 1621ean ateratako *Adresse pour bien faire une confession générale* da (cf. François 1777: I, 102), baina, bistan denez, ez da Materraren lana.

kotarrekin izandako garrantzia (cf. § 2.1.1). Bada, katolikoekin eta protestanteekin arteko liskarrak bizi-bizi zituen Lapurdi hartan, Materraren izenak onura ekar diezaikeekin lehendabizikoei Dupuyk (1972) «renaissance chrétienne» deiturikoa bultzatzeko, eta Etxauzek kontrarreformaren mesedetan Trentoko kontziliotik idokitako erabakiak martxan jartzeko egindako indarra kontuan hartuta (Suire 2000: 84, Salaberri Muñoa 2001: 21, Goity 2007: 105-120, Salaberri Muñoa 2016), izen hori baliatu nahi izana ez da baztertu beharreko ideia. Apezpikuak Materra Sarara bidalita, Axular ezagutu zuen dudarik gabe, eta beste batzuk ere bai, agian. Gerora baliatuko ez zuen euskara hamar edo hamabi hilabeteetan ikasi zuela sinestea baino, hobe genuke denbora hori dotrina prestatzeko erabili zuela pentsatzea, eta bertan laguntzailerik izan zuela, hizkuntza-gaietarako batik bat: ez dezagun ahantz 1617ko edizioan eta 1623koan ere Reoleko komentuan agertzen dela Materra, eta ez Lapurdin finkaturik. Predikazioak ideien transmisiorako zuen garrantzia gogoan (Salaberri Muñoa 2001: 4-8), lehendabiziko euskarazko dotrina idazle eta predikari ezagun baten izenean kaleratzeak izan zezakeen, hartara, *marketing* helburu garrantzitsua, nahiz eta hizkuntza-kontuetan bestelako laguntzarik izan.

2.3. «Materre» ala «Materra»?

«Materre» idatzi izan dute beti *Doctrinaren* egilea aipatu duten ikertzaileek. Hala egin zuten Larramendik, Vinsonek edo, berrikiago, Mitxelenak, Arcochak, Oyharçabalek eta Salaberri Muñoak, besteak beste. Hala ageri da, orobat, frantziskotarrek historian zehar egin dituzten katalogoetan, Materrak berak frantsesez idatzi zituen obretan, euskarazko *Doctrinan* frantsesez zein latinez idatzitako hitzaurre, eskaintza edo baimenetan, eta edizio guztien azalean: denetan, lehenean izan ezik.

Hain zuzen ere, 1617ko lehen edizioak «Materra» dakar azalean eta, are gehiago, Beltran Etxauzi zuzenduriko euskarazko eskaintza ere hala sinatzen du egileak berak. Hori ez eze, beste batzuek ere euskaraz idatzitako baimenetan «Materra» diote salbuespenik gabe, hala nola Axularrek, Miguelenak eta Guilantenak. Halaber, 1623ko argitalpenean ageri diren euskarazko baimenetan «Materra» gorde da, eta gauza bera gertatu da ondokoetan ere, hartan oinarritu baitziren. Horiek horrela, uste dugu «Materra» dela (euskaraz bederen) egilearen deituraren forma egokia.¹¹

Bestalde, berebiziko nabardura izan da hori lehen edizioaren (1617) aurkikuntzarako. Eginak genituen Interneten zenbait bilaketa «Materre» lemapean, baina *WorldCat* liburu-biltzaile handian «Materra» sakatzerakoan topatu genuen Kopenhageko *Kongelige Biblioteken* lehen edizio galdua gorde zezaketela iradokitzen zuen fitxa bibliografikoa: fitxa aski akastuna eta azalekoa izanik ere, horri tiraka iritsi ginen ale galduraino.¹²

¹¹ Salaberri Muñoak (2016: 248) jatorrizkotzat du «Materre» eta euskaratutzat «Materra», baina ez du horretarako argudiorik ematen eta kontrakoa ere pentsa liteke: jatorrizkoa Materra izanik, Materre izatea forma frantsesua.

¹² Salaberri Muñoak (2016: 249-50) aurkikuntzaren berri perpaus inpersonalen bidez emateaz gain, serendipiatzat du. Hitz horren esanahian —eta horretan zorteak jokatzen duen paperean— iritzi ezberdinak daude eta horietako zenbaitetan Salaberriren erabilera sartzen da; edonola ere, guk frankotan argi utzi nahi izan dugu aurkikuntza ez dela bakarrik kasualitate edo zortearen emaitza izan: formazio filologikoa jaso duen jende talde bat espezifikoki horretan lanean aritu izanaren emaitza izan da, eta ho-

2.4. Materraren dotrinaz esan direnak

Materraren dotrina frankotan aipatu dute euskalari eta ikertzaileek. Haatik, 1617ko edizioa inork ez bide du begien aurrean izan.¹³ Atal honetan Materraren idazlanaz esan direnak jaso eta iruzkindu ditugu, batez ere 1617ko edizioa agertu izanak ilun zirauten hainbat kontu argitu dituen neurrian.

Larramendik (1745: xxxv), Materraren dotrina aipatu zuen lehen ikerlariak, 1616ko edizio bat aipatu zuen; baita Michelek (1857, *apud* Vinson 1891: 51) ere, Larramendiri jarraikiz. Hori dela eta, liburuak bi edizio izan zituela proposatu zuen: 1616koa eta 1617koa.

Ondoren, Vinsonek (1891: 51 eta hh.) bere bibliografian azaldu zuen Larramendik izan bide zuen nahastea: Vinsonek dioenez, Larramendik esku artean izan zuen aleak ez zuen azalik izango, eta, horren ondorioz, inprimatze-baimenen datak erabiliko zituen edizioa datatzeko. Vinsonek Oxfordeko alea izan zuen esku artean, ez 1617ko alerik. Halere, zenbait proposamen egin zituen 1623ko alea erabilita, lehen edizioak bide zituen izenburuaz eta orrialdeez. Oxfordeko 2. argitalpenaren alearen 176. orrialdean «Francis de Esparbem guataluna de Murguy. 1617» eskuz idatzitako lerroak irakurri zituen Vinsonek, datarekin zalantzak agertu arren, 1637 edo 1757 ere irakurri baitzitekeen. Horren kokagunea abiapuntu, zenbait hipotesi egin zituen: Vinsonen ustez, bazitekeen Oxfordeko alea edizio berri bat ez izatea, ezpada 1617ko edizioaren lehenengo bi zatiei 177. orrialdetik aurrerakoak eta izenburu berria gehituaz osaturikoa.

Salaberri Muñoak (2007: 776) erakutsi zituen Vinsonen hipotesiaren ahulguneak, horretarako zenbait argudio emanaz. Horiez gain, orain Oxfordeko alea formalki aztertuta, garbi ikusten dugu Vinsonen hipotesia okerra zela, koadernatzea bat eta barkarra baita; ez da alderik atzematen inoiz bereizita egon zitekeen atal edo pleguen artean. Plegu guztietako ur-markak ere berdinak dira, gainera. Salaberri Muñoak (2007: 777 eta hh.), Vinsonen hipotesiari tiraka, aurrera egin zuen, eta zehaztu zein zati ezin zitekeen hartu lehenengo ediziotik: azaleko orria, xxv-xxviii. orrialdeak («Iracurçailleari»), 177-384. orrialdeak eta amaierako aurkibidea («Thaula»).

1623ko argitalpena berria edo aski egokitua dela dio Salaberri Muñoak (2007: 780). Kontu horretan arrazoi du, berregite/berregokitze-maila oso handia da. Alabaina, era berean, Materrak ahal izan zuen guztia bere horretan utzi zuela ere egia da: esaldi osoak, galde-erantzunen atala eta otoitzak, besteak beste, nahiz eta badiren ezberdintasun interesgarriak ere.

Salaberri Muñoak (2007: 781), bestalde, 1617ko ediziotik 1623kora erredakzioan aldeak egon zitezkeela baieztatu zuen; besteak beste 1623koan datozen «hala biz» horiek *amen* ziratekeela. Haatik, 1617ko edizioan ere euskarazko otoitzetan «hala biz» ageri da.

rrelako aukikuntzak gertatzeko, ezagutza eta baliabideak ezinbestekoak dira. Bestalde, ez zen hain bitxia edizioaren aleren bat Europako bibliotekaren batean egon zitekeela pentsatzea: ez da ahaztekoa 1623ko edizioaren *unicuma* Oxforden dagoela, Mikoletaren eskuizkribua Londresen, *Refranes y sentencias* en ale baldua Darmstadt, Etxeparerena Parisen...

¹³ Haranburuk berak *Debocino Escuarra* (1635) idazteko dagoeneko bigarren edizioa erabili zuen (Salaberri Muñoa 2013).

Hartara, Salaberri Muñoak (2007: 784-785) ondorioztatzen du 1617ko edizioako oso material gutxi berrinprimatu zela, bere horretan, 1623an: aztertzaileen oniritzia eta, gehienez ere, horren aurreko plegua (beharbada azala erauzita eta edizio berriarena ezarrita); hots, 1. koadernotxoa eta xvii-xxiv. orrialdeak. Orain badakigu azalean, hitzaurreetan eta oniritzietan ere aldaketak izan zirela.

1624an, Jacques Millanges inprimatzailearen heriotzaren ondoren egindako inbentario batetik datu interesgarriak atera zituen Salaberri Muñoak (2008), beste behin ere: inbentario horretan «425 Catéchisme en basque, in-4^o, en une balle» aipatzen da. Inbentarioaren data ikusita eta data horrekin inguru horretan ezagutzen den katixima bakarra Materrarena zela aintzat hartuta, zenbait proposamen egin zituen: 1617ko aleak zirela, 1623ko edizioarenak zirela, edo oraindik ere banatu gabe leudekeen hirugarren batekoak zirela. Alabaina, Salaberri Muñoak ongi ikusi zuen ezin zitezkeela 1623ko edizioarenak izan, «in-8» egina baita edizio hori. Orain badakigu 1617ko edizioa ere ez zitezkeela izan, hura ere «in-8» egina baita.

Inbentario horren 516. orrialdearen ifrentzuan beste lan bat ere aipatzen dela diosku Salaberri Muñoak (2008: 104), *Doctrina Christiana* izenekoa. Desgravesen (1977: 71) ustez, Materraren dotrina genuke hori, baina ez du horri eusteko argudiorik ematen. Hain zuzen ere, Salaberri Muñoak argudio falta hori nabarmentzen du, eta gogorarazten bigarren edizioan izenburua *Doctrina Christiana* dela, ez *Doctrina*. Orain badakigu 1617koak *Doctrina* dakarrela izenburuan, baina ez zuen Millangesek inprimatu; beraz, ez dirudi Millangesen inbentarioan agertzeko arrazoi asko dagoenik.

Beste alde batetik, Arcochak eta Oyharçabalek (2009), 1617ko edizioa ezagutu gabe, aski begi zorrotzez ikusi zuten Etxauz izan zela Materraren *Doctrina Christiana* babestu bide zuen apezpikua, hark kontrarreforma bultzatzeko garai hartan izandako politikagatik. Hala ere, 1623ko edizioan ez dago apezpikuari erreferentzia egiten dion aipu bakar bat ere; 1617ko edizioa, aldiz, Etxauzi eskainia da.

Urgellek (2015b: 656), Mujikak (2002: 183-4) esandakoetan oinarrituz eta sistema grafikoen mintzo delarik, Materrak herskari hasperendunak idazteko funtsean Leizarragaren sistema baliatu zuela dio (<pp>, <th> eta <k>); alabaina, 1623ko edizioan hala izanagatik ere, 1617koak beste sistema bat du (begiratu § 6.1.2.2), Etxeberri Ziburukoaren lanetatik aurrera ere badena. Orobat, Axularrek txistukari palatalentzako *igilic*, *jugen* edo *lajoa* bezalako grafiak gaitzetsi izana *ichilic*, *chuchen*, *lachoa* bezalakoan mesedetan, Materraren testuan agertu izanari egotzi diote autore zenbaitek (Salaberri Muñoa 2013: 646, 29. oin-oharra, Urgell 2015a). Orain badakigu baieztape horrek 1623ko ediziorako baizik ez duela balio, 1617koan Materrak <x> baitarabil sistematikoki.

3 EDIZIOAREN ATARIKOAK

3.1. Obrak izandako argitalpen eta aleak

Materraren dotrina arrakasta handiko lana izan zen. Horren erakusgarri dira xvii. eta xviii. mendeetan izandako argitalpen eta birmoldatze ugariak. Edizio honek lehen bi argitalpenak baizik ez baititu kontuan hartzen, horiek deskribatu ditugu luzeen, baina zilegi bekigu ondorengo edizioez ere zertzeladarik ematea, baita amaieran edizio guztiak kontuan hartzen dituen *stemma* proposatzea ere.

3.1.1. 1617ko argitalpena

3.1.1.1. Alearen historia

Dotrinaren lehen edizioa, Bordelen Pierre de la Court-enean inprimatua, orain arte galdutzat jo izan da, euskal letren historian inork inoiz ez baitu ezagutu haren alerik 2014ko negura arte. Kopenhageko (Danimarka) Errege Bibliotekan (*Det Kongelige Bibliotek*) gordetzen da «Th. bis 35486» katalogo-zenbakiarekin, eta 1617ko edizioaren ale ezagun bakarra da une honetan.

Alearen jatorriaz denaz bezainbatean, badakigu Charles-Étienne Jordan-en (Berlin, 1700-1745) bilduma zabaletik datorrela (tardean eskuizkribu zaharrak eta liburu debekatuak zeuzkana: besteak beste, Leizarragaren Testamentu Berri protestantearen ale bat). Jabea frantses higanot errefuxiatuen familia batean jaio zen eta letra gizon jakintsua omen zen, apaiz edo ministro protestantea eta Prusiako errege Frederick II.aren adiskidea. Alearen azken jabea, aldiz, Otto Thott (1704-1785) Danimarkako konde, politikari eta bibliofiloa izan zen: 138.000 liburuz osatutako ondarea biltzera iritsi omen zen. Segur aski Jordan hil eta gero 1747an Berlinen egindako enkantean erosi zuen alea, bere katalogoko 15439 zenbakia duena (s.a. 1789: 397).¹⁴ Kondea hil ondoren, 1789an haren bildumaren zati handi bat, erlijio-liburuei dagokiena hain zuzen, Kopenhageko Unibertsitateko Bibliotekak erosi zuen enkantean, eta ordutik bertan egon da Materrarena ere. Gerora, Kopenhageko Unibertsitateko funtsak Errege Bibliotekara lekualdatu ziren.¹⁵

¹⁴ Bide batez, katalogoaren orrialde horretan bertan *Bayonaco diocesaco bi-garren catichima* lanaren ale bat ageri da, eta hura ere Kopenhageko bibliotekan dago gordeta egun.

¹⁵ Bihoakio gure esker ona Susanne Budde bibliotekako langileari, atal honetan eskainitako informazioagatik.

3.1.1.2. *Alearen deskribapena*

Liburuak, kanpotik neurtuta, 11,5 cm luze, 8,5 cm zabal eta 1,6 cm sakon du, eta orriek 11 cm luze eta 7,6 cm inguru zabal. Estalkiak larruz estalitako kartoi gogorrez egin ziren. Estalkien izkinak eta ertzak apur bat higatuta daudelako jakin daiteke kartoi delatarruaren azpian dagoena. Aurreko zein atzeko estalkietan eta ertzean urre koloreko bi zirrinde daude, alearen apaingarri. Liburuaren paperak ttantto gorriak ditu hiru ertzetan. Bizkarrean ez dira nerbioak nabarmentzen, baina etiketa zahar eta higatu bat du itsatsirik goiko aldean. Hau irakur daiteke bertan:

B.U.H.

No

Alegia, *Bibliotheca Universitatis Hafniensis*, eta *Numero*. Eskuz idatzia behar zuen signaturak bertan, baina ez dago. Errege Bibliotekan bertan baieztatu zigutenez, etiketa horrek erakusten du liburua unibertsitateko bibliotekakoa zela jatorrian. Gai-nontzean, enkoaderazioak ez du beste inongo testurik.

Liburuak ez du goardarik, baina bi kortesia-orri zituen hasieran, eta bat bukaeran. Ordea, aurreko estalkiaren ondoren zegoen lehendabiziko kortesia-orria eta amaierakoa falta dira. Baliteke estalkiaren ondoko kortesia-orriak aurreko jabearen izena eraman izana; izan ere, Jordanen *ex-librisa* bigarren kortesia-orrian itsatsi zen, falta den lehenengo orri hori erauzi ondoren. Hori jakiteko, aski da ikustea *ex-librisa* itsasteko kola guztiz lehertu baino lehen itxi zela liburua eta, ondorioz, *ex-librisaren* zati bat estalkiaren barruko aldera itsatsita geratu zela transferentziaz. Horri esker badakigu *ex-librisaren* eta estalkiaren arteko kortesia-orria ez zegoela *ex-librisa* jarri zenerako, eta, gainera, liburuak ordurako bazuela enkoaderazio hori. Jordanek, beraz, liburua kortesia-orririk gabe eta enkoaderazio horrekin erosi zuen jadanik, eta hala jaso zuen ondoren Thottek ere. Gainera, ez dago aurreko enkoaderazio zaharrago baten arrastorik.

Esan dugun bezala, Jordanen *ex-librisa* bigarren kortesia-orriaren gainean itsatsi zen. Argiaren kontra begiratuta egiaztatu ahal izan dugu orri horrek ez duela inongo testurik edo sinadurarik, *ex-librisak* estaltzen duenik. Azalean, halere, badago sinadura edo filigrana bat. Tamalez ez da irakurtzen erraza, baina Danimarkako Errege Bibliotekan daukaten datu-basean begiratuta, ez dirudi Otto Thottena denik.¹⁶

Papera egoera onean dago, nahiz eta orri batzuek tarteka hezetasun-orban batzuk dituzten. Paper berjuratua da, jakina. Puntuzoiaren artean 1 mm edo 1,1 mm dago eta beti bertikalean daude liburu osoan: korondelak, beraz, ezker-eskuin. Orri bakoitzak lau korondel ditu beti, eta haien arteko distantzia ez da beti bera: 2,6; 2,7; 2,9 cm inguruko distantzia dago batetik bestera.

Liburuak bederatzi plegu ditu, A-tik I-ra zenbatuak, eta zortzina orri pleguek: 16 orrialde guztira. Azken plegua ez dago osorik: azken orria falta zaio, liburua aurreko orrian bukatzen baita. Azala ere lehen pleguaren parte da.

¹⁶ Bihoakio gure esker ona Jarle Rui Aadna Danimarkako Errege Bibliotekako langileari, sinadura kokatzen saiatuz hartutako lanagatik.

Ur-markak beti lehen eta bigarren korondelaren artean kokaturik ageri dira, beti orriaren kanpoaldeko ertzean eta beti moztuta, zoritxarrez. Pleguaren azken bi orrietan, 7.ean eta 8.ean agertzen dira sistematikoki (cf. 1. diagrama). Horrek esan nahi du pleguan ur-marka bat eta bakarra dagoela, plegua tolestuta azken orrietan geratzen dena. Zoritxarrez, orrien kanpoaldeko ertzean geratzen denez, plegua moztean edo gillotinatzean oso litekeena da markaren zati bat, erdialdekoa, desagertu izana. Ematen du B eta C pleguek ez dutela ur-markarik, edo gillotinak osorik jan dituela.


4	1
5	8 UR
6	MARKA 7
3	2

1. diagrama

Pleguaren berreraiketa-proposamena


Marka ez da oso argi ikusten: ahula da eta ez oso txukun egina. Moztuta agertzeak, bestalde, identifikazioa zailtzen du. Ematen du mahats-luku bat adierazten duela markak, edo hostoak agian, baina ez dago batere garbi.

77. eta 80. orrialdeetako markak elkartuta (1. irudia), 2. irudian dagoena berreraiki ahal izan dugu.



1. irudia

Ur-marka: zatiak elkartuta



2. irudia

Ur-marka: berreraiketa-proposamena

1. taula

Ur-marken banaketa (plegua, orria eta orrialdeak zehaztuta)

Plegua	Orria	Orrialdeak
A	7	13-14
A	8	15-16
D	7	61-62
D	8	63-64
E	7	77-78
E	8	79-80
F	7	93-94
F	8	95-96
G	7	109-110
G	8	111-112
H	7	125-126
H	8	127-128
I ¹⁷	7	140-141

3.1.2. 1623ko argitalpena

3.1.2.1. Alearen historia

1617koa agertu baino lehen, Materraren dotrinaren argitaraldi ezagun zaharrena 1623ko *Dotrina Christiana* zen (Bordele, Jacques Millangesen inprimategia), eta Oxfordeko (Erresuma Batua) *Bodleian Library*n gordetzen den ale bakarrari esker eza-

¹⁷ Esan bezala, azken plegu hau ez dago osoa eta I-8 orria falta da, baina ur-marka zegokion, segurasko.

gutzen genuen («8° M 30 Th. Seld.» signaturapean). Jakina denez, Materrak berak dotrinaren hitzaurrean baitiosku, 1617ko edizioa du oinarri, baina franko luzeagoa izateaz gain, antolaketa berria du 1623ko edizioak, hiru zatitan (cf. § 3.2). Bigarren argitalpenaz baino gehiago, edizio berri batez mintzatzea ez da zentzugabekeria.

Alaeren historiari dagokionez, badakigu liburuak John Selden (1584-1654) izan zuela azken jabe, haren bilduma erraldoiaren barnean baitago katalogatua. Liburuzale ingelesa zenduz gero, haren bildumaren zati bat (8.000 ale inguru) *Bodleian Library*ra igaro zen (1659an), herentziaren arduradunek hala agindurik. Izan ere, Vinsonek (1891: 53) «dagoeneko» liburutegiaren 1738ko katalogoan badagoela dioskun arren, egiaztatu ahal izan dugu Materraren *Dotrina* 1674koan (Hyde & Bodley 1674) agertzen dela lehenengoz: ez da azaltzen 1620koan, jakina, ezta horri 1635ean egin zitzaion eranskinean ere. Hortaz, ondoriozta dezakegu ziurrenik 1659. urtetik daukatela alea Oxforden.

Seldenek bere liburutegia hainbat jatorritako liburuz osatu zuen. Batzuk alor akademikoetan ibilitako jendearen dohaintzak dira, beste batzuk besteren liburu-bildumen erosketetarik etorriak, usu jende ezagunarenak izandakoak (Sir Robert Cotton, John Donne edo John Dee-renak, kasu), eta badira egileek berek egindako opariak ere; gehiengoa, ordea, berak erositako liburu berriak edo, neurri apalagoan, bigarren eskukoak dira, eta ez denak ingelesak: bilduma aberatsa da hizkuntza kopuruari dagokionez.

Alabaina, Materraren liburuak berak aurreko jabe batzuen lekukotza dakar, erabat argitzerik izan ez dugun arren. 1623ko edizioaren bigarren atalaren azken orrialdean (ifrentzuan), liburuaren aurreko jabe batzuen izen-deiturak izan litezkeenak datoz eskuz idatzirik, data batekin. Tinta berberaz eginikoa dirudien gurutze moduko marka bat ageri da, berriz, ondoko orrialdearen goialdean, hirugarren atalaren izenburuaren gainean, alegia. Horrek, eta data 1617 bezala irakurtzeko aukerak, Vinsoni (1891: 53) pentsarazi zion ale hau ez ote zen egiazki lehenbiziko edizioaren (lehen bi parteak) eta bigarren ediziorako berariaz prestatutako hirugarren partearen artean osatua (cf. § 2.4). Salaberri Muñoak (2007), dena dela, Materraren hitzaurreari kasu eginik eta testuaren barneko arrazoi batzuen bidez, horren kontra egin zuen; orain, 1617ko lehen edizioko alea aurkiturik, haren ikuspegia egiaztaturik geratu da, eta, hortaz, argi dago eskuizkribaturik ageri den datak 1623 ondotik idatzia behar duela izan, irakurketak irakurketa. Areago, zorioneko aurkikuntzaren aurretik ere bagenuen Vinsonen hipotesia baztertzeko moduko beste froga bat: 1623ko ale osoan ur-marka bera ageri da: lis-lorea.

3.1.2.2. *Alearen deskribapena*

Materraren lanaren bigarren edizioaren alea non dagoen jakin arren, azken mende luzean (dakigula, Vinsonez geroztik) inork ez du hartara zuzen-zuzenean jo: mikrofilmen kopiak, kopien kopiez osatutako aleak eta jabeek «zuzendutako» edo «apaindutako» kopiak erabili eta argitaratu dira azken hamarkadotan, harik eta Oxfordeko originala bertatik bertara kontsultatu dugun arte, frantziskotarraren testuak bestelako tratua merezi zuelakoan. Horri esker jakin dugu, esaterako, aleak ez duela jatorrizko enkoaderazioa atxiki: *Bodleian Library*ren berriz enkoaderatua eta errestauratua ematen du. Enkoaderazio berrian estalkiak holandar puntadun erara eginda daude. Bizkar eta puntetako larrua eta oihala marroi ilun kolore berekoak dira. Bizkarrean lau

nerbio ikusten dira. Lehenaren eta bigarrenaren artean, etiketa berde baten gainean MATERRE jartzen du urre koloreko letretan. Bigarren eta hirugarren nerbioaren artean 30 dio, pintzel batez-edo idatzirik ematen duten karaktereetan. Hirugarren eta laugarrenaren artean, urrez berriz ere, 8° / M. 30. / TH SELD signatura dator.¹⁸ Horrezaz gain, harien alde banatan eta goiko eta beheko ertzetan urre koloreko marra edergarriak daude. Paperaren mozketa kaña erdikoa da aurrealdean, eta burua zuria da, inongo dekoraziorik gabea.

Liburua zabaldua, enkoaderazio berriarekin batera jarritako goarda dago, liburuarena berarena baino paper lodiagoan. Amaieran atzeko estalkiarentzako beste goarda bat dago, jakina. Kortesia-orri bat dator gero, amaieran falta dena. Kortesia-orri hori errestituraturuta dago; beraz, oso litekeena da amaierakoa galdu izana.

Papera, espero bezala, berjuratua da, eta kalitate onekoa. Orriak 110 × 55 mm-ko tamaina du eta bi korondel ikusten dira bakoitzean. Korondelak gutxi gora behera elkarren artean hiru zentimetroko distantzian daude kokatuta. Hamar puntuzoi kontatzen dira zentimetro batean, milimetro bateko distantzian. Papera ongi kontserbatua dago: ez du onddorik, ez intsektuen arrastorik, ezta fibra askorik ere, eta gutxi dira zinkinkeria-orbanak. Hasierako orriek batez ere, ertz eta bazterrak higatuta edo hautsita dituzte, nahiz eta normalean paper faltak ez duen karaktererik ukitu. Higatutako orri gehienak errestituraturik daude eta falta zen paper zatia berrezarri zaie. Gutxi izanik ere, karaktere batzuk higadurak jan ditu, edo errestiturazioko paper berriak estali. Karaktere horiek kasu batzuetan eskuz gehitu dira, baina ez beti. Hain zuzen ere, orrien errestiturazioan gehitutako paperak estali zituen karaktere horiek; kopia faksimiletan ez, baina ale originalaren orriak argiaren kontra begiraturik ongi ikus daitezke, eta ziurtasun osoz transkribatu, berreraikitze beharrik gabe.

Ur-marken kokapena ez da batere sistematikoa. Lis-lorea garden ikusten da gehienetan, baina beste bi markak ez dira erraz identifikatzen. Normalean, altuerari dagokionez, orriaren erdian kokatzen dira, eta tolesgunean edo tolesgUNETIK gertu, eskuin aldetik moztuta, eta horrek identifikazioa zailtzen du. Hona hemen orrietan aurki daitezkeen ur-marken adibide bana:



3. irudia

1. ur-marka: 27. or.



4. irudia

2. ur-marka: [xvi]. or.



5. irudia

3. ur-marka: 363. or.

¹⁸ *Th. hori Theologia* hitzaren laburdura da, bibliotekan liburuak fakultateka sailkaturik baitzeuden. Lau ziren fakultateok: Teologia, Jurisprudenzia, Medikuntza eta Arteak.

4. eta 5. irudiak zenbaitetan plegu berean agertzen direnez, eta horietan zein orritan azaltzen diren ikusita, badirudi ur-marka beraren bi zati ere izan daitezkeela.

2. taulan ur-marka bakoitza non kokatzen den jaso dugu.

2. taula

Ur-marken kokapena

Plegua	Orria	Orrialdeak	Ur-marka
u	3	[iv]-[v]	1
ẽ	1	[xvi]-[xvii]	2
A	4	7-8	2
B6		27-28	1
C	4	55-56	2
E	6	75-76	1
G	5	105-106	1
H	3	117-118	Daturik ez
K	5	153-154	1
N	4	199-200	3?
O	6	219-220	Daturik ez
Q	4	247-248	2
Q	5	249-250	3?
R	6	267-268	1
T	4	295-296	2
T	5	297-298	3
V	6	315-316	1
Y	5	245-346	1
Z	3	357-358	2
Z	6	363-364	3

3.1.3. Ondorengo argitalpenak

Obraren ondorengo edizio guztiek 1623ko argitalpen zabaldua izan dute oinarri. Dakigunez, 1648koa da Materraren kristau-dotrinaren hirugarren argitalpena. Izenburuan, haatik, «bigarren impressioea» dela esaten zaigu: horrek erakusten du ez zutela 1617ko edizioa 1623koaren aurrekaritzat hartzen, lehena inoiz ezagutu bazuten. Agen-en argitaratu zen, I. de Gayauren inprentan. Esan bezala, funtsean 1623koaren berrargitalpena bada ere, hark ez dituen latinezko testu gehiago ditu hitzaurre-baimezen eta testu nagusiaren artean. Hain zuzen ere, 1648ko edizioan, euskarazko zatia-zen aurretik, latinezko kristau-egutegia, dotrina laburra, meza esateko eta erantzuteko modua, ebanjeliotik hartutako Pasioari buruzko zatiak eta Jauna hartu aurretik egin behar diren otoitzak gehitu ziren, denak ere latinez. Gainera, liburuaren amaieran latinez idatzitako otoitz gehiago erantsi zitzaizkion, eta aurkibidea kendu zitzaion. Ez dirudi dagoeneko jatorrizko egilearen esku-hartzerik izan zenik edizio honen prestaketan: haatik, ez da moldatzailearen ez moldatzaileen beraren aipurik inon. Momentuz liburuaren ale bakarra ezagutzen dugu: berau L. L. Bonaparteren funtsean dago, Chicagoko (Illinois, AEB) *Newberry Library*yn.


Laugarren edizioaz den bezainbatean, 1693an argitaratu zen, Baionan, Piarres Dussarraten inprimategian. Argitalpen honen oinarrian 1648koa badago ere, aldaketa eta emendio ugari ditu; argitalpena Duronea apaizaren ardura izan zen eta berak eginak bide dira aldaketak. *Bouqueta lore divinoena, bereciac eta Duronea apezac T.P.S.V. Aita Materren liburuari emendatuac* da edizioaren izenburua. Izenburuaz gain, liburuak baditu bestelako desberdintasun batzuk aurreko aleekin konparatuta: ortografian aldaketak egin ziren, testu-aldaera ugari daude eta hainbat orrialde gehitu eta lekualdatu ziren; besteak beste, ebanjelio zatiak amaierara eraman zituen Duroneak. Bestalde, liburuaren hasieran hainbat hitzaurre-baimen, denborari buruzko tratatu laburra eta euskarazko kristau-egutegia erantsi ziren. Amaieran, latinezko salmoa, ofizioa eta bestelako otoitzak gehitu ziren, tartean euskarazkoren bat. Egun argitalpen honen hiru ale ezagutzen dira: Julio Urkixoren funtseko alea, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegian gordea (Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia); ia osorik dago, eta orrialde batzuk eskuz kopiatuak ditu. Lacomberen funtseko alea, Vinsonek (1905: 218-219) ezagutu ez zuena, Azkue Bibliotekan (Euskaltzaindia, Bilbo) dago egun; oso higituta dago eta orrialdeen erdia baino gehiago ments du. Azkena L. L. Bonaparteren funtseko alea da, *Newberry Library* dagoena (Chicago, Illinois, AEB).

Dakigularik, azken argitalpena 1704koa da, eta *Dotrina Christiana* izena berrezarri zitzaion. Honi erantsitako azpтитuluan iradokitzen denez, gehiketak eta zuzenketak egin bide zitzaizkion: «Azquen impressionea debocinozco othoitz, eta oracino batçuez berreturic, eta leheneco falta guztiac corregituric Bayonaco iaun ipizpikuaren manuz». Baionan argitaratu zen Maffreren inprentan, «Bors contognetan».¹⁹ Izenburua gorabehera, ortografian, egituran eta gehitutako ataletan ikus daitekeenez, 1693ko alea hartu zen oinarri. Hala ere, edukiaz den bezainbatez, 1648kotik gertuago dago. Hark bezala, hasieran latinezko kristau-egutegia du, eta horrekin batera dotrina laburra eta meza esateko eta entzuteko modua dakartza, latinez horiek ere. Azkenik, jatorrizko zatiaren ondoren, ebanjelio zatiak eta *Antiphona* delakoa daude. Labur esanda, edizio hau 1693kotik abiatu zen ortografiari, atalen ordenari eta testuaren dispozizioari dagokionez, baina 1648ko argitaraldiko edukietara mugatu, 1693ko Duronearen zituen gehiketak sartu gabe. Momentuz ezagutzen dugun ale bakarra Madrilgo *Biblioteca Nacional de España*n dago.

3.1.4. *Stemma*

Orain arte esandakoa kontuan izanda, edizio guztiak barne hartzen dituen *stemma* hau proposa dezakegu:

¹⁹ Hots, «Bors cantognetan», Etxeberri Ziburukoaren *Noelac* argitaratu ziren leku berean.



2. diagrama

Eskuizkribu eta argitalpenen *stemma*

LEGENDA:

———— Jatorri zuzena (ziurra).

----- Jatorri zuzena (aukeretako bat).

-----> Litekeen eragina.

Ω testuaren arketipoa (Materrak buruan zuena).

α 1617ko ediziorako prestatutako eskuizkribua.

A 1617ko alea.

β 1617ko edizioa bi partetan bereizia eta hirugarren partea gehituta, agian Materrak berak aurreko eskuizkributik (α) nahiz argitaraldi hartako ale batetik (A) abiatutako eskuizkribua.

B1623ko alea.

γ 1623ko argitaraldiko ale batetik abiatutako testua, gehiketa batzuk dituen.

C 1648ko alea.

δ (γ)-tik edo argitaraldi hartako aleren batetik (C) abiatutako Duronea apaizak moldaturiko (eta punturen batean emendaturiko) testua.

D 1693ko alea, gehiketekin.

E 1704ko alea; 1693ko argitaraldiko ale batetik abiatutako (D), baina 1648ko argitaraldiko edukietara mugaturik; hots, D aleetako gehiketarik gabekoa (baina gainerakoan haren berdina, atalen ordenari eta testuaren disposizioari dagokionez).

3.2. 1617ko eta 1623ko argitalpenen arteko konparaketa

Lan honetan irakurleak 1617ko argitalpenaren (A) eta 1623koaren (B) artean dauden desberdintasunak ikus ditzake. Parentesi artean emandako zenbakiek dagoen argitalpenaren orrialdea adierazten dute. Euskarazko testua baizik ez dugu alde-ratu; frantsesez edo latinez dauden pasarteak konparaketatik at geratu dira. A oinarri hartuta, B-n dauden hizkuntz diferentziak testuan bertan islatu ditugu eskuin aldean kokatutako ohar zenbatuen bidez.²⁰ Ohar horietan desberdintasun lexiko, fonologiko eta morfosintaktikoak jaso dira batez ere, hizkuntzaren historiarako interesgarriak diratekeenak. Irakurketa arintze aldera, ohar horietatik kanpo geratu dira edizio batetik bestera dauden desberdintasun grafiko (ia) sistematiko zenbait, bi argitalpenen makroegituren arteko konparaketa, eta mikroegiturako aldeak ere bai. Jarraian azalduko ditugu horiek.

3.2.1. Grafia

Zerrenda honetan desberdintasun grafiko ohikoenak jaso ditugu, adibide zenbaitekin batera, sistematikoak edota maiztasun handikoak direnean.²¹ Hiru puntu ezarri dira adibide guztiak bildu ez direnean.

/j/ bokalerdia

A <i>²²: B <y> A11 çatequeiela : B[viii] catequeyela, A126 ezteiric : B10 ezteyric...

Grafia etimologikoak

A <tst> : B <st> A36 ardiestecoac : B47 ardiestecoac...

Herskari hasperendun belarra

A <kh> : B <k> A17 Ikhussi : B[xvi] Ikussi...
 A <kh> : B <k> A51 bakhoitz : B57 bakoitz...
 A <kh> : B <k> A45 bekhatuen : B5 bekatuen...
 A <kh> : B <k> A11 ikhasteko : B[ix] ikasteco...
 A <k> : B <k> A59 markac : B67 markac...
 A <k> : b <k> A85 kaltearen : B87 kaltearen...
 A <k> : b <c> A122 kalteric : B123 calteric...
 A <kh> : B <qu> A73 ukhitcen : B74 uquitcen...

²⁰ Kontuan har beza irakurleak B-tik ateratako adibide eta pasarte guztiak argitalpen horretarako finkatutako edizio-irizpideen arabera eman direla, eta ez datozela beti bat A-n erabilitakoekin (cf. Irizpideak § 3.3).

²¹ Grafia desberdinek kontu grafiko hutsez gain alde fonetikoak ere irudikatzen dituzketenean jaso dira adibide guztiak, batez ere.

²² Bokalerdia artean <i> dakar A-k, baina gure edizioan horiek guztiak <i>-ra aldatu ditugu (cf. Irizpideak § 3.3 eta Gramatika § 6.1.4).

/i/ ondoko sudurkariaren bustidura

A <iñ> : B <in>	A50 egundaiñoz : B55 egundainoz, A54 escuiñeco : B61 escuineco, A57 compaiñia-bat : B65 compainia, A57 ceifetan : B65 ceinetan, A70 escuiñeco : B15 escuineco, A73 ceifec : B75 ceinec, A127 ceifec : B126 ceinec.
A <in> : B <iñ>	A30 seinaleaz : B41 seiñaleaz.

Herskari biezpaukariaren aurreko sudurkaria

A <mb> : B <nb>	A45 cembait : B52 cenbait...
-----------------	------------------------------

Ozen ondoko txistukaria

A <ntç> : B <nç>	A11 hitzcuntça : B[ix] hitzcunça, A73 esperantça : B75 esperança, A74 dauntçanac : B76 daunçanac.
A <ntc> : B <nc>	A73 fidantcia : B75 fidancia.
A <nc> : B <nç>	A138 ordenancen : B137 ordenançen.
A <nç> : B <ntç>	A14 hitzcunça : B[xiii] hitzcuntça.
A <rc> : B <rtc>	A93 berce : B94 bertce, A137 bercela : B136 bertcela.
A <rç> : B <rç>	A130 esporçua : B129 esportçua.

Beste txistukariak

A <z> : B <ç>	A59 ezagutceco : B67 eçagutceco.
A <x> : B <g>	A122 xeheroqui : B122 geheroqui.
A <x> : B <j>	A129 xahutcea : B127 jahutcea.

Kontsonante bikoitzak

A <ss> : B <s>	A45 partaletassuna : B5 partaletasuna...
A <ff> : B <f>	A44 iffernuetara : B4 ifernuetara...

3.2.2. Liburuaren makroegitura

Orobat, oharren aparatutik atera nahi izan ditugu A-ren eta B-ren artean dauden edukiaren eta antolaketaren desberdintasunak. Gorputz nagusiari dagokionez, A-n dotrinako otoitz eta gainerako ikasgaiak galdera-erantzunen bidez azaltzen dira, hamahiru kapitulutan, bestelako atal nagusirik bereizi gabe. B-k lehen edizioak baino testu gehiago du, eta antolaketa ere desberdina da. B-k hiru parte ditu. Lehendabizikoan buruz jakin beharreko dotrina dakar, huts-hutsean. Bigarren zatian, ordea, dotrinaren azalpena dator, galdera eta erantzunen bidez iruzkindurik. Hirugarren parte, luzeena, fededunek kristau-bizitza behar bezala eramateko, garai eta egoera desberdinetan izan beharreko jokabide, eginbehar eta otoitzei buruzkoa da. Bertan dago, besteak beste, marinelei zuzenduriko atal ezaguna. Horrez gain, A-k ez bezala, B-k aurkibide bat dakar bukaeran. Azkenik, ezin ditugu bekatuak aipatu gabe utzi. B-k hainbat kapitulu eskaintzen dizkie, baina, bitxiki, A-k aipatu arren, ez ditu zereendatzen, ez eta azaltzen ere.

Jarraian bi edizioetako edukien arteko konparaketa eskematikoa aurkezten dugu, ezberdintasun orokorrak hobeto hauteman daitezzen. Ikusiko denez, B-ren lehen partearen izenburua soilik ageri da dagokion lekuan: haren peko kapituluak bigarren partean eman ditugu, parentesi zuzenen artean, lehen edizioko zein atalekin bat datozen erakusteko,²³ eta zenbaki erromatarrez adierazi dugu haien arteko hurrenkera.

A	B
Doctrina Christiana (azala)	Dotrin[a] Christiana (azala)
Guiristinoac iaquin behar dituen gauçen declaracinoa. Bi presuna elkarren artean minço bai-lira beçala, galdeguinez eta ihardetsiz eguina. (azala)	Bigarren impressionean debocinozco othoitz eta oracino batçuez berreturic. (azala)
Aita Esteve Materra San Franciscoren ordenaco fraidearen lanaz. (azala)	Aita Esteve Materre San Franciscoren ordenaco fraideac hirur partetan eguina. (azala)
Bordelen, Pierre de la Court imprimaçalearenean (azala)	Bordelen, Iacques Millanges erregeruen imprimaçaillearenean (azala)
1617 (azala)	1623 (azala)
	Liburuaren hiru parteen azalpen laburra ([i])
Eskaintza: Beltran Etxauzi (eus) (3)	Eskaintza: Claude de Rueili (fr) ([ii])
Hitzaurrea: Euscaldunei (11)	Hitzaurrea: Euscaldunei ([viii])
Examinaçaleen approbacinoa (17)	Examinaçaleen approbacinoa ([xvi])
P. de Axular (eus) (17)	P. de Axular (eus) ([xvi]) [1616ko datarekin, baina A-koaren apur bat ezberdina]
P. de Guilantena (eus) (18)	P. de Guilantena (eus) ([xviii]) [1616ko datarekin, baina A-koaren apur bat ezberdina]
I. de Miguelena (eus) (19)	
Miguel D'Oiharard (eus) (21)	M. D'Oiharard (lat) ([xx]) [1616ko datarekin, baina A-koaren ezberdina]
Fr. Guilleumus à Sto. Dionisio (lat) (23)	Fr. Guilleumus à Sancto Dionisio (lat) ([xxii]) [1617ko datarekin, baina A-koaren ezberdina]
	Bigarren edizioko hitzaurrea: Irakurçailleari ([xxiv])
	Lehen partea. Guiristinoac iaquin behar duen doctrina declaracino gabe (1)

²³ Gogoan izan A-n batera datorrela dotrina hutsa eta horren deklarazioa, eta B-n lehen eta bigarren parteetan banatu direla horiek.

A	B
Doctrina Christiana. Guiristinoac iaquin behar dituen gauzen declaracinoa (25) [cf. azaleko azpitu-luan «...galdeguinez eta ihardetsiz eguina»]	Bigarren partea. Guiristinoac iaquin behar duen doctrinaren declaracinoa, galdeguinez eta ihardetsiz eguina. (36)
1. Guiristinoaren icenaz. (25)	1. Guristinoaren icenaz. (36)
2. Guiristinoaren seinaleaz. (30)	2. Guiristinoaren seinaleaz. (41)
3. Guiristinoaren eguinbideaz. (34)	3. Guiristinoaren eguinbideaz. (44)
4. Fedezaz. (29)	4. Fedezaz. (50)
5. Articulu fedezcoez. (43)	[III. <i>Credo in Deum.</i>] (3)
6. Articulu fedezcoen declaracinoa. (47)	5. <i>Credoan</i> dauden articulu fedezcoen declaracinoa. (53)
7. <i>Credoan</i> diren hama-bi articulu en errepartimenduaz. (66)	[VII. Articulu fedezcoac.] (11)
8. <i>Pater noster</i> aren declaracinoa. (72)	[I. <i>Pater noster</i> euskaraz.] (1) 6. <i>Pater noster</i> aren declaracinoa. (74)
9. <i>Ave Mariaren</i> eta <i>Salvearen</i> declaracinoa. (89)	[II. <i>Ave Maria.</i>] (2) [IV. <i>Salve Regina.</i>] (5) 7. <i>Ave Mariaren</i> eta <i>Salve Reginaren</i> declaracinoa. (91)
10. Iaincoaren manamenduez. (99)	[V. Iaincoaren manamenduc.] (7) 8. Iaincoaren manamenduen declaracinoa. (100)
11. Eliça Ama Sainduaren manamenduez. (124)	[VI. Eliçaren manamenduc.] (9)
12. Eliçaco sagaramenduez. (126)	[VIII. Sagaramenduc.] (17) 9. Elizaco sagaramenduen declaracinoa. (125)
13. Gure azquen fineco gauçez. (140)	[XX. Laur azquen finac.] (34) [IX. Verthuteac.] (18) 10. Çazpi verthute principalen declaracinoa. (139) [X. Perfecioneko conseilluc.] (19) 11. Perfecioneko conseilluen declaracinoa. (146) [XI. Obra misericordiazcoac.] (20) [XII. Espiritu Sainduaren dohaiñac.] (23) 12. Espiritu Sainduaren dohaiñen declaracinoa. (152)

A	B
	[XIII. Çortci dohatsutassunac.] (24) 13. Çortci dohatsutasunen declaracinoa. (155)
	[XIV. Bekatuen differenciac.] (25) 14. Bekatuen diferenciaren declaracinoa. (161)
	[XV. Bekatu mortal buruçaguiac.] (26) [XVI. Çazpi bekatu mortalen erremedioac.] (27) 15. Bekatu mortal buruçaguien declaracinoa. (168)
	[XVII. Espiritu Sainduaren contraco bekatuac.] (28) 16. Espiritu Sainduaren contraco bekatuen declaracinoa. (172)
	[XVIII. Iaincoaren aiticinean oihuz mendecu esque dauden bekatuac.] (30)
	[XIX. Bertceren bekatu uquitcen gaituztenac.] (31)
	[XX. Arimaren etsayac.] (33)
	Hirurgarren partea. Debocinozco othoitz eta oracino batçuc bere demboretan eguin eta erran behar direnac (177)
	(...)

Espero zitekeen bezala, liburuaren hitzaurre eta eskaintzetan bada alderik. A edizioa artean Baionako apezpiku Beltran Etxauzi eskainita dago, eta euskaraz zuzentzen zaio idazlea. B, ordea, Claude Rueil apezpiku berriari doakio, frantsesez eskainia.

Baimenei dagokienez, B-koek lehen edizioari legozkiokeen 1616ko eta 1617ko datak izan arren, A-koekiko aldeak agertzen dizkigute. A-k Axularrena, Guilantena-rena eta Miguelenarena dakartza euskaraz, bai eta Baionako bikario orokor Oiharardena ere, euskaraz, baina grafia berezian emana (edo, berak dioen moduan, hitz latinez, baina zentzua euskaraz aurkitzen dela). Azkenik, frantziskotarren Akitaniako ministro probintzialarena dator, latinez. B-n, ordea, Axularren eta Guilantenaren baimenek aldaketa batzuk dituzte; Axularrenetik haur txipiei egindako erreferentzia kendu da, esate baterako, eta Miguelenaren baimena falta da osorik. Oiharardena, oraingoan, latin hutsez dakar (lehenbizikoaz guztiz bestelakoa eta askoz laburragoa), ministro probintzialarena bezala. Azkenik, beste hitzaurre bat dago B-n, «Iracurçailleari» zuzendua, bigarren argitalpen horren nondik norakoak zehazten dituena.

3.2.3. Mikroegiturako aldeak

B-ko lehen bi parteek A dute oinarri, nahiz eta batetik bestera egindako jauzian badiren forma aldetik B-n desberdinak diren esaldi eta testu zatiak. Batzuek autoreak berak egindako aldaketak dirudite; beste batzuek, aldiz, hutsak. Jarraian, topatu ditugun aldeak adieraziko ditugu, atalez atal.

Fedeaz atalean: A40ko bi galde-erantzunak (orrialde osoa) eta A41eko lehenaz ez daude B50-51n:

- Galdeguita. Fedeac cer eguiten deraucu?
 Ihardestea. Fermuqui sinhets aracitcen deraucu eguiazco Iaincoa baithan, ikhussiric ecen hura dela içaite-bat hasteric eta akhabatceric ez-tuena.
 Galdeguita. Cer eguiten deraucu esperançac?
 Ihardestea. Eçar aracitcen deraucu gure fidancia guztia Iaincoa baithan, ikhussiric ecen harc duela bothere guztia, handi hutsez ecin neurth ditequeiena. <41>
 Galdeguita. Eta cer eguiten deraucu caritateac?
 Ihardestea. Maita aracitcen deraucu Iaincoa gauça guztien gaiñetic, ikhussiric ecen hura dela gure ontassun guztia.

Atal bereko azken «galdegitea» ere (A43 «Erraçu bada *Credoa* euscaraz») ez dago B-n, *Credoa* bera lehen partean esana baitago.

Artikulu fedezkoen ataleko hiru galdera-erantzun (A46-47) falta dira B-n:

- Galdeguita. Cer arraçoin gatic eguin çuten *Credo* haur?
 Ihardestea. Guri fedezco gauçac eracutsteagatic.
 Galdeguita. Certaco dira hama-bi articuluac?
 Ihardestea. Iainco eguiazcoa fedeaz eta sinhetsteaz guri eçagut aracitceco.
 Galdeguita. Laburzqui minçatcera, cer eduquitcen dute bere baithan hama-bi articulu hauc? <47>
 Ihardestea. Iaincoaz eta Eliça sainduaz sinhetsi behar dugun guztia.

Artikulu fedezkoen deklarazinoa atalean, hamaikagarren artikuluari dagozkion galdera eta erantzuna (A64) falta dira B73-n (inprentako akatsa da nabarmen):²⁴

- Galdeguita. Nola aditcen duçu hameca-garrena, erraiten denean «haraguiaren piztea»?
 Ihardestea. Egundaiñoco guiçon eta emazte guztiaç piztuco direla munduaren azquen finean, eta iaiquico biciric bere leheneco gorputcequin.

Beste behin, *Credotik* ateratzen diren artikulu fedezkoak B-n deklarazio gabeko partean bakarrik agertzen direnez, A-ko 7. kapituluko lehen «galdegite» luzea (A66) ez dago B11-12n:

- Galdeguita. Erran duçu aitcineon *Credoaren* hama-bi articuluac bere baithan eduquitcen dutela Iaincoaz eta Eliça Sainduaz sinhetsi behar den guztia: orai nahi nuque iaquin cembat pontu edo articulu athera ahal ditezqueien beregainqui hama-bi articulu hetaric.

Pater nosterraren deklarazinoa ataleko azken galdera eta erantzuna (A88), *amen* hizari buruzkoa, B-n gorago dator (85-86), hain zuzen ere «Oracino haur norc eguina da?» (A84, B86) galderaren aurretik.

Ave Mariaren eta Salbearen deklarazinoa ataleko «Erraçu *Ave Maria* euscaraz» (A90) eta «Erraçu orai *Salve Regina* euscaraz» (A97) aginduak B-n ez daude, edizio horretako lehen partean ez baita galdera edo agindurik otoiitzen aurretik.

²⁴ Hamabigarren artikuluarekin ere, guztiz ezabatzera iritsi ez baziren ere, arazo teologiko are larriagoa ekar zezakeen hutsa egin zuten (cf. A65 eta B73).

Halaber, *Jainkoaren manamenduez* ataleko (A101) galdera-erantzun hauek ez dira B-n ageri, arrazoi beragatik:

Galdeguitea. Cembat dira manamendu hauc?
Ihardestea. Hamar.
Galdeguitea. Erraitçu Euscal-Herrian usatcen diren beçala.

Harrigarriro, atal bereko testu zati handixko hau (A108-109) falta da B-n:

Galdeguitea. Oraï erradaçu: ba-daquiçu segurqui cer fede eta sinhetste eman behar çaicán sorguinez dabilan solhasari eta eguitecoari?
Ihardestea. Ez segur, ez-taquit nic, eta ez-tut uste dela lurraren gaiñean-ere da-quienic, ceren haur da eguiteco-bat itsua, ilhuna, barrena eta egundaiño nehorc ecin claratu duena, eta-ez hondarrean ukhitsu, ceren sorguin direla diotenec berec-ere ez-tute fermutassunic, ez-taquite cer minço diren: egun gauça-bat, bihar bertce-bat erraiten dute, atço aithortu çutena egun ukhatcen dute; halaco moldez ecen cembatenaz nehorc eguia ikhassi nahiz escuac barrenago sartcen bai-titu, hambatenaz campoanago guelditcen da.

Aldiz, *supersticios*, *heretiko* eta *pagano* delakoez galdera-erantzun berri bana daude B107-109n.

Eliza Ama Sainduaren manamenduez ataleko azken galdeguitea (A125 «Ba-da bertce gauçaric Eliçac manatcen edo debecatcen duenic?») ez dago B-n (arestian aipaturiko berrantolatzeagatik) eta, ondorioz, erantzunaren hasiera ere moldaturik ageri da B10en.

Arazoi berak desagerrarazi du B34n, lehen edizioko *Gure azken fineko gauzez* ataleko galdera (A140):

Galdeguitea. Gure *doctrina christianaren* laur parteac akhabatu ditugunaz gueroz, oraï haren finean gure azquen fineco gauçeç behar dugu minçatu. Erradaçu bada: cein eta cembat dira gure azquen fineco gauçac?

3.3. Edizio-irizpideak

Edizio filologiko eta kritikoetan ohi denez, aurretiaz finkatu ditugun irizpideen arabera paratu ditugu Materraren dotrinaren 1617ko (A) eta 1623ko (B) argitalpenen testuak. Horretarako, hainbat aldaketa, zuzenketa eta egokitzapen egin ditugu, hala jatorrizko aleak nola dotrinaren beste edizioak aintzat hartuta.

Materraren *Do(c)trina Christianaren* lehenengo edizioak ez du arazo paleografiko handirik: oso edizio zaindua da eta, oro har, ondorengo argitalpenek baino akats gutxiago ditu, nahiz eta batzuk badauden. Testuaren txukuntasuna txukuntasun, lau mende igaro dira argitaratu zenetik eta, orduz geroztik, hizkuntza ez ezik, testuak irakurtzeko modua ere aldatu da; beraz, zenbait egokitze- eta eguneratze-lan eskatzen ditu gaur egungo ikuspegitik. Testuaren irakurketa arintzeko eta errazteko, eta dauden arazoak zuzentzeko, edizio kritikoa prestatu dugu. Lan paleografikoari dagozkion aldaketak oin-oharretan adierazi ditugu, ohiko eskema honen arabera:

declaracino] testuan *declaracinp*

Azalpenak ere oin-oharretan eman dira. Gainera, 1617ko testuan alboko oharren bidez 1623ko argitalpenarekiko aldeak deskribatu ditugu.

1623ko edizioari dagokionez, oin-oharretan 1617ko alearen testu-pasarteak aipatu ditugunean, A hizkia eta jatorrizko orrialde-zenbakia aurkituko ditu irakurleak.

Lehenik eta behin, 1617ko eta 1623ko aleak aztertuta, testuaren transkribapen hiperpaleografikoa egin dugu, testuak ez ezik, aleek zituzten ñabardura guztiak ere jasotzeko; bigarrenik, aintzat hartuta testu inprimatua dela eta testua irakurtzeko zein ulertzeko ez dela hainbesteko xehetasunik behar, transkribapen eta deskripzio hiperpaleografikoa zena erdipaleografiko bihurtu dugu: ezabatu egin ditugu hitz-eta lerro-banaketak, pleguen zenbakiak eta bestelako ohar hiperpaleografikoak. Hori da, hain zuzen ere, funtsean hemen emango dugun bertsioa.

Nolanahi ere den, irakurleari testuaren ulermena errazte aldera, beharrezko irizki diogu transkripzio erdipaleografikotik harago jotzeari, eta hainbat aldaketa eta zuzenketa egin ditugu, hala testuaren ulergarritasuna hobetzeko nola ulergarritasunaz haragoko zenbait hizkuntza-arazo konpontzeko. Zehazki, ondoren zerrendatzen diren aldaketak sistematikoki egin ditugu, eta horien salbuespenak eta bestelako zuzenketa puntualak oin-oharren bidez eman:

1. Testuaren alderdi formalak eguneratu ditugu: besteak beste, paragrafoak ezker-eskuin lerrokatu ditugu eta hasieran koska eman diegu, eta izenburuak erdiratu ditugu.
2. Testua egungo ortotipografia-arauen arabera moldatu dugu:
 - Puntuazioa eguneratu dugu. Nahiz eta kasu guztietan arau edo gomen-dioak zurrun betetzea erraza ez izan, testua xxi. mendeko irakurlearen-tzat ulergarriago bihurtzeko aldaketak egin ditugu; perpausen irakurketa anbiguoak saihesteko eta irakurketa arintzeko, puntuazio-markak kendu, gehitu eta aldatu egin ditugu.
 - Letra larriak eta xeheak egungo arauen arabera ezarri ditugu. Erljio-testua izanik, jatorrizkoan erlijioarekin lotutako izen eta izenondo ugari agertzen dira letra larriz; honako hauek izan ezik, gainerakoak xehez eman ditugu: *Iainco*; *Andre dana Maria*; *Virgina Andre*; *Virgina Maria*; *Doctrina Christiana* (bere obraz ari denean); *Eliça* (eta *Eliça Ama Catholica Saindua*, *Eliça Ama Saindua*, *Eliça Catholica*, *Eliça Catholica Saindua*); *Espiritu Saindua*; *Trinitate Sacratua* eta *Trinitate Saindua*.
 - Letrakera etzanaren erabilera eguneratu dugu.
3. Jatorrizko orrialdeen zenbakiak mantendu ditugu, < > artean adierazita. Orrialde baten zenbakia falta den kasuetan, geuk jarri dugu [] artean. Orrialdearen amaieran hurrengo orrialdeko hitz baten zatia edo hitz horri dagokion deia dagoenean, hitza osorik eman dugu, zenbakia adierazi baino lehen: *hi- <2> tza* → *hitza <2>*.
4. Falta diren letrak edo hitzak [] artean berreskuratu ditugu.
5. Oro har, laburdurak hedatu ditugu. B-n, baina, elkarrizketetako «Galde.» eta «Ihar.» eta aurkibideko «p.» eta «pag.» hala mantendu ditugu testua gehiegi ez desitxuratzeko.

6. 1617ko argitalpenean (A) jatorrizko hitzen banaketa gorde dugu, edizio honetan aski sistematikoa delako eta kontzientzia morfologikoaren gaineko informazio baliagarria ematen duelako. Hitz eta morfemak espazio baten bidez edo marratxo baten bidez banatzen ditu Materrak sistematikoki, eta salbuespenak bakanak direnez, zeuden bezala utzi ditugu. Marratxoak morfemamuga edo lerro-amaiera markatzen duen zalantza izan dugunean, egilearen ohitura nagusiari jarraiki gatzaizkio, marratxoa utzi edo kentzeko. Horra salbuespen bakan batzuk marratxoen erabileran:

— *garren*: gidoiaren bidez bereizten du Materrak morfema hau, nahiz eta gidoirik gabeko adibide batzuk badauden: A115 *çortci garrena*, A118 *bederatci garrenean eta hamar garrenean*, baina A57 *bederatci-garrena* eta A63 *hamar-garren*.

— *bat*: determinatzailea denean, gidoiaren bidez bereizten du Materrak morfema hau, nahiz eta gidoirik gabeko adibide bakar bat baden: A48 *seme bat*.

— *bait*: oro har, gidoi bidez bereizten du adizkitik, baina salbuespen bat bederen badago: A5 *baicara*.

— *ez*: aditz laguntzailearen aurrean dagoenean, gidoiarekin edo gabe aurki dezakegu: A60 *eztutela* baina A105 *ez-tutela*, A128 *ikhusten ez-tena*, baina A60 *ikhusten eztena*, eta abar.

— *ba*: gidoiaren bidez bereizten du aditz trinkotik. Kausitu dugun salbuespen bakarra A105 *badaquigu* da.

7. 1623ko argitalpenean (B) hitzen banaketa arazo-iturri da batzuetan. Oro har, ahoskerari edo morfologiari buruzko informaziorik galtzen ez denean, hitzen banaketa gaurkotu dugu, Materrak gidoiaren bidez lotutako elementuak bereiziz. Bestalde:

— *garren* atzikia dagoen moduan (batzuetan bereiz, batzuetan lotuta) uztea erabaki dugu.

— Aditz nagusia eta laguntzailea bereizi ditugu, betiere tartean aldaketa fonologikorik ez badago.

— *bat* determinatzailea bereiz idatzi dugu.

8. Honako grafia-aldaketa hauek sistematikoki egin ditugu A-n eta B-n:

— <f> luzeak <s> bihurtu ditugu.

— /u/ adierazteko <v> darabilenean, <v> → <u> bihurtu dugu. Aitzitik, /b/ adierazteko <u> darabilenean, <u> → <v> bihurtu dugu.

— Sudurkaria adierazteko bokalaren gaineko diakritikoa agertzen denean, diakritikoa kendu eta sudurkaria jarri dugu: <n> zein <m> adieraz dezaketenez, dudazko kasuetan testuan joera nagusia zein den, hala jokatu dugu (*lebenbico* & *lebembico*, adibidez).

— <Ç> adierazten duten <C>-ak → <Ç> bihurtu ditugu. <Ç> tipo larriaren falta ohikoa bide zen inprimategietan, Materraren ondorengo idazle batzuen lanetan ere ez baita ageri. Bestalde, <a>, <o> edo <u> aurrean <c> → <ç> bihurtu dugu txistukaria denean.

— <ü> → <u> eta <i> → <i> aldatu ditugu.

- Letrakera etzan larrian tipografikoki <J> den karaktere bat <I>-ren balioarekin erabiltzen du Materrak adibide bakan eta asistematikoko batzuetan: A17 *Jaun, Jhardeftea* (A-ko adibide gehienetan), B377 *Jaincoaren*. Horiek denak <I> bihurtu ditugu.
9. Herskari belar hasperenduna adierazteko hainbat grafema eta tipo ditu testuak. Bere horretan utzi ditugu, maiuskula txikiak izan ezik: <k> → <k> egin dugu. Bestalde, A-n jatorrizko testuan letra etzanetan dauden pasarteetan <k> letrakera biribilean egonik ere, inprentan tipo aproposik ez egoteagatik segur aski, guk etzanean eman dugu.
10. Latinez idatzitako pasarteetan, honako irizpideak erabili ditugu:
- Bokala nahiz kontsonantea adierazi, <j> → <i> aldatu dugu (adb.: *fīlij* > *fīlii*)
 - /u/ adierazteko <v> darabilenean, <v> → <u> bihurtu dugu. Aitzitik, <u> balio kontsonantikoaz darabilenean, <u> → <v> bihurtu.
 - Laburdurak hedatu ditugu (adb.: *ē* → *et*)
 - Diakritikoak kendu eta hitzak osorik eman ditugu.
 - Puntuazioa eguneratu dugu.
 - Tiletak kendu ditugu.
 - Letra larri eta xeheen banaketa eguneratu dugu.
11. B-n dauden frantseseko pasarteak editatzeko, Barbichek (s.d.) xvii-xviii. mendeetako testuak emateko gomendioei jarraikiz aritu gara.

Doctrina Christiana

**Guiristinoac iaquin behar dituen gauzen declaracinoa.
Bi presuna elkarren artean minço bai-lira beçala,
galdeguinez etaⁱ ihardetsiz eguina.**

Aita Esteve Materra San Franciscoren ordenaco fraidearen lanaz.

Bordelen, Pierre de la Court imprimaçalearenean, 1617.

<3>

Beltran de Echaus Baionaco ipizpicu, erregueren conßeillari eta lehenbico erremosinariari, Fray Esteve Materra San Franciscoren ordenaco fraideric chipiena,ⁱⁱ ontassun eta ossasuna.

Iauna, iragan den demboraco iendeac hain ciren <4> arduratsu eta axolduriⁱⁱⁱ bere hurren gainean, eta hain ceducaten contu handia norc berei ongui eracusteaz eta aztura onen emaiteaz, non iduritcen bait-ceien, behin ongui haciz guero, on eta prestu baitcen ecin ciratequeiela. Halatan Hyppodamus ceritçan filosofo battec erraiten ohi çuen herri ongui ordenatu baten cimenduric principalena hurren ongui haztea eta khidatcea cela. Eta eguiazqui arraçoina ceducan, ceren haurtassuneco aztura eta usantça hain da borthitz eta botheretsu, non erraiten bai-tu Platonec-ere, nola irakatsia bai-tate bat-bedera <5> bere haurtassunean, hala bicico-ere dela bertce gaiñeraco demboran. Eta nola lehenagoco filosofo hec eguiazco Iaincoaren eçagutçaric etçutenac bait-ciren, erraiten çutenean hurrei hastetic ongui eracutsi behar ceiela, et-çuten aditcen ongui eracuste hura Iaincoaren cerbitçatceco eta arimen salbatceco behar cela, baiña aditcen çuten hura guztia munduco arauaz iendartean prestuqui eta ohorez bicitceco premiaçco gauça cela. Baiña guc (nola guiristino eguiazco fedeaç arguituac baicara) eztugu munduco prestutasunaz eta iendarteco tratuaç <6> hambat contu eguiten nola eguiazco Iaincoaz eta haren fedeaç, legueaz eta beldurtasunaz. Eta

ⁱ eta] testuan *era*.

ⁱⁱ Ematen du *chipienac* behar duela, ergatiboan, baina mota honetako akats bakarra litzateke. Absolutibo eskatzen duen beste egitura bat ere izan daiteke.

ⁱⁱⁱ *axolduri*: 'arretatsu, arduratsu'.

halatan, erraiten dugunean haurrei haurretic eracutsi behar çaiela ongui, aditcen da eracutsi behar çaiela nola eta cer moldez behar duten laincoa onhetsi, cerbitçatu eta, haren manamenduac complituric, bere salbamendua ardietsi. Eta haur dela uste dut guiristinasuneco pontu principalenetaric bat, edo principalena, ceren (Espiritu Sainduac dioen beçala) nor nola gobernatcen bai-ta gaztean, hala comunzqui eguiten ohi da çahartcean ere: orduan hartcen <7> duen bidea eduquitcen ohi du guero-ere; hari itchetquitcen çaiça, gutitan handic higitcen edo aldaratcen da.

Bada, iauna, ikhussiric cein gauça beharra eta premiazcoa den haurrei haste on baten emaita eta doctrinaren eracustea, eta hartan çure ipizpicutasun hunetan anhitz eliça-guiçonⁱ travaillatcen eta nekhatcen dela, iduritu çait hei heltceco eta laguntceco on dela hitcez erraiten dena liburuan esquiribuz edireitea, han iracurtcen dela, nabusiaⁱⁱ eta discipulua-ere hambat pena eta travailla ez-titecin. Eta <8> hartaracotçat deliberatu dut liburucho hunen eguitera.

Ordea, iendartera ilkhitcecotz, çure icenaren eta itçalaren azpian behar du ilkhi, ceren halatan içanen da etsaietaric ongui beguiratua. Eta arraçoïñaren eta çucenaren arauaz-ere ene euscarac bere lehenbico agurra eta eçagutça çuri eguin behar cerautçun, ceren nic hitz-cuntça hunetan daquidan guztia çuri çor bai-terautçut: çure errana gatic, çuc esporçaturic, bihotz emanic, eta are egoiteco lekhoa-ere çuc cerorrec Saraco herria seiñalaturic, daquidana han ikhassi bai-tut. <9> Eta hala, baldin ene enseiu hunec ohoreric edo laudorioric batere merci ba-du, çuri dagotçu guehiena eta principalena, ceren çu içan bait-çara hunen cimendua eta ithur-burua. Lagun çaquitça beraz, errecibi eçaçu beguitarte onez, deffenda eçaçu, fabora eçaçu, ceren esperança dut halatan ongui ethorria içanen dela, imbidioseco kalte guti eguinen diotela, eta are hec guztiaç garaituric, nic esperança dudana beçala, ontassun handi-bat, guztiz-ere iende xehearen artean, eguinen duela. Bitartean, obligatu naicen beçala, eguinen diot Iaincoari <10> othoitz diçula çeure desira onen complimendua, eta bere Eliçaren aitcinamendutan anhitz urthez bicitceco indar eta garacia.

Çure cerbitçariric chipiena,
Fr. Esteve Materra.

<11>

Euscaldunei

¹ ([viii]) (Euscal Herrico ez naicelariç)

Miretsicoⁱⁱⁱ duçue, aguian, nic, Euscal-Herrico ez-naicelariç,¹ euscaraz esquiribatceco ausartciaren hartcea. Baiña baldin considerada ba-dadi, edirenen duçue eztela gauça hunetan ausartciariç, eta

ⁱ eliça-guiçon] testuan *Eliça-guiçon*.

ⁱⁱ *nabusia*: 'nagusia'. Iparraldean *nabusi* da hobekien lekukotzen den forma xvii. mendearen erdialdera arte (cf. *OEH*, s. v. *nagusi*).

ⁱⁱⁱ *Miretsico*: 'harrituko'.

ez cer miretsiric, aiticic, bertcela eguin ba-nu miretsi behar çatequeiela eta erran ahanci ceitala² neure eguin-bidea. Ceren Iaincoac niri hitzcuntça hunen ikhasteco ance aphur-bat³ eman derautanaz gueroz, <12> iduritzen çait hoben nuqueiela, eta are eçagutça gutitaco eta esquer-gabe içanen nincela, baldin Euscal-Herrian ikhassia Euscal-Herrico probetchutan emlegatu ez-panu. Evangelioço cerbitçari alfer hura gaztigatu çuen bere nabusiaco, ceren irabacian erabiltceco errecibitu çuen talentua eta dirua estalia eta ehortcia eduqui çuen. Handic içan naiz ni-ere beldur hala guertha cequidan, baldin euscaraz minçatceco ardietsi dudan talentua eta iaquina, probetchu gabe eta arima irabacian emlegatu <13> gabe,⁴ ehortcia eta gordea eduquitzen ba-nuen. Eta et-çait iduri ascoⁱ dela cadiratic predicatuz probetchu eguitea eta eracustea, baiña are uste dut⁵ esquiribuz-ere behar dela enseiatu eta travaillatu. Eta nola lanac cimendutic behar bai-tu hassi, eta gure salbamenduco obraren cimendua bai-ta *doctrina christiana*, halatan nic-ere, handic hasten naicela, hartu dut gogo liburuch⁶ hunen eguiteco, eta iendartera atheratceco, hunetan, bertce eracusleric eztenean,⁷ ikhus dadin laburzqui cer-ere <14> sinhetsi, obratu eta escatu behar bai-ta, eta guero ikhus dadin, halaber, nola eta cer molde behar den euscara esquiribatu eta iracurtu.⁸

Gaiñeracoan, ba-daquit Euscal-Herrian anhit⁹ molde minçatzen direla, eta nori bere herrico euscara çaicala hoberenic eta ederrenic. Handic gogoac emaiten deraut^{10, ii} ene esquiribatceco molde haur etçaiela guztiei ongui idurituco. Baiña nahi dut iaquin deçaten halacoec nic hitzcunça hunetan daquidana Saran ikhassia dudala, eta hango <15> euscara ongui erabiltzen ba-dut ez-naicela gaitz erraiteco, eta-ez arbuatceco,ⁱⁱⁱ ceren ez-pai-taquit nic hangoa baicen. Ordea ea Saraco euscara denz Euscal-Herrico hoberena eta garbiena, ez-naiz ni hartara¹¹ sartcen, bat-bederac emanen du bere iduriric. Eta Saraco euscara hunetçaz content ez-tenac esquiriba¹² beça bertce euscara hobeago batez eta hobequiago; ez-naiz ni hargatic bekhaiztucio, eta ez imbidios içanen.

Finean hemen den guztia borondate on batequin Iaincoaren <16> ohoretan eta arimen probetchutan eguina da. Hala, beraz, errecibi eçaçue, eta çuen oracinoetan eta ontassunetan partale eguin naçaçue.¹³ <17>

Examinaçaleen approbacioa

Ikhussi dut Baionaco iaun vicario generalaren manuz *Doctrina Christiana*¹⁴ daritçan liburu-bat Aita Materrac eguina, eta edireiten

ⁱ asco: 'aski'.

ⁱⁱ gogoac emaiten deraut: 'iruditzen zait, irudipena dut' (cf. *OEH* s.v. *gogoak eman*).

ⁱⁱⁱ ez naicela gaitz erraiteco, eta ez arbuatceco: 'ez naizela gaitz erraitekoa (gaitzesgarria) eta arbuatzekoa'. Antzeko egituran absolutibo mugatua ere badarabil: *A95 Erran nabi du bera bere baithan laudatcecoa dela*.

² ([ix]) citçaitala

³ ([ix]) appur bat

⁴ ([x]) ardietsi dudan talentua eta iaquina, arima irabacian emlegatu gabe,

⁵ ([xi]) asco dela cadiratic predicatuz probetchu eguitea, baiña are uste dut

⁶ ([xii]) liburutto

⁷ ([xii]) (bertce eracusleric eztenean).

⁸ ([xii]) nola behar den euscara esquiribatu eta iracurtu.

⁹ ([xiii]) añhit

¹⁰ ([xiii]) hoberenic eta ederrenic, eta handic gogoac emaiten deraut

¹¹ ([xiv]) hartan

¹² ([xv]) ezquiriba

¹³ ([xv]) eta çuen oracinoetan eguin naçaçue partale.

¹⁴ ([xvii]) *Doctrina Christiana*

- ¹⁵ ([xvi]) ttipia
¹⁶ ([xvi]) meregi
¹⁷ ([xvii]) ibil dadin iendar-
tean eta guztien escue-
tan.

dut ez-tuela deus-ere gure fede sailduaren contraco gauçaric. Aitcitic, dela obra-bat chipia¹⁵ delaric handia, hitz gutiz añhitz erraiten duena, ongui esquiribatua, eta mereci¹⁶ duena ibil dadin iendar-tean eta guztien escuetan.¹⁷ Saran eguina abendoaren lehenean, milla seietan ehun eta hamasei-garren urthean.

P. de Axular.

- ¹⁸ ([xviii]) Aita Materra
San Franciscoren orde-
naco fraide eta Reuleco
gardianac
¹⁹ ([xviii]) guztiençat
²⁰ ([xix]) imprimaturic
²¹ ([xix]) ilquitceco

Ikhussi dut eta iracurtu gure iaun vicario generalaren manamen-duaren azpian Aita Materra Reuleco gardianac¹⁸ eguin duen *Doc-trina Christiana*, eta ez-tut hartan edireiten gure fede eta Eliça Ama Catholica Sailduaren contraco gauçaric. Aitcitic, iduricten <19> çait dela euscaldun guztien¹⁹ probetchu handitacoa, eta hala imprimaturic²⁰ arguira ilkhiteco²¹ digne dela. Issatsun eguina abendoaren bortz-garren egunean, milla seietan ehun eta hamasei-garren urthean.

P. de Guilantena.

Baionaco iaun vicario generalaren manuz ikhussi dut liburuto-bat Aita Materra San Franciscoren ordenaco fraide eta Reuleco gar-dianac euscaraz esquiribatua, <20> deithcen bai-ta *Doctrina Chris-tiana*, eta ez-tut hartan edireiten gure fede sailduaren eta canon sailduen contraco gauçaric; aitcitic, iduricten çait euscaldun guz-tien ontasunetan içanen dela haren iendartera ilkhitcea eta aguer-tcea. Azcañen eguina, abendoaren çortci-garrenean, milla seietan ehun eta hamasei-garren urthean.

I. de Miguelena.

<21>

Baionaco iaun vicario generalaren congia,ⁱ berac hitz latinez eguina, cençua euscaraz edireiten delaⁱⁱ

Miguel D'Oiharard Baiona quo qua longe Theologal, Vicari Ge-neral & à Officia lac, hæc hic vssi vehar quo dij thus tener oro ori:

ⁱ *congia*: 'baimena'.

ⁱⁱ Grafia gaurkotuan honela litzateke: «Migel D'Oiharard Baionako kalonje teologal, bikari jeneral eta ofizialak, hek ikusi beharko dituztener orori: date egi[a] eta sinesteko, diozesako hirur erretoren atestazione hok behaturik, eztela eskoaraz [e]skribatu *Doctrina Christiana* hunetan egiazko lege eta fedearen kontra deus. Ait-zitik, eskoara bezin aditzen eztutenondako dadukatela [dadukat dela] propio, in-primaturik ere kanpora a[g]erzeko digne, permetitu dugula inprima da[d]in; beraz, irakur eta memorioz ikas. Ezta mira-etsi behar [h]utsik eskoaran balin bada; ber-riki da fitez et[a] [h]amar edo [h]amabi hilabetez ikasia, nondik aditzera eman da edo eskoara ikasteko e[r]reix datela, edo ororen krezaleak [e]spiritu eder et[a] ona eman dakola ikaszale berari. Biak ere sinesteko dira, azkena sinestekoago. Baionan, abendoaren [h]amabigarrenean. 1616».

Date egui & à sin es te quo Dio cessa quo hi rure rethor en attestacione hoc vehatur hic, es tela æs quo aras scriba tu *Doctrina Christiana* <22> vnæ tam egui as quo leguet à fœde arem contra deus; Ait sit hic æs quo ara bessim adit senes tute non da quo da duc à tela pro pio imprimatur hic ære campo ora aër seco digne premet id tu duc gula in prima da in veras ira cur & tam me mori os icas. Est à mira & si vehar vt sic æs quo aram vallim vada, verri qui da fit æs & amar edo amauhi hi lauuet æs i cassia: non dic adit cera hem manda edo æs quo ara icas te quo e re is da tela, edo oro rem crea sale ac spiritu eder e tona hem manda colla icas sale verari. Vi ac ære sines te quo dira, as quæ <23> na sines te quo ago. Baionam auem do à rem ama biga renæ an. 1616.

M. D'Oiharard
Vicarius Generalis

Nos, frater Guillelmus a Sancto Dionisio, fratrum minorum regularis observantiæ provinciæ Aquitaniæ, antiquioris minister provincialis et servus: visa approbatione superius posita doctorum virorum, quibus demandata fuit examinatio catechismi cantabrico idiomate a patre Stephano <24> Materre, nostri conventus Reolæ gardiano, compositi, nec non et licentia vicarii generalis reverendissimi domini episcopi bayonensis, permittimus præfato Patri ut in cantabrorum utilitatem dictum catechismum typis mandari curet. Datum in nostro conventu Reolæ, die 9. ianuarii anni 1617.

Fr. Guillelmus a Sancto Dionisio
Minister provincialis

<25>

Doctrina Christiana **Guiristinoac iaquin behar dituen gauçen declaracinoa**

Guiristinoaren icenaz
Lehen²² capitulua

²² (36) Lehenbico

Galdeguita. Erradaçu lehenbicoric, ea guiristino çarenz. <26 > Ihardestea. Bai, Iaincoari esquer.

Galdeguita. Eta nor deitcen duçu guiristino?

Ihardestea. Iesu-Christo iaunaren fedea eta leguea eduquitcen duena,²³ eta haren arauera bicitcen dena.

²³ (37) fedea eta leguea duena,

Galdeguita. Nondic heldu da «guiristino» icen haur?

Ihardestea. Iesu-Christo gure iauna ganic, cein bai-ta Iaincoaren seme <27> eta munduaren salbatçaille.

Galdeguita. Eta erran bai-tuçu Iesu-Christoren fedea eduquitcen duena²⁴ dela guiristino, certan dago principalqui Iesu-Christoren fedea?

²⁴ (37) Iesu Christoren fedea duena

- Ihardestea. Bi pontutan.
Galdeguita. Cein dira hec?
Ihardestea. Bata da Trinitate Sainduaren misterioa, eta bertcea Iaincoaren semearen incarnacinoa. <28>
Galdeguita. Cer erran nahi du «trinitate» hitz hunec?
Ihardestea. Iainco-bat dela hirur presunatan.
²⁵ (38) incarnacinoa Galdeguita. Eta, berriz, cer erran nahi du «incarnacino»²⁵ bertce hitz hunec?
Ihardestea. Hirur presuna hetaric bi-garrena (cein bai-ta semea) haraguiz beztitu cela, eguin guiçon,²⁶ eta hil gurutcean, gure salbatceagatic. <29>
²⁶ (39) guiçon eguin, Galdeguita. Nola aditcen duçu Iainco-bat dela hirur presunatan ?
Ihardestea. Aditcen dut Iaincoa baithan ez-tela edireiten iainco-tassun-bat, içaite-bat eta naturaleça-bat baicen, cein ala baiña bai-tago hirur presunatan, deitcen bai-tira aita, seme eta Espiritu Saindu.
Galdeguita. Cergatic erraiten duçu hirur presuna hec ez-tirela Iainco-bat baicen?
Ihardestea. Ceren hirurec ez-paitute naturaleça <30> ber-bat, içaite-bat eta bothere-bat baicen.²⁷
²⁷ (40) Ceren hirurec naturaleça ber bat, içaite bat eta bothere bat baicen ezpaitute.
- Guiristinoaren seinaleaz
Bi-garren capitulua
- Galdeguita. Cein da guiristinoaren seiñalea?
Ihardestea. Gurutce saindua.
Galdeguita. Cergatic? <31>
Ihardestea. Ceren harequin eguin bai-tu Iaincoaren semeac gure salbamenduco obra.
Galdeguita. Nola eguiten duçu gurutcearen seiñalea, cein deitcen bai-ta ceiñatcea?²⁸
²⁸ (41) Nola eguiten duçu gurutcearen seiñalea?
Ihardestea. Lehenic emaiten dut escua belarrear,ⁱ erraiten dudala *in nomine patris*, guero bulharrear,²⁹ erraiten dudala *et filii*, guero ezquerreco eta escuineco sorbaldetan, erraiten dudala *et Spiritus Sancti*, eta guero <32> azquenean escuac elkharganatcen ditut, erraiten dudala *amen, Iesus*.
²⁹ (42) bulharretan,
Galdeguita. Gurutcearen seiñalearen eguitemo hitz hauc latinez bai-tira, cer erran nahi dute euscaraz?
Ihardestea. Erran nahi dute: «aitaren, semearen eta Espiritu Sainduaren icenean, hala biz,³⁰ salbatçaillea».
³⁰ (43) biz hala,
Galdeguita. Noiz edo cer okhasinotan³¹ eguin behar da gurutcearen seiñalea? Noiz behar da ceiñatu? <33>
³¹ (43) okasinoetan
Ihardestea. Goicean ohetic iaiquitcean, arratsean oheracoan, ethetic ilkhitcean, eliçan sartcean, ur benedicatua hartcean, ora-

ⁱ *belarrear*: 'bekokian'.

cino erraiteracoan,³² othuruntçaren hartceracoan,³³ obrari lothceracoan,³⁴ deusen periletan garenean, cembait icialdurac hartcen gaituenean eta, finean, espiritu gaixtoac tentatcen gaituen guztietan. <34>

Guiristinoaren eguinbideaz
Hirur-garren capitulua

Galdeguita. Cer iaquin behar du guiristinoac bere eguinbidearen eguitico?

Ihardestea. Doctrina christiana.

Galdeguita. Cer deitzen duçu «doctrina christiana»?

Ihardestea. Iesu-Christo gure iaunac arimaren <35> salbamentu eracutsi derauzquigun gauçen declaracino-bat.

Galdeguita. Cembat parte ditu doctrina hunec?

Ihardestea. Laur principalenac.

Galdeguita. Cein dira hec?

Ihardestea. Articulo fedezcoac, oracinoac, manamenduac eta sagaramenduac.

Galdeguita. Cergatic ez-tira laur baiño guehiago edo gutiago?³⁵ <36>

Ihardestea. Ceren guiristinoac (salbatua içaitecotçat)³⁶ laur gauça behar bai-titu bere baithan eduqui: fedea, esperança, caritatea eta laincoaren garacia. Fedezco gauçac *Credoan* daunça, esperançazcoac *Pater nosterrean*,³⁷ caritatezcoac hamar manamenduetan, eta laincoaren garaciaren ardiestecoac çazpi sagaramenduetan.

Galdeguita. Laur gauça hautan sartcen othe da guiristinoaren eguin-bide guztia? <37>

Ihardestea. Bai, ceren hautan eracutsten da cer behar dugu sinhetsi, galdeguin, beguiratu eta errecibitu.

Galdeguita. Cer behar dugu sinhetsi?

Ihardestea. Articulo fedezcoetan erraiten dena.

Galdeguita. Cer behar dugu galdeguin?

Ihardestea. Oracinoetan datçana.

Galdeguita. Cer behar dugu beguiratu? <38>

Ihardestea. Iaincoac eta Eliçac bere manamenduetan manatcen dutena.

Galdeguita. Eta cer behar dugu errecibitu?

Ihardestea. Eliçaco sagaramendu sainduequin batean emaiten çaicun garacia.

Galdeguita. Orai, bada, errepartimendu hunen arauera behar dugu gobernatu doctrina hunen eracutstea: halacotz ba-noha lehen sinhetsi behar diren gauçez minçatcera.³⁸ <39>

³² (43) eliçan sartcean, oracino erraiteracoan,

³³ (43) othuruntçatceracoan,

³⁴ (44) lotceracoan,

³⁵ (46) gutiago edo guehiago?

³⁶ (46) Ceren guiristinoac, salbatua içaitecotçat,

³⁷ (46) *Pater nosterrean*

³⁸ (48-49) Bada oray, errepartimendu haur hunela ikussiric, ditçagun declara *Credo*, *Pater noster*, *Ave Maria*, *Salve Regina*, manamenduac, sagaramenduac eta bertce gaiñeraco lehenbico partean declaratu gabe utci ditugun gauçac. Eta lehenbico, gaitecin minça *Credoaz*, ceinçetan baitaude articulo fedezcoac, gure fedearen cimenenduac.

Fedez

Laur-garren capitulua

Galdeguita. Cer finetaco creatu ičan da guiçona?

Ihardestea. Iaincoaren cerbitçatceco eta parabisuco loriaren ardiesteco.

Galdeguita. Certçaz ardiesten da parabisuco loria?

Ihardestea. Fedezco, esperançazco eta caritatezco obrez. <40>

Galdeguita. Fedeac cer eguiten deraucu?

Ihardestea. Fermuqui sinhets aracitcen deraucu eguiazco Iaincoa baithan, ikhussiric ecen hura dela içaite-bat hasteric eta akhabatceric ez-tuena.

Galdeguita. Cer eguiten deraucu esperançac?

Ihardestea. Eçar aracitcen deraucu gure fidancia guztia Iaincoa baithan, ikhussiric ecen harc duela bothere guztia, handi hutsez ecin neurth ditequeiena. <41>

Galdeguita. Eta cer eguiten deraucu caritateac?

Ihardestea. Maita aracitcen deraucu Iaincoa gauça guztien gaiñetic, ikhussiric ecen hura dela gure ontassun guztia.

³⁹ (50) Cer da fedea?

Galdeguita. Eta cer da fedea? ³⁹

Ihardestea. Fedea da Iaincoaren dohain-bat, ceñen bidez sinhetsten bai-tugu Iaincoa baithan, eta halaber Iaincoac gure Eliça Ama Sainduari aguertu derautçan gauça <42> guztietan.

Galdeguita. Non daude sinhetsi behar ditugun gauçac?

⁴⁰ (51) *Credoan* laburzqui bilduric (lehenbico partean eçarria den beçala), ceren hartan edireiten dira articulu fedezcoac.

Ihardestea. *Credoan* laburzqui bilduric.⁴⁰

Galdeguita. Nola? ⁴¹

Ihardestea. Ceren hartan bai-taude articulu fedezcoac.

Galdeguita. Erraçu bada *Credo*a euscaraz. <43>

⁴¹ (51) [galdera hau ez dago B-n, baina hemen dagokion erantzuna bai, aurreko erantzunari erantsirik]

Articulu fedezcoez
Bortz-garren capitulua

Ihardestea.

⁴² (3) aita bothere guztia duena, ceruaren eta lurraren eguilean,

1. Sinhesten dut Iainco aita bothere guztia duena baithan, ceruaren eta lurraren eguilean.⁴²

⁴³ (4) obraz,

2. Eta Iesu-Christo haren seme bakhoitz gure iauna baithan.

3. Cein concebitu bait-cen Espiritu Sainduaren verthutez,⁴³ sortu cen Maria virgina ganic. <44>

⁴⁴ (4) azpian, crucificatu çuten,

4. Pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian, itçatua ičan cen gurutcean,⁴⁴ hil cen eta ehorci.⁴⁵

⁴⁵ (4) ehorci çuten,

5. Iautsi cen iffernetara, hirur-garren egunean iaiqui cen biciric hilen artetic.⁴⁶

⁴⁶ (4) iaiqui cen biciric hirur garren egunean hilen artetic,

6. Ikhan cen ceruetara, iarriric dago Iainco aita bothere guztia duenaren escuiñeco aldean.

⁴⁷ (4) iulgatcera.

7. Handic ethorrigo da hilen eta bicien iuiatcera.⁴⁷

8. Sinhesten dut Espiritu Saindua baithan.

9. Eliça Catolica Saindua, sainduen <45> partaletassuna.

10. Bekhatuen barkhamendua.
 11. Haraguiaren piztea.
 12. Bethiere iraunen duen bicitcea.
 Hala da, salbatçaillea.

Galdeguita. *Credo* haur norc eguin du?⁴⁸

⁴⁸ (52) Norc eguin du *Credo*?

Ihardestea. Hama-bi apostoluec eguin çuten, eta den beçala ordenatu, eta halatan da hama-bi articuletan errepertitua. Eta hama-bi hautan sartcen da cembait bertce <46> articulerice.

⁴⁹ (52) sartcen da bertce ponturice ere, lehenbiceo partean erran den beçala.

Galdeguita. Cer arraçoïn gatic eguin çuten *Credo* haur?

Ihardestea. Guri fedezco gauçac eracutsteagatic.

Galdeguita. Certaco dira hama-bi articuluac?

Ihardestea. Iainco eguiaczoa fedez eta sinhetsteaz guri eçagut aracitceco.

Galdeguita. Laburzqui minçatcera, cer eduquitcen dute bere baithan hama-bi articulu hauc? <47>

Ihardestea. Iaincoaz eta Eliça sainduaz sinhetsi behar dugun guztia.

Galdeguita. Ikhus deçagun bada, orai, cer maneraz eta nola aditcen diren articulu hauc.⁵⁰

⁵⁰ (52) nola aditcen diren *Credo*an dauden articuluac.

Articulu fedezcoen declaracinoa⁵¹ Sei-garren capitulua

⁵¹ (53) *Credo*an dauden articulu fedezcoen declaracinoa

Galdeguita. Erran duçu lehenbiceo articulan Iaincoa baithan sinhetsten <48> duçula: «Iaincoa» erraiten duçunean cer aditcen duçu Iaincoaren icenaz?⁵²

⁵² (53) Erran duçu *Credo*aren lehenbiceo articulan Iaincoa baithan sinhesten duçula: cer aditcen duçu Iaincoaren icenaz?

Ihardestea. Aditcen dut Iaincoa dela iaun-bat guztiz botheretsua, guztiz ona, guztiz⁵³ iaquinsuna, eta gauça guztien hastea eta fina.

Galdeguita. Iaincoa cergatic deitcen da «aita»?

Ihardestea. Ceren Trinitate Sainduaren lehen presunac egundaiñoz gueroztic engendratcen bai-tu bere sustanciatic seme bat bere iduritacoa. <49>

⁵³ (53) guciz [hiru aldiz]

Galdeguita. Nola aditcen duçu Iaincoa dela guztiz⁵⁴ botheretsu?⁵⁵

⁵⁴ (54) guciz

⁵⁵ (54) botheretsua?

Ihardestea. Aditcen dut ba-duela escu nahi duen guztiaeren eguitceco, eta bere botherearen indarrez creatu içan dituela ez-deusetaric munduan diren gauça guztiaic: cerua, lurra, ikhusten diren gauçac, eta ikhusten ez-tirenac-ere-bai.⁵⁶

⁵⁶ (55) agueri diren gauçac, eta agueri ez-tirenac ere bay.

Galdeguita. Nola aditcen duçu bi-garren articuluua, erraiten denean «eta Iesu-Christo haren seme bakhoitz <50> gure iauna baithan»?

Ihardestea. Trinitate Sainduaren⁵⁷ bi-garren presuna dela aita cerucoaren seme bakhoitça, egundaiñoz gueroztic haren sustanciatic engendratua, cein bai-ta aitaren berdin gauça guztietan: aita beçain

⁵⁷ (55) Aditcen dut Trinitate Sainduaren

- 58 (56) guciz [hiru aldiz]
59 (56) iaquinsun,
- 60 (57) obraz,
61 (57) Aditcen dut, Iaincoaren seme
- 62 (58) crucificatu çuten,
63 (58) ehorci çuten)?
64 (58) ainhitz
- 65 (59) iaiqui cen biciric hirur-garren egunean hilen artetic)?
66 (60) erran nahi da, ez condenatuen ifernura, baiña lurraren barreneco leku behera batçuetara,
- 67 (62) iulgatcera)?
- ongui Iainco, haste eta fin gabeco, guztiz botheretsu, guztiz on, guztiz⁵⁸ çuhur,⁵⁹ creatçaille, salbatçaille eta gure iaun.
- Galdeguita. Nola aditcen duçu hirur-garren articulua, erraiten denean <51> «cein concebitu bait-cen Espiritu Sainduaren verthutez,⁶⁰ sorthu cen Maria Virgina ganic)?
- Ihardestea. Iaincoaren seme⁶¹ bakhoitz hura delaric Iainco eguiazco, dela halaber guiçon eguiazco, ceren beztitu bait-cen haraguz Virgina Mariaren sabelean, ez ordea guiçonaren obraz, baiña bai Espiritu Sainduaren verthutez, guelditcen cela haren ama erdi baiño lehen virgina, erditcean, etaⁱ erdiz guero-ere.
- Galdeguita. Nola aditcen duçu laur-garren <52> articulua, erraitenⁱⁱ denean «pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian, itçatua içan cen gurutcean,⁶² hil cen, eta ehorci»?⁶³
- Ihardestea. Iesu-Christo guereⁱⁱⁱ iaunac pairatu çuela añhitz⁶⁴ gaitz Poncio Pilatus Iudeaco gobernadoreac sententia emanic, eta harc^{iv} açota araciric, eta arancezco khoroa buruan eçarriric, itçatu çutela gurutcean, eta hartan hil cela bere odol guztia issuriric, eta guero, gurutcetic erautsiric,^v ehorci çutela thomba berri batean. <53>
- Galdeguita. Nola aditcen duçu bortz-garrena, erraiten denean «iautsi cen ifernuetara, hirur-garren egunean iaiqui cen biciric hilen artetic»?⁶⁵
- Ihardestea. Iesu-Christo gure iaunaren gorputça thomban barrera cetçan bizquitartean, iautsi cela haren arima ifernuetara, erran nahi da, lurraren barreneco lekhu behera batçuetara,⁶⁶ cein dei baititezque limboac, eta handic athera cituela han haren ethortcearen beguira ceuden sainduen <54> arimac, eta guero, hirur-garren egunean (cein bait-cen igandea), iaiqui cela biciric loria handiarequin.
- Galdeguita. Nola aditcen duçu sei-garrena, erraiten denean «ikhan cen ceruetara, iarriric dago Iainco aita bothere guztia duenaren escuiñeco aldean)?
- Ihardestea. Iesu-Christo gure iauna, biciric iaiquiz gueroz, eguinic bere apostoluequin berrogei egun, ikhan cela hequen buruan bera bere botherez ceruric gorenera, <55> eta aingueru guztia iraganic, iari cela bere aitaren escuiñeco aldean, erran nahi da, aitareren berdin eta pare, aita beçanbat loria eta ohorearequin.
- Galdeguita. Nola aditcen duçu çazpi-garrena, erraiten denean «handic ethorrico da hilen eta bicien iuiatcera»?⁶⁷

ⁱ eta] testuan *ota*.

ⁱⁱ erraiten] testuan *erreiten*.

ⁱⁱⁱ *guere*: zalantza egin liteke errata den, eta *gure* edo *gueure* behar duen. Haranburuk eta Etxeberri Ziburukoak *gere* ere badutenez, hemen ere hala uztea ebatzi dugu.

^{iv} harc] testuan *harac*.

^v *erautsiric*: 'eraitsirik, erorazaririk'.

Ihardestea. Iesu-Christo gure iauna iaustico dela munduaren azquen finean cerutic maiestate handiarequin, egundaiñoco guizon eta emazte guztien iuiatcera,⁶⁸ eta bat-bederari emanen dioela <56> bere obren arauaz bere merecia, onei seculaco loria, eta gaixtoei seculaco ifernua.

⁶⁸ (63) iulgatcera,

Galdeguita. Nola aditcen duçu çortci-garrena, erraiten denean «sinhetsten dut Espiritu Saindua baithan»?

Ihardestea. Sinhetsi behar dugula ecen Trinitate Sainduaren hirur-garren presuna dela Espiritu Saindua, ceñec bai-tu bere ethorquia aita eta semea ganic, gauça guztietan hequin pare eta berdin, erran nahi da, aita eta semea beçain ongui dela Espiritu <57> Saindua-ere Iainco eguiazco, haste eta fin gabe, guztiz botheretsu, guztiz on, guztiz iaquinsun, gauça guztien creatçaille eta iaun.

Galdeguita. Nola aditcen duçu bederatci-garrena, erraiten denean «Eliça Catholica Saindua»?

Ihardestea. Sinhetsi behar dugula munduan dela eguiazco Eliça-bat, erran nahi da, guiristino fidelen biltçarre-bat, compaiñia-bat eta battassun-bat, ceñetan sartcen bai-tira bathaiatu içañ direnac, <58> eta Iaincoaren fedea eta leguea eduquitcen duten guztiac.

Galdeguita. Nola dioçu Eliça-bat dela, munduan añhitz⁶⁹ eliça denaz gueroz?

⁶⁹ (66) añhitz

Ihardestea. Eliça erraiten dudanean ez-naiz minço harriz eta çurez eguinac diren eliçez, baiña minço naiz eliça material hetan biltcen den⁷⁰ iende bathaiatuaz, fede eta legue baten azpian bicitcen denaz, ceñec eguiten bai-tu Eliça bicia, comunzqui Eliça Catholica deitcen dena. <59>

⁷⁰ (66) diren

Galdeguita. Eguiazco Eliça haren⁷¹ ezagutceco markac eta seiñaleac cein dira eta cembat?

⁷¹ (67) hunen

Ihardestea. Hirur: battassuna, saindutassuna eta generaltasuna, erran nahi da, Eliça dela bat, saindu eta guztietara hedatua.

Galdeguita. Nola aditcen duçu Eliçaren battassuna?

Ihardestea. Aditcen dut guiristino fidel guztiec fede-bat, doctrina-bat eta sagaramenduen partaletassun-bat <60> baicen eztutela bere artean eduquitcen, eta battassun hartan bici direla guztiac buruçagui baten gobernuaren azpian, cein bai-ta Erromaco aita saindua, lurrean Iaincoaren lekhuaren eduquitçaillea eta haren eguiazco bicarioa.

Galdeguita. Nola aditcen duçu Eliçaren saindutassuna, erraiten denean Eliça dela saindua?⁷²

⁷² (68) saindu?

Ihardestea. Lehenbicoric, aditcen dut Eliça dela saindu, ceren haren buruçagui ikhusten eztena (cein <61> bai-ta Iaincoa) saindua bai-ta. Bi-garrena, ceren fedea eta leguea bai-titu sainduac. Hirur-garrena, ceren edireiten bai-ta bethiere Eliçan (erran nahi da, guiristinoen artean) fedez eta leguez beçala obraz-ere saindu denic, halaco moldez ecen Eliça hunetari campoan mairuen, turcoen eta bertec halaco iendeen artean ecin dateque eguiazco saindutassunic.

Galdeguita. Nola aditcen duçu Eliçaren generaltassuna?

Ihardestea. Aditcen dut guiristinoez eguiten <62> den Eliça haur munduan banatua eta barraiatua dela, baiña barraiatua içanagatic, nola guztiec bai-tute fede-bat, legue-bat eta buruçagui-bat, hala guztiec eguiten dutela Eliça-bat eta guiristinotassun-bat.

Galdeguita. Articulo hunetan berean erran duçu sinhetsten duçula sainduen partaletassuna: cer aditcen duçu sainduen partaletassunaz?

Ihardestea. Aditcen dut guiristino fidel guztiec ba-dutela parte batak bertcearen oracinoetan etaⁱ bertce <63> obra on guztietan, nola gorputceco miembroec-ere içaiten bai-tute goçoⁱⁱ eta parte elkharren ontassunetan.

Galdeguita. Nola aditcen duçu hamar-garren articulu, erraiten denean «bekhatuen barkhamendua»?

⁷³ (72) Edireiten dela Eliçan

⁷⁴ (72) nehor

⁷⁵ (72) Eliçan

⁷⁶ [Galdegite hori eta dagokion erantzuna B-n falta dira.]

Ihardestea. Edireiten dela erran den Eliça hunetan⁷³ bekhatuen eguiazco barkhamendua sagaramendu sainduen verthutez, halaco moldez ecen nihor⁷⁴ bekhatuz bethea, Iaincoarequin etsaitua eta ifernuco penetara condenatua <64> egonagatic-ere,ⁱⁱⁱ ba-da Eliça hunetan⁷⁵ behar den erremedio guztia.

Galdeguita. Nola aditcen duçu hameca-garrena, erraiten denean «haraguiaren piztea»?⁷⁶

Ihardestea. Egundaiñoco guiçon eta emazte guztia piztuco direla munduaren azquen finean, eta iaiquico biciric bere leheneco gorputcequin.

Galdeguita. Nola aditcen duçu hamabi-garrena, erraiten denean «bethiere <65> irauenen duen bicitcea»?

Ihardestea. Mundu hunetaco bicitce miseriazco hunen ondoan ba-dela ceruan bertce bicitce-bat fin-gabecoa, eta onençat ontassunetz eta dohaiñez bethea.⁷⁷

⁷⁷ (73) Aditcen dut mundu hunetaco bicitce bat fin gabecoa, eta onençat ontassunetz eta dohaiñez bethea.

⁷⁸ (74) erraiten

Galdeguita. Cer erran nahi du «amen» hitz hunec?

Ihardestea. Lekhu hunetan hambat nola «hala da eguiazqui», edo «hala sinhetsten dut nola erran⁷⁸ bai-tut». <66>

Credoan diren hama-bi articulu en errepertimenduaz Çazpi-garren capitulua

Galdeguita. Erran duçu aiticineon *Credoaren* hama-bi articulu ec bere baithan edquitcen dutela Iaincoaz eta Eliça Sainduaz sinhetsi behar den guztia: orai nahi nuque iaquin cembat pontu edo articulu athera ahal ditezqueien beregainqui hama-bi articulu heteric. <67>

ⁱ eta] testuan *ata*.

ⁱⁱ *goço*: 'onura, mesede, probetxu'.

ⁱⁱⁱ egonagatic-ere] testuan *egon agatic-ere*.

Ihardestea. Eguin ahal ditezque lehenbicoloric hama-laur: çazpiac Iaincoari Iainco beçala, eta bertce çazpiac Iesu-Christo gure iaunari guiçon beçala dagotçanac, eta guero, berriz, bortz guehiago, aldez Eliçari ukhitcen çaitçanac.⁷⁹

Galdeguita. Cein dira Iaincoari Iainco beçala dagotçanac? ⁸⁰

Ihardestea. 1. Lehenbicicoa, ba-dela Iainco-bat indar eta bothere guztia duena. <68>

2. Bi-garrena, Iainco dela aita.

3. Hirur-garrena, Iainco dela seme.

4. Laur-garrena, Iainco dela Espiritu Saindu.⁸¹

5. Bortz-garrena, Iainco dela creatçaille, erran nahi da, gauçen ez-deusetaric eguilea.⁸²

6. Sei-garrena, Iainco dela salbatçaille, erran nahi da, bekhatutaric atheratçaillea.⁸³

7. Çazpi-garrena, Iainco dela lorificatçaille, erran nahi da, loria-ren emaillea.⁸⁴ <69>

Galdeguita. Cein dira bertce çazpiac Iesu-Christo gure iaunari guiçon beçala dagotçanac?⁸⁵

Ihardestea. 1. Lehenbicicoa, Iaincoaren semea eguin cela guiçon⁸⁶ Virginia Mariaren sabelean Espiritu Sainduaren verthutez.⁸⁷

2. Bi-garrena, sorthu cela Virginia Maria ganic, gueldituric virgina erdi baiño lehen, erditcean, eta erdiz guero-ere.⁸⁸

3. Hirur-garrena, itçatua içan cela gurutcean,⁸⁹ hil cela, <70> eta ehorci.⁹⁰

4. Laur-garrena, iausti cela ifernuetara, erran nahi da, lurraren barreneco lekhu beheretara edo limboetara, eta handic athera cituela han haren ethortcearen beguira ceuden arima sainduac.

5. Bortz-garrena, piztu cela hirur-garren egunean.

6. Sei-garrena, ikhan cela ceruetara, eta iarriric dagoela bere aitarren escuiñeco aldean.

7. Çazpi-garrena, handic ethorrigo dela azquen egunean <71> hilen eta bicien iuiatcera.⁹¹

Galdeguita. Cein dira bertce bortçac aldez Eliçari ukhitcen çaitçanac?⁹²

Ihardestea. 1. Lehenbicicoa, ba-dela Eliça-bat, erran nahi da, guiristino fidel guztien battassun-bat⁹³ eta compaiña-bat.⁹⁴

2. Bi-garrena, Eliça hartan⁹⁵ ba-dela obra on guztien partaletassuna.

3. Hirur-garrena, ba-dela, halaber, bekhatuen barkhamendua.

4. Laur-garrena, munduaren <72> azquen finean piztu beharco dugula guztio.⁹⁶

5. Bortz-garrena, mundu hunetaco bicitceⁱ hunen⁹⁷ ondoan içanen dela bertce munduan bicitce finic eta akhabatceric içanen ez-tuen-bat.

⁷⁹ (11-12) Articulu fedezcoac, guiristinoac sinhesi behar dituenac, dira hamalaur: çazpiac dira Iaincoari Iainco beçala uquitcen çaitçanac, eta bertce çazpiac Iesu Christo gure salbatçaileri guiçon beçala dagotçanac.

⁸⁰ (12) Iaincoari Iainco beçala uquitcen çaitçanac dira hauc:

⁸¹ (12-13) Laurgarrena, Iainco dela Espiritu Saindu. Aita, semea eta Espiritu Saindua: hirur presuna eta eguiazco Iainco bat.

⁸² (13) Iainco dela creatçaillea.

⁸³ (13) Iainco dela salbatçaillea.

⁸⁴ (13) Iainco dela lorificatçaillea.

⁸⁵ (13) Bertce çazpiac, Iesu Christo gure salbatçaileri guiçon beçala dagotçanac, dira hauc:

⁸⁶ (13) Iaincoaren semea concebitu cela eta eguin guiçon

⁸⁷ (14) obraz.

⁸⁸ (14) sorthu cela gueldituric Andre dana Maria erdi baiño lehen, erditcean eta erdiz guero ere virgina.

⁸⁹ (14) crucificatu çutela,

⁹⁰ (14) ehorci çutela.

⁹¹ [Zazpigarren puntua B-n falta da.]

⁹² (15) Hamalaur articulu hauquen gaiñera eman ahal ditezque oraiño bortz guehiago *Credotic* atheraric.

⁹³ (15) battassun eta

⁹⁴ (16) compaiña bat.

⁹⁵ (16) hunetan

⁹⁶ (16) guztioac piztu beharco dugula.

⁹⁷ (16) bicitcearen

ⁱ bicitce] testuan *bicit-ce*.

Pater nosterraren declaracinoa
Çortci-garren capitulua

⁹⁸ (74) fedeari dagotçan
⁹⁹ (74) [Hitz hau falta da B-n.]
Galdeguita. Hunerañocoan minçatu gara fedeari eta sinhets-teari dagotçan⁹⁸ gaucez, bada⁹⁹ orai <73> esperançari ukhitcen çaitçanac behar ditugu declaratu, eta hartaracotçat erradaçu: cer da esperança?

Ihardestea. Esperança da verthute-bat ceñfec emaiten bai-te-raucu fidantcia handi-bat Iaincoaren faborearequin batean ceruco loriaren ardietsteco.

¹⁰⁰ (75) gueure
Galdeguita. Noren baithan behar dugu gure¹⁰⁰ esperantça eçarri eta eduqui?

Ihardestea. Iainco eguiazcoa baithan. <74>

¹⁰¹ (75) dugu
Galdeguita. Cer gauça uste dituçu ¹⁰¹ ardietsi haren ganic?

¹⁰² (75) ditugun
Ihardestea. Arimaco eta gorputceco behar ditudan ¹⁰² guztiac.

¹⁰³ (76) ditugun
Galdeguita. Cer dira behar dituçon ¹⁰³ gauça hec?

Ihardestea. *Pater noster*rean dauntçanac: han edireiten dira laburzqui guztiac.¹⁰⁴

¹⁰⁴ (76) *Pater nosterean* daunçanac, liburu hunen lehenbico partean eçarria den beçala, eta oracino hartan edireiten dira gauça hec guztiac laburzqui.
Galdeguita. Erraçu bada *Pater noster* euscaraz.¹⁰⁵ <75>

¹⁰⁵ (76) Bada orai behar dugu *Pater noster* haur declaratu. Eta lehenbicooric erradaçu: [ihardestea falta da B-n; zuzenean hurrengo galdera egiten du.]
Ihardestea. Gure aita, ceruetan çaudena:

1. Erabil bedi sainduqui çure icena.

2. Ethon bequigu çure erresuma.

3. Eguin bedi çure borondatea ceruan beçala lurrean-ere.

4. Iguçu egun gure eguneco oguiia.

5. Eta barkha diaitçaguçu¹⁰⁶ gure¹⁰⁷ çorrac, guc gure gana çor-dun direnei barkhatcen derauztegun beçala.

6. Eta ez-caitçaçula utz tentamendutan <76> erortcera.

7. Aitcitic, beguira gaitçaçü gaitcetic.

Hala biz,¹⁰⁸ salbatçaillea.

¹⁰⁶ (2) diaitçaguçu
¹⁰⁷ (2) gueure
¹⁰⁸ (2) Biz hala,
Galdeguita. Cergatic oracino hunen hastean erraiten da¹⁰⁹ «gure aita ceruetan çaudena»?

¹⁰⁹ (76) erraiten da oracino hunen hastean
Ihardestea. Guri aditcera emaitagatic¹¹⁰ esperança ahal du-quegula Iaincoac ençunen gaituela¹¹¹ gueure othoitcetan, gure aita denaz gueroztic. <77>

¹¹⁰ (77) Erraiten da hastean guri aditcera emaitagatic
Galdeguita. Cergatic deitcen dugu ¹¹² Iaincoa «gure aita»?

¹¹¹ (77) ecen Iaincoac ençunen gaituela.
Ihardestea. Ceren hura bai-ta gure aita eguiazcoa, bataz, ceren harc creatu eta munduan eçarri bai-caitu, eta berriz bertcea, ceren beregainqui eta bertce guztien gairfetic gu, guiristinoc,^{i, 113} bere seme eta bere etheco bai-cadutça.

¹¹² (77) duçu
Galdeguita. Cergatic erraiten dugu «ceruetan çaudena»?

¹¹³ (78) guiristinoac,
Ihardestea. Ceren cerua bai-ta munduco <78> lekhouric ohoratuena, eta ikhussiric han dagoela creatura guztien iaun eta gobernari beçala, ohore ekhar diaçogun.

ⁱ *guiristinoc*: hitz hau bi modutan uler daiteke: bokal-bakuntze bat gertatu dela (*guiristinoc* < **girstinook*) edo karaktere bat falta dela.

Galdeguita. Cer erran nahi du lehenbico othoitçac, erraiten denean «erabil bedi sainduqui çure icena»?

Ihardestea. Erran nahi du, nola Iaincoaren icena bai-ta ona eta ohorezcoa, barraia dadila icen hura fama handi-batequin¹¹⁴ mundu guztitic, eta erabil dadila guztien ahoetan hain gauça sainduari dagocan ohorearequin <79> eta erreberenciarequin.

¹¹⁴ (79) handiarequin

Galdeguita. Cer erran nahi du «ethor bequigu¹¹⁵ çure erresuma»?

¹¹⁵ (80) bedi

Ihardestea. Nola Iaincoaren erresuma bai-ta ceruco loria, hemen eguiten diogu othoitz eman diaçagula loria hura, eta eguin gaitçala lehen baiño lehen partale bere ceruco erresumaco ontassun handi hetan.¹¹⁶

¹¹⁶ (80) lehen baiño lehen bere ceruco erresumaco ontassun handi hetan partale.

Galdeguita. Cer erran nahi du «eguin bedi çure borondatea ceruan beçala lurrean-ere»? <80>

Ihardestea. Erran nahi du eman diaçagula garacia eta fabore haren manamendu sainduen beguiratceco, borondatearen complitceco eta guztietan obedient, ceruan aingueruac diren beçala içaiteco.

Galdeguita. Cer erran nahi du «iguçu egun gure eguneco oguia»?

Ihardestea. Erran nahi du, othoi haz gaitçala, behar dugun mantenua, hala arimacoa nola gorputcecoa, eman diaçagula.¹¹⁷ Eta <81> arimaco mantenua eta oguia dira¹¹⁸ Iaincoaren hitz saindua predicuetan declaratcen dena, edo liburuetan iracurtcen duguna, eta halaber sagaramendu sainduac, ceren hequin batean hazten eta mantentatcen da arima Iaincoaren garacian, cein bai-ta arimaren eguiazco oguia.¹¹⁹ Eta gorputçaren mantenua edo oguia dira¹²⁰ cer-ere bicitceco bianda eta beztimenda¹²¹ behar bai-tira hec guztic.¹²²

¹¹⁷ (81) othoi haz gaitçala, eta eman diaçagula behar dugun mantenua, hala arimacoa nola gorputcecoa.

¹¹⁸ (82) da

¹¹⁹ (82) garacian. [«cein bai-ta arimaren eguiazco oguia» zatia falta da B-n.]

¹²⁰ (82) Gorputçaren oguia da

¹²¹ (82) bestimenda

¹²² (82) behar baita.

¹²³ (82) diatçaguçu

¹²⁴ (83) gueure

¹²⁵ (83) Iangoicoari

¹²⁶ (83) diatçagula

Galdeguita. Cer erran nahi du «barkha <82> diatçaguçu¹²³ gure¹²⁴ çorrac, guc gure gana çordun direnei barkhatcen derauztegun beçala»?

Ihardestea. Hemen eguiten diogu othoitz Iaincoari¹²⁵ barkha diatçagula¹²⁶ gueure bekhatuac, guc gaizqui eguiten deraucutenei barkhatcen derauztegun beçala eguiten derauzquiguten faltac. Eta hunetan emaiten da aditcera ez-terauzquigula Iaincoac guri barkhatuco eguiten ditugun bekhatuac, baldin guc barkhatcen ez-pa-diogu gueure etsaiari eguiten deraucun bidegabea. <83>

Galdeguita. Cer erran nahi du «ez-caitçaçula utz tentamendutan erortcera»?

Ihardestea. Erran nahi du: nola bai-cara flaco, huts eguiten eta erortcen errax, eguiten diogu othoitz Iaincoari¹²⁷ ez-caitçala utz tentatcera, eta tentatcera utzten gaituenean-ere,¹²⁸ digula indar eta garacia tentamendu hequen garaitceco, eta victorios guelditceco.

¹²⁷ (84) Iangoicoari

¹²⁸ (84) eta utzten gaituenean ere,

Galdeguita. Cer erran nahi du «aitcitic beguira gaitçaçu gaitceti»? <84>

¹²⁹ (85) Eguiten diogu othoitz Iaincoari beguira gaitçala

Ihardestea. Beguira gaitçala, othoi,¹²⁹ mundu hunetaco gaitz, peril, fortuna eta incontru gaixto suerte guztietaric.

- Galdeguita. Oracino haur norc eguina da?
Ihardestea. Iesu-Christo erregue iaunac, ¹³⁰ eta bere ahoaz beraz berac eracutsia.
- ¹³⁰ (86) Iesu Christo gure salbatçailleac
¹³¹ (86-87) Guri eracusteco cer moldez eguin behar diogun othoitz Iaincoari eta cer galdeguin geure othoitcetan, ceren oracino hunec eduquitcen du bere baithan laburzqui cer ere galdeguin ahal baitiaçayogu Iaincoari, eta hura guztia dago çazpi othoitcetan bildua: lehen laurac ontassunaren ardiestez minço dira, eta bertce hirurac gaitçaren eta kaltearen khentceaz.
- Galdeguita. Certaco eguin çuen oracino haur?
Ihardestea. Guri eracusteco cer moldez <85> eguin behar diogun othoitz Iangoicari.¹³¹
- Galdeguita. Oracino hunec bere baithan cer eduquitcen du?¹³²
Ihardestea. Eduquitcen du laburzqui cer-ere galdeguin ahal bai-tiaçaiogu Iaincoari, eta hura guztia dago çazpi othoitcetan bildua: lehen laurac ontassunaren ardiestez minço dira, eta bertce hirurac gaitçaren eta kaltearen khentceaz.
- Galdeguita. Declara diaçadaçuⁱ, ¹³³ hobequiago <86> cer ontassun diren galdeguiten dituçun¹³⁴ laur ontassun horiec, eta halaber cer gaitz diren khendu nahi dituçun¹³⁵ hirur gaitz horiec.
- ¹³² [Galdera hau ez dago B-n, baina hari dago-kion erantzuna aurreko galdearen erantzunarekin batera ematen du; cf. aurreko oharra.]
Ihardestea. Ontassunez denaz beçambatean, lehenbico galdeguiten dugun ontassuna da ohora eta lauda dadin Iaincoa, erraiten dugula «erabil bedi sainduqui çure icena».
- ¹³³ (87) eçaçu
¹³⁴ (87) ditugun
¹³⁵ (88) ditugun
¹³⁶ (88) gure
¹³⁷ (88) arimaren
¹³⁸ (88) bedi
¹³⁹ (88) salbamenduaren
¹⁴⁰ (89) galdeguitean
¹⁴¹ (89) diatçagula
- Bi-garrena, gueure¹³⁶ arimen¹³⁷ salbamendua, erraiten dugula «ethor bequigu¹³⁸ çure erresuma».
- ¹⁴² (89) diatçaguçu
¹⁴³ (89) gueure
¹⁴⁴ (90) du
- Hirur-garrena, salbamendu <87> hunen¹³⁹ ardiesteco garacia, erraiten dugula «eguin bedi çure borondatea».
- Laur-garrena, garacia hunen gueure baithan eduquitceco indarra eta sostengua, erraiten dugula «iguçu egun gure eguneco oguia».
- Gaitcez denaz beçambatean, lehenbico othoitcean¹⁴⁰ erraiten diogu Iaincoari khien diatçagula¹⁴¹ iragan diren gaitçac, cein baitiraⁱⁱ oraiñocoan eguin ditugun bekhatuac, erraiten dugula «barkha diatçaguçu¹⁴² gure¹⁴³ çorrac». <88>
- Bi-garrenean erraiten diogu beguira gaitçala ethorquiçuneco gaitcetaric, erran nahi da¹⁴⁴ tentamenduetaric, erraiten dugula «ez-caitçagula utz tentamendutan erortcera».
- Hirur-garrenean eta azquenean othoitz eguiten diogu beguira gaitçala orai presenteon sentitcen ditugun gaitz guztietaric, erraiten dugula «aitcitic beguira gaitçaguçu gaitcetic».
- Galdeguita. «Amen» hitz hunec cer erranⁱⁱⁱ nahi du euscaraz? <89>
- [Ihardestea.] Lekhu hunetan hambat nola «hala biz» edo «hala guertha daquidala nola othoitz eguiten bai-tut».

ⁱ diaçadaçu] testuan *diaçadacu*.

ⁱⁱ bai-tira] testuan *bai-tita*.

ⁱⁱⁱ cer erran] testuan *cer-erran*.

*Ave Mariaren eta Salvearen*¹⁴⁵ deklaracinoa
Bederatci-garren capitulua

¹⁴⁵ (91) *Salve Reginaren*

Galdeguita. Cer oracino erraiten ohi duçu *Pater nosterraren* ondoan?

Ihardestea. Andre-dana Mariaren salutacinoa, <90> cein deitzen bai-ta *Ave Maria*, eta guero bertce oracino-bat-ere-bai, cein hasten bai-ta *Salve Regina*.¹⁴⁶

¹⁴⁶ (91-92) cein baita *Salve Regina*, liburu hunen lehenbico partean diren beçala.

Galdeguita. Erraçu *Ave Maria* euscaraz.

Ihardestea. Agur Maria, garaciaz bethea, iauna da çurequin, çu çara benedicatua emazteen artean,¹⁴⁷ eta benedicatua da çure sabeleco fruitua, Iesus. Maria saindua, Iaincoaren ama, eguiçu othoitz gu bekhatoreoc gatic, orai eta gure heriotceco orenean.

¹⁴⁷ (2-3) benedicatua çara emazteen artean,

Hala biz,¹⁴⁸ salbatçaillea. <91>

¹⁴⁸ (3) Biz hala,

Galdeguita. Cergatic erraiten da *Pater nosterraren* ondoan *Ave Maria*?

Ihardestea. Ceren Iaincoaz lekhoraⁱ sainduric handiena Andre-dana Maria bai-ta, eta hambatenarequin arartecoric-ere hoberena. Eta halatan eguiten diogu othoitz ardiets diaçagula bere seme iauna ganic arimaco eta gorputceco behar dugun garacia eta faborea.

Galdeguita. Norc eguina da oracino haur? ¹⁴⁹ <92>

Ihardestea. Parte-bat aingueru Gabrieleç,¹⁵⁰ bertce parte-bat Santa Elizabeteç eta akhabatcea Eliça Ama Sainduac, Espiritu Sainduaren conseilluz.

¹⁴⁹ (92-93) Oracino haur norc eguina da?

Galdeguita. Cergatic salutacinen dugu Virgina Maria oracino hunetçaz?

¹⁵⁰ (93) Parte bat eguin du aingueru Gabrieleç,

Ihardestea. Ceren esperança bai-tugu atsegin hartcen duela hitz hauquen ençuteaz, ikhussiric ecen hauc erran ceitçanean beztitu cela haraguiç Iaincoaren semea haren sabel preciatuan.¹⁵¹ <93>

¹⁵¹ (94) sabel sacratuan.

Galdeguita. Cergatic deitzen da Virgina Maria «garaciaz bethea»?

Ihardestea. Bataz, ceren ez-pait-çuen egundaiño içan bekhaturic, ez-eta bekhaturen cutsuric-ere, ez mortalic, ez venialic, eta-ez-are originalic edo ethorquizcoric-ere. Eta berriz bertcea, ceren nola berce saindu guztiac baiño gaiago bait-cen, hala bertce guztieç baiño abantaillatuquiago Espiritu Sainduaren dohaiñac eta garaciac-ere içan bait-cituen. <94>

Galdeguita. Cergatic erraiten diogu «çu çara benedicatua emazteen artean»?¹⁵²

¹⁵² (95) «benedicatua çara emazteen artean»?

Ihardestea. Ceren egundaiño munduan içan eta içanen diren emazte guztieç baiño, harc berac ohore, laudorio eta ontassun guehiago bai-tu bere baithan.

Galdeguita. Cein da Virgina Andre hunen laudorioric eta ohoreric handiena eta principalena?

ⁱ *Iaincoaz lekhora*: 'Jainkoaz gain'.

- Ihardestea. Amatassuna virginatassunarequin batean, ceren ecin duque <95> abantail handiagoric Iaincoaren ama eta virgina içaitea baiño.
- Galdeguita. Cer erran nahi du «benedicatu da çure sabeleco fruitua, Iesus»?
- Ihardestea. Erran nahi du bera bere baithan laudatcecoa dela,¹⁵³ eta are guehiago bere fruitua-ere, Iesus, dohain eta garacia guztiez complitua duela.
- ¹⁵³ (97) Erran nahi du ecen virgina bere baithan laudatcecoa dela,
Galdeguita. «Iesus» hitz hunec cer erran nahi du?
Ihardestea. Hambat nola «salbatçaille». <96>
Galdeguita. Cergatic deitcen da «salbatçaille»?
Ihardestea. Ceren bere passione sainduaren verthutez etsai gaixtoaren botheretic (bere aldetic denaz beçambatean) salbatu eta athera bai-caitu.
Galdeguita. Declara itçaçu orai laburzqui *Ave Mariaren* gaiñeraco hitçac.
- Ihardestea. Gaiñeracoac dira othoitcezoac, nola lehenac içan bai-tira laudoriozcoac. Azquen¹⁵⁴ hitz hautan othoitz eguiten diogu <97> Andre-dana Maria virginari, Iaincoaren ama denaz gueroz, ararteco on guertha daquigula bethiere bere seme iauna gana, eta guztien gaiñetic gueure heriotceco orenean.
- ¹⁵⁴ (98) Eta azquen
Galdeguita. Erraçu orai *Salve Regina* euscaraz.
Ihardestea. Agur erreguina, misericordiaren ama, bicitcea, ez-titassuna eta gure esperança, agur. Çure gana gaude oihuz Evaren seme desterratuoc. Çure gana gaude hatsbeherapenez, aiez, <98> eta nigarrez nigarrezco haran hunetan. Ea, bada, gure ararteco, çure begui misericordiazco horiec itçul itçaçu gure gana, eta Iesus benedicatu, çure sabeleco fruitua, eracuts diaçaguçu desterru hunen ondoan. A bihotz-bera! A urricalmendutsua! A Maria virgina ezta!
- ¹⁵⁵ (99) Erradaçu orai: norc eguina da *Salve Regina*?
Galdeguita. Norc eguin du oracino haur?¹⁵⁵
Ihardestea. Eliça Ama Sainduac.
Galdeguita. Certaco? <99>
Ihardestea. Virgina Mariaren laudatceco, eta laudatcen dugula, ararteco on guerthaⁱ daquigula othoitz eguiteco.
- ¹⁵⁶ (100) Iaincoaren manamenduen declaracinoa
Iaincoaren manamenduez¹⁵⁶
Hamar-garren capitulua
- ¹⁵⁷ (100) gaitecin
Galdeguita. Fedeari eta esperançari dagotçan gauçac (cein bai-tira articulu fedezcoac eta oracinoac) declaratu ditugunaz gueroz, minça gaitcan¹⁵⁷ orai <100> caritateari dagotçanez, cein bai-tira Iaincoaren manamendu sainduac. Erradaçu bada, lehenic: cer da caritatea?

ⁱ guertha] testuan *gurtha*.

Ihardestea. Caritatea da verthute-bat ceñez onhesten bai-tugu Iaincoa gauça guztien gaiñetic, eta guero¹⁵⁸ guiristino laguna gueure burua beçala Iaincoa gatic.

¹⁵⁸ (101) gueure

Galdeguita. Certan ezagutcen da Iaincoa ganaco caritatea edo amorioa?¹⁵⁹

¹⁵⁹ (101) Certan ezagutcen da ea nehorc Iaincoagana- naco caritatea eta amorioa baduenz?

Ihardestea. Haren manamendu sainduen beguiratcean eta complitcean. <101>

Galdeguita. Cembat dira manamendu hauc?

Ihardestea. Hamar.

Galdeguita. Erraitçu Euscal-Herrian usatcen diren beçala.

Ihardestea. Iaincoaren manamendu sainduac dira hamar:

Lehenbicoa, Iainco-bat dela sinhetsiric, hura bera gauça guztien gaiñetic onhets, adora eta cerbitça deçagula.

Bi-garrena, arneguric, cinic edo iuramenturic premia gabe¹⁶⁰ <102> ez-taguigula.

¹⁶⁰ (7) vanoqui eta premia gabe

Hirur-garrena, igandeac eta bertce bestac beguira ditçagula.

Laur-garrena, gueure burhasoac ohora ditçagula.

Bortz-garrena, nehor hil ez-teçagula.

Sei-garrena, haraguizco obraric ezcontçaz campoan ez-taguigula.

Çazpi-garrena, deus ebats ez-teçagula.

Çortci-garrena, nehorri falseriaric erauz ez-tiaçogula.

Bederatci-garrena, bertceren <103> senharric edo emazteric desira ez-teçagula.

Hamar-garrena, lagunaren onhasunariⁱ guthicia ez-caquitçala.

Galdeguita. Declara diaçadaçuⁱⁱ lehenbico manamendua nola aditu behar den.¹⁶¹

¹⁶¹ (101-102) Iaquin behar da, bada, nola aditu behar diren manamenduac, eta lehenic erradaçu: nola aditcen duçu lehenbico manamendua, Iainco bat dela sinhetsiric, hura bera gauça guztien gaiñetic onhets, adora eta cerbitça deçagula?

Ihardestea. Bi parte ditu manamendu hunec: lehenbicoan aviatcen gaitu Iaincoac hura bera dela gure eguiazco iauna, guc ohoratu, adoratu, cerbitçatu eta Iaincotçat (bertce guztiaç utciric) eduqui behar duguna. <104> Bigarren partean manatcen gaitu ez-taguigula idoloric lehenagoco ientilec eta paganoec beçala, ceren hec eguiten cituzten imagina batçuc edo guiçonon iduri batçuc urrez, cilharrez, burdinaz, harriz eta bertce añhitz gauçaz,¹⁶² eta hain ciren erho eta itsu, ecen imagina hec (cein guc deitcen bai-titugu idoloac)¹⁶³ iaincotçat edquitcen, eta iainco beçala adoratcen eta ohoratcen bait-cituzten.

¹⁶² (103) paganoec beçala, ceñec eguiten bait-cituzten imagina batçuc, erran nahi da, guiçonon iduri batçuc urrez, cilharrez, çurez, harriz eta bertce añhitz materialaz,

Galdeguita. Sainduen imaginac eliçan <105> eduquitcea eta hei behauricatcea manamendu hunen contra othe da?

Ihardestea. Ez segur, ceren badaquigu imagina hec çurez eta harriz eguinac direla, eta hec berec ez-tutela bere baithan verthuteric, eta-ez indarric gure faboratceco, baiña nola ceruan dauden saindu eguiazcoez orhoit aracitcen bai-caituzte, eta hequen iduria presentatcen¹⁶⁴ bai-teraucute, eta presentatce¹⁶⁵ edo orhoitce

¹⁶³ (103) (deitcen baititugu idoloac)

¹⁶⁴ (104) representatcen

¹⁶⁵ (105) representatce

ⁱ *onhasunari*: 'ondasunari, aberastasanari'.

ⁱⁱ *diaçadaçu*] testuan *diaçadacu*.

- 166 (105) representatçaille harc debocinoa berretcen eta iratçartcen bai-teraucu, <106> halatan iratçarçaille, orhoitçaille eta eguiazco sainduen presentatçaille¹⁶⁶ beçala ohoratcen eta adoratcen ditugu imaginac.
Galdeguita. Norc eguiten du huts lehenbico manamendu hunen contra?
Ihardestea. Paganoec, hereticoec, supersticiosec eta guztiz-ereⁱ sorguinec.
Galdeguita. Sorguinac cer iende dira, eta nola eguiten dute huts lehenbico manamendu hunen contra? <107>
Ihardestea. Sorguinac dira iende thailuⁱⁱ batçuc ceiñec (diotenez) arnegatcen bai-tute bere eguiazco Iaincoaz, fedeaz, legueaz, errecibitu duten bathaioaz, aitzaz, amaz¹⁶⁷ eta Eliçaco gauça guztiez, eta guero hartcen dute bere iaun eta nabussi deabrua, adoratcen dute, cerbitçatcen dute, eta haren borondatearen arauaz (bera laguntcen çaiela) eguiten dute ahal daguiten gaizqui guztia, guztiz-ere haurretan eta lurreco fruituetan. Eta hala¹⁶⁸ hec dira munduan <108> diren ienderic gaixtoenac eta Iaincoz eta munduz errateca merci dutenac.¹⁶⁹
- 167 (106) aita-amaz
- 168 (107) halatan
- 169 (107) gaixtoenac, Iaincoz eta munduz errateca merci dutenac.
- Galdeguita. Orai erradaçu: ba-daquiçu segurqui cer fede eta sinhetste eman behar çaicanc sorguinez dabilan solhasari eta eguitecoari?¹⁷⁰
- 170 [Galdera hau eta dagokion erantzuna ez daude B-n.]
- Ihardestea. Ez segur, ez-taquit nic, eta ez-tut uste dela lurraren gaiñean-ere daquienic, ceren haur da eguiteco-bat itsua, ilhuna, barrera eta egundaiño nehorc ecin claratu duena, eta-ez hondarrean <109> ukhitu, ceren sorguin direla diotenece berec-ere ez-tute fermutassunic, ez-taquite cer minço diren: egun gauça-bat, bihar bertce-bat erraiten dute, atço aithortu çutena egun ukhatcen dute; halaco moldez ecen cembatenaz nehorc eguia ikhassi nahiz escuac barrenago sartcen bai-titu, hambatenaz campoanago guelditcen da.
- Galdeguita. Nola aditcen duçu bi-garren manamendua, «arneguric, cinic edo iuramenturic premia gabe ez-taguigula»?¹⁷¹ <110>
- 171 (109) «arneguric, cinic edo iuramenturic vanoqui eta premia gabe ez-taguigula»?
- Ihardestea. Cin edo iuramentu eguita nola bai-ta Iaincoa bere erranaren lekhuco ekhartcea, aditcen dut cina eguin behar dela ecin bertceaz (medicina hartcen den beçala), ez premia gabe, ez gueçurra- ren gaiñean, ez gaizqui eguiteco contuan, ez-eta ez complitceco borondatearequin-ere.
- Galdeguita. Nola aditcen duçu hirur-garrena, «igandeac eta bertce bestac beguira ditçagula»?
- Ihardestea. Ez-tela astelegunetan beçala <111> lanean eta tra- bailluan ibili behar bestetan, baiña behar dela ioan eliçara, meça, vesperac eta bertce Eliçaco officioac ençun, debocinotan eta obra onetan emlegatu, aste guztico bekhatuez barkhamendu escatcen

ⁱ *guztiz-ere*: 'bereziki'.

ⁱⁱ *iende thailu*: 'jende mota'.

garela, eta aiticinerat erortcetic beguira gaitçala Iaincoari othoitz eguiten diogula.

Galdeguita. Nola aditcen duçu laur-garrena, «gueure burhasoac ohora ditçagula»?

Ihardestea. Aditcen dut gueure aita-amac <112> gauça iustu guztietan obeditu behar ditugula, cortesia handirequin¹⁷² minçatu behar gatçaitzela, eta-are guehiago beharrean daudenean ahal daguigun lekhouraiño faboratu behar ditugula,¹⁷³ ceren Iaincoaz lekhora heticaric bai-tugu mundu hunetaco bicitcea eta içaita, eta pena handirequin haci bai-caituzte. Halaber aditcen dut ohoratu eta obeditu behar ditugula gueuroc baiño çaharragoac, eta eliça-guiçonac, eta cargutan diren guztiac, hala espiritualecoac nola temporalecoac. <113>

¹⁷² (112) handiarequin

¹⁷³ (112) faboratu behar ditugula, ahal daguigun lekhouraiño,

Galdeguita. Nola aditcen duçu bortz-garrena, «nehor hil ezteçagula»?

Ihardestea. Aditcen dut ez-tugula nehor hil behar, eta-ez colpatu edo cehatu-ere, eta-are guehiago ez-tiogula nehorri eduqui behar gaitzerizcoric, borondate gaixtoric, eta-ez eguin liscarric, eta-ez kalteric-ere.

Galdeguita. Eta sei-garren manamendua nola aditcen duçu,¹⁷⁴ «haraguizco obraric ezcontçaz campoan ez-taguigula»? <114>

¹⁷⁴ (114) Nola aditcen duçu seigarren manamendua,

Ihardestea. Aditcen dut presuna ezconduac ba-duquetela elkharrequin parte eta ezagutça, baiña ezconduac eztirenen arteco haraguizco obrac, eta-are guehiago bessarcac, musuac eta bertce desonhesqui ukhitce¹⁷⁵ guztiac-ere bekhatu direla.

¹⁷⁵ (114) huquitce

Galdeguita. Nola aditcen duçu çazpi-garrena, «deus ebats ezteçagula»?

Ihardestea. Aditcen dut bertceren onic ez-tugula ebatsi behar, eta-ez iabearen borondatearen contra <115> eduqui. Ez-tugula contuan, pisuan, neurrian, sal-erossietan, tratuetan, avenicoetanⁱ eta bertce hartu-emanetan¹⁷⁶ falseriaric edo enganamenduric eguin behar, ez-eta nekhaçaleen iornalic edo soldataric-ere goratuⁱⁱ eta bortchatu.¹⁷⁷

¹⁷⁶ (115) Eztugula, halaber, contuan, pisuan, neurrian, salerosietan, avenicoetan, eta bertce hartu-emanetan

¹⁷⁷ (115-116) ez eta nekhaçaleen edo cerbitçarien iornalic edo soldataric ere goraturic eta bortchaturic eduqui.

Galdeguita. Nola aditcen duçu çortci garrena: «nehorri false-riaric erauz eztiaçogula»?

Ihardestea. Aditcen dut ez-tugula nehor falsoqui accusatu behar, ez-tiogula fama gaixtoric edo desohoreric <116> gueure mihiaz nehorri eman behar, ez-tugula gueçurric erran behar, ez maradicioneric egotci, eta-ez escarnioric eguin. Finean, nola nahi bai-tugu bertceac gutçaz minça ditecin, hala guc-ere bertceez behar dugula minçatu.

Galdeguita. Nola aditcen dituçu bederatci eta hamar-garren manamenduac, «bertceren senharric edo emazteric desira ezteçagula» eta «lagunaren onhassunari-ere guthicia ez-caquitçala»?¹⁷⁸ <117>

¹⁷⁸ (117) «lagunaren onhassunari guthicia ezcaquitçala»?

ⁱ *avenicoetan*: 'hitzarmenetan'.

ⁱⁱ *goratu*: 'kendu'.

¹⁷⁹ (117) Bi manamendu azquen hautan aditcera emaiten çaicu ecen gaizqui obratcea beçala gaizqui desiratcea ere bekatu dela, eta Iaincoac campoco obra beçain ongui barreneco guthicia ikusten duela. Eta nola seigarren eta çazpigarren manamenduetan debecatu baitci-tuen haraguizco obrac eta bertceren onen eduquitceac, orai bederatci garreanean eta hamar garreanean bi gauça hequen desirac eta guthiciac debecatcen ditu.

¹⁸⁰ (118-119) Hamar manamenduac hunela declaratu ditugunaz gueroz, erradaçu orai: norc eman ditu hamar manamendu hauc?

¹⁸¹ (120-121) Iaincoaren alderacotçat eguin behar diren gauçac hauc dira: Iaincoa behar dela ohoratu eta cerbitçatu, haren icen saindua eztela vanoqui erabili behar, eta igandea ongui eta sainduqui behar dela beguiratu. Eta hirur gauça hauc daude lehen hirur manamenduetan.

¹⁸² (121) Guero guiristino lagunaren alderacotçat eguin behar diren gauçac dira hauc: dagotenei ohore emaita, nehoi bere presunan eta onetan hitcez, gogoz eta obraz ere calteric ez eguitea. Eta gauça hauc azqueneco çazpi manamenduetan dauntça.

¹⁸³ (121) amorioaz.

¹⁸⁴ (122) gueroz,

¹⁸⁵ (122) ibentcen

¹⁸⁶ (122) hamar manamendu? [«eta legue» falta da]

Ihardestea. Iaquin deçagun gaizqui obratcea beçala gaizqui desiratcea-ere bekhatu dela, eta Iaincoac campoco obra beçala barreneco guthicia-ere ikhusten duela. Sei-garren eta çazpi-garren manamenduetan haraguizco obrac eta bertceren onen eduquitceac debecatu cituen beçala, orai bederatci garreanean eta hamar garreanean halaber bi gauça hequen desirac eta guthiciac debecatcenⁱ ditu.¹⁷⁹ <118>

Galdeguita. Hamar manamenduac declaratu ditugunaz gueroz, iaquin deçagun orai norc eman dituen manamendu hauc.¹⁸⁰

Ihardestea. Iaincoac berac eman cituen legue çaharrean, eta guero Iesu-Christo gure iaunac confirmatu eta ontçat eduqui ditu legue berrian.

Galdeguita. Laburzqui minçatcera, cer eduquitcen dute bere baithan manamendu hauc? <119>

Ihardestea. Cer-ere eguin behar bai-ta Iaincoaren eta guiristino lagunaren alderacotçat. Iaincoaren alderatcoaⁱⁱ lehenbicico hirur manamenduetan da, eta guiristino lagunarequicoa azquen çazpietan.

Galdeguita. Declara eçaçu nola.

Ihardestea. Lehenbicoric, Iaincoa behar da ohoratu eta cerbitçatu. Bi-garrena, haren icen saindua ez vanoqui erabili, eta guero igandea ongui eta sainduqui <120> beguiratu. Eta hirur gauça hauc daude lehen hirur manamenduetan: eta hauc dira Iaincoaren alderacotçat behar direnac.¹⁸¹

Guero guiristino lagunaren alderacotçat eguin behar diren gauçac azqueneco çazpi manamenduetan dauntça; nola bai-ta dago-tenei ohore emaita, nehoi bere presunan eta onetan hitcez, gogoz eta obraz-ere kalteric ez eguitea.¹⁸²

Galdeguita. Certçaz complitcen dira hamar manamendu hauc? <121>

Ihardestea. Caritateaz eta amorioaz.ⁱⁱⁱ,¹⁸³ Eta halatan erraiten du gure salbatçailleac legue guztia bi pontutan dagoela.

Galdeguita. Cein dira bi pontu hec?

Ihardestea. Iaincoaren onhetstea gauça guztien gaiñetic, eta guero gueure guiristino laguna gueure burua beçala.

Galdeguita. Legue guztia bi pontu hautan dagoenaz gueroztic,¹⁸⁴ cergatic eçarten¹⁸⁵ dira hamar manamendu <122> eta legue?¹⁸⁶

Ihardestea. Guri xeheroqui eracutsteagatic nola eta cer gauçatan behar diren Iaincoa eta guiristino laguna onhetsi, ceren baldin

ⁱ debecatcen] testuan *debeçatcen*.

ⁱⁱ alderatcoa] testuan *aderatcoa*.

ⁱⁱⁱ amorioaz] testuan *amoriaz*. Testuan *amorio* (138) behin agertzen da soilik, baina uste dugu forma zuzena dela. *OEH*ren arabera, *amoria* Beriainek baizik ez du, nahiz eta Haranederrek eta Mihurak *amodia* dudazkoa ere baduten.

bide beçala Iaincoa onhetsten ba-dugu, cerbitçatuco-ere ba-dugu, eta-bai haren icen saindua ohoratuco, eta igande-eguna-ere sainduqui beguiratuco. Eta berriz bertce alde, baldin gueure guiristino laguna ongui onhetsten ba-dugu, falta gabe ohoratuco-ere dugu, ez-tugu hilen, ez-tiogu kalteric <123> eguinen, ez-tiogu deus ebatsico, ez-cara haren contra minçatuco, ez-tugu haren emazteren eta-ez onen-ere guthicia¹⁸⁷ gaixtoric içanen. Finean, gueuretçat beçala haren alderacotçat-ere gobernatuco gara.

¹⁸⁷ (124) guticia

Galdeguitea. Manamendu hauc beguiratu gabe ahal dohaque nehor parabisura?

Ihardestea. Ez. Hauc behar ditu beguiratu eta complitu parabisura ioan nahi duenac, ceren ez-ta bertce bideric.¹⁸⁸ <124>

¹⁸⁸ (124) ceren bertce bideric ezpaita.

Eliça Ama Sainduaren manamenduez
Hameca-garren capitulua

Galdeguitea. Iaincoaren manamenduac erran dituçunaz gueroz, erraitçu orai Eliça Ama Sainduarenac.

Ihardestea. Eliça Ama Sainduaren manamenduac dira bortz:

Lehenbicoa, igandeetan¹⁸⁹ eta bertce bestetan meça ossoa ençun deçagula. <125>

¹⁸⁹ (9) igandetan

Bi-garrena, urthean behin bedere cofessa gaitecila.

Hirur-garrena, gorputz saindua Bazco gariçumacotz¹⁹⁰ errecibi deçagula.

¹⁹⁰ (10) gariçumacoz

Laur-garrena, gartha-demboretan, vigilietan eta gariçuman (baldin traburic ez-pa-dugu) barur gaitecila.

Bortz-garrena,ⁱ hamarren-primiciac ossoqui paga ditçagula.

Galdeguitea. Ba-da bertce gauçaric Eliçac manatcen edo debecatcen duenic?

Ihardestea. Bai, ba-dira bi debecu: bata <126> da ortcilare larrumbatetan haraguiric ez iattea, eta bertcea abendoaren lehenbico igandetic Trofaniaraiño,¹⁹¹ eta Hauste-egunetic Bazco çahar artaiño¹⁹² ezteiric ez eguitea.¹⁹³

¹⁹¹ (11) Trofaniaraiño edo Erregueen eguneraiño,

¹⁹² (11) arteño

¹⁹³ (11) eguitea, espos meçaric ez ençutea.

¹⁹⁴ (125) Fedeari, esperançari eta caritateari dagotçan gauçac (cein baitira articulu fedez-coac, oracinoac eta manamenduac) declaratu ditugunaz gueroz, behar dugu orai Iaincoaren garaciaren ardiesteco gauçez minçatu.

¹⁹⁵ (126) cer gauça behar ditugu errecibitu?

Eliçaco sagaramenduez
Hama-bi-garren capitulua

Galdeguitea. Sinhetsi, escatu eta beguiratu behar ditugun gauçez minçatu garenaz gueroz, <127> errecibitu behar ditugunac behar ditugu orai declaratu.¹⁹⁴ Erradaçu,ⁱⁱ bada: Iaincoaren garaciaren ardiesteco, eta ardiestsiz guero haren gueure baithan edquitceco, cer behar dugu errecibitu?¹⁹⁵

Ihardestea. Eliçaco sagaramendu sainduac.

Galdeguitea. Cer da sagaramendua?

ⁱ Bortz-garrena] testuan *Botz-garrena*.

ⁱⁱ Erradaçu] testuan *Er- / radacu*.

- ¹⁹⁶ (126) agueri Ihardestea. Seiñale-bat campotic ikhusten¹⁹⁶ dena, ceñeñ emaiten bai-tu barrenean¹⁹⁷ Iaincoaren garacia ikhusten¹⁹⁸ ez-tena. <128>
- ¹⁹⁷ (126) ceinec barrenean emaiten baitu Galdeguita. Cembat dira sagaramenduac?
- ¹⁹⁸ (126) agueri Ihardestea. Çazpi.
1. Bathaioa.
2. Confirmacinoa.
3. Gorputz saindua.
4. Penitencia.
5. Oliadura edo anuncioa.
- ¹⁹⁹ (17) Ordena. 6. Ordenac.¹⁹⁹
7. Ezcontça.
Galdeguita. Lehenbico sagaramendua dela bathaioa dioçu. Cer erran nahi du «bathaioa» hitz hunec?²⁰⁰ <129>
- ²⁰⁰ (126-127) Erran baita lehenbico partean ecen bathayoa dela lehen sagaramendua, cer erran nahi du «bathayoa» hitz hunec? Ihardestea. Erran nahi du ikuztea, xahutcea, garbitcea.²⁰¹ Eta handic du bere icena, ceren bathaioac xahutcen²⁰² du arima bekhatu originaletic, eta-are guehiago bethatcen du Iaincoaren dohaiñez eta garaciaz. Orduan sartcen gara Eliçan, eta eguiten gara gai parabisuco loriaren ardiesteco.²⁰³
- ²⁰¹ (127) garbitcea, ikuztea, jahutcea. Galdeguita. Bi-garren sagaramenduaren icenac (cein bai-ta confirmacinoa) cer erran nahi du?²⁰⁴
- ²⁰² (127) garbitcen Ihardestea. Hambat²⁰⁵ nola fermu eta finco <130> eçartea. Eta handic du bere icena, ceren bathaiatueiⁱ berretcen deraue Iaincoaren garacia, eta emaiten deraue etsai gaixto guztien contraco fermu-tassun-bat,²⁰⁶ eta-are fede sainduaren mantenatceco, eta Iaincoa gatic biciaren (behar ba-da) emaiteco esporçua eta ausartcia.
- ²⁰³ (127) eta eguiten gara Iaincoaren seme adoptivo, eta gay parabisuco loriaren ardiesteco. Galdeguita. Cer eguiten du gure baithan hirur-garren sagaramenduac, cein bai-ta gorputz saindua?
- ²⁰⁴ (128) cer erran nahi du, eta cer eguiten du gure baithan? Ihardestea. Emaiten deraucu Iaincoaren <131> garacia, eta berretcen caritatea, cein bai-ta gure arimaren bicitce eguiazcoa.
- ²⁰⁵ (128) Erran nahi du hambat Galdeguita. Cer sinhetsten duçu gorputz sainduaz?
- ²⁰⁶ (128) fermutassun handi bat. Ihardestea. Sinhetsten dut oguiaren eta arnoaren iduriaren azpian daudela eguiazqui eta errealqui Iesu-Christo gure iaunaren gorputz sacratua eta odol preciatua.
- Galdeguita. Nola edo cer moldez eguiten da hori horrela? <132>
- ²⁰⁷ (130) Gure salbatçailleac Ihardestea. Gure Iaincoac²⁰⁷ Ortcegún Saindu arratseanⁱⁱ bere apostoluequin afaritan cegoela erran cituen hitz batçucⁱⁱⁱ erraiten dituztenean aphez ordenatuec, hitz hequen verthutez oguia eguiten da Iesu-Christoren gorputz, eta arnoa odol. Lehen oguia eta arnoa ogui eta arno ciren, baiña apheçac consecratceco hitçac erranez guero, ez-ta oguiric eta-ez arnoric, baiña da Iesu-Christoren odol bicia

ⁱ bathaiatuei] testuan *bathaituei*.

ⁱⁱ arratsean] testuan *arratcean*. B130 *arratsean*.

ⁱⁱⁱ *erran cituen hitz batçuc*: erlatibozko perpausa da.

eta gorputz preciatu bicia divinitatearequin iuntatua, <133> hain eguiazqui eta errealqui nola bai-tago ceruan bere aitaren escuiñeco aldean.

Galdeguita. Sagaramendu saindu haur meçan consecratcen bait-ta, cer sinhetsten duçu meçaz?

Ihardestea. Sinhetsten dut meça dela sacrificio guztien gaiñeco sacrificioa, ceinnetan Iesu-Christoren gorputz preciatua offerendatcen bait-çαιο Iainco aita cerucoari, Iesu-Christo beraren passionearen orhoitçapenetan, gure bekhatuen barkhamendutan, <134> eta halaber hilen eta bicien faboretan.

Galdeguita. Cer da penitencia, cein bai-ta laur-garren sagaramendua?

Ihardestea. Penitencia da behar den bidean, behar den condinoequin eguiten den cofessinoa.

Galdeguita. Cer condicino dira hauc? ²⁰⁸

²⁰⁸ (133) hec?

Ihardestea. Bihotcezcó urriquemendua, hitcezcó cofessinoa eta obrazco satisfacinoa.

Galdeguita. Hirur gauça hauc behar othe <135> dira sagaramendu hunen bidezqui errecibitceco?

Ihardestea. Bai, ceren nola bekhatua eguiten bai-ta hitcez, gogoz eta obraz, hala erremediatu-ere behar da hitcez, gogoz eta obraz. Lehenbicoloric behar dugu gure bekhatuez bihotcezcó urriquemendua, ez guehiago bihurtceco borondate eguiazcoarequin.²⁰⁹ Guero ahoz behar ditugu hec erran, eta ossoqui cofessatu cofessatceco licencia duen cofessor batequin, eta azquenean²¹⁰ cofessorac ordenatcen <136> derauzquigun satisfacinoac edo penitenciazco obrac behar ditugu ossoqui eta debotqui complitu.

²⁰⁹ (134) fermuarequin.

²¹⁰ (134) guero

Galdeguita. Hunela eguiten den penitenciac cer obratcen du gure baithan?

Ihardestea. Barkha arazten derauzquigu han arteraiño eguin ditugun bekhatu guztiac, eta eçarten gaitu Iaincoaren garacian eta adisquidetassunean.

Galdeguita. Bortz-garren sagaramenduac <137> (cein baita anuncio) cer ontassun eguiten deraucu?

Ihardestea. Eriençat nola ordenatua bai-ta, hei barkha arazten derauzte bekhatuen hondarrac, orhoitu gabez,²¹¹ iaquin gabez, edo bercela azquenduⁱ cirenac.²¹² Halaber emaiten deraue indar heriotceco orenean deabruaren tentamenduen garaitceco, eta finean gorputceco ossasuna emaiten deraue, baldin arimacotçat behar ba-dute.

²¹¹ (136) leheneco sagaramenduei orhoitu gabez,
²¹² (136) çaitnenac.

Galdeguita. Sei-garren sagaramenduac <138> (cein bai-ta ordena) cer eguiten du?

Ihardestea. Eliça-guiçonei emaiten deraue escu Eliçaco cerbitçuaren eguiteco eta iendei sagaramenduen emaiteco.

ⁱ *azquendu*: '(azkenik) geratu'.

Galdeguita. Çazpi-garren sagaramenduac (cein bai-ta ez-contça) cer eguiten du?

Ihardestea. Eliçaco ordenancen aruaz ezcontcen direnei emaiten deraue garacia eta fabore baquean eta amorioan elkharrequin <139> bicitceco, haur'ïçaiteco, eta hequen hazteco Iaincoaren bel-durtassunean.

Galdeguita. Çazpi sagaramendu hauc norc ordenatuac dira?

Ihardestea. Iesu-Christo gure iaunac, mundu hunetan ibili cenean.

²¹³ (138) Certaco dira?

Galdeguita. Certaco? ²¹³

²¹⁴ (138) hequin

Ihardestea. Guc hauquin²¹⁴ batean Iaincoaren dohaiñen eta garacien ardiesteco, eta ardiestiric, gueure arimen salbatceco. <140>

Gure azquen fineco gauçez
Hama-hirur-garren capitulua

Galdeguita. Gure *Doctrina Christianaren* laur parteac akhabatu ditugunaz gueroz, orai haren finean gure azquen fineco gauçez behar dugu minçatu. Erradaçu, bada: cein eta cembat dira gure azquen fineco gauçac? <141>

²¹⁵ (34) Azquen finac, be-katuric ez eguiteco go-goan eduqui behar direnac, dira laur:

Ihardestea. Laur. ²¹⁵

²¹⁶ (34) partitcean

Lehenbicioa, heriotceco orena, arimaren gorputcetic partitcera-coan²¹⁶ içanen den herstura.²¹⁷

²¹⁷ (34) eguitecoa eta herstura.

Bi-garrena,ⁱ azquen iudicioco eguna,²¹⁸ eta gure²¹⁹ bici guztian eguin ditugun bekhatuez egun hartan eman beharco den contua.²²⁰

²¹⁸ (34) azquen iudicioa,

Hirur-garrena, ifernua, eta han gaixtoec seculacotz pairatu beharco duten pena eta dolorea.

²¹⁹ (34) iudicioa, gueure

²²⁰ (35) bekatuez eman beharco dugun contua.

Laur-garrena, iustuec eta <142> onec bethiere goçatuco duten parabisuco loria.²²¹

²²¹ (35) Laurgarrena, parabisua, onec eta iustuec fin gabe goçatuco duten loria.

²²² (35) Biz hala.

Iaincoac digula hara heltceco indar, dohain eta garacia.

Amen.²²²

ⁱ Bi-garrena] testuan *Bi-garena*.

5
1623KO ARGITALPENEA: TESTUA

Dotrin[a]⁶⁸ Christiana
Bigarren impressionean debocinozco
othoitz eta oracino batçuez berreturic.

Aita Esteve Materre San Franciscoren ordenaco fraideac
hirur partetan eguina.

Bordelen, Iacques Millanges erregueren imprimaçaillearenean. 1623.

<[i]>

[Li]buru hunec hirur parte ditu.

[L]ehenbicoan ibencen⁶⁹ da guiristinoac iaquin behar duen doctrina⁷⁰ declaracino⁷¹ gabe.

Bigarrenean doctrina haren⁷² declaracinoa galdeguinez⁷³ eta ihardetsiz⁷⁴ eguina.

Hirugarrenean çarten dira debocinozco othoitz eta oracino batçuc bere dembo-retan eguin eta erran behar direnac. <[ii]>

À monseigneur,

Monseigneur le reverendissime Claude de Rueil, evesque de Bayonne, conseiller du Roy en ses Conseils d'Etat et Privé, aumosnier et predicateur ordinaire de sa majesté, etc.

Monseigneur,⁷⁵

Voicy ce livret escrit en basque et dressé pour⁷⁶ le profit des basques, <[iii]> qui se vient rendre à vous, qui estes le prelat tres merité de cette nation basque. Il vous est jus-

⁶⁸ Izenburuaren azala apurtuta dago ertzetik, eta ondoren errestauratuta. Orrialde honen kasuan, goialdeko eskumako ertza da: <A> letraren ezkerreko hankaren hasiera besterik ez da ikusten.

⁶⁹ ibencen] testuan *ibenucen*. Testuan zehar B291 *ibencen* nahiz B122 *ibentcen* lekukotzen da, baina adibide bana dago bakarrik.

⁷⁰ Norbaitek eskuz gehitu ditu <ctr> letrak errestauratutako zatian.

⁷¹ declaracino] testuan *declaracinp*.

⁷² Norbaitek eskuz gehitu ditu <re> letrak errestauratutako zatian.

⁷³ Norbaitek eskuz gehitu du <n> letraren zati bat.

⁷⁴ ihardetsiz] testuan *igaadetfiz*.

⁷⁵ Monseigneur] testuan *Monseignfur*.

⁷⁶ pour] testuan *ponr*. Tipoa iraulita dago.

tement deü, puis qu'il a esté con[çe]ü dans le territoire d[e] vostre dioceze, et d'ailleurs comme il traicte de l'instruction spirituelle des ames, il se vient par devoir jeter entre les bras de celuy sous et par l'auctorité duquel est departi et administré <[iv]> le pain de la doctrine salutaire. Ce zeile ardent que vous tesmoignez au salut de ces ames qui vous sont commises, et de soing pastoral qui vous fait employer à la visite de vostre troupeau, avec tant d'affection comme un chacun sçait, me portent à croire que vous ne rejetterez pas ce mien ouvrage, lequel quoy que petit et indigne de vous estre presenté, vous avez <[v]> neantmoins cy-devant advoué propre et utile pour l'advancement spirituel de ceux auxquels je le destine: joint que ceste affabilité gracieuse, que la nature a si vivement emprunt en vostre visage,⁷⁷ me fait esperer que vous luy ferez un accueil agreable, tant en consideration de son utilité, comme aussi pour la sincere intention de celuy qui le vous dedie. Agreez <[vi]> doncques je vous supplie que son front soit honoré de vostre nom celebre, afin qu'il soit de tant mieux receü de vos diocesains basques qu'il sera par eux recognu pour votre, et comme ne venant en leurs mains que par celles de leur prelat, qui respire à toute reste le bien et salut de leurs ames. Sur l'assurance de ceste faveur je prieray ce grand Dieu qui coronne de gloire <[vii]> ceux qui procurent l'accroissement de son honneur, qu'il benisse vos louables desseins, et comble vostre ame de ses graces: et avec ce me diray en toute humilité,

Monseigneur,
Vostre tres humble et tres obeyssant serviteur.
F. E. Materre.

<[viii]>

Euscaldunei

Miretsico⁷⁸ duçue, aguian, nic (Euscal Herrico ez naicelaric) euscaraz esquiribatceco ausartciaren hartcea. Baiña baldin considera badadi, edirenen duçue eztela gauça hunetan ausartciaric, eta ez cer miretsiric, aiticic, bertcela eguin banu miretsi behar çatequeyela <[ix]> eta erran ahanci citçaitala⁷⁹ neure eguinbidea. Ceren Iaincoac niri hitzcunça hunen ikasteco ance⁸⁰ appur bat eman derautanaz gueroz, idurritcen çait hoben nuqueyela, eta are⁸¹ ezagutça gutitaco eta esquergabe içanen nin-cela, baldin Euscal Herrian ikassia Euscal Herrico⁸² probetchutan emlegatu ezpanu.

Evangelioço cerbitçari <[x]> alfer hura gaztigatu çuen bere nabusiaco, ceren irabacian erabiltceco⁸³ errecibitu çuen talentua⁸⁴ eta dirua estalia eta ehortcia eduqui çuen. Handic içan naiz⁸⁵ ni ere beldur hala guertha cequidan, baldin euscaraz minçatceco⁸⁶

⁷⁷ visage] testuan *vifage*.

⁷⁸ *Miretsico*: 'harrituko'.

⁷⁹ citçaitala] testuan *cit- / çaitala*.

⁸⁰ ance] testuan *ence*. A11 *ance*.

⁸¹ are] testuan *cre*. A12 *are*.

⁸² Herrico] testuan *herico*.

⁸³ erabiltceco] testuan *erabiltcero*.

⁸⁴ talentua] testuan *taletntua*.

⁸⁵ naiz] testuan *noiz*.

⁸⁶ minçatceco] testuan *mençatcero*.

ardietsi⁸⁷ dudan talentua eta iaquina, arima irabacian⁸⁸ emlegatu gabe, hortcia eta gordea <[xi]> eduquitcen banuen. Eta etçait iduri asco⁸⁹ dela cadiratic predicatuz probetchu eguitea, baiña are uste dut esquiribuz ere behar dela enseyatu eta trabai-llatu.

Eta nola lanac cimendutic behar baitu hasi, eta gure salbamenduco obraren cimendua baita *doctrina christiana*, halatan nic ere, handic <[xii]> hasten naicela, hartu dut gogo liburutto hunen eguiteco, eta iendartera atheratceco, hunetan (bertce eracusleric eztenean) ikus dadin laburzqui cer ere sinhetsi, obratu eta escatu behar baita, eta guero ikus dadin, halaber, nola behar den euscara esquiribatu eta iracurtu.

Gaiñeracoan badaquit <[xiii]> Euscal Herrian añhitz moldez minçatcen direla, eta nori bere herrico euscara çaicala hoberenic eta ederrenic, eta handic⁹⁰ gogoac⁹¹ emaiten⁹² deraut⁹³ ene esquiribatceco molde haur etçayela guztiei ongui idurituco. Baiña nahi dut iaquin deçaten halacoec nic⁹⁴ hitzcuntça hunetan daquidana Saran ikassia <[xiv]> dudala, eta hango euscara ongui erabiltcen badut ez naicela gaitz erraitceco, eta ez arbuyatceco,⁹⁵ ceren ezpaitaquit nic hangoa baicen. Ordea ea Saraco euscara denz Euscal Herrico hoberena eta garbiena, ez naiz ni hartan sartcen, batbederac emanen du bere iduriric. Eta Saraco euscara hunetçaz content eztenac <[xv]> ezquiriba beça bertce euscara hobeago batez eta hobequiago; ez naiz ni hargatic bekaiztuc, eta ez imbidios içanen.

Finean hemen den guztia borondate on batequin laincoaren ohoretan eta arimen probetchutan eguina da. Hala, beraz, errecibi eçaçue, eta çuen oracinoetan eguin naçaçue partale. <[xvi]>

Examinaçaleen approbacinoa

Ikussi dut Bayonaco iaun vicario generalaren manuz *Dotrina Christiana* daritçan liburu bat Aita Materrac eguina, eta edireiten dut eztuela deus ere gure fede sainduaren contraco gauçaric.⁹⁶ Aitcitic, dela obra bat ttipia delaric handia, hitz gutiz añhitz erraiten duena, ongui esquiribatua, eta meregi duena ibil <[xvii]> dadin iendartean eta guztien escuetan. Saran eguina abendoaren⁹⁷ lehenean,⁹⁸ milla seyetan⁹⁹ ehun eta hamasei¹⁰⁰ garren urthean.

P. de Axular.

⁸⁷ ardietsi] testuan *ardiesi*.

⁸⁸ irabacian] testuan *itabacian*.

⁸⁹ asco: 'aski'.

⁹⁰ handic] testuan *handie*.

⁹¹ gogoac] testuan *gogoca*.

⁹² emaiten] testuan *emaitan*.

⁹³ *gogoac emaiten deraut*: 'iruditzen zait, irudipena dut' (cf. *OEI*, s.v. *gogoac eman*).

⁹⁴ nic] testuan *nec*.

⁹⁵ *ez naicela gaitz erraitceco, eta ez arbuyatceco*: 'ez naizela gaitz erraitcekoa (gaitzesgarria) eta arbuyatcekoa'. Antzeko egituran absolutibo mugatua ere badarabil: B97 *virgina bere baitan laudatcecoa dela*.

⁹⁶ gauçaric] testuan *gauçatic*.

⁹⁷ abendoaren] testuan *Abendoraen*.

⁹⁸ lehenean] testuan *leheneau*. Tipoa iraulita dago.

⁹⁹ seyetan] testuan *feyetan*.

¹⁰⁰ hamasei] testuan *hamesei*.

<[xviii]>

Ikussi dut eta iracurtu gure iaun vicario generalaren manamenduaren¹⁰¹ azpian Aita Materra San Franciscoren ordenaco fraide eta Reuleco gardianac eguin duen *Dotrina Christiana*,¹⁰² eta eztut hartan edireiten gure fede eta Eliça Ama Catholica Sainduaren contraco gauçaric. Aitcitic, iduritcen çait dela euscaldun guztiençat probetchu <[xix]> handitacoa, eta hala imprimaturic arguira ilquitceco digne dela. Issatsun eguina abendoaren bortz garren egunean, milla seyetan ehun eta hamasei garren urthean.

P. de Guilantena.

<[xx]>

Licentia vicarii generalis

Visa approbatione doctorum virorum, quibus demandavimus examinationem catechismi cantabrico idiomate a patre Stephano Materre, gardiano conventus Reolæ ordinis Sancti Francisci de Observantia, compositi, permittimus ut in lucem <[xxi]> emitatur. Datum Bayonæ, die 12 decembris anno domini 1616.

*M. D'Oiharard.
Vicarius generalis.*

<[xxii]>

Licentia R. P. provincialis

Nos, frater Guillelmus, a Sancto Dionisio fratrum minorum regularis observantia provinciæ Aquitaniæ, antiquioris minister provincialis et servus, facultatem concedimus venerabili patri Stephano Materre, nostri conventus Reolæ gardiano, ut catechismum quem cantabrico <[xxiii]> idiomate composuit, ad communem illius gentis utilitatem typis mandari curet. Datum Reolæ, in nostro conventu Sancti Francisci de Observantia, die 9 ianuarii anno domini 1617.

*Fr. Guillelmus a Sancto Dionisio.
Minister provincialis.*

<[xxiv]>

Iracurçailleari

Nola bethiere aprendiz eta ikasbehar baicara, eta gaitz baita obra baten alde guztiz¹⁰³ jugen, nehorc ecin arbuya deçaqueyen beçala eguitea, beha egotu naiz ea cer erraiten çuten iendec nic cembait urthe¹⁰⁴ duela esquiribatu nuen guiristinoaren do-

¹⁰¹ manamenduaren] testuan *manamanduaren*.

¹⁰² *Christiana*] testuan *Christana*.

¹⁰³ *alde guztiz*: 'erabat, zeharo, guztiz'.

¹⁰⁴ urthe] testuan *vrthute*.

trinaz, eta ediren dut ecen batçuen artean <[xxv]> hartçaz cebilan solhasa eta erraiten cena cela dotrina eta dotrinaren declaracinoa,¹⁰⁵ ez elkarrequin, baiña beregainqui eta bereciqui bi partetan ibeni behar cirela.¹⁰⁶ Bada, halaco hei¹⁰⁷ atsegin eguitea gatic, eta neroni¹⁰⁸ ere ezteza gaizquiago idurituric,¹⁰⁹ bereci ditut elkar ganic, eta eguin bi parte. Eta ceren añhitz baita Euscal Herrian iracurtcen daquienic, baiña ez euscara baicen <[xxvi]> bertce hitzcunçaric aditcen, halatan eguin ditut halacoençat¹¹⁰ euscaraz debocinozco othoitz eta oracino batçuc, goicetan, arratsetan eta bertce¹¹¹ añhitz¹¹² demboratan eta ocasinotan eguin eta erran ahal ditezqueyenac,¹¹³ ceinetçaz eguiten baitut hirugarren partea. Guztiaç dohaci borondate on batez eguinac:¹¹⁴ eguieçu beguitarte,¹¹⁵ eta errecebi¹¹⁶ itçaçu nic, ceureac¹¹⁷ balira, errecibi¹¹⁸ nitçan <[xxvii]> nahi cenduqueyen beçala.

<[1]>

Lehen partea
Guiristinoac¹¹⁹ iaquin behar duen doctrina
declaracino gabe

Pater noster

Gure aita ceruetan çaudena, erabil bedi sainduqui çure icena, ethor bedi çure erresuma, eguin bedi çure borondatea ceruan beçala lurrean ere, iguçu <2> egun gure eguneco oguia, eta barka diatçaguçu gueure çorrac, guc gure gana çordun direnei barkacen derauztegun beçala, eta ezçaitçaçula utz tentamendutan erortcera,¹²⁰ aiticic, beguira gaitçaçu gaitcetic. Biz hala, salbatçaillea.

Ave Maria

Agur Maria, garaciaz bethea, iauna da çurequin, benedicatua çara emazteen <3> artean, eta benedicatua da çure sabeleco fruitua, Iesus. Maria saindua, Iaincoaren ama, eguçu othoitz gu bekatoreoc gatic, orai eta gure heriotceco orenean. Biz hala, salbatçaillea.

¹⁰⁵ declaracinoa] testuan *deklaracinoa*.

¹⁰⁶ cirela] testuan *cirela*.

¹⁰⁷ hei] testuan *hei*.

¹⁰⁸ neroni] testuan *neroni*.

¹⁰⁹ idurituric] testuan *idurituric*.

¹¹⁰ halacoençat] testuan *halacoençat*.

¹¹¹ bertce] testuan *bertce*.

¹¹² añhitz] testuan *añhitz*.

¹¹³ ditezqueyenac] testuan *ditezqueyenac*.

¹¹⁴ eguinac] testuan *eguinac*.

¹¹⁵ beguitarte] testuan *beguitarte*.

¹¹⁶ errecebi] aldaera posiblea da, baina gainerakoetan *errecibi-* dago.

¹¹⁷ ceureac] testuan *ceureac*.

¹¹⁸ errecibi] testuan *errecibi*.

¹¹⁹ Guiristinoac] testuan *Guiristinoac*.

¹²⁰ erortcera] testuan *erortcera*.

Credo in Deum

Sinhesten dut Iainco aita bothere guztia duena, ceruaren eta lurraren eguilea baithan, eta Iesu Christo haren seme bakoitz gure <4> iauna baithan, cein concebitu baitcen Espiritu Sainduaren obraz, sorthu cen Maria virgina ganic, pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian, crucificatu çuten, hil cen eta ehorci çuten, iausti cen ifernuetara, iaiqui cen biciric hirur garren egunean hilen artetic, ikan cen ceruetara, iarriric dago Iainco aita bothere guztia duenaren escuiñeco aldean: handic ethorrico da hilen eta bicien iulgatcera.¹²¹ Sinhesten <5> dut Espiritu [Sa]indua baithan, Eliça Catholica Saindua, sainduen partaletasuna, bekatuen barkamendua, haraguiaren piztea, bethiere iraunen duen bicitcea. Hala da, salbatçaillea.

Salve Regina

Agur erreguina, misericordiaren ama, bicitcea, eztitasuna eta gure esperança, agur. Çure gana gaude oihuz Evaren seme desterratuoc. <6> Çure gana gaude hatsbeherapenez, ayez eta nigarrez nigarrezco haran hunetan. Ea, bada, gure arartecoa, çure begui misericordiazco horiec itçul itçacu gure gana, eta Iesus benedicatua, çure sabeleco fruitua, eracuts diaçaguçu desterru hunen ondoan. A bihotz bera! A urricalmendutsua! A Maria virgina ezta! <7>

Iaincoaren manamenduac

Iaincoaren manamendu sainduac dira hamar:

Lehenbicoa, Iainco bat dela sinhetsiric, hura bera gauça guztien gaiñetic onhets, adora eta cerbitça deçagula.

Bigarrena, arneguric, çinic edo iuramenturic vanoqui eta premia gabe eztaguigula.

Hirurgarrena, igandec eta bertce bestac beguira <8> ditçagula.

Laurgarrena, gueure burhasoac ohora ditçagula.

Bortzarrena, nehor hil ezteçagula.

Seigarrena, haraguzco obraric ezcontçaz campoan eztaguigula.

Çazpi garrena, deus ebats ezteçagula.

Çortcigarrena, nehor falseriaric erauz eztaçogula.

Bederatci garrena, bertceren senharric edo emazteric desira ezteçagula. <9>

Hamar garrena, lagunaren onhasunari guthicia ezcaquitçala.

Eliçaren manamenduac

Eliça Ama Sainduaren manamenduac dira bortz:

Lehenbicoa, igandetan eta bertce bestetan meça ossoa ençun deçagula.

Bigarrena, urthean behin bedere cofessa gaitecila. <10>

Hirurgarrena, gorputz saindua Bazco gariçumacoz errecibi deçagula.

Laurgarrena, gartha demboretan, vigilietan eta gariçuman (baldin traburic ezpadugu) barur gaitecila.

¹²¹ *iulgatcera*: 'jujatzera, epaitzera'.

Bortzgarrena, hamarren primiciac ossoqui paga ditçagula.

Bortz manamendu hauquen gaiñera baditu Eliçac bi debecu. Bata da ortcilare-larumbatetan haraguiric ez iattea, <11> eta bertcea abendoaren lehenbico igandetic Trofaniaraiño edo Erregueen eguneraiño, eta Hauste egunetic Bazco çahar arteño ez-zeyric ez eguitea, espos meçaric ez ençutea.

Articulu fedezcoac

Articulu fedezcoac, guiristinoac sinhetsi behar dituenac, dira hamalaur: çazpiac dira <12> Iaincoari Iainco beçala uquitcen çaitçanac, eta bertce çazpiac Iesu Christo gure salbatçaileri guiçon beçala dagotçanac.

Iaincoari Iainco beçala uquitcen çaitçanac dira hauc:

Lehenbicoa, badela Iainco bat indar eta bothere guztia duena.

Bigarrena, Iaincoa dela aita.

Hirurgarrena, Iaincoa dela seme.

Laurgarrena, Iaincoa dela Espiritu Saindu. <13> Aita, semea eta Espiritu Saindua: hirur presuna eta eguiazco Iainco bat.

Bortzgarrena, Iaincoa dela creatçaillea.

Seigarrena, Iaincoa dela salbatçaillea.

Çazpigarrena, Iaincoa dela lorificatçaillea.

Bertce çazpiac, Iesu Christo gure salbatçaileri guiçon beçala dagotçanac, dira hauc:

Lehenbicoa, Iaincoaren semea concebitu cela eta eguin guiçon Virgina Mariaren <14> sabelean Espiritu Sainduaren obraz.

Bigarrena, sorthu cela gueldituric Andre dana Maria erdi baiño lehen, erditcean eta erdiz guero ere virgina.

Hirurgarrena, crucificatu çutela, hil cela eta ehorci çutela.

Laur garrena, iautsi cela ifernuetara, erran nahi da, lurraren barreneco leku behe-
retara edo limboetara, eta handic athera cituela han haren ethortcearen beguira <15>
ceuden arima sainduac.

Bortzgarrena, piztu cela hirur garren egunean.

Seigarrena, ikan cela ceruetara, eta iarriric dagoela bere aitaren escuineco aldean.¹²²

Hamalaur articulu hauquen gaiñera eman ahal ditezque oraiño bortz guehiago *Credotic* atheraric.

Lehenbicoa, badela Eliça bat, erran nahi da, guiristino fidel guztien battasun bat eta <16> compaiña bat.

Bigarrena, Eliça hunetan badela obra on guztien partaletasuna.

Hirurgarrena, badela, halaber, bekatuen barkamendua.

Laurgarrena, munduaren azquen finean guztioç piztu beharco dugula.

Bortzgarrena, mundu hunetaco bicitcearen ondoan içanen dela bertce munduan bicitce finic eta akabatceric içanen eztuen bat. <17>

¹²² Zazpigarrena falta da. A70-71 *Çazpi-garrena, handic ethorrico dela azquen egunean hilen eta bicien iuiatcera.*

Sagaramenduac

Eliçaco sagaramendu sainduac dira çazpi:

1. Bathayoa.
2. Confirmacinoa.
3. Gorputz saindua.
4. Penitencia.
5. Oliadura edo anuncioa.
6. Ordena.
7. Ezcontça. <18>

Verthuteac

Verthute principalac dira çazpi, eta hetaric hirurac deitzen dira theologalac eta laurac cardinalac.

Theologalac dira fedea, esperança eta caritatea.

Cardinalac dira prudencia, iusticia, temperancia eta borthitztasuna. <19>

Perficioneco conseilluac

Perfet içaiteco conseilluac dira hirur:

1. Borondatezco probetasuna.
2. Bethiereco castitatea.
3. Bekaturic ezten gauça guztietan obedient içaitea. <20>

Obra misericordiazcoac

Obra misericordiazcoac, guiristinoac¹²³ complitu behar dituzqueyenac, dira hamalaur: çazpiac dira arimacoac eta bertce çazpiac gorputcecoac.

Arimaco çazpiac dira hauc:

1. Eztaquienari¹²⁴ eracustea.
2. Bekatorearen corregitcea eta cençatcea. <21>
3. Beharrear dagoenari conseillu onaren emaita.
4. Tristeen consolatça.
5. Bidegabean pacientqui pairatcea.
6. Gaizqui eguilei barkatcea.
7. Bicien gatic, hilen gatic eta gaizqui eguiten¹²⁵ deracutenac gatic othoitz eguita.

Gorputçecoac dira hauc:

1. Gosse denari iattera emaita. <22>
2. Egarrri denari edatera¹²⁶ eskentcea.
3. Erromerian dabilçanen eta bertce beharren ostatatcea.

¹²³ guiristinoac] testuan *Guiristonoac*.

¹²⁴ Eztaquienari] testuan *Eztquienari*.

¹²⁵ eguiten] testuan *eguiten*.

¹²⁶ edatera] testuan *edatetera*.

4. Bilucien bestitcea.
5. Erien eta garcelan daudenen visitatcea, hautemaitea¹²⁷ eta consolatçaea.
6. Gathibuen libratcea eta atheratcea.
7. Hilien ehorztea.

Hauc dira hamalaur obra misericordiazcoac, eta deitzen dira misericordiazcoac eta ez iustiazcoac, ceren cembait <23> behar ordu premiazcoz bertcetari, debocinozcoac eta borondatezcoac baitira, eta ez obligacinozcoac edo bortchazcoac.

Espiritu Sainduaren dohaiñac

Espiritu Sainduaren dohaiñac dira çazpi:

1. Çuhurçia.
2. Adimendua.
3. Conseillua.
4. Borthitztasuna.
5. Iaquintasuna.
6. Pietatea. <24>
7. Iaincoaren beldurtasuna.¹²⁸

Çortci dohatsutassunac

Çortci presuna suerte dohatsu direla erraiten du gure salbatçailleac bere evangelioan, eta baitira hauc:

1. Gogoz eta borondatez probe direnac.
2. Presuna emeac eta mansoac.
3. Nigar eguiten dutenac.
4. Iusticia gosse eta <25> egarri direnac.
5. Misericordia eguiten dutenac.
6. Bihotzez jahu direnac.
7. Presuna baquezcoac.
8. Iusticia gatic persecucioneac eta travailluac pairatcen dituztenac.

Bekatuen diferenciac

Bi bekatu suerte dira: originala eta actuala. <26> Bata da mortala eta bertcea veniala.

Bekatu mortal buruçaguiac

Bekatu mortal buruçaguiac dira çazpi:

1. Uргуillutasuna.
2. Avaricia.
3. Haraguzco bekatua edo emakhoitasuna.

¹²⁷ *hautemaitea*: 'artatzea, zaintzea, arreta ematea'.

¹²⁸ beldurtasuna] testuan *Beldutasuna*.

4. Imbidia.
5. Gula edo sabeldarrayotasuna.
6. Hasserretassuna. <27>
7. Naguitasuna.

Çazpi bekatu mortalen erremedioac

Çazpi bekatu hauquen contra badira çazpi erremedio:

1. Uguillutasunaren contra, humiltasuna.
2. Avariciaren contra, liberaltasuna.
3. Haraguzco bekatuaren contra, castitatea, emaztetic apart egoitea.
4. Imbidiaren contra, onheriztea.
5. Gularen soberaniazco <28> ian-edanaren contra, abstinencia, neurritz iattea eta edatea.
6. Hasserretassunaren contra, diligencia, erne eta iratçarri içaita.¹²⁹

Espiritu Sainduaren contraco bekatuac

Espiritu Sainduaren contra direla erraiten diren bekatuac dira sey:

1. Iaincoaren misericordiaz etsitcea eta desesperatcea. <29>
2. Obra onic gabe salbatuco dela uste içaita eta¹³⁰ presumitcea.
3. Eguia iaquinaren eta ezagutuaren contra ioaita.
4. Bertceren ontassun espiritalaz damu hartcea.
5. Bekatutan itsuturic eta gogorturic egoitea.
6. Azquen finean penitenciaric eguin gabe bekatu mortaletan hiltcea. <30>

Iaincoaren aiticnean oihuz mendecu esque dauden bekatuac

Iaincoaren aiticnean oihuz mendecu esque daudela erraiten diren bekatuac dira laur:

1. Gogoan deliberaturic eta aiticnetic pensaturic eguiten den heriotcea.
2. Naturaren contra eguiten den haraguzco bekatua.
3. Probeen gaizqui tratatcea.
4. Cerbitçaric eta languiley <31> bere soldataren eta iornalaren goratcea,¹³¹ eta bortchaz eduhitcea.¹³²

Erraiten da laur bekatu hauc mendecu esque daudela, ceren bertce guztien artetic hain itsusiac eta çucenaren contracoac baitira, non berac bere eguileen contra iaiquitcen baitira.

¹²⁹ Zazpigarren bekatua aipatzea falta da. Gainera, Salaberrik (2013: 670) dioen bezala, seguruenik lerroren bat falta da, eta haserretasunaren erremediotzat ematen dena nagitasunari dagokio. Salaberriren arabera, horrela beharko luke: «6. Hasserretassunaren contra, [Paciencia. 7. Naguitasunaren contra] Diligencia, erne eta iratçarri içaita.»

¹³⁰ eta] testuan *ete*.

¹³¹ *goratcea*: 'kentzea'

¹³² *eduhitcea*: 'atxikitzea'.

Bertceren bekatu uquitcen gaituztenac

Bertceren bekatuac, bertceren direlaric gu ere uquitcen¹³³ gaituztenac, <32> dira bederatci:

1. Gaizqui conseillatcea.
 2. Gaizqui manatcea.
 3. Gaizqui eguitera narritatcea.
 4. Gaizqui eguilearen consentitcea.
 5. Lausengatcea.
 6. Gaizqui eguiten duenari laguntcea.
 7. Gaizqui eguilearen alde iartcen garela, haren defendatcea.
 8. Gaizqui eguiten duela avisatu behar bidean, igilic egoitea.
 9. Ez ikussi eta ez aditu <33> eguiten duela, bertceren falten dissimulatcea.
- Bekatu hauc, bercerenac direlaric, gure ere badira, ceren partale guerthatcen baicara.

Arimaren etsayac

Arimaren etsayac dira hirur: mundua, deabrua eta haraguia. Hetaric handiena da haraguia, ceren mundua eta deabrua khen <34> ditçaquegu gueure ganic, baiña ez haraguia.

Laur azquen finac

Azquen finac, bekaturic ez eguiteco gogoan eduqui behar direnac, dira laur: Lehenbicoa, heriotceco orena, arimaren gorputcetic partitcean iñanen den eguitecoa eta herstura.

Bigarrena, azquen iudicioa, gueure bici guztian eguin ditugun bekatuez <35> eman beharco dugun contua.

Hirurgarrena, ifernua, eta han gaixtoec seculacotz pairatu beharco duten pena eta dolorea.

Laurgarrena,¹³⁴ parabisua, onec eta iustuec fin gabe goçatuco duten loria. Iaincoac digula hara heltceco indar, dohain eta garacia. Biz hala. <36>

Bigarren partea **Guiristinoac iaquin behar duen doctrinaren declaracinoa,** **galdeguinez eta ihardetsiz eguina.**¹³⁵

Guiristinoaren icenaz
Lehenbico capitulua

Galdeguitea. Erradaçu lehenbicoric, ea guiristino çarenz.

Ihardestea. <37> Bai, Iaincoari esquer.

Galde. Eta nor deitcen duçu guiristino?

¹³³ uquitcen] testuan *vqiten*. Testuan *uquitcen* forma bakarrik lekukotzen da, 8 aldiz (eta *huquitce* behin); berdin A testuan ere, *ukhitce* grafiarekin.

¹³⁴ Laurgarrena] testuan *Laurgarrena*.

¹³⁵ eguina] testuan *eguinea*.

Ihar. Iesu Christo iaunaren fedea eta leguea duena, eta haren a rauera bicitcen dena. Galde. Nondic heldu da «guiristino» icen haur?

Ihar. Iesu Christo gure iauna ganic, cein baita Iaincoaren seme eta munduaren salbatçaille.

Galde. Eta erran baituçu Iesu Christoren fedea duena dela <38> guiristino, certan dago principalqui Iesu Christoren fedea?

Ihar. Bi pontutan.

Galde. Cein dira hec?

Ihar. Bata da Trinitate Sainduaren misterioa, eta bertcea Iaincoaren semearen incarnacinoa.

Galde. Cer erran nahi du «trinitate» hitz hunec?

Ihar. Iainco bat dela hirur presunatan.

Galde. Eta, berriz, cer erran nahi du «incarnacinoa» <39> bertce hitz hunec?

Ihar. Hirur presuna hetaric bigarrena (cein baita semea) haraguz beztitu cela, giçon eguin, eta hil gurutcean, gure salbatceagatic.

Galde. Nola aditcen duçu Iainco bat dela hirur presunatan?

Ihar. Aditcen dut Iaincoa baithan eztela edireiten iaincotassun bat, içaite bat eta naturaleça bat baicen, cein ala baiña baitago hirur <40> presunatan, deitcen baitira aita, seme eta Espiritu Saindu.

Galde. Cergatic erraiten duçu hirur presuna hec eztirela Iainco bat baicen?

Ihar. Ceren hirurec naturaleça ber bat, içaite bat eta bothere bat baicen ezpaitute. <41>

Guiristinoaren seiñaleaz Bigarren¹³⁶ capitulua

Galdeguitea. Cein da guiristinoaren seiñalea?

Ihardestea. Gurutce saindua.

Galde. Cergatic?

Ihar. Ceren harequin eguin baitu Iaincoaren semeac gure salbamenduco obra.

Galde. Nola eguiten duçu gurutcearen seiñalea?

Ihar. Lehenic emaiten <42> dut escua belarrean,¹³⁷ erraiten dudala *in nomine patris*, guero bulharretan, erraiten dudala *et filii*, guero ezquerreco eta escuineco sorbaldetan, erraiten dudala¹³⁸ *et spiritus sancti*, eta guero azquenean escuac elkarganatcen ditut, erraiten dudala *amen, Iesus*.

Galde. Gurutcearen seiñalearen eguiteco hitz hauc latinez baitira, cer erran nahi <43> dute euscaraz?

Ihar. Erran nahi dute: «aitaren, semearen eta Espiritu Sainduaren icenean, biz hala, salbatçaille».

Galde. Noiz edo cer okasinoetan eguin behar da gurutcearen¹³⁹ seiñalea? Noiz behar da ceiñatu?

¹³⁶ Bigarren] testuan *Bigaren*.

¹³⁷ *belarrean*: 'bekokian'.

¹³⁸ dudala] testuan *duda*.

¹³⁹ gurutcearen] testuan *Gurutceare*, ziurrenik <ẽ>-ren orde. A32 *gurutcearen*.

Ihar. Goicean ohetic iaiquitcean, arratsean oheracoan, ethetic ilquitcean, eñan sartcean, oracino erraiteracoan, othurunçatceracoan,¹⁴⁰ obrari <44> lotceracoan, deusen periletan garenean, cembait icialdurac hartcen gaituenean eta, finean, espiritu gaixtoac tentatcen gaituen guztietan.

Guiristinoaren eguinbideaz
Hirurgarren capitulua

Galdeguitea. Cer iaquin behar du guiristinoac bere eguinbidearen eguiteco? <45>
Ihardestea. *Doctrina christiana*.

Galde. Cer deitzen duçu « *doctrina christiana* »?

Ihar. Iesu Christo gure iaunac arimaren salbamenduco eracutsi derauzquigun gauçen declaracino bat.

Galde. Cembat parte ditu doctrina hunec?

Ihar. Laur principalenac.

Galde. Cein dira hec?

Ihar. Articulu fedezcoac, oracinoac, manamenduac eta sagaramend uac. <46>

Galde. Cergatic eztira laur baiño gutiago edo guehiago?

Ihar. Ceren guiristinoac, salbatua içaitecotçat, laur gauça behar baititu bere baithan eduqui: fedea, esperança, caritatea eta laincoaren garacia. Fedezco gauçac *Credoan* daunça, esperançazcoac *Pater nosterean*, caritatezcoac hamar manamenduetan, eta laincoaren garaciaren <47> ardiestecoac çazpi sagaramenduetan.

Galde. Laur gauça hautan sartcen othe da guiristinoaren eguinbi de guztia?

Ihar. Bai, ceren hautan eracusten da cer behar dugun sinhetsi, galdeguin, beguiratu eta errecibitu.

Galde. Cer behar dugu sinhetsi?

Ihar. Articulu fedezcoetan erraiten dena.

Galde. Cer behar dugu galdeguin? <48>

Ihar. Oracinoetan datçana.

Galde. Cer behar dugu beguiratu?

Ihar. Iaincoac eta Eliçac bere manamenduetan manatcen dutena.

Galde. Eta cer behar dugu errecibitu?

Ihar. Eliçaco sagaramendu sainduequin batean emaiten çaicun gar acia.

Bada oray, errepartimendu haur hunela ikussiric, ditçagun declara *Credo*, *Pater* <49> *noster*, *Ave Maria*, *Salve Regina*, manamenduac, sagaramenduac eta bertce gaiñeraco lehenbicico partean declaratu gabe utci ditugun gauçac. Eta lehenbicoric, gaitecin minça *Credoaz*, ceñetan baitaude articulu fedezcoac, gure fedearen cimenduac. <50>

Fedez
Laur garren capitulua

Galdeguitea. Cer finetaco creatu içan da guiçona?

Ihardestea. Iaincoaren cerbitçatceco eta parabisuco loriaren ar diesteco.¹⁴¹

¹⁴⁰ *othurunçatceracoan*: 'otordua egiterakoan'.

¹⁴¹ ardiesteco] testuan *ardeie- / steco*.

Galde. Certçaz ardiesten da parabisuco loria?

Ihar. Fedezco, esperançazco eta caritatezco obrez.

Galde. Cer da fedea?

Ihar. Fedea da Iaincoaren <51> dohain bat, ceñen bidez sinhesten baitugu Iaincoa baithan, eta halaber Iaincoac gure Eliça Ama Sainduari aguertu derautçan gauça guztietan.

Galde. Non daude sinhetsi behar ditugun gauçac?

Ihar. *Credoan* laburzqui bilduric (lehenbico partean eçarria den beçala), ceren hartan edireiten dira articulu fedezcoac. <52>

Galde. Norc eguin du *Credoa*?

Ihar. Hamabi apostoluec eguin çuten, eta den beçala ordenatu, eta halatan da hamabi articuletan errepertitua. Eta hamabi hautan sartcen da cenbait bertce ponuric ere, lehenbico partean erran den beçala.

Ikus deçagun bada, oray, cer maneraz eta nola aditcen diren *Credoan* dauden articuluac. <53>

Credoan dauden articulu fedezcoen declaracinoa
Bortzgarren capitulua

Galdeguitea. Erran duçu *Credoaren* lehenbico articulan Iaincoa baithan sinhesten duçula: cer aditcen duçu Iaincoaren icenaz?

Ihardestea. Aditcen dut Iaincoa dela iaun bat guciz botheretsua, guciz <54> ona, guciz iaquinsuna, eta gauça guztien hastea eta fina.

Galde. Iaincoa cergatic deitcen da «aita»?

Ihar. Ceren Trinitate Sainduaren lehen presunac egundaiñoç gueroztic engendratcen baitu bere sustanciatic seme bat bere iduritacoa.

Galde. Nola aditcen duçu Iaincoa dela guciz botheretsua?

Ihar. Aditcen dut baduela escu nahi duen guztiaren eguiteco, <55> eta bere botherearen indarrez creatu içan dituela ezdeusetaric munduan diren gauça guztiac: cerua, lurra, agueri diren gauçac, eta agueri eztirenac ere bay.

Galde. Nola aditcen duçu bigarren articulua, erraiten denean «eta Iesu Christo haren seme bakoitz gure iauna baithan»?

Ihar. Aditcen dut Trinitate Sainduaren bigarren presuna dela <56> aita cerucoaren seme bakoitça, egundainoz gueroztic haren sustanciatic engendratua, cein baita aitaren berdin gauça guztietan: aita beçain ongui Iainco, haste eta fin gabeco, guciz botheretsu, guciz on, guciz iaquinsun, creatçaille, salbatçaille eta gure iaun.

Galde. Nola aditcen duçu hirugarren articulua, erraiten denean «cein concebitu <57> baitcen Espiritu Sainduaren obraz, sorthu cen Maria virgina ganic»?

Ihar. Aditcen dut, Iaincoaren seme bakoitz hura delaric Iainco eguiazco, dela halaber guiçon eguiazco, ceren beztitu baitcen haraguiz Virgina Mariaren sabelean, ez ordea guiçonaren obraz, baiña bai Espiritu Sainduaren verthutez, guelditcen cela haren ama erdi baiño lehen <58> virgina, erditcean, eta erdiz guero ere.

Galde. Nola aditcen duçu laur garren articulua, erraiten denean «pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian, crucificatu çuten, hil cen, eta ehorci çuten»?

Ihar. Iesu Christo gure iaunac pairatu çuela ainhitz gaitz Poncio Pilatus Iudeaco gobernadoreac sententia emanic, eta harc açota araciric, <59> eta arancezco koroa

buruan eçarriric, itçatu çutela gurutcean, eta hartan hil cela bere odol guztia issuriric, eta guero, gurutctic erautsiric, ehorci çutela thomba berri batetan.¹⁴²

Galde. Nola aditcen duçu bortzgarrena, erraiten denean «iautsi cen ifernuetara, iaiqui cen biciric hirugarren egunean hilen artetic»?

Ihar. Iesu Christo gure iaunaren gorputça <60> thomban barrena cetçan bizquitartean, iautsi cela haren arima ifernuetara, erran nahi da, ez condenatuen ifernura, baiña lurraren barreneco leku behera batçuetara, cein dei baititezque limboac, eta handic athera cituela han haren ethortçearen beguira ceuden sainduen arimac, eta guero, hirur garren egunean (cein baitcen igandea), iaiqui cela biciric <61> loria handiarequin.

Galde. Nola aditcen duçu seigarrena, erraiten denean «ikan cen ceruetara, iarriric dago Iainco aita bothere guztia duenaren escuineco aldean»?

Ihar. Iesu Christo gure iauna, biciric iaiquiz gueroz, eguinic bere apostoluequin berrogei egun, ikan cela hequen buruan bera bere botherez ceruric <62> gorenera, eta aingueru guztic iraganic, iarri cela bere aitaren escuiñeco aldean, erran nahi da, aitaren berdin eta pare, aita beçanbat loria eta ohorerequin.

Galde. Nola aditcen duçu çazpigarrena, erraiten denean «handic ethorrico da hilen eta bicien iulgatcera»?

Ihar. Iesu Christo gure iauna iautsico dela munduaren azquen <63> finean cerutic maiestate handiarequin, egundaiñoco guiçon eta emazte guztien iulgatcera, eta batbederari emanen dioela bere obren arauaz bere merecia, oney seculaco loria, eta gaixtoey seculaco ifernua.

Galde. Nola aditcen duçu çortci garrena, erraiten denean «sinhesten dut Espiritu Saindua baithan»?

Ihar. Sinhetsi behar dugula ecen Trinitate <64> Sainduaren hirugarren presuna dela Espiritu Saindua, ceifñec baitu bere ethorquia aita eta semea ganic, gauça guztietan hequin pare eta berdin, erran nahi da, aita eta semea beçain ongui dela Espiritu Saindua ere Iainco eguiazco, haste eta fin gabe, guztiz botheretsu, guztiz on, guztiz iaquinsun, gauça guztien creatçaille eta iaun. <65>

Galde. Nola aditcen duçu bederatci garrena, erraiten denean «Eliça Catholica Saindua»?

Ihar. Sinhetsi behar dugula munduan dela eguiazco Eliça bat, erran nahi da, guiristino fidelen biltçarre bat, compainia bat eta battassun bat, ceinetan sartcen baitira bathayatu içan direnac, eta Iaincoaren fedea eta leguea eduquitcen duten guztic. <66>

Galde. Nola dioçu Eliça bat dela, munduan aiñhitz eliça denaz g ueroz?

Ihar. Eliça erraiten dudanean ez naiz minço harriz eta çurez eguinac diren eliçez, baiña minço naiz eliça material hetan biltcen diren iende bathayatuaz,¹⁴³ fede eta legue baten azpian bicitcen denaz, ceifñec eguiten baitu Eliça bicia, comunzqui Eliça Catholica deitcen dena. <67>

Galde. Eguiazco Eliça hunen eçagutceco markac eta seiñaleac cein dira eta cembat?

Ihar. Hirur: battassuna, saindutassuna eta generaltassuna, erran nahi da, Eliça dela bat, saindu eta guztietara hedatua.

¹⁴² batetan] testuan *betetan*.

¹⁴³ Ez dago aditzaren eta instrumentalaren arteko numero-komunztadurarik: *bathayatuez* behar luke, edo aditza singularrean. Cf. A58 *eliça material hetan biltcen den iende bathaiatuaz*.

Galde. Nola aditcen duçu Eliçaren battassuna?

Ihar. Aditcen dut guiristino fidel guztiec fede bat, doctrina bat eta sagaramenduen <68> partaletassun bat baicen ez tutelata bere artean eduquitcen, eta battassun hartan bici direla guztiac buruçagui baten gobernuaren azpian, cein baita Erromaco aita saindua, lurrean Iaincoaren lekuaren eduquitçaillea eta haren eguiazco bicarioa.

Galde. Nola aditcen duçu Eliçaren saindutassuna, erraiten denean Eliça dela saindu? <69>

Ihar. Lehenbiceric, aditcen dut Eliça dela saindu, ceren haren buruçagui ikusien eztena (cein baita Iaincoa) saindua baita. Bigarrena, ceren fedea eta leguea baititu sainduac. Hirugarrena, ceren edireiten baita bethiere Eliçan (erran nahi da, guiristinoen artean) fedez eta leguez beçala obraz ere saindu denic, halaco moldez ecen Eliça hunetaric campoan mairuen, <70> turcoen eta bertce halaco iendeen artean ecin da teque eguiazco saindutassunic.

Galde. Nola aditcen duçu Eliçaren generaltassuna?

Ihar. Aditcen dut guiristinoez eguiten den Eliça haur munduan banatua eta barrayatua dela, baiña barrayatua içanagatic,¹⁴⁴ nola guztiec baitute fede bat, legue bat eta buruçagui bat, hala guztiec eguiten dutela <71> Eliça bat eta guiristinotassun bat.

Galde. Articulo hunetan berean erran duçu sinhesten duçula sainduen partaletassuna: cer aditcen duçu sainduen partaletassunaz?

Ihar. Aditcen dut guiristino fidel guztiec badutela parte bat bertcearen oracinoetan eta bertce obra on guztietan, nola gorputceco miembroec ere içaiten baitute goço¹⁴⁵ eta parte <72> elkarren ontassunetan.

Galde. Nola aditcen duçu hamargarren articulu, erraiten denean «bekatuen barkamendua»?

Ihar. Edireiten dela Eliçan bekatuen eguiazco barkamendua sagaramendu sainduen verthutez, halaco moldez ecen nehor bekatuz bethea, Iaincoarequin etsaitua eta ifernuco penetara condenatua egonagatic¹⁴⁶ ere, bada Eliçan behar <73> den erremedio guztia.

Galde. Nola aditcen duçu hamabigarrena,¹⁴⁷ erraiten denean «bethiere iraunen duen bicitcea»?

Ihar. Aditcen dut mundu hunetaco bicitce bat fin gabecoa,¹⁴⁸ eta onençat ontasunez eta dohainez bethea.

Galde. Cer erran nahi du «amen» hitz hunec?

Ihar. Leku hunetan hambat nola «hala da <74> eguiazqui», edo «hala sinhesten dut nola erraiten baitut».

¹⁴⁴ içanagatic] testuan *içan agatic*.

¹⁴⁵ *goço*: 'onura, mesede, probetxu'.

¹⁴⁶ egonagatic] testuan *egon agatic*.

¹⁴⁷ Hamaikagarrena falta da. A64 GALDEGUITEA. *Nola aditcen duçu hameca-garrena, erraiten denean «baraguiaren piztea»? IHARDESTEA. Egundaiñoco guiçon eta emazte guztiac piztuco direla munduaren azquen finean, eta iaiquico biciric bere leheneco gorputcequin.*

¹⁴⁸ Esaldi honetan zati bat falta da, eta bere horretan ez du zentzurik. A65 *Mundu hunetaco bicitce miseriazco hunen ondoan ba-dela ceruan bertce bicitce-bat fin-gabecoa.*

*Pater noster*aren deklaracinoa
Seigarren capitulua

Galdeguitea. Hunerañocoan minçatu gara fedeari dagotçan gauçez, orai esperançari uquitcen çaitçanac behar ditugu declaratu, eta hartaracotçat erradaçu: cer da esperança? <75>

Ihardestea. Esperança da verthute bat ceinec emaiten baiteraucu fidancia handi bat Iaincoaren faborearequin batean ceruco loriaren ardiesteco.

Galde. Noren baithan behar dugu gueure esperança eçarri eta edu qui?

Ihar. Iainco eguiazcoa baithan.

Galde. Cer gauça uste dugu ¹⁴⁹ ardietsi haren ganic?

Ihar. Arimaco eta gorputceco behar ditugun <76> guztiac.

Galde. Cer dira behar ditugun gauça hec?

Ihar. *Pater noster*ean daunçanac, liburu hunen lehenbico partean eçarria den beçala, eta oracino hartan edireiten dira gauça hec guztiac laburzqui.

Galde. Bada orai behar dugu *Pater noster* haur declaratu. Eta lehenbicoloric erradaçu: cergatic erraiten da oracino hunen hastean «gure aita ceruetan <77> çaudena»?

Ihar. Erraiten da hastean, guri aditcera emaitagatic esperança ahal duquegula ecen Iaincoac ençunen gaituela gueure othoitçetan, gure aita denaz gueroztic.

Galde. Cergatic deitcen duçu Iaincoa «gure aita»?

Ihar. Ceren hura baita gure aita eguiazcoa, batatz, ceren harc creatu eta munduan eçarri baicaitu, eta berriz bertcea, ceren <78> beregainqui eta bertce guztien gainetic gu, guiristinoac, bere seme eta bere etheco baicadutça.

Galde. Cergatic erraiten dugu «ceruetan çaudena»?

Ihar. Ceren cerua baita munduco lekuric ohoratuena, eta ikussiric han dagoela creatura guztien iaun eta gobernari beçala, ohore ekar diaçogun.

Galde. Cer erran nahi du <79> lehenbico othoitçac, erraiten denean «erabil bedi sainduqui çure icena»?

Ihar. Erran nahi du, nola Iaincoaren icena baita ona eta ohorezcoa, barraya dadila icen hura fama handiarequin mundu guztitic, eta erabil dadila guztien ahoetan hain gauça sainduari dagocan ohorearequin eta erreberenciarequin.

Galde. Cer erran nahi <80> du «ethor bedi çure erresuma»?

Ihar. Nola Iaincoaren erresuma baita ceruco loria, hemen eguiten diogu othoitz eman diaçagula loria hura, eta eguin gaitçala lehen baiño lehen bere ceruco erresumaco ontassun handi hetan partale.¹⁵⁰

Galde. Cer erran nahi du «eguin bedi çure borondatea ceruan beçala lurrean ere»?

Ihar. Erran nahi du eman diaçagula <81> garacia eta fabore haren manamendu sainduen beguirateco, borondatearen complitceco eta guztietan obedient ceruan aingueruac diren beçala içaiteco.

Galde. Cer erran nahi du «iguçu egun gure eguneco oguia»?

Ihar. Erran nahi du, othoi haz gaitçala, eta eman diaçagula behar dugun mantenua, hala arimacoa nola gorputcecoa. Eta arimaco <82> mantenua edo oguia da Iain-

¹⁴⁹ *uste dugu*: 'espero dugu'.

¹⁵⁰ *partale*: 'parte-hartzaile'.

coaren hitz saindua predicuetan declaratcen dena, edo liburuetan iracurtcen duguna, eta halaber sagaramendu sainduac, ceren hequin batean hazten eta mantenatcen da arima laincoaren garacian. Gorputçaren oguia da cer ere bicitceco bianda eta besti-menda behar baita.

Galde. Cer erran nahi du «barka diatçaguçu <83> gueure çorrac, guc gure gana çordun direnei barkatcen derauztegun beçala»?

Ihar. Hemen eguiten diogu othoitz Iangoicoari barka diatçagula gueure bekatuac, guc gaizqui eguiten deraucutenei barkatcen derauztegun beçala eguiten derauzquiguten faltac. Eta hunetan emaiten da aditcera ezterauzquigula Iaincoac guri barkatuco <84> eguiten ditugun bekatuac, baldin guc barkatcen ezpadiogu gueure etsayari eguiten deraucun bidegabea.

Galde. Cer erran nahi du «ezcaitçaçula utz tentamendutan erortcera»?

Ihar. Erran nahi du: nola baicara flaco, huts eguiten eta erortcen errax, eguiten diogu othoitz Iangoicoari ezcaitçala utz tentatcera, eta utzten gaituenean ere, digula indar eta <85> garacia tentamendu hequen garaitceco eta victorios guel-ditceco.

Galde. Cer erran nahi du «aitcitic beguira gaitçaçü gaitcetic»?

Ihar. Eguiten diogu othoitz Iaincoari beguira gaitçala mundu hunetaco gaitz, per-il, fortuna eta incontru gaixto suerte guztietaric.

Galde. «Amen» hitz hunec cer erran nahi du euscaraz?

Ihar. Leku hunetan hambat <86> nola «hala biz» edo «hala guertha daquidala nola othoitz eguiten baitut».

Galde. Oracino haur norc eguina da?

Ihar. Iesu Christo gure salbatçailleac, eta bere ahoaz beraz berac eracutsia.

Galde. Certaco eguin çuen oracino haur?

Ihar. Guri eracusteco cer moldez eguin behar diogun othoitz Iaincoari eta cer galdeguin gueure othoitcetean, ceren oracino hunec eduquitcen <87> du bere baithan laburzqui cer ere galdeguin ahal baitiaçayogu Iaincoari, eta hura guztia dago çazpi othoitcetean bildua: lehen laurac ontassunaren ardiesteaz minço dira, eta bertce hirurac gaitçaren eta kaltearen khentceaz.

Galde. Declara eçaçu hobequiago cer ontassun diren galdeguiten ditugun laur ontassun horiec, eta halaber cer gaitz diren <88> khendu nahi ditugun hirur gaitz horiec.

Ihar. Ontassunez denaz beçanbatean, lehenbico galdeguiten dugun ontassuna da ohora eta lauda dadin Iaincoa, erraiten dugula «erabil bedi sainduqui çure icena».

Bigarrena, gure arimaren salbamendua, erraiten dugula «ethor bedi çure erre-suma».

Hirurgarrena, salbamenduaren ardiesteco garacia, erraiten dugula «eguin bedi çure borondatea». <89>

Laurgarrena, garacia hunen gueure baithan eduquitceco indarra eta sostengua, erraiten dugula «iguçu egun gure eguneco oguia».

Gaitcez denaz beçanbatean, lehenbico galdeguitean erraiten diogu Iaincoari khen diatçagula iragan diren gaitçac, cein baitira oraiñocean eguin ditugun bekatuac, erraiten dugula «barka diatçaguçu gueure çorrac». <90>

Bigarrean erraiten diogu beguira gaitçala ethorquiçuneco gaitcetaric, erran nahi du tentamenduetaric, erraiten dugula «ezcaitçaçula utz tentamendutan erortcera».

Hirurgarrenean eta azquenean othoitz eguiten diogu beguira gaitçala orai presentean sentitcen ditugun gaitz guztietaric, erraiten dugula «aitcitic beguira gaitçaçu gaitcetic». <91>

Ave Mariaren eta Salve Reginaren declaracioa
Çazpigarren capitulua

Galdeguitea. Cer oracino erraiten ohi duçu *Pater noster*aren ondoan?

Ihardestea. Andre dana Mariaren salutacinoa, cein deitcen baita *Ave Maria*, eta guero bertce oracino bat ere bai, cein baita *Salve Regina*, liburu hunen lehenbico partean <92> diren beçala.

Galde. Cergatic erraiten da *Pater noster*aren ondoan *Ave Maria*?

Ihar. Ceren Iaincoaz lekora¹⁵¹ sainduric handiena Andre dana Maria baita, eta hanbatenarequin arartecoric ere hoberena. Eta halatan eguiten diogu othoitz ardiets diaçagula bere seme iauna ganic arimaco eta gorputceco behar dugun garacia eta faborea.

Galde. Oracino haur <93> norc eguina da?

Ihar. Parte bat eguin du aingueru Gabrieleç, bertce parte bat Santa Elizabetec eta akabatcea Eliça Ama Sainduac, Espiritu Sainduaren conseilluz.

Galde. Cergatic salutacen dugu Virgina Maria oracino hunetçaz?

Ihar. Ceren esperança baitugu atseguin hartcen duela hitz hauquen ençuteaz, ikussiric ecen hauc <94> erran ceitçanean beztitu cela haraguiz Iaincoaren semea haren sabel sacratuan.

Galde. Cergatic deitcen da Virgina Maria «garaciaz bethea»?

Ihar. Bataz, ceren ezpaitçuen egundaiño içan bekaturic, ez eta bekaturen cutsuro ere, ez mortalic, ez venialic, eta ez are originalic edo ethorquizcoric ere. Eta berriz bertcea, ceren nola bertce <95> saindu guzticac baiño gayago baitcen, hala bertce guzticac baiño abantaillatuquiago Espiritu Sainduaren dohaiñac eta garaciac ere içan baitciten.

Galde. Cergatic erraiten diogu «benedicatuia çara emazteen artea n»??

Ihar. Ceren egundaiño munduan içan eta içanen diren emazte guzticac baiño, harc berac ohore, laudorio eta ontassun <96> guehiago baitu bere baithan.

Galde. Cein da Virgina Andre hunen laudorioric eta ohoreric handiena eta principalena?

Ihar. Amatassuna virginatassunarequin batean, ceren ecin duque abantail handiagoric Iaincoaren ama eta virgina içaitea baiño.

Galde. Cer erran nahi du «benedicatuia da çure sabeleco fruitua, Iesus»? <97>

Ihar. Erran nahi du ecen virgina bere baithan laudatcecoa dela, eta are guehiago bere fruitua ere, Iesus, dohain eta garacia guzticac complitua duela.

Galde. «Iesus» hitz hunec cer erran nahi du?

Ihar. Hambat nola «salbatçaillea».

Galde. Cergatic deitcen da «salbatçaille»?

¹⁵¹ *Iaincoaz lekora*: 'Jainkoaz gain, landa'. *OEHR*en arabera, Ipar Euskal Herriko tradizioan lekukotzen da *lekora*, eta instrumentalarekin erabiltzen da batez ere xvii. mendean eta xviii.aren lehen hereanean.

Ihar. Ceren bere passione sainduaren verthutez etsai gaixtoaren botheretic (bere aldetic denaz beçanbatean) <98> salbatu eta athera baicaitu.

Galde. Declara itçaçu orai laburzqui *Ave Mariaren* gaiñeraco hitçac.

Ihar. Gaiñeracoac dira othoitcezoac, nola lehenac içan baitira laudoriozcoac. Eta azquen hitz hautan othoitz eguiten diogu Andre dana Maria virginari, Iaincoaren ama denaz gueroz, ararteco on guertha daquigula bethiere bere seme iauna gana, eta guztien gaiñetic <99> gueure heriotceco orenean.

Galde. Erradaçu orai: norc eguina da *Salve Regina*?

Ihar. Eliça Ama Sainduac.

Galde. Certaco?

Ihar. Virginia Mariaren laudatceco, eta laudatcen dugula, ararteco on guertha daquigula othoitz eguiteco. <100>

Iaincoaren manamenduen declaracinoa Çortcigarren capitulua

Galdeguitea. Fedeari eta esperançari dagotçan gauçac (cein baitira articulu fedezcoac eta oracinoac) declaratu ditugunaz gueroz, minça gaitecin orai caritateari dagotçanez, cein baitira Iaincoaren manamendu sainduac. Erradaçu bada, lehenic: <101> cer da caritatea?

Ihardestea. Caritatea da verthute bat ceñez onhesten baitugu Iaincoa gauça guztien gaiñetic, eta gueure guiristino laguna gueure burua beçala Iaincoa gatic.

Galde. Certan ezagutcen da ea nehorc Iaincoa ganaco caritatea eta amorioa badiuenz?

Ihar. Haren manamendu sainduen beguiratcean eta complitcean.

Galde. Iaquin behar da, bada, nola aditu behar <102> diren manamenduac, eta lehenic erradaçu: nola aditcen duçu lehenbico manamendua, «Iainco bat dela sinhetsiric, hura bera gauça guztien gaiñetic onhets, adora eta cerbitça deçagula»?

Ihar. Bi parte ditu manamendu hunec: lehenbicoan avisatcen gaitu Iaincoa hura bera dela gure eguiazco iauna, guc ohoratu, adonatu, cerbitçatu eta Iaincotçat (bertce guztiac utciric) eduqui behar <103> duguna. Bigarren partean manatcen gaitu eztaguigula idoloric lehenagoco ientilec eta paganoec beçala, ceñec eguiten baitcituzten imagina batçuc, erran nahi da, guizonen iduri batçuc urrez, cilharrez, çurez, harriz eta bertce añhitz materiaz, eta hain ciren erho eta itsu, ecen imagina hec (deitcen baititugu idoloac) Iaincotçat eduquitcen, eta Iainco beçala adoratcen eta ohoratcen baitcituzten. <104>

Galde. Sainduen imaginac eliçan eduquitcea eta hei belhauricatcea manamendu hunen contra othe da?

Ihar. Ez segur, ceren badaquigu imagina hec çurez edo harriz eguinac direla, eta hec berec ezutela bere baithan verthuteric, eta ez indarric gure laboratceco, baiña nola ceruan dauden saindu eguiazcoez orhoit aracitcen baicaituzte, eta hequen iduria representatcen <105> baiteraucute, eta representatce edo orhoitce harc debocinoa berretcen eta iratçartcen baiteraucu, halatan iratçarçaille, orhoitçaille eta eguiazco sainduen representatçaille beçala ohoratcen eta adoratcen ditugu imaginac.

Galde. Norc eguiten du huts lehenbico manamendu hunen contra?

Ihar. Paganoec, hereticoec, supersticiosec eta guztiz ere¹⁵² sorguinec. <106>

Galde. Sorguinac cer iende dira, eta nola eguiten dute huts lehenbico manamendu hunen contra?

Ihar. Sorguinac dira iende thailu¹⁵³ batçuc ceñec (diotenez) arnegatcen baitute bere eguiazco Iaincoaz, fedeaz, legueaz, errecibitu duten bathayoaz, aita-amaz eta Eliçaco gauça guztiez, eta guero hartcen dute bere iaun eta nabussi deabrua, adoratcen dute, cerbitçatcen dute, eta haren <107> borondatearen arauaz (bera laguntcen çayela) eguiten dute ahal daguiten gaizqui guztia, guztiz ere haurretan eta lurreco fruituetan. Eta halatan hec dira munduan diren ienderic gaixtoenac, Iaincoz eta munduz erratcea mereci dutenac.¹⁵⁴

Galde. Supersticiosec nola edo certain huts eguiten dute?

Ihar. Iaincoac eta haren Eliçac ordenaturic eta errecibituric dadutçan <108> cirimoniez, oracinoez eta erremedioez ez contentez eta ez fidaz, bertce cirimonia, oracino eta erremedio molde batçuetara laster eguiteaz eta hequen usatceaz.

Galde. Hereticoec nola eguiten dute huts?

Ihar. Fede bat, legue bat, Eliça bat eta Eliçaren buruçagui bat baicen eztelaric (cein baita Erromaco aita saindua), hec hura ukhaturic, fedea eta leguea bere ançu,¹⁵⁵ bere borondatera <109> eta libertatera behar ezten beçala declaratcen baitituzte.

Galde. Paganoec nola eguiten dute huts?

Ihar. Iguzquia, ilharguia, urrez edo cilharrez eguinicaco figurac Iaincoçat hartcen eta adoratcen baitituzte, idurituric ecen hec direla eguiazco Iaincoac.

Galde. Nola aditcen duçu bigarren manamendua, «arneguric, cinic edo iuramenturic vanoqui eta premia gabe eztaguigula»? <110>

Ihar. Cin edo iuramentu eguita nola baita Iaincoa gure erranaren lekhuco ekhartcea, aditcen dut cina eguin behar dela ecin bertceç (midicina hartcen den beçala), ez premia gabe, ez gueçurraren gaiñean, ez gaizqui eguiteco contuan, ez eta ez complitceco borondatearequin ere.

Galde. Nola aditcen duçu hirugarrena, «igandeac eta bertce bestac beguira ditçagula»?

Ihar. Eztela astelegunetan <111> beçala lanean eta traillaun ibili behar bestetan, baiña behar dela ioan eliçara, meça, vesperac eta bertce eliçaco officioac ençun, debocinotan eta obra onetan emplegatu, aste guztico bekatuez barkamendu escatcen garela, eta aiticinerat erortcetic beguira gaitçala Iaincoari othoitz eguiten diogula.

Galde. Nola aditcen duçu laur garrena, «gueure burhasoac ohora ditçagula»? <112>

Ihar. Aditcen dut gueure aita-amac gauça iustu guztietan obeditu behar ditugula, cortesia handiarequin minçatu behar gatçaitzela, eta are guehiago beharrean daudenean faboratu behar ditugula, ahal daguigun lekuraiño, ceren Iaincoaz lekora hetaric baitugu mundu hunetaco bicitcea eta içaitea, eta pena handirequin haci baicituzte. Halaber aditcen dut ohoratu <113> eta obeditu behar ditugula gueuroc baiño çaha-

¹⁵² *guztiz ere*: 'bereziki'.

¹⁵³ *iende thailu*: 'jende mota'.

¹⁵⁴ *Iaincoz eta munduz erratcea mereci dutenac*: 'Jainkoak eta munduak erretzea mereci dutenak'.

¹⁵⁵ *bere ançu*: 'bere modura' (cf. *OEH*, s. v. *antz*o).

rragoac, eta eñça guiçonac, eta cargutan diren guztiaç, hala espiritualecoac nola temporalecoac.

Galde. Nola aditcen duçu bortzgarrena, «nehor hil ezteçagula»?

Ihar. Aditcen dut eztugula nehor hil behar, eta ez colpatu edo cehatu ere, eta are guehiago eztiogula nehor eduqui behar gaitcerizcoric, borondate gaixtoric <114> eta ez eguin liscarric, eta ez calteric ere.

Galde. Nola aditcen duçu seigarren manamendua, «haraguizco obraric ezcontçaz campoan eztaguigula»?

Ihar. Aditcen dut presuna ezconduac baduquetela elkarrequin parte eta ezagutça, baiña ezconduac eztirenen arteco haraguizco obrac, eta are guehiago bessarcac, musuac eta bertce desonhesqui huquitce guztiaç ere bekatu direla. <115>

Galde. Nola aditcen duçu çazpigarrena, «deus ebats ezteçagula»?

Ihar. Aditcen dut bertceren onic eztugula ebatsi behar, eta ez iabearen borondatearen contra eduqui. Eztugula, halaber, contuan, pisuan, neurrian, salerosietan, avenicoetan eta bertce hartu-emanetan falseriaric edo enganamenduric eguin behar, ez eta nekaçaleen edo cerbitçarien iornalic edo soldataric ere goraturic eta bortchaturic <116> eduqui.

Galde. Nola aditcen duçu çortcigarrena, «nehor falseriaric erauz eztiaçogula»?

Ihar. Aditcen dut eztugula nehor falsoqui acusatu behar, eztiogula fama gaixtoric edo desohoreric gueure mihiaz nehor eman behar, eztugula gueçurric erran behar, ez maradicioneric egotci, eta ez escarnioric eguin. Finean, nola nahi baitugu bertceac gutçaz minça ditecin, <117> hala guc ere bertceez behar dugula minçatu.

Galde. Nola aditcen dituçu bederatci eta hamargarren manamenduac, «bertceren senharric edo emazteric desira ezteçagula» eta «lagunaren onhasunari guthicia ezcaquitçala»?

Ihar. Bi manamendu azquen hautan aditcera emaiten çaicu ecen gaizqui obratcea beçala gaizqui desiratcea ere bekatu dela, <118> eta Iaincoac campoco obra beçain ongui barreneco guthicia ikusten duela. Eta nola seigarren eta çazpigarren manamenduetan debecatu baitcituen haraguizco obrac eta bertceren onen eduquitceac, orai bederatci garreanean eta hamar garreanean bi gauça hequen desirac eta guthiciac debecatcen ditu.

Galde. Hamar manamenduac hunela declaratu ditugunaz gueroz, erradaçu orai: norc eman <119> ditu hamar manamendu hauc?

Ihar. Iaincoac berac eman cituen legue çaharrean, eta guero Iesu Christo gure iaunac confirmatu eta ontçat eduqui ditu legue berrian.

Galde. Laburzqui minçatcera, cer eduquitcen dute bere baithan manamendu hauc?

Ihar. Cer ere eguin behar baita Iaincoaren eta guiristino lagunaren alderacotçat. Iaincoaren alderatcoa lehembicico <120> hirur manamenduetan da, eta guiristino lagunarequicoa azquen çazprietan.

Galde. Declara eçaçu nola.

Ihar. Iaincoaren alderacotçat eguin behar diren gauçac hauc dira: Iaincoa behar dela ohoratu eta cerbitçatu, haren icen saindua eztela vanoqui erabili behar, eta igandea ongui eta sainduqui behar dela beguiratu. Eta hirur gauça hauc daude lehen hirur <121> manamenduetan. Guero guiristino lagunaren alderacotçat eguin behar diren gauçac dira hauc: dagotenei ohore emaita, nehor bere presunan eta onetan

hitzez, gogoz eta obraz ere calteric ez eguita. Eta gauça hauc azqueneco çazpi manamenduetan dauntça.

Galde. Certçaz complitcen dira hamar manamendu hauc?

Ihar. Caritateaz eta amorioaz. Eta halatan <122> erraiten du gure salbatçailleac legue guztia bi pontutan dagoela.

Galde. Cein dira bi pontu hec?

Ihar. Iaincoaren onhestea gauça guztien gaiñetic, eta guero gueure guiristino laguna gueure burua beçala.

Galde. Legue guztia bi pontu hautan dagoenaz gueroz, cergatic ibentcen dira hamar manamendu?

Ihar. Guri geheroqui eracusteagatic nola eta <123> cer gauçatan behar diren Iaincoa eta guiristino laguna onhetsi, ceren baldin bide beçala Iaincoa onhesten badugu, cerbitçatuco ere badugu, eta bai haren icen saindua ohoratuco, eta igande eguna ere sainduqui beguiratuco. Eta berriz bertce alde, baldin gueure guiristino laguna ongui onhesten badugu, falta gabe ohoratuco ere dugu, eztugu hilen, eztiogu calteric eguinen, eztiogu <124> deus ebatsico, ezcara haren contra minçatuco, eztugu haren emazteren eta ez onen ere guticia gaixtoric içanen. Finean, gueuretçat beçala haren alderacotçat ere gobernatuco gara.

Galde. Manamendu hauc beguiratu gabe ahal dohaque nehor parabisura?

Ihar. Ez. Hauc behar ditu beguiratu eta complitu parabisura ioan nahi duenac, ceren bertce bideric ezpaita. <125>

Elizaco sagaramenduen declaracinoa Bederatci garren capitulua

Galdeguita. Fedeari, esperançari eta caritateari dagotçan gauçac (cein bairira articulu fedezcoac, oracinoac eta manamenduac) declaratu ditugunaz gueroz, behar dugu orai Iaincoaren garaciaren ardiesteco gauçez minçatu. <126> Erradaçu, bada: Iaincoaren garaciaren ardiesteco eta ardiestsiz guero haren gueure baithan edquitceco, cer gauça behar ditugu errecibitu?

Ihardestea. Eliçaco sagaramendu sainduac.

Galde. Cer da sagaramendua?

Ihar. Seiñale bat campotic agueri dena, ceinec barrenean emaiten baitu Iaincoaren garacia agueri eztena.

Galde. Erran baita lehenbicico partean ecen <127> bathayoa dela lehen sagaramendua, cer erran nahi du «bathayoa» hitz hunec?

Ihar. Erran nahi du garbitcea, ikuztea, jahutcea. Eta handic du bere icena, ceren bathayoac garbitcen du arima bekatu originaletic, eta are guehiago bethatcen du Iaincoaren dohaiñez eta garaciaz. Orduan sartcen gara Eliçan, eta eguiten gara Iaincoaren seme adoptivo, eta gay parabisuco loriaren ardiesteco. <128>

Galde. Bigarren sagaramenduaren icenac (cein baita confirmacinoa) cer erran nahi du, eta cer eguiten du gure baithan?

Ihar. Erran nahi du hambat nola fermu eta finco eçartea. Eta handic du bere icena, ceren bathayatuei berretcen deraue Iaincoaren garacia, eta emaiten deraue etsai gaixto guztien contraco fermutassun handi bat, eta are fede sainduaren mantenatceco, eta Iaincoa <129> gatic biciaren (behar bada) emaiteco esportçua eta ausartcia.

Galde. Cer eguiten du gure baithan hirugarren sagaramenduac, cein baita gorputz saildua?

Ihar. Emaiten deraucu Iaincoaren garacia, eta berretcen caritatea, cein baita gure arimaren bicitce eguiazcoa.

Galde. Cer sinhesten duçu gorputz sailduaz? <130>

Ihar. Sinhesten dut oguiaren eta arnoaren iduriaren azpian daudela eguiazqui eta errealqui Iesu Christo gure iaunaren gorputz sacratua eta odol preciatua.

Galde. Nola edo cer moldez eguiten da hori horrela?

Ihar. Gure salbatçailleac Ortcegun Saindu arratsean bere apostoluequin afaritan cegoela erran cituen hitz batçuc erraiten dituztenean aphez ordenatuec, <131> hitz hequen verthutez oguia eguiten da Iesu Christoren gorputz, eta arnoa odol. Lehen oguia eta arnoa ogui eta arno ciren, baiña apheçac consecratceco hitçac erranez guero, ezta oguiric eta ez arnoric, baiña da Iesu Christoren odol bicia eta gorputz preciatu bicia divinitatearequin iuntatua, hain eguiazqui eta errealqui nola baitago ceruan bere aitaren escuiñeco aldean. <132>

Galde. Sagaramendu saildu haur meçan consecratcen baita, cer sinhesten duçu meçaz?

Ihar. Sinhesten dut meça dela sacrificio guztien gaiñeco sacrificioa, ceineta Iesu Christoren gorputz preciatua offerendatcen baitçayo Iainco aita cerucoari, Iesu Christo beraren passionearen orhoitçapenetan, gure bekatuen barkamendutan, eta halaber hilen eta bicien faboretan.

Galde. Cer da penitencia, <133> cein baita laurgarren sagaramendua?

Ihar. Penitencia da behar den bidean, behar den condicinoequin eguiten den cofessinoa.

Galde. Cer condicino dira hec?

Ihar. Bihotceco urriquimendua, hitceco cofessinoa eta obrazco satisfacinoa.

Galde. Hirur gauça hauc behar othe dira sagaramendu hunen bidezqui erreci-bitceco?

Ihar. Bai, ceren nola <134> bekatua eguiten baita hitceç, gogoz eta obraz, hala erremediatu ere behar da hitceç, gogoz eta obraz. Lehenbicoric behar dugu gure bekatueç bihotceco urriquimendua, ez guehiago bihurtceco borondate fermuarequin. Guero ahoz behar ditugu hec erran, eta ossoqui cofessatu cofessatceco licencia duen cofessor batequin, eta guero cofessorac ordenatcen derauzquigun satisfacinoac edo penitenciazco <135> obrac behar ditugu ossoqui eta debotqui complitu.

Galde. Hunela eguiten den penitenciac cer obratcen du gure baithan?

Ihar. Barka arazten derauzquigu han arteraiño eguin ditugun bekatu guztiac, eta eçarten gaitu Iaincoaren garacian eta adisquidetasunean.

Galde. Bortzgarren sagaramenduac (cein baita anuncioa) cer ontasan eguiten deraucu? <136>

Ihar. Eriençat nola ordenatua baita, hei barka arazten derauzte bekatuen hondarrac, leheneco sagaramenduei orhoitu gabez, iaquin gabez, edo bertcela azquendu¹⁵⁶ çaitzenac. Halaber emaiten deraue indar heriotceco orenean deabruaren tentamen-

¹⁵⁶ *azquendu*: '(azkenik) gelditu'.

duen garaitceco, eta finean gorputceco ossasuna emaiten deraue, baldin arimacotçat behar badute.

Galde. Seigarren sagaramenduac (cein baita ordena) cer eguiten du? <137>

Ihar. Eliça guiçonei emaiten deraue escu Eliçaco cerbitçuaren eguiteco eta iendey sagaramenduen emaiteco.

Galde. Çazpigarren sagaramenduac (cein baita ezcontça) cer egui ten du?

Ihar. Eliçaco ordenançen arauaz ezcontcen direnei emaiten deraue garacia eta fabore baquean eta amorioan elkarrequin bicitceco, haurr'ïçaiteco, eta hequen hazteco Iaincoaren beldurtasunean. <138>

Galde. Çazpi sagaramendu hauc norc ordenatuac dira?

Ihar. Iesu Christo gure iaunac, mundu hunetan ibili cenean.

Galde. Certaco dira?

Ihar. Guc hequin batean Iaincoaren dohaiñen eta garacien ardiesteco, eta ardie-tsiric, gueure arimen salbatceco.¹⁵⁷ <139>

Çazpi verthute principalen declaracinoa Hamargarren capitulua

Galdeguita. Akhabatu ditugu gure doctrina christianaren laur parte principale-nac, cein baitira articulu¹⁵⁸ fedezcoac, oracinoac, manamenduac eta sagaramenduac, eta eracutsi nola articulu fedezcoac behar ditugun sinhetsi, oracinoetan dauntçan gauçac galdeguin, <140> Iaincoaren eta Eliça Sainduaren manamenduac beguiratu, eta sagaramenduac errecibitu. Orai verthute principalenez eta bertce gaiñeraco lehen-bicoric partean declaratu gabe utci ditugun gauçez behar dugu minçatu. Eta lehen-bicoric erradaçu: cer da verthutea?

Ihardestea. Verthutea da arimaren ontassun bat ceñec presuna eguiten baitu on Iaincoaren eta munduaren aiticinean. <141>

Galde. Verthute principalenetic hirurac cergatic deitcen dira «theologalac»?

Ihar. «Theologal» hitz hunec erran nahi du hambat nola Iaincoari uquitcen çai-cana, Iaincoari dagocana, eta behatcen dioena. Eta nola hirur verthute hec (fedecac, esperançac eta caritateac) Iaincoari behatcen baitiote, eta haren alderat empletatcen baitira, hargatic deitcen dira theologalac.

Galde. Eta bertce laurac <142> cergatic deitcen dira «cardinala c»?

Ihar. «Cardinal» hitz hunec erran nahi du principalac, erroa, ithurburua. Eta nola laur verthute (prudencia, iusticia, temperancia eta borthiztasuna) baitira bertce verthute guztien erroac eta cimenduac, eta guztietaco principalenac, hargatic deitcen dira cardinalac.

Galde. Declara eçaçu bat banaca cer den verthute hauquen officioa, eta guri eguiten deraucutena. <143>

[Ihar.] Fedez sinhesten dugu Iaincoa baithan, eta halaber Iaincoac bere Eliça Sainduari aguertu derautçan gauçetan.

¹⁵⁷ salbatceco] testuan *ſabatceco*.

¹⁵⁸ articulu] testuan *Ar- / culu*.

Esperançaz hartcen dugu fidancia handi bat Iainco hura bera baithan (ikussiric cein on eta misericordios den) emanen deraucula behar dugun guztia, eta azquen fi-nean ceruco loria.

Caritateaz onhesten dugu Iaincoa gauça guztien gaiñetic, eta <144> gueure guiris-tino laguna ere gueure burua beçala Iaincoa gatic.

Prudenciatic edo çuhurciatic eracusten deraucu nola governatu behar garen gure eguitecoetan eta ioan-ethorrietan: nola, noiz, cer moldez eta cer demboraz hec behar ditugun eguin.

Iusticiatic nori berea emaiten dio, eta contenta eracitcen du batbedera bere duenaz.

Temperanciatic gure guthiciatic bridatcen ditu, <145> neurritz eduquitcen ditu, so-beraniatic gaiñez edo gutiz escas eztaguiten.

Borthitztasunac borthitzten gaitu, indar eta bihotz emaiten deraucu, Iaincoa gatic eta haren leguearen beguiratceagatic presenta ahal ditezqueyen trabaiilla eta eguiteco guztien vençutceco eta garaitceco. <146>

Perficioneco conseilluen declaracinoa
Hameca garren capitulua

Galdeguita. Erran da lehenbicico partean ecen perfet içaiteco conseilluac direla hirur: borondatezco probetasuna, bethiereco castitatea eta behar den gaucetan obedient içaita. Cer deitcen duçu borondatezco probetasuna?¹⁵⁹ <147>

Ihardesta. Munduco onhasun guztiatic Iaincoa gatic utciric, bere-bereric ez deus eduquitcea. Eta conseillu hunen beguiratceco eguiten dute promes eta votu¹⁶⁰ fraide eta serora sartcen direnec.

Galde. Cer da bethiereco castitatea?

Ihar. Ez ezcontcea eta ezconçatic campoan ere haraguizco obraric ez eguita. Eta hunetçaz ere eguiten dute promes eta votu fraidec, serorec eta eliča guiçon <148> ordenu sacratuac hartcen dituztenec.

Galde. Conseillu hunen gaiñean nahi nuque iaquin ea ezcondu gabe, fraide edo serora sarthu gabe eta ordenuric ere hartu gabe, on denz castitatearen beguiratcea eta promes baten azpian haraguizco obretaric apartaturic bere etchean bicitcea.

Ihar. Gauça ona eta saindua da hori, eta ezcontcea baiño hobe, <149> eta guiristinotasuneco añhitz lekutan usatcen dena. Eta halacoec içanen dute merecimendu handia Iaincoaren aiticinean, baldin bere promesa behar den bidean eduquitcen eta beguiratcen badute.

Galde. Cer deitcen duçu obediencia?

Ihar. Bere borondate propioa utciric, bere aiticinecoen eta gaiñecoen borondatearen azpian iartcea, eta hequen obeditcea Iaincoaren contra eztiren <150> gaucetan. Hunetçaz halaber eguiten dute promes¹⁶¹ eta votu fraide eta serora sartcen direnec.

Galde. Hirur gauça hauc cergatic deitcen dira «conseillu»?

¹⁵⁹ probetasuna] testuan *probetasuna*.

¹⁶⁰ *votu*: 'erlijiozko bizitza hartzean egin behar den promesa, boto'.

¹⁶¹ promes] testuan *promes*.

Ihar. Ceren borondatezcoac baitira eta ez obligacinozcoac, erran nahi da, Iaincoac eztuela nehor obligatcen hequen beguiratceco promesic eguitera, baiña batbederari utzten dioela bere hautara. <151>

Galde. Ordea, prometatuz guero obligatcen dute conseillu hauc?

Ihar. Bai, obligatcen dute, ceren promesarequin batean eguiten dira manamendu.

Galde. Cer diferencia da conseilluen eta manamenduen artean?

Ihar. Manamenduac bethi behar dira beguiratu bekatu mortalaren penan, baiña conseilluen beguiratceco obligacinoric ezta, promesic eztenean. <152>

Espiritu Sainduaren dohaiñen declaracinoa Hamabi garren capitulua

Galdeguitea. Certaco dira Espiritu Sainduaren çazpi dohaiñac lehenbico partean eçarriac direnac?

Ihardestea. Guri perfezionezco estatuaren ardiets aracitceco. Hauc dira escalera batçuc beçala saindutasunera heltceco, eta Esaias profetac gaiñetic <153> behera iaustean beçala contactcen ditu, baiña guc har ditçagun orai azpitic gora, hasten garela beldurtasunetic.

Beldurtasuna da escaleraren lehenbico hortça eta pausua, eta harc beguiratcen gaitu bekatu eguitetic. Pietateaz eguiten gara bihotz bera eta¹⁶² ongui eguitera guthicios. Iaquintasunaz ikasten dugu cer den Iaincoaren borondatea. Borthiztasunaz faboratcen <154> eta sendotcen gara Iaincoaren borondatearen complitceco eta haren arauera bicitceco. Conseilluaz avisatcen gara nola behar dugun munduaren, haraguiaren eta deabruaren enganamenduetaric beguiratu. Adimenduaz eguiten gara gay fedeco misterioen ardiesteco. Çuhurtciac ordenatcen ditugu gueure bicitcea eta obra guztiac behar den beçala, eta behar dena gana, cein baita <155> Iaincoa: gure azquen fina eta ontassun guztia.

Çortci dohatsutasunen declaracinoa Hama hirur garren capitulua

Galdeguitea. Cer aditcen duçu dohatsutasunaren icenaz?

Ihardestea. Cembait obra verthutezcoac ceruco dohatsutasunaren ardiesteco bi-deac beçala direnac; eta hargatic, obra hec complitcen dituztenac <156> dohatsu di-rela erraiten du gure salbatçailleac bere evangelioan.

Galde. Declara eçaçu, bada, nola aditu behar diren dohatsutassun hauc.

1. Dohatsu dira gogoz eta borondatez probe direnac, ceren hequena da ceruco erresuma. Halacoac dira munduco onhassunac eta handirasunac¹⁶³ Iaincoa gatic uzten dituztenac edo, aberats içanagatic¹⁶⁴ ere, hetan gogoa eçarten eztutenac. <157>

2. Dohatsu dira presuna emeac eta mansoac, ceren halacoec lurra goçatuco dute. Hec dira nihoren contra hasserretcen eztirenac, eguiten çaitzen bidegabeac libroqui

¹⁶² eta] testuan *era*.

¹⁶³ *handirasunac*: 'ohoreak, kargu inportanteak'. *Handitasun* ere badarabil Materrak, baina beste adiera barekin ('bikaintasun'). Axularrengan kontraste bera aurkitzen dugu.

¹⁶⁴ içanagatic] testuan *içan agatic*.

barkatcen dituztenac eta mundu hunetaco gaitçac pacientqui¹⁶⁵ eta gaiztu¹⁶⁶ gabe pairatcen dituztenac.

3. Dohatsu dira nigar eguiten dutenac, ceren berac içanen dira consolatuac. Hec dira munduco atseguinetaric apartaturic¹⁶⁷ <158> eta bere bekatuez urriquituric penitenciazco obretan ibiltcen direnac.

4. Dohatsu dira iusticia gosse eta egarri direnac, ceren berac asseco dira. Hec dira gauça guztietan bere eguinbidea complituric bertceri ere ongui eguitera, eta berac ere obra onetan egunetic egunera aitcinago iragaitera enseyatcen direnac.

5. Dohatsu dira misericordia eguiten dutenac, ceren hala berec ere <159> misericordia ardietsico dute. Hec dira bihotz berac: beharrean daudenac urricari dituztenac eta bere ahalaren arauaz onez ere faboratcen dituztenac.¹⁶⁸

6. Dohatsu dira bihotzez garbi direnac, ceren ikussico dute Iaincoa. Halacoac dira bekatuen notharic bere concientetan sentitcen eztutenac.

7. Dohatsu dira presuna baquezcoac, ceren <160> hec deithuco dira Iaincoaren¹⁶⁹ seme. Halacoac dira nehorequin etsaitcen eztirenac, eta bertceren arteco gaitzerizcoac eta etsaitasunac iraunguiric, ahal daguiten beçambat, guztien adisquidetcera enseyatcen direnac.

8. Dohatsu dira iusticia gatic persecutioneac eta travailluac pairatcen dituztenac, ceren hequena da ceruetaco erresuma. Halacoac dira Iaincoaren legue sainduaren <161> defendatcea gatic edo cembait bertce eguitecoa gatic, hobengabe gaitz, pena, dolore eta travaillu pairatcen dutenac.

Bekatuén diferenciaren declaracinoa Hamalaur garren capitulua

Galdeguitea. Cein deitcen duçu «bekatu originala»?

Ihar. Bekatu hura ceinetçaz cutsaturic sortcen <162> baicara Adam gure lehen-bicico aitaren becatua dela causa, ceren nola Adamec becatu eguin çuenean likistu eta nothatu baitçuen bere ethorquia eta naturaleça, eta guztioç baicara haren ethorquitic eta naturaleçatic, halatan sortcen gara likistuiac eta nothatuac. Eta nothadura hura deitcen da becatu originala, erran nahi da, ethorquizcoa edo ithurburutic heldu dena.

Galde. Cer deitcen duçu <163> «becatu actuala»?

Ihar. Guc gueuroc Iaincoaren leguearen contra eguiten, erraiten eta pensatcen duguna.

Galde. Cembat dira becatu actualac?

Ihar. Biya:¹⁷⁰ bata veniala eta bertcea mortala.

¹⁶⁵ pacientqui] testuan *pacientiqui*.

¹⁶⁶ *gaiztu*: 'gaitzitu, haserretu'.

¹⁶⁷ apartaturic] testuan *apaturic*.

¹⁶⁸ Hots, bihotz berac dira misericordia egiten dutenac, behartsuez errukitzen direlako eta ahal duen heinean laguntzen dietelako.

¹⁶⁹ Iaincoaren] testuan *Iaincearen*.

¹⁷⁰ *biya*: zalantzazkoa da errata den ala ez, baina gu ezezkoan gaude. *OEH*ren arabera (s.v. *bi*) *bia* besterik ez da lekukotzen Lapurdin xvii. mendean, ez *biga*, ez *biya*. Alabaina, Voltoirek *Interpret* laneko gramatikan *biya*, *hogoy etabiya*, *berogoy etabiya*, *hirour hogoy eta biya*... dakartza (Lakarra 1997: 48),

Galde. Cer erran nahi du «mortal» hitz hunec?

Ihar. Lecu hunetan hambat nola hilgarria.

Galde. Eta «venial» bertce hitz hunec cer erran nahi du? <164>

Ihar. Hambat nola barkaquiçuna, errazqui barkatcen den bekatua.

Galde. Cergatic deitzen dira mortal bekatu batçuc?

Ihar. Ceren hec arima hiltcen baitute. Erran nahi du khentcen eta iraunguitcen dutela arimatic Iaincoaren garacia, cein baita gure bicitce espirituala, eta are guehia-go,¹⁷¹ egozten dituzte arimac seculaco heriotcera, cein baita ifernua.

Galde. Eta cergatic bertce¹⁷² <165> bekatu batçuc deitzen dira venial?

Ihar. Ceren errazqui barkatcen baitira, ikussiric ecen Iaincoaren garacia eztutela gal aracitcen, eta ez nehor ifernura egozten.

Galde. Certan ezagutcen da bekatu bat mortal ala venial denz?

Ihar. Bekatu mortal da Iaincoaren eta gure guiristino lagunaren contra eguiten den guztia, baldin gauça asco¹⁷³ handia bada, eta borondatearen consentimendu <166> ossoarequin¹⁷⁴ eguiten bada; baiña gauça gutia eta apphurra denean, eta borondatea ere ez joil deliberatua, orduan venial da, eta ez mortal.

Galde. Cer calte ekartcen deraucute becatu venialec?

Ihar. Lehenbicoric, gure¹⁷⁵ Iaincoa ganaco amorioa, caritatea eta debocinoa hozten eta gutitcen deraucute, eta guero hequen satisfacinotan cerbait pena mundu <167>¹⁷⁶ hunetan edo purgatorioo lekuan pairatcera obligatcen gaituzte.

Galde. Bekatu venialac certçaz barkatcen dira?

Ihar. Hamar gaucez:

1. Meça ençuteaz.
2. Gorputz sainduaren errecibitceaz.
3. Cofessino generalaren erraiteaz.
4. *Pater noster*aren¹⁷⁷ erraiteaz.
5. Bihotcezcó urriquimenduaz.
6. Bulharraren ioiteaz. <168>
7. Gurutcearen seiñalearen eguiteaz.
8. Ipizpicuaren¹⁷⁸ benedicinoaz.
9. Ûr benedicatuaren hartceaz.
10. Ogui benedicatuaren iatteaz.

nahiz eta ez den alerik gramatikatik kanpo. Horrekin batera, iturri eta azterlan modernoagoek ere leku-kotzen dute: berriki agertu diren *Le Dauphin* ontziko gutunetako batean (Bidarte, 1757) irristari ahoskatu beharreko *biia* bat dago (cf. Lamikiz, Padilla & Videgain 2015: 151). Orobat, *EHHA*-Veko 1233. mapak *biya* ematen du Azkaine eta Beskoitze alderako, Lapurdiko gainerako aldaeren (*bia*, *bida* & *biga*) artean.

¹⁷¹ guehiago] testuan *guehiahó*.

¹⁷² bertce] testuan *bert-*, hurrengo orrialdean jarraipenik gabe.

¹⁷³ *asco*: 'aski'.

¹⁷⁴ ossoarequin] testuan *offarequin*.

¹⁷⁵ gure] testuan *guer*.

¹⁷⁶ 167] testuan 157, <5> tipoa iraulita dago.

¹⁷⁷ *noster*aren] testuan *uoster*aren. Ziurrenik <n> tipoa iraulita dago.

¹⁷⁸ Ipizpicuaren] testuan *Ipizcuaren*.

Bekatu mortal buruçaguien declaracinoa
Hamabortz garren capitulua

Galdeguitea. ¹⁷⁹ Cer da urguillutasuna? <169>

Ihardestea. Sobera abantail bere buruari desiratcea, eta bertceac mesprejaturic nehor bere berdin ez eduquitcea.

Galde. Cer da avaricia?

Ihar. Munduco aberatstasunen neurri gabeco guticia, duen baiño onhasun guehiago desiratcen¹⁸⁰ duela, edo dituenetan sobera gogoia eçartea.

Galde. Cer da haraguzco becatua?

Ihar. Haraguiaren atseguinetan eta placeretan¹⁸¹ <170> gogoia eduquitcea eta emaztetara emana içaitea.

Galde. Cer da inbidia?

Ihar. Bertceren ontasunaz ¹⁸² damu, eta calteaz atseguin¹⁸³ hartcea.

Galde. Cer da gula?

Ihar. Sabelari sobera iarraituitcea, ian-edanean gogoia eduquitc ea.

Galde. Cer da haserretasuna?

Ihar. Campoan eta barrenean mendecatceco desiraz eta gaitzerizcoaz betheric ibiltcea. <171>

Galde. Cer da naguitasuna?

Ihar. Gogoaren hiltasun¹⁸⁴ bat ceñetçaz eguiten baita presuna hain triste eta pisu, non ongui eguiteco¹⁸⁵ gogoric eta indarric ezpaitu bere baithan sentitcen.

Galde. Cergatic becatu hauc deitcen ¹⁸⁶ dira mortalac eta¹⁸⁷ çazpi?

Ihar. Ez ceren becatu mortalac¹⁸⁸ eztiren çazpi baiño guehiago, baiña ceren çazpi hauc¹⁸⁹ bertce¹⁹⁰ guztien¹⁹¹ erroac <172> eta ithurburua baitira, erran nahi da, bertce guztiaç hautaric ilkitcen eta sortcen direla.

¹⁷⁹ Galdeguitea] testuan *Galdeguitea*.

¹⁸⁰ desiratcen] testuan *desirarcen*.

¹⁸¹ placeretan] testuan *placerecen*.

¹⁸² ontasunaz] testuan *ontasuuaz*.

¹⁸³ atseguin] testuan *atseguln*.

¹⁸⁴ *hiltasun*: 'indarric edo bizitasunik ez duenaren nolakotasuna edo egoera'.

¹⁸⁵ eguiteco] testuan *eguit- / ceco*.

¹⁸⁶ deitcen] testuan *deltcen*.

¹⁸⁷ mortalac eta] testuan *mortalac'era*.

¹⁸⁸ mortalac] testuan *mortal* (*t* iraulia).

¹⁸⁹ hauc] testuan *hac*. Zalantza egin liteke hutsa den hala ez, baina zuzena balitz, *hac* erakuslearen lekukotasun bakarra izango litzateke Materraren testuan. Ez dirudi, bestalde, artikuluaeren forma arkai-koa denik (cf. *batac*, *hirurac*, *laurac*). Gainera, Axularrek, Haranburuk edo Voltoirek ere ez dute *hac* erakuslearen adibide bakar bat ere, eta Etxeberri Ziburukoak *Elizara erabiltzeko liburua*-ren 194. orrialdean duen bakarria errata da: *has* irakurri behar da. Hutsa dela onartuta, zalantza egin liteke *hec* edo *hauc* zuzendu behar dugun. Kontuan izanik lehen graduko *hautaric* dugula perpaus horretan bertan, *hauc* da hobetsi dugun forma.

¹⁹⁰ bertce] testuan *bertne*.

¹⁹¹ guztien] testuan *guztiee*.

Espiritu Sainduaren contraco becatuen declaracioa
Hamasei garren capitulua

Galdeguitea. Cer da Espiritu Sainduaren contra becatu eguitea?

Ihardestea. Espiritu Sainduac bere ontasuna gatic esquentcen <173> eta presentatcen deraucun garaciaz conturic eguin gabe bekatutan barrena sartcea.

Galde. Cergatic erraiten da bekatu batçuc Espiritu Sainduaren contracoac dirrela?

Ihar. Ceren malicia hutsez eguiten baitira. Eta nola flacotasunezco bekatuac baitira aitaren contra, eta ignoranciazcoac semearen, hala maliciaczcoac dira Espiritu Sainduaren contra. Eta hec dira guztietaco gaixtoenac, perilosenac <174> eta erremediaceco gaitcenac.

Galde. Cer erraiten du gure salbatçailleac bekatu hetçaz?

Ihar. Eztirela barkatcen mundu hunetan, eta ez bertcean ere.

Galde. Nola aditu behar dira hitz hauc?

Ihar. Becatu hetaric batçuec (lehenbicoico partean eçarriac baitira guztiac) ez tirela barcatcen, eta bertceac nequez barcatcen direla. Lehenbicoicoa eta azquena (cein baitira laincoaren <175> misericordiaz etsitcea, desesperatcea eta penitenciaric eguin gabe becatu mortaletan hiltcea) ez tirela barcatcen. Eta berriz, bertce laurac barca badiitezque ere, ordea, joil nequez eta miracuilluz beçala erremediatcen dira, presunaren borondate gaixtoa, gogorra eta itsutua dela causa. Hartaracotçat halacoac comunzqui bere becatuetan hiltcen dira.

Bertce gaiñeraco lehen <176> partean diren gaucec eztute declaracinoric behar. Halatan hemen akabatcen da *Doctrina Christianaren* bigarren partea.¹⁹² <[177]>

Hirurgarren partea
Debocinozco othoitz eta oracino batçuc bere demboretan eguin
eta erran behar direnac

<178>

Approbatio

Ego infra scriptus iussu reverendissimi domini Claudii de Rueil, episcopi bayonensis, vidi et perlegi pias quasdam orationes a patre Stephano Materre, ordinis Fratrum Minorum de Observantia prædicatore, cantabrico idiomate conscriptas, quas dignas iudico quæ in lucem prodeant. Datum Bayonæ, die 21 augusti anno domini 1623.

Michael D'Oiharard
Vicarius generalis

¹⁹² Orrialde honetan eskuz idatzitako testu bat dago: [gurutzea] / Francis de / Sparbeu (?) / guata luna d / mur gy 161(27?).

<179>

Licentia R. P. provincialis

Nos, frater Aegidius Grenier, Ordinis Minorum regularis observantiæ provinciæ Aquitaniæ, antiquioris minister provincialis et servus, facultatem concedimus patri Stephano Materre eiusdem provinciæ prædicatori, ut pias quasdam orationes cantabrico idiomate a se compositas et approbatas, et ad calcem sui catechismi <180> in hac secunda editione adiectas, typis mandari curet, in cuius concessionis fidem has literas manu nostra subscriptas, et officii nostri sigillo munitas dedimus Tolosæ, in nostro conventu Sancti Francisci de Observantia, hac die 12 septembris anno domini 1623.

*Fr. Aegidius Grenier
Minister provincialis*

<181>

Nola behar dioen guiristinoac bere burua Iaincoari goicean gomendatu

Goicean, ohetic iaiqui baiño lehen, ailtcha eçaçu ceure espiritua Iaincoa gana, erraiten duçula ahoz eta bihotzez: «Biz laudatu eta benedicatu Iaincoaren icen saindua».

Guero, ceiñaturic, har eçaçu ur benedicatua (ohearen aldean behar baita eduqui) erraiten duçula: «Garbi naçaçu, iauna, <182> ceure garaciaren uraz, eta eguinen da ene arima elhurra beçain juri».

Guero, cembait etheco gambaratan edo bazterretan, belhaurico iarriric, erran itçaçu *Pater noster*, *Ave Maria* eta *Credo*.

Eta hauquen ondoan erraçu othoitz haur:

Othoitça

Iainco iauna, guciz botheretsua, huna ni, çure creaturetaric bat, presentatcen naiz goiz <183> hunetan çure maiestate handiaren aiticinera, çor derautçudan ohorearen eta laudorioaren ahal beçambat errendatcera. Adoratcen çaitut humilqui neure indar guztiaz, eta aithortcen dut çu çarela ene creatçaillea, salbatçaillea, iabea, habea, ontassun guztien¹⁹³ ithurria, eta bai emaillea ere. Esquerrac eta laudorioac emaiten derauzquitçut çure ganic orai artean errecibitu ditudan <184> ontassun guztiez, eta beregainqui¹⁹⁴ ceren ioan den gauean peril guztietaric beguiratu bainauçu. Bada, gauean beçala eguean ere, beguira naçaçu othoi, eta ceure escutic eduqui naçaçu. Ene pensamenduac, sentimenduac, hitçac, obrac eta gorputçaren manayu guztiaç governa itçaçu. Guida naçaçu neure ioan-ethorri guztietan. Eracuts diaçadaçu cer bide behar dudan eduqui, eguinen, erranen <185> eta pensatuco dudan guztia çure ohoretan eta laudariotan¹⁹⁵ guertha di-

¹⁹³ guztien] testuan *guzrien*.

¹⁹⁴ *beregainqui*: 'bereziki'.

¹⁹⁵ *laudariotan*: Materrak normalean *laudorio* forma darabil, behin bakarrik *laudario* eta beste behin B196 *laudori*. OEHren arabera *laudorio* da forma ohikoena lapurterazko eta nafarrerazko testuetan, eta gutxiagotan ageri dira *laudario* eta *laudori*, batzuetan autore berak bi edo hiru forma txandaka darabiltzalarik.

tequyen beçala. Egungo ene intencionea biz çure borondatearen complitcea, çure loriaz eta ohoreaz contu eduditcea. Ceure ontassuna gatic beguira naçaçu egungo egunean bekatu egutetic, eta halaber peril eta incontru gaixto guztietaric. Benedica eçaçu ene trabailua. Iraungaçu ene baithan pizten den su gaixtoa. Khen diaçadaçu <186> vana-loriaren guticia, eta indaçu çure cerbitçuan, beldurtassunean eta amorioan egun hunetan egoiteco eta irauteco indarra.

Virgina saindua, ene salbatçaillearen ama, çu çara haren ondoan ene esperança gutzia. Har naçaçu, othoi, egun ceure faborearen azpian, eta ceure arartecotassunaz ardiets diaçadaçu Iaincoa ganic haren maiestateac placer duen beçala egun hunetan ibilteco garacia. <187> Aingeru saindua, ene presunaren beguiratceco cargua Iaincoaren pietatez hartu duçuna, goberna naçaçu othoi, eta educaçu nitçaz contu egun hunetan. Beguira naçaçu peril guztietaric, etsai gaixtoaren enganamenduetaric eta principalqui bekatu mortaletan erortcetic, halaco molde non azquen finean çurequin batean ardiets deçadan eta goça secula fingabeco loria. Biz hala. <188>

Meza sainduaren debotqui ençuteco cer eguin behar duen guiristinoac

Meça saindua, nola baita sacrificioa gure salbatçailleac berac bere heriotçe eta passione sainduaren orhoitçapenetan¹⁹⁶ ordenatua, iduritçen çait ecen haren ençutetic probetchu atheratçeco gauçaric hoberena dela Iaincoaren semeac gure gatic pairatu cituen penen eta doloreen gogoan erabiltea eta consideratcea. Baiña, ceren <189> passione dolozco harc misterio añhitz baitadua bere baithan, eta hain dembora appurraren barrenean ecin iragan baititezque espirituan guzticac, halacotz, hetaric çazpi principalenac hautatu ditut, baitira çazpi aldiac ceinçetan gure salbatçailleac bere odol preciatua issuri baitçuen bere passioneco egunean.

Lehenbicioa da Getsemanico baratcean odolezco icerdia gorputcetic ilqui ceicanean, eta lurrerañño erori.

Bigarra, Pilatusen etchean harroin batequin lothuric <190> borthitzqui açotatu çutenean.

Hirurgarra, han berean arancezco khoroaz burua muiñetarañño cilhatu ceraucate-
tenean.

Laur garrena, Ierusalemeco carriquetaric gurutçea soiñean çuela iragan cenean.

Bortzgarrena, Calvarioco mendian escuac eta oiñac gurutcean itçatu ceraucate-
nean.¹⁹⁷

Seigarrena, gurutcean hala itçaturic airean gora ailtchatu çutenean. <191>

Çazpigarra, saiñetsa soldadu batec dardo puntaz erdiratu ceraucanean.

Çazpi misterio hauquen gaiñean emaiten derauzquitçut çazpi oracino meçaren hastetic gorputz saindua ailtchatcerañño erran ahal ditçaqueçunac, eta guero handic finerañño bertce oracino bat, ceinçetan offerendatcen baitzaizca aita cerucoari gure bekatuac gatic bere seme gure iaunaren passioneco merecimenduac.

Bada, nic hemen emaiten <192> derauçudan molde huni iarrai qui baçaquitça, atheraco duçu meça ençutetic probetchu handia arimacotçat.

¹⁹⁶ orhoitçapenetan] testuan *orhoitçapenatan*.

¹⁹⁷ *ceraucateanen*: objektuarekiko plural-komunztadura falta da adizkian.

Meza sainduaren debotqui ençuteco moldea

Eliçan sartcen çarenean erraçū hunela: «Etche saindu hunetan¹⁹⁸ sartcen naiz, Iainco handia, çure maiestate saindua adoratu eta laudatu nahiz».

Guero har eçaçu ur benedicatua, <193> erraiten duçula: «Garbi naçaçu, iauna, çure garaciaren uraz, eta eguinen da ene arima elhurra beçain juri»

Guero, belhaurico iarriric, saluta eçaçu sagaramendu saindua, erraiten duçula: «Adoratçen çaitut humilqui, Iesu Christo ene iaunaren gorputz preciatua, sagaramendu horretan estaliric çaudena, ceren salbatu baituçu mundua ceure passione sainduaz». <194>

Guero, meçaric oraiño hasten ezpada, erraçū cembait oracino liburu hunetan direnetaric edo bertcetaric, placer duqueçun beçala. Meça erraillea aldarera¹⁹⁹ ethor dardinean, erraçū debotqui eta attentoqui othoitz haur:

Othoitça

Iesu Christo ene iauna eta salbatçaillea, ceure gorputz preciatuaren sacrificioa ceure passione sainduaren <195> orhoitçapenetan²⁰⁰ mundu hunetaric ilqui baiño lehen ordenatu cenduen, eman diaçadaçu, othoi, halaco debocinoarequin eta reberenciarequin meça hunen ençuteco eta gure gatic pairatu dituçun penen gogoan erabiltceco garacia, non passione saindu haren fruituac eta mercedenduac ene arimaren gainean errecibi ditçadan sacrificio hunen verthutez. Biz hala. <196>

Guero has çaita pausatuqui çazpi oracino hauquen erraiten, eta hitçac ahoz erraiten ditutçula, erabil itçaçu gogoan misterioac, eta halaber espirituaren atencionearequin batean beha eçaçu meça errailleac eguiten duena.

Lehen misterioa

Iesu Christo ene salbatçaillea, esquerrac eta laudoriac²⁰¹ errendatçen derauzquitçut ceren Getsemanico baratcean gure gatic <197> hain tristatu baitcinen, non, othoitçez ceneundela, odolezco icerdia çure gorputcetic ilquiric lurreraïño issuri baitcen. Othoitçez nagotçu odol preciatu haren baliotasuna gatic, eta çuc orduan sentitu cenduen tristecia handi hura gatic, eman nahi derautaçun halaco urriquimenduaren neure bekatuez içaiteco garacia, non çure odolezco icerdi haren ordain issur deçadan nic ere dolore hutsez neure beguietaric <198> ur eta nigar. *Pater noster. Ave Maria.*

Bigarren misterioa

Iesu Christo ene salbatçaillea, esquerrac eta laudorioac errendatcen derauzquitçut ceren ceure odol preciatua issuri baitcenduen noiz ere Pilatusen manuz, harroin batequin lothuric, soldaduec çure gorputz sacratua açote colpez deseguin eta larrutu baitçuten. <199> Othoitçez nagotçu odol preciatu haren balioa gatic, eta çuc ordu

¹⁹⁸ hunetan] testuan *hunutan*.

¹⁹⁹ aldarera] testuan *adarera*.

²⁰⁰ orhoitçapenetan] testuan *orthoitçapenetan*.

²⁰¹ *laudoriac*: begiratu 196. oin-oharra.

hartan sentitu cenduen dolore handi hura gatic, nahi derauzquidatçun neure bekatu guztiac barkatu, eta hequen gatic mereci ditudan gaztigueteric ere nahi nauçun, halaber, libratu. *Pater noster. Ave Maria.* <200>

Hirurgarren misterioa

Iesu Christo ene salbatçaillea, esquerrac eta laudorioac errendatcen derauzquitçut ceren ceure odol preciatua issuri baitcenduen noiz ere soldaduec arancezco khoroa çure buruaren gainean eçarriric, eta maquila colpez arance puntac heçurrean barrena sarthuric, çure buru benedicatua cilhatu eta çaurthu baitçuten inguru guztietan. Othoitcez nagotçu <201> odol preciatu haren amorea gatic, eta ordu hartan iragan cenduen dolore handi hura gatic, nahi derautaçun eman bihotcezco urriquimendu bat, eta urriquimendu haren puntaz neure arima hain borthizqui çaurthu eta cilhatu, non, eguiazco penitencia eguiten dudala,²⁰² loriazco koroa ardiets deçadan ceruco erresuman. *Pater noster. Ave Maria.* <202>

Laurgarren misterioa

Iesu Christo ene salbatçaillea, esquerrac eta laudorioac errendatcen derauzquitçut ceren ceure odol preciatua issuri baitcenduen, Ierusalemeco carriquetaric gurutcea soñean cenduela, Calvarioco mendira ioan cinenean, eta othoitcez nagotçu odol preciatu haren baliotasuna gatic, eta ordu hartan sentitu cenduen dolore handi²⁰³ hura gatic, <203> eman nahi derautaçun mundu hunetaco gaitcen hain gogo onez pairateco indarra, non tribulacinoetan beçala consolamenduetan ere partale guertha nadin. *Pater noster. Ave Maria.*

Bortzgarren misterioa

Iesu Christo ene salbatçaillea, esquerrac eta laudorioac errendatcen derauzquitçut ceren ceure odol preciatua issuri baitcenduen <204> noiz eta Calvarioco mendian soldaduec ceure escuac eta oiñ sacratuac itce lodiz eta borthitcez gurutcean itçatu baitcerauzquitçuten. Odol preciatu haren baliotasuna gatic, eta orduan sentitu cenduen dolore handi hura gatic, itça diaçadaçu, othoi, neure gorputça eta espiritua ceure beldurtassunaren itceaz, eta halaco moldez çurequin lot eta ios naçaçu gurutcean, non ene guthicia gaixtoen <205> arauaz ez nadin guehiago bici, çure borondatearen baiçen. *Pater noster. Ave Maria.*

Seigarren²⁰⁴ misterioa

Iesu Christo ene salbatçaillea, esquerrac eta laudorioac errendatcen derauzquitçut ceren ceure odol preciatua issuri baitcenduen noiz eta soldaduec çure gorputz sacratua, gurutcean itçaturic, ailtchatu <206> baitçuten airean gora, eta haren pisutasunaz handitu eta gaizcoatu²⁰⁵ baitciren çure escuetaco eta oiñetaco çauriac. Othoitcez

²⁰² dudala] testuan *daudala*.

²⁰³ handi] testuan *bandi*.

²⁰⁴ Seigarren] testuan *Sigarren*.

²⁰⁵ *gaizcoatu*: 'zauria gaiztotu, gaizkiago edo okerrago jarri, gaizkiagotu'.

nagotçu odolpreciatu haren merecimendua gatic, eta orduan pairatu cenduen dolore handi hura gatic, nahi derautaçun eman lurreco gaucetaric halaco moldez apartatceco garacia, non, cerucoetara espiritua ailtchatcen dudala, hetan eçar deçadan neure bihotça eta contentamendu <207> guztia. *Pater noster. Ave Maria gratia.*

Çazpi garren misterioa

Iesu Christo ene salbatçaillea, esquer eta laudorio derautçut ceren ceure odolpreciatua issuri baitcenduen noiz eta gurutcean hilez gueroz, çure saihetsa soldadu batec dardo puntaz idequiric, odola urarequin athera baitcerautçun. Odolpreciatu hura <208> gatic çaurt diaçadaçu, othoi, neure arima ceure amorioaren dardoaz, eta sar naçaçu parabisuco lorian, ceïnen athea idequi baitcenduen ceure odolpreciatuaren saihetsetic issurteaz. *Pater noster. Ave Maria.*

Gorputz saindua ailchatcen denean erraçun hunela:

Adoratçen çaitut humilqui Iesu Christo ene salbatçaillearen <209> gorputz²⁰⁶ sacratua, Maria virgina ganic sorthu eta gurutçean ene gatic hil çarena, haragui bicia, arima saindua, iaincotassun ossoa eta guztion salbamendua, çure amorio handia gatic duçun, othoi, nitçaz misericordia eta pietate.

Eta calitça ailtchatcen denean erraçun:

Adoratçen çaitut humilqui Iesu Christo ene salbatçaillearen odolpreciatua, ene redemcioneco <210> pagamendutan issuri içan çarena. Garbi diaçadaçu, othoi, neure arima, eta salba naçaçu çure ontasunaren verthutez.

Eta guero othoitz haur latinez:

Anima Christi, sanctifica me:

Corpus Christi, salva me:

Sanguis Christi, inebria me:

Aqua lateris Christi, lava me:

Passio Christi, conforta <211> me:

O bone Iesu, exaudi me:

Intra vulnera tua absconde me:

Ne permittas me separari a te:

Ab hoste maligno defende me:

In hora mortis meae voca me:

Et tube me venire ad te:

Ut cum sanctis tuis laudem te:

In secula seculorum, amen.

Guero, meçaren fineraïño, <212> erraçun debotqui eta gogotico othoitz haur, ceïñetan offerendatcen baitçaitça aita cerucoari gure bekatuac gatic, bere seme gure iaunaren passioneco merecimenduac.

Othoitça

Aita eternala, ceruaren eta lurraren eguilea, offerendatcen derautçut Eliça Sainduaren intencinoarequin batean ceure seme bakoitçaren passionea, sacrificio hunetan

²⁰⁶ gorputz] testuan *gorputs*.

representatcen dena, gure becatu guztien satisfacinoetan. Beha <213> eçaçu ceure maiestatearen tronutic²⁰⁷ nor den nic presentatcen derautçudan haur, cer pairatu duen, eta noren gatic. Haur da çure seme hobengabe gurutcean itçatu çutena. Haur da sacrificatçaille eternala, baquezco sacrificioa Calvarioco mendian offerendatu derautçuna. Haur da bildots nothagabea, deusetan hutsic eguin gabe bere bicia galdu duena. Orhoit çaita nola <214> içan cen escuetan eta oiñetan itçatua, arancezco coroaz buruan cilhatua, açote colpe hutsez larruturic çathitua, burutic oiñetaraiño odolstatua, alde guztietaric penaz eta dolerez inguratua, guztiz deseguina, eta guiçonaren figuraric edo iduriric eztena beçala bilhacatua. Gurutcean nola cegoen burua beheituric, beguiac cerraturic, beguitarte horituric, <215> saihetsa idequiric, besoac çavalduric, çangoac hedaturic, çauriz betheric eta bere miembro guztietan deseguinic. Eta hauc guztiaç hala direla, orhoit çaita, othoi, nola pena hauc guztioç pairatu dituen becatoreen salbatcea gatic, eta hequen partez çure maiestateari satisfacione eguita gatic. A caritate handia! Ontassun paregabea! Amorio miracuilluzcoa! Huts <216> eguiten du cerbitçariac eta haren partez pagatcen du iaunac. Gathibutasunetic guiçonaren libratcea gatic emaiten du bere bicia laincoaren semeac. Hobenduriac merci dituen gatziguac pairatcen ditu hobengabeac. Eta becatuic eguin eztenac hartu ditu bere gaiñera munduco becatu guztiaç. Beha diaçoçu, aita cerucoa, pietatezco obra handi huni, beha diaçoçu <217> hunen baliotasunari, beha eçaçu cer eta cembat çure aicinean merci duten hain pena eta dolore handiec, cer merci duen heriotce dolozco harc, eta hequen verthutez barca diatçaguçu gueure becatuac, eta khien merci ditugun gatziguac. Haur da ahal datequeyen offerendaric baliossena, eta bai çure gogaracoena ere. Eta handic daducaçu ecen gure çorraren <218> pagatceco asco, eta are millatan guehiago²⁰⁸ ere badela. Ceren baldin alde batean eçar baditeci gure gaixtaqueriac eta becatuac eta bertcean gure salbatçaillearen ontassuna eta mercedenduac, edirenen da segurqui handiago eta guehiago dela pagamendua çorra baiño. Gu çure etsayac guinen demboran, çure semearen pasionearen bidez eguin cen çure eta gure arteco <219> baquea; orai ere esperança dugu haren beraren verthutez barcatuco derauzquigutçula gueure becatuac. Errecibi eçaçu, bada, aita cerucoa, offerenda haur beguitarte onez, eta duçun, othoi, gure becatuen gaiñean misericordia eta pietate. Eztiçaguçula sacrificio hunen fruitua errefusa gure indignetasuna gatic, baiña considera eçaçu ecen cerorrec eman derauçuna <220> bera presentatcen derautçugula gueure becatuen satisfacinoetan.

Hunequin batean, gomendatcen derauzquitçut munduco estatu guztiaç eta necessitateac, hala espiritalac nola temporalac. Eliça Catholica çure esposa, aita saindua çure bicarioa, Eliçaco bertce superiorac eta gobernariac, gure erregue iauna, prince guiristinoac, herrietan cargu dutenac, <221> gure haurrideac, ahaideac, adisquideac eta ongui eguile guztiaç. Converti itçaçu becatoreac, consola itçaçu tristeac, senda itçaçu eriac, fabora itçaçu beharrac, eta salbamenduco portura hel itçaçu itsasoan dabilçanac. Fede saindura ekar itçaçu paganoac, juven itçaçu errebelatuac, beguira gaitçaç gaitcetaric, eman diaçaguçu baquea gueure demboran, eta guiristino fidelen arimac <222> athera itçaçu purgatorioco penetaric. Eta finean, eman diaça-

²⁰⁷ tronutic] testuan *trotunic*.

²⁰⁸ *are millatan guehiago*: 'askoz gehiago'.

guçu çure semearen passioneco mereximenduez ongui probetchatceco garacia, eta halaco moldez çure cerbitçuan empletatceco, non bicitce hunen ondoan ardiets deçadan parabisuco loria. Biz hala.

Guero erraçu debotqui: *Pater noster. Ave Maria.* <223>

Cofessatu baino lehen erraiteco othoitça

Ahalque naicela eta beldurrez ikhara nabilala presentatcen naiz, Iainco eternala, çure maiestatearen aitcinean, ceren baitacussat añhitz eta añhitz moldez çure ontasunaren contra huts eguin dudala. Aithortcen dut itsasoan harea baiño eta legar bihi baiño, ene baithan bekatu guehiago <224> dela, eta halatan ez naiz ausart beguien çure gana ailtchatcera. Ni naiz bekatore guztietaco handiena, gaixtoena eta esquer-gabena, ahalquegabequi bici içan naiçena, eta çure manamendu sainduac hitçez, gogoz eta obraz hautsi ditudana. Ni naiz seme gazte desordenatu çure ethetic ilqui cen hura, eta çuc eman cenerauzquidan ontasunac, munduco placeren ondoan <225> nembilala, aitcin-guibel behatu gabe gastatu ditudana. Ala ni dohacabe handia bai-naiz! Ceren utci çaitut çu, neure iabea eta arçain eguiazcoa, eta ardi errebelatua beçala aldaratu naiz çure arthaldetic, eta erori otsoaren ahoan. Utcı çaitut, bicitceco²⁰⁹ ogui çarena, haraguiaren guticinen bessarcateca gatic. Utcı²¹⁰ çaitut, ur biciaren ithurri çarena, agortcen diren contentamenduei lotceagatic. <226> Utcı çaitut, ene ontasun guztia çarena, lurreco onhasun ezteusei itchequitcea gatic. Accusatcen dut neure esquergabetasuna, ceren hain laxoqui eta ansicabequi utci dudan hain aita ona eta amoriozcoa, nola çu içan baitçara enetçat. Çuc ardura ongui eguiten cenerautan, eta nic ere ardura çure contra eguiten nuen becatu. Çure ontasuna eta emetasuna narritatu dut neure gaixtaqueria <227> handiez, baiña çuc (nola baitçara Iainco misericordiazcoa) ez nauçu gaztigatu nahi içatu ceure iusticia borthitçaren arauaz, aiticic, paciencia handi batequin iguriqui derautaçu orai artean, eguiazco penitencia batez çure gana itçul nendin amoreagatic. Aitortcen dut ecen ene gaixtaqueriec añhitcetan eman deratçutela ocasino ene çure ganic khentceco, baiña <228> çuc emequi eta amoriozqui deithu nauçu ceure gana, eta çure ontasuna gatic barcamendu prometatu. Çure partez seguratcen gaitu çure profetetic batec, eztuçula nahi gal dadin becatorea, baiña bai çure gana itçul dadin, eta bici dadin. Eta berriz, bertce batec ere badio ecen baldin becatorea, bere huts eguinac ezaguturic eta utciric, çure gana itçul badadi, etçarela guehiago haren huts <229> eguinez orhoituco. Promes hunec bihotz eta esportçu emanic, deliberatcen dut neure bicitce gaixtoaren utztera, eta çure gana neure bihotz guztiaz itçultcera. Errecibi naçaçu, bada othoi, beguitarte onez, Magdalena penitenta, çure guiblean bere burua lurrera egotciric nigarrez cegoena, errecibitu cenduen beçala, eta eman diaçadaçu neure becatuen barcamendu ossoa, hari eman ceneraucan <230> beçala. Cerorrec deithcen ditutçu çure gana nekhaturic eta cargaturic daudecinac, eta erraiten deraueçu arinduco eta descargatuco ditutçula. Huna, bada, ni becatuz bethea, nekhatua eta cargatua, eta nahi nuque arindu, nahi nuque carga haur neure gaiñetic khendu, iharrossi, eta çure misericordiaren itsas hondarrera egotci. Erraiten duçu ethorri çarela mundura galduen <231> edireitera,

²⁰⁹ bicitceco] testuan *bicitceco*.

²¹⁰ Utcı] testuan *Vti*.

errebelatuen bilhatcera, eta becatoreen salbatcera: hetaric bat naiz ni, iauna, eta ene gatic ethorri çarenaz gueroz, salba naçaçu, othoy. Icena hartu cenduen Jesus, erran nahi baitu salbatçaillea: eguiçu, bada, ene alderat çure icen horrec significatcen duen arauaz. Orhoit çaiteci ni çurea naicela creacinoz eta erospenez, eta ezteçaçula utz galtcera ceure <232> escuz eguin duçun obra, eta ceure odolaz erossi duçun creatura. A Iainco guztiz ona eta pietatezcoa! Duçun, othoi, ceure misericordia handiaren arauaz nitçaz pietate. Misericordia handiaren nagotçu esque, ceren handiac baitira ene becatuac, baiña handiac badira ere, badut sinheste are dela comparacinoric gabe handiago çure misericordia. Eta ceren çuc ceure Eliçan penitenciazco sacramendua becatuen <233> barcamendutan ordenatu baytuçu, huna prestatcen hari naiz cofessatceco, neure concienciaren descargatceco, eta çure garacia sainduaren ardiesteco. Baiña badaquiçu, Iainco ona, ecen sagaramendu hunetaco behar diren condicinoac eta aparailhuac ecin dituzquedala neure indar joillez, badaquiçu lagundu behar çatçaizquidala: argui eçaçu, bada othoy, ene espiritua eta memoria <234> ceruticaco arguiatz, halaco moldez non neure becatuen itsusitasuna, handitasuna eta pisutasuna eçaguturic, cofessa ditçadan librequi, clarqui eta bidezqui. Eta baldin guztiez ecin orhoit banaite, beha daçoçu, othoy, ene intencione onari, eta errecibi eçaçu ene ahotic erregue Daviten orhoitz haur: «Neure becatu ene ganic estaliric daudecinaric edo orhoitcen ez naicenetaric <235> garbi naçaçu, iauna, eta bertceec ni naicela causa eguin dituztenac ere barca diaitçadaçu othoi, ceren ezta munduan becatu guztiac iaquin ahal ditçaquenyenico».

Hunequin batean, eman diaçadaçu neure becatuez behar beçalaco urriquimendua.²¹¹ Erraiten deracu çure profetac ecen bihotz damuz eta dolerez hautsia çure gogaraco sacrificioa eta baliotassun handitacoa dela çure aitcinean. <236> Ene bihotz haur çaurt eçaçu ceure amorioaren tragaçaz,²¹² halaco moldez non, dolerezco sentimenduz betheric, ardiets deçadan çure ganic desiratcen dudan barcamendua. Ene Iaincoa eta creatçaillea, ceren çaren ontasun guztien gaineco ontasuna, eta nic gauça guztien gainetic maite çaitudana, hargatic dut damu neure bihotz guztiaz, ceren çure contra becatu eguin dudan. Deliberatcen dut finqui <237> eta fermuqui (çure garaciaren faborearequin batean) ez guehiago bihurtcera, eta ocasinotetaric ihes eguitera, eguin ditudanen cofessatcera, eta emanen çaitan penitenciaren complitcera. Eta nola bainagotçu humilqui neure becatuen barcamenduaren esque, hala dut esperança çure misericordia handia baithan, ene esquea ençunen duçula, eta barcatuco derauzquidatçula. Biz hala. <238>

Cofessatu ondoan eguiteco othoitça

Esquerrac eta laudorioac emaiten derauzquitçut, Iainco eternala, lehenbicoric ceren ceure paciencia handiaz penitencia eguitera orai arteiño iguriqui baiterautaçu, eta guero ceren neure becatuen ezagutcera ethorriric, hequen cofessatceco ceure ontasuna gatic dembora eman baiterautaçu. <239> Ezagutcen dut ecen penitenciazco sagaramendu hunetçaz bethe nauçula ontasunez, eta laboratu neure arimaren miseriaric handianean. Hunetçaz iustificacioneco garacia eman derautaçu, eta bay neure

²¹¹ urriquimendua] testuan *viriquimendua*.

²¹² *tragaçaz*: 'geziatz, dardoaz'.

becatuen barcamendua ere. Ceure adisquidetasunean eçarri nauçu, eta ceruco erresumaren primu²¹³ eguin. Espiritu Sainduaren dohaiñac barreneco bertce verthutequin eman derauzquidatçu, <240> eta neure arimaren çauriac sendatu. Ene espiritua alegueratu duçu, eta ene arima, lehen hil cena, piztu eta, finean, neure becatuen pitutasunetic arindu, cargatic descargatu, eta ifernuco penetaric libratu nauçu. Sagaramendu saindu hunen bidez eraman nauçu becatutic garaciara, heriotcetic bicitcera, ilhumbetic arguitara, gathibutasunetic libertatera, eritasunetic ossasunera, eta ifernuco <241> athetic parabisuco aldera. Ha! Ene Iainco bihotcecoa, hambat ontasun eguin derautaçuna! Cer eguinen dut nic çure alderacotçat? Baldin bertceric ecin badaguit, esquerrac bedere emanen derauzquitçut neure ahal guztiaz, eta erregue Davitec beçala erranen deratçut: «Ene becatuen gathecac deseguin ditutçu, iauna, laudoriozco sacrificioa offerendatuco derautçut, çure icen saindua <242> invocatcen dudala». Orhoitcen naiz, ha ene salbatçaillea, ecen çuc hogoy eta hemeçortçi urthetaco eri Siloeco urean sendatu cenduen hari erran cenerauala: «Huna, orai sendatu aicenaz gueroz, oha, eta eztaguiala guehiago becatutic». Hain bertce erraiten derautaçu, bada, orai niri ere. Neure becatuen barcamendua eman derautaçunaz gueroz, manatçen nauçu ez nadila guehiago hetara <243> bihur. Hala eguin nahi dut, iauna, çure amorea gatic, eta neure probetchua gatic. Çuc garbitu nauçu, eztut guehiago liçundu nahi. Ailtchatu nauçu, eztut guehiago erori nahi. Deabruaren gathibutasunetic libratu nauçu, eztut guehiago haren escuetan erori nahi. Garaciazco bicitcea eman derautaçu, eztut guehiago becatu mortalaz espiritualqui hil nahi. <244> Ardietsi dut behin çure adisquidetasuna, eztut guehiago hura galdu nahi. Eta, finean, salbamentu bide jugenean eçarri nauçu, eztut guehiago hartaric aldaratu nahi. Iesus ona, çu içanen çara hemendic aitçina ene desiramendu guztien gedea eta fina, eta eztut guehiago neuretçat bici nahi, çuretçat baicen.

Baiña ceren baitaquit ecen gauça hauquen guztion complitcecotçat <245> ene arimaren indarrac ttipiegui eta flacoegui direla, eguiten derautçut othoitz ceure passione sainduaren merecimenduac gatic, nahi derautaçun neure espiritua arguitu, adimendua gobernatu, bihotça faboratu, eta borondatea nic orai eguiten dudan deliberamendu hunetan fermuqui irauteco eta perseveratceco halaco moldez borthitztu, non, icusten diren eta <246> icusten eztiren etsai guztien tentamenduac vençuturic, eduqui deçadan galdu gabe orai cofesatce hunetan erreçibitu dudan garacia haur. Biz hala.

Gorputz saindua errecibitu baiña lehen eguiteco othoitzça

Consideratçen dudanean neure baithan, Iainco handia, çu nor çaren, eta ni nor naicen, beldur naiz sobera ausartcia har deçadan, çure gorputz preciauaren <247> sagaramendu hunetan errecibitcera hurbiltceaz. Baiña orhoituric ecen cerorrec gonbidatçen gaituçula ceruco ogui hunetaric iattera, baldin seculaco bicitcea nahi badugu ardietsi, hunec emaiten deraut bihotz eta esportçu segurança handi batequin çure gana hurbiltceco. Huna, bada, ha Iesus ona! Çure misericordian²¹⁴ eta ontasunean fidaturic heldu naiz; eria midicua gana, probea aberatsa <248> gana, escalea

²¹³ *primu*: 'seme nagusi, oinordeko'.

²¹⁴ misericordian] testuan *miseriricordian*.

emaillea gana, biluça bestitçaillea gana, liçuna ura gana eta itsua arguitçaillea gana. Senda eçaçu, bada othoi, ene eritasuna, betha eçaçu ene hutstasuna, estal eçaçu ene biluzgorritasuna, jahu eçaçu ene liçuntasuna, argui eçaçu ene itsutasuna, eta indaçu sagaramendu saindu hunen errecibitcean halaco debocinoa, intencionea, garbitasuna, humiltasuna, fedea eta amorioa, nolacoa <249> baitagoca misterio handi huni, eta ene arimac ere bere salbamenduco behar baytu. Contatcen du çure evangelioac ecen çuc egun batez Ierusalemeco²¹⁵ temploan oihuz erran cenduela: «Egarri dena bethor ene gana, eta edan beça». Huna, bada, ni, a bicitceco ithurria! Èthorten natçaitçu munduco eguitecoen ondoan nabilala nekhatuic, egarriac hila, ur esque, eta badaquit nehorc ere çuc cerorrec <250> baicen ecin iraungui deçaqueyela ene egartsu²¹⁶ handiaren sua.

Sagaramendu hunetan eracusten deracuçu, iauna, ceure amorio handia, ceren eztuçu asco eritci ceure presuna Maria virginaren sabelean guiçon eguinic emaitea, ez eta ceure odolaren gurutcean hil cinenean guri bicitcea emaiteagatic issurtea, baiña guehiago gure arimen ontasunetan eta prometatu deracuçun ceruco loriaren bahitan²¹⁷ <251> eta segurantçatan utci deracuçu eta eman, aldareco sagaramendu saindu hunetan, ceure gorputça eta odol preciatua, oguiaren eta arnoaren figuraz, iduriar, çaporeaz, coloreaz eta bertce accidentez campotic estalia. Ha! Guiçonon maitaçaille handia, sagaramendu haur gure ganaco amorioa gatic ordenatu duçuna, othoitzez nagotçu nahi derautaçun oraico parada hunetan ceure amorio handiaren <252> kharraz neure bihotça, çure amorioaren orhoitçapenetan eta çure intencionearen arauaz amoriozco misterio haur amorioequin errecibi deçaquedan beçala, piztu eta berotu. Baiña çuc, nolatan (garbitasuna bera çarelaric) nahi duçu hain leku liçunean eta nardagarrian, nola baita ene arima, sarthu? Aithortcen dut ez naicela çure errecibitceco gay. Ezagutcen dut neure indignetasuna, eta çuc <253> cerorrec behar nauçula garbitu eta prestatu. Emoçu, bada, aiticnetic ene arimari ceruco benedicionea, garbi naçaçu garaciazco uraz, eder naçaçu ceure dohaiñez, betha naçaçu verthutez, eta eguin naçaçu çure errecibitceco gay naiçatequeyen beçala. Hunela prestaturic desiratuco çaitut, esperançaz çure presenciac berequin ekarten dituen ontasunac goçatuco ditudala, eta desira haur <254> eztela ene caltetan içanen. Çato, bada, ene salbatçaillea, sar çaita ene baithan barrena, eta çaude bethierecotz enequin. Pitz eçaçu ene bihotcean ceure amorioaren sua, iraungaçu guthicia gaixtoen kharra, bero eçaçu ene epeltasuna, erra²¹⁸ itçaçu ene imperfeciõneac, eta eguin naçaçu ceure gorputz preciatuaren partaletassunaz behar den gauça guztietaco gay eta digne. Eta nola erregue Davitec Mifiboseh, <255> Ionathas bere adisquidearen seme gaixoa, aitarene amoreagatic bere mahayan errecibitu baitçuen, eta bere onetan eguin partale, hala, ene gaixotasunari behatu gabe, eguin naçaçu ni ere sagaramendu sainduaren mahayan hunetan partale, errecibitcen nauçula ceure passione sainduan eracutsi deracuçun amorioa gatic, eta bethiere eduqui deracuçun adisquidetasuna gatic. <256> Ha ene bihotceco lainco! Oray, fedezco beguiz, campoco accidentez estaliric ikhusten çaitut sagaramendu saindu hunetan. Noiz ikussico çaitut, bada, aguertuqui eta estalquiric gabe,

²¹⁵ Ierusalemeco] testuan *Ierusalameco*.

²¹⁶ *egartsu*: 'egarri handi'.

²¹⁷ *bahitan*: 'bermetan'.

²¹⁸ *erra*: 'erre'.

aingueruec ceruan ikusten çaituzten beçala? Ha! Ceruetaco erreguea, afari dohatsua ceure hautatuençat parabisuan prestaturic daducaçuna, noiz iarrico naiz ni loriazco mahay hartan? Ordu dohatsu haren <257> beguira egonen naiz, çuc placer duqueçun arteiño. Eta bitartean esperançarequin bicico naiz bethiere, ene gorputz hunetaco bicitceac diraueiño, bazcatuco nauçula ceure sagaramendu saindu hunetçaz, eta hunen ondoan eramanen nauçula ceure ikustez errecibitçen diren atseguinen eta placeren goçatcera. Biz hala. <258>

Gorputz saindua errecibitu ondoan eguin behar den othoitça

Esquerrac eta laudorioac emaiten derauzquitçut, neure Iangoicoa eta salbatçaillea, ceren ceure presenciaz visitatu bainauçu,²¹⁹ eta eguin ceure gorputz preciatuaren partale. Miresteco da eguiatzqui, nola çu, Iainco gora eta maiestategoa çarelaric, ceure goratasuna <259> hain beheituric nahi içatu duçun ene arimaren etchean sarthu, eta ene baithan ostatatu. Cerc eraguin othe deratçu ene alderacotçat hain humiltasun handitaco obra haur? Ala eguin duçu ene baithan diren merecimenduac gatic, ala ene ganic athera uste duçun probetchua gatic? Ez bata gatic, eta ez bertcea gatic: ceren batatz, ezta ene baithan halaco ohorea merci duen ontasunic, eta bertceaz, ceren <260> çureac baitira gauça guztiaç, eta ezpaituçu deusen beharic. Aithortcen dut, iauna, ecen ceure pietate handiac eta gure ganaco amorioac, gure probetchua gatic eraguin deratçula miretsagarrizco obra haur.

Baiña norc erran ahal leçaque combat probetchu eta ontasun ethorten çaicen dignequi eta behar beçala errecibitçen çaituen arimari? Sagaramendu saindu hunen verthutez garacia <261> berretcen da, fedea borthitzten da, esperança pizten da, caritatea iratchequitçen da, espiritua alegueratcen da, borondatea ontcen da, eta arima Iaincoarequin iuntatcen da. Verthuteac handitcen dira, tentamenduac ttipitcen dira, imperfeciõneac purgatcen dira, eritasunac sendatcen dira, becatuac barcatcen dira, eta Espiritu Sainduaren dohaiñac complituqui emaiten dira. Obededom ceure cerbitçari <262> ona bethe cenduen ceruco benedicionez, ceren errecibitu eta ostatatu baitçuen bere etchean cembait egunez çure testamenteco arca. Nic eztut harc beçala çurezco arca bat errecibitu eta ez ostatatu, baiña bay ceruan eta lurrean den gauçaric handiena, baliossena eta preciatuena, cein bayta çure gorputz sacratua, eta harequin batean çure odola, çure arima eta iaincotasuna. <263> Bada, Obededom haren alde racotçat eguin cenduena eguiçu oray ene alderat ere, eta sagaramendu hunen verthutez betha naçaçu çure dohaiñez.

Ha! Aingueruen oguia, atseguin eta contentamendu suerte guztiaç dituçuna, bethe eçaçu, othoi, ene arimaren apetitua ceure eztitasunaren çaporeaz, halaco molde non munduco placerac eta contentamenduac higuyn daquizquidan, eta bertce <264> ontasunic çu cerori baicen bilha ezteçadan, eta ez desira, ceren çu çara ene esperança, ene bicitcea, ene erremedioa, ene arguia, ene borthitztasuna, ene aberatstasuna, ene consolamendua, ene alegriança, ene atseguina, ene baquea, ene sossegua, ene ohorea, ene loria, ene herencia, ene creatçaillea, ene salbatçaillea, ene iauna, ene Iaincoa eta ontasun guztia. Arraçoin da, iauna, aingueruen ogui hartaric <265> das-

²¹⁹ bainauçu] testuan *bia- / nauçu*.

tatu duena aparta dadin munduco atseginetaric, eta bere bihotçean ceruetaco erre-guea errecibitu duenac ostica ditçan lurreco gauça guztiac.

Ha ceruetaco iaquia! Iunta naçaçu, othoi, çeurequin çeure amorioaren indarraz. Çaren çu ene baithan, eta naicen ni çure baithan. Eguin naçaçu çeurequin gauça guz-tietan borondate bat eta espirtu bat, eta erranen <266> dut apostoluac beçala: «Bici naiz ni, baiña ez ni: Iesu Christo ene iauna bici da ene baithan».

Ha! Ene salbatçaillea, ontasun guztien ithurria, eman diaçadaçu sagaramendu hunen verthutez çure maitatceco, ohoratceco, cerbitçatceco, borondate sainduaren eguiteco, becatuetaric apartatceco, çure arauaz bicitceco, eta obra onetan fineraioño irauteco garacia. Eman diaçadaçu, <267> halaber, verthute guztien complimendua, eta bereciqui behar dudan bortitztasuna neure etsai ikusten diren eta ikusten ezti-renen garaitceco, eta mundu hunetaco gaitcen eta penen pacientqui pairatceco. Eta nola Elias profeta²²⁰ borthiztu eta indarztatu baitcen aingueru batec çure partez eka-rrri ceraucan sutophil hartçaz, halaco moldez ecen harc eman ceraucan indarrarequin <268> berrogoy egunen eta hain bertce gauen bidea eguinic, heldu baitcen Orebe-co mendira, hala niri ere, ceruco ogui hunen verthutez, eman diaçadaçu bicitce mise-riazco hunetaco bidearen flacatu gabe iragaiteco, eta çure gana çurequin seculacotz bicitcera heltceco indarra. Biz hala. <269>

Aita cerucoari eguiteco othoitça

Aita cerucoa, Iainco eternala, hitz batez munduan diren gauça guztiac creatu dituçuna, aitortcen dut ni naiçela çure creaturetaric bat, eta nic dudan guztia çure gan-ic dudala, eta çurea dela. Bi arraçoïn gatic dei ahal çaitçaquet aita: bata, ceren creatu bayнауçu eta munduan eçarri, eta bertcea, ceren <270> adoptatu eta ceure haurtçat hartu bainauçu. Bataz (cein baita creatcea) eman derautauçu naturaleçaren içaitea, bertceaz (cein baita ceure haurtçat hartcea) eman derautauçu garaciazco estatua eta çure erresuman çucen içaitea. Bataz lurreco bertce creatura guztiac baiño nobleago eta abantailatuago ceure idurira eguin nauçu, bertceaz aingueruequin batean ceruco loriaren <271> partaletasuna emaiten derautauçu. A Iainco handia! Cer abantail aur-quitu duçu guiçona baithan hain bertce merci duenic? Miresteco da eguiazqui nola çu, hain handi, erregueen erregue²²¹ eta iaunen iaun çarelaric, nahi içatu duçun hain creatura ez deusa nola baita guiçona ceure semetçat hartu, eta guztiz ere ni, guztie-taco ez deusena eta galduena, nola contu hartan berean eçarri <272> nauçun. Fa-bore hunetan da agueri, langoicoa, nolacoa den çure ontasuna eta ene ganaco duçun amorioa, ceifien verthutez eguiten baitçara çu ene aita, eta ni guerthatcen bainaiç çure haur. Icen amoriozco hunec (çu ene aita içaiteac) emaiten deraut esportçu eta esperança behar orduan faboratuco nauçula, ceure escutic eduquico nauçula, erort-cetic beguiratuco nauçula, eta <273> aita onac bere semea beçala, çuc ere ni ceure ontasuna gatic bethiere behar beçala gobernatuco nauçula. Eta hala, esperança hu-nequin eguiten derautçut othoitç nahi derautauçun eman seme on batec bere aitaren alderacotçat eguin behar duen eguinbidearen complitceco garacia, nola baita oho-

²²⁰ profeta] testuan *Profe-1 feta*.

²²¹ erregue] testuan *Eregue*.

ratcea, maitatcea, obeditcea eta icenaz beçala içanez ere seme naiçatequeyen beçala cerbitçatcea. <274> Biz hala.

Iaincoaren semeari eguiteco othoitça

Iesu Christo ene iauna, aita cerucoaren seme bacoitça, Iainco eta guiçon eguiaz-coa, esquerrac emaiten derauzquitçut ceren ene salbatcea gatic mundura ethorri baitcinen. Ezagutcen dut ecen çuc egundaiñoz gueroztic eduqui derautaçun amorio harc iauts araci cinituela cerutic lurrera ene erremediatcera.²²² <275> Çu Iainco handia eta handitasuna bera çarelaric, nahi içatu duçu guziarequin ere, ceure handitasuna behehituric, guere²²³ haraguiaren flacotasunarequin iuntatu, eta iuntaturic, guiçonaren forman aguertu eta ibili. Icussi cinituen Adamen ondoco miseriac, ençun cinituen²²⁴ oyhuac eta errencurac, eta halatan ceurc ordenaturic ceneducan dembora complitu cenean, etorri cinen haraguiz beztituric gure miseria <276> guztien erremedioarequin. Orduan, ceure ontasuna gatic visitatu guinitutçunean, eta guiçon eguinic gurutcean gure gatic hil cinenean,²²⁵ ceure amorio handiaren froga clarqui eracutsi ceneraucun. Çuc gure baithan eçarri cenduen imagina eder eta garbi hura desvistatu çuen Adamec bere becatuaz, baiña erremediatu eta edertu cenduen çuc çure passionearen merecimentuaz. <277> Adamen becatuac ekarri cerauzquigun calte handiac, baiña çure ethortceac erremediatu cituen calte hec guztiac, eta are eman ontasun doblatuac. Ceren baldin ni eri banaiz, çu çara midicua; eçarri banaiz, çu çara edaria eta ithurria; flaco banaiz, çu çara sostengua eta indarra; hil banaiz, çu çara bicitcea; becatuz cargatua banaiz, çu çara <278> arintçailea eta barcatçailea; ilhumbetic ilqui nahi badut, çu çara arguia; finean ceruco loriara ioan nahi badut, çu çara hango bidea. Ni galdu nincen, çuc ailtchatu nauçu; gathibu nincen, çuc libratu nauçu; çorrac nituen, çuc pagatu itutçu;²²⁶ çu hil çara ni hil ez nendin amorea gatic, eta penatu çara penataric ene atheratcea <279> gatic. A Iainco handia eta ontasunez bethea! Nondic ethorri çaiçquit niri pietatezco obra hauc guztioc, çure amoriotic baicen? Çarela bethierecotz laudatu hunelaco caritatea gatic. Baiña cer eman ahal diaçaiçut nic çuri hunen²²⁷ amorio handiaren ordain? Badaquit, iauna, eztela deus ene baithan çure eztenic, baiña guziarequin ere, emanen <280> derautçut nic ere neure amorioa, emanen derautçut neure bihotça, ceren haur da nic guehienic neure dudana, eta çuc ere ene ganic nahien duçuna. Errecibi diçadaçu,²²⁸ bada:²²⁹ amorioa amorioaz pagatu nahi derautçut. Eta çure amorio hunetaric ethorri çaiçquidan ontasunez orhoitcen naicela, laudatu eta cerbitçatu nahi çaitut bici naicen egunetan. Biz hala. <281>

²²² erremediatcera] testuan *erremediatcera*.

²²³ *guere*: zalantza egin liteke errata den, eta *gure* edo *gueure* behar duen. Haranburuk eta Etxeberri Ziburukoak *gere* ere badutenez, hemen ere hala uztea ebatzi dugu, nahiz eta Linschmann-Aresti legea hautsi.

²²⁴ cinituen] testuan *cinituç*.

²²⁵ cinenean] testuan *ci- / nean*.

²²⁶ *itutçu*: 'dituzu'. Begiratu § 6.4.2.3.f).

²²⁷ hunen] testuan *hu- / nem*.

²²⁸ *diçadaçu*: halako bakarra da Materraren testuan (gainerakoek *dia-* hasiera dute). Hala ere, dagoen-dagoenean uztea erabaki dugu; izan ere, morfologikoki ongi eratua izateaz gain, Haranburuk eta Etxeberri Ziburukoak bederen adibide bana dakarte, *Euskal Klasikoen Corpusaren* arabera (*EKC* hemendik aurrera).

²²⁹ bada] testuan *dada*.

Espiritu Sainduari eguiteco othoitça

Espiritu Saindua, Trinitate Sacratuaren hirur garren presuna, Mendecoste eguean apostoluen gairera iautsiric hequen bihotçac ceruco dohaiñez bethe cinituena, hurbil çaitte, othoi, ene arimara, eta betha diaçadaçu ceure amorioaren ezttasunaz. Çu çara bihotcen arguitçaillea, tristen consolatçaillea, <282> iaquingabeen²³⁰ iracatsaillea, erien sendatçaillea, liçunen garbitçaillea eta dohain guztien emailea. Çu çara emaçurtz²³¹ gaixoen aita, hotcen berotasuna, necatuen pausatassuna, flacoen borthitzasuna, becatoreen salbamendua, iustuen bozcarioa eta errebelatuen guidamendua. Ni emaçurtz²³² naiz, çaren çu ene aita; errebelatua naiz, çaren ene guidaria; necatua naiz, çaren <283> çu ene pausagunea; flaco naiz, çaren çu ene sostengua; becatore naiz, çaren çu ene garacia. Ene barreneco ilhuntasunac arguitçaçu ceure claritateaz, ene espirituaren tristurac khen itçatçu ceure consolamenduaz, ene adimenduaren²³³ inoranciac desterra itçaçu ceure doctrinaz, ene arimaren eritasuna senda eçaçu çeure garaciaz, eta ene bihotçaren hotztasuna bero eçaçu çeure <284> suaren carraz. Eman diaçadaçu ceure çazpi dohaiñen complimendua, baitira çuhurçia, adimendua, conseilua, iaquintasuna, borthitztasuna, pietatea eta beldurtasuna, cein bidez munduco enganamenduac ezaguturic eta vanitatea vençuturic, nadin bethiere çure amorioan egon eta bici. A Espiritu Saindua, arimen bicitçe eguijazcoa! Pitz eçaçu ene baithan ceure amorioaren sua <285> bethiere çure cerbitçuan erne eta iratçarria egon naithequen beçala. Erra diaçadaçu neure imperfeçione guztiac ceure²³⁴ suaren carraz. Betha itçaçu ene arimaren velac ceruco ceure haice eme placent hartçaz, eta inspira diaçadaçu, eta ecar gogora, ceure loriaco eta neure salbamenduco eguin behar ditudan obrac. Eracuts²³⁵ eta iracats diaçadaçu nola behar naicen, mundu hunetan nagoieño, gobernatu, eta <286> halaber, cer behar dudan eguin, erran eta pensatu, neure arimaren salbamendua çure faborearequin²³⁶ batean ardiets deçaquedan beçala bicitceco. Biz hala.

Andre dana Maria Iaincoaren ama virginari eguiteco othoitça

Maria virgina saindua, ene salbatçaillearen ama, icussiric çu cein garbi çaren, <287> eta ni cein liquits, ez naiz ausart çure aiticnean aguertcera, eta ez nuque aguertu ere behar, baiña, neure miseriaren eta behar handiaren handitasuna consideraturic, ecin nagoque aguertu ere gabe, eta çure gana fabore esque ethorri gabe. Çu çara aita cerucoaren alaba, haren semearen ama, Espiritu Sainduaren esposa, Iaincoaren etchea, aingueruen erreguina, lurreco creaturen <288> andrea, itsasoco içarra, virgina guciz garbia, ama paregabea, Adamen etorquiaren ohorea eta munduco miracullua. Aithortcen dut icen ohorezco hauquen arauaz laudorio handiac mereci

²³⁰ iaquingabeen] testuan *iaquin-gabec*. Baliteke eskuizkribuan *n* gainidatzia izatea (*iaquin-gabeē*) eta bigarren *e*-aren ordeç *c* irakurri izana, errata sortuz.

²³¹ *emaçurtz*: 'umezurtz'.

²³² *emaçurtz*] testuan *emaçurtuz*.

²³³ adimenduaren] testuan *adime- l duaren*.

²³⁴ guztiac ceure] testuan *guztia cceure*.

²³⁵ Eracuts] testuan *Erracuts*.

²³⁶ faborearequin] testuan *faborearequin*.

ditutçula, baiña laudorio guztien gaineco laudorioa eta ohoreric handiena emaiten çaitçu ceren langoicoac emazte guztien artean bere ama hautatu baitcinituen. Handic çara becatore guztien ararteco, eta handic²³⁷ <289> hartcen dugu esperança çurequin batean ceruco dohaiñac ardietsico ditugula. Çaren, bada, ararteco on, esca çaquitça ceure semeari ene partez ene becatuen barcamenduarençat, eguiçu haren eta ene artean baquea, eta eçar naçaçu haren garacian eta adisquidetasunean. A virgina guciz garbia! Ençun eçaçu, othoi, ene othoitça, eta becatore handia banaiz ere, ez naçaçula hargatic arbuya, <290> ez naçaçula ceure ganic egotz, aiticic fabora naçaçu, eta ararteco on guertha çaquizquit ceure semearen aiticinean. Ardiets diaçadaçu verthute guztien complimentua, arimaco eta gorputceco garbitasuna, bihotceco humiltasuna, guiristino lagunaren alderaco amorioa eta caritatea, Iaincoa ganaco debocinoa, eta haren borondate sainduaren eguiteco ancea eta indarra. A Maria virgina <291> benedicatua, saindutasunaren miracullua, garaciaren eta misericordiaren ama! Çure gomendioan ibencen dut orai eta bethiere neure bicia eta dudan guztia. Beguira naçaçu espiritu gaixtoaren enganamenduetaric, eta becatu mortaletan erortcetic. Hel çaquizquit, eta fabora naçaçu neure premia guztietan, necesitatezco pontuetan eta guztiz ere neure heriotceco orenean. Eguiçu hanbat ceure othoitz onez eta <292> arartecotasunaz, non hequin batean ardiets deçadan orai Iaincoaren garacia, eta guero mundu hunetaco aldía daguidanean, haren parabisuco loria. Biz hala.

Aingueru beguiraleari eguiteco othoitça

Iaincoaren ainguerua, ene beguiratçeco ordenatu çarena, esquer deratçut ahal daguidan beçambat çure ganic orai artean errecibitu <293> ditudan ontasan guztiez. Ezagutcen dut ecen çu çarela ene bicitçearen gobernaria, espirituaren guidaria, adimenduaren arguitçaillea, beharretan laboratçaillea, periletan beguiraillea, arduraco ongui eguilea eta pensamendu onen inspiratçaillea. Çu bethi çau de erne eta²³⁸ iratçarriric ni uquitcen naicen gauçen gainean. Ene inguruan çabilça gauaz eta egunaz deus gaizquiric <294> guertha eztaquidan. Presentatcen ditutçu Iaincoaren aiticinean ene desirac, othoitçac eta obra onac, eta ekarten derauzquidatçu Iaincoaren donuac²³⁹ eta dohaiñac. Cembat inspiracino on eman derautaçu Iaincoaren arauaz bicitceco cuntuan? Cembatetan behaztopatuco nincen becatuaren bidean, baldin çuc ezpanenduçu escutic eduqui? Cembatetan erorico nincen munduco periletan, eta helduco incontru gaitcetan, <295> baldin çuc etsai agueri direnen eta agueri eztirenen çangarteac, celatac²⁴⁰ eta gaixtaqueriac aguertu, khendu eta deseguin ezipacinitu? Aithortcen dut eguiazqui ene bicitce gaixtoac añhitzetan ere merci çuqueyela urrundu cinen ene ganic, baiña ez nauçu utci nahi içatu; irau duçu ceure caritate handiz pietatezco obra hunetan. Norc erran ahal deçaque cein obligatu naicen çure alderat? <296> Cembat derautçudan çor? Gure Iaincoac daqui hori, eta çuc ere bay, eta ez bertcec, ene adisquide leyal. Ezagutçen dut eztela lecuric çure ganic errecibitcen ditudan onta-

²³⁷ handic] testuan *han-*. Hurrengo orrialdean <han-> hasierakoa behar lukeen hitza (ziur asko *handic*) edo haren amaiera falta da. Bestela, errata da eta <har-> behar du honek, dei moduan.

²³⁸ eta] testuan *ita*.

²³⁹ *donu*: 'dohain, bertute'.

²⁴⁰ *celatac*: 'segadak, ustekabeko erasoak'.

sunen²⁴¹ ezagutçeco, eta ez, mereçi beçala ontasun hauquen esquerren errendatceco. Behar beçala eztaidiquet ez bata ez bertcea ere ceruraiño, baiña bitartean, errecibi itçaçu neure ahalaren arauaz emaiten derauzquitçudan <297> esquerrac. O espiritu dohatsua! Çure carguaren eta gomendioaren azpian Iaincoac bere ontasuna gatic ene arima, gorputça eta bicitcea eçarri dituenaz gueroztic, othoitcez nagotçu nahi ditutçun eduqui cargutan eta gomendiotan, oraiñoocoan beçala hemendic aiticina ere, contu eta ardura eduquitcen duçula. Ceure inspiracino sainduetz, gogoeta onez aparta naçaçu <298> becatu eguitetic; errebela nadinean eçar naçaçu bide jugenean, goberna naçaçu neure mende apur hunetan; hel çaquizquit neure heriotceco orenean. Orduan emplega eçaçu ceure indar guztia, eta etsai guztietaric defendaturic eraman albaitnençaçu ceure compañian ceruco loriara. Biz hala. <299>

Parabisuco saindu guztiei eguiteco othoitça

Salutatcen eta ohoratcen çaituztegu, parabisuco saindu dohatsuc, Iaincoaren adisquideac eta ceruco habitantac. Çuen dohatsutasunaz orhoituric eta gueure miseriac hersturic, heldu gara çuen gana fabore escatcera. Çuec iadanic acabatu <300> duçue bicitce hunetaco bidea, baiña guc orai darabilagu escuen artean. Çuec munduco tormenta guztiei garaturic irabaci duçue salbamenduco portua, baiña gu orai gabilça perilez inguraturic itsas uhinen artean. Çuec seguratu duçue çuen salbamendua, baiña gu ikaraz gabilça, ici²⁴² eta beldur gara, ecin iaquinez cer guerthatuco çaicun gueure heriotceco orenean. Ea bada, saindu gloriosac, <301> complimendu guztiarequin çaudetenac, orhoit çaitetzte, othoy, gure eguitecoaz eta miseriaz. Beha diaçaguçue gain horretaric ceuen caritatezco beguiez, eta gueure beharrac estal diatçaguçue ceuen faborez. Guc baiño lehen frogatu cenduten cembat ocasinaz eta enganamenduz bethea den mundu falso haur. Badaquiçue nola gauden peril suerte guztiez inguratuac, <302> eta gueure indar joillez ecin escapa gaitetzqueyela, eta ez libra perill hetaric. Badaquiçue, halaber, gueure eguitez²⁴³ cein flaco, huts eguiten eta erorten errax garen, eta bertce alde, egun guztiaz acometatcen gaituzten tentamenducac ere cein handiac eta borthitçac diren. Ardiets diaçaguçue, bada, Iangoicoa ganic gure arimen salbamendua guibelatcen duten trabu²⁴⁴ guztiei garaitceco indarra. <303> O aingeru sainduac, guiçonaren salbamendua desiratcen duçuenac eta hartçaz alegueratcen çaretencac! O apostolu sainduac, evangelioaren doctrina predicatuz mundua Iesu Christoren federa convertitu duçuenac! O martyr sainduac, fede catolicaren mantenatcea gatic añhitz pena pairaturic, azquenean ceuen biciac eman ditutçuenac! O ipizpicu sainduac, <304> ceuen ansiaz²⁴⁵ eta trabailluz Iaincoaren Eliça bidezqui gobernatu duçuenac! O dotor²⁴⁶ sainduac, ceuen dotrina onaz guiristino fidelei bere salbamenduco bidea iracatsi deraueçuenac! O cofessor sainduac, ceuen bicitce onaz,

²⁴¹ ontasunen] testuan *on-* / [.]*asunean*. <t> ez da inprimatu, baina tipoarentzako lekua badago. <h> edo ziurrago <t> izan daiteke, gehienetan hala erabiltzen duelako eta esaldi honetan bertan aldaera hori agertzen baita.

²⁴² *ici*: 'izu, beldur'.

²⁴³ *gueure eguitez*: 'berez'.

²⁴⁴ *trabu*: 'traba, oztopo, eragozpen'.

²⁴⁵ *ansiaz*: 'arduraz, kezkaz'.

²⁴⁶ *dotor*: 'Elizako doktore, irakasle'.

verthuteaz eta exemploaz mundua arguitu duçuenac! O virgina sainduac, arimaco eta gorputceco garbitasuna beguiraturic, munduaren eta haraguiaren <305> muguidac eta guticiac garaitu dituçuenac! O alhargunac eta bertce emazte sainduac, obra onetan eta verthutezcoetan mundu hunetan emlegatu çaretenc! Eta finean, generalqui saindu guztiac, ceuen bicitce onaren mercedimenduz Iaincoaren faborearequin batean loriaco khoroa irabaci duçuenac, orhoit çaitetze gutçaz, fabora gaitçaque ceuen othoitz onez, euçue²⁴⁷ gutçaz <306> ansia, çaretenc gure ararteco Iaincoaren alderacotçat, eta ardiets diaçaguçue haren ganic fede eguiazcoa, esperança bicia, caritatea complitua,²⁴⁸ eta obra onetan fineraño irauteco garacia, hunelatan bicitce miseriatu hunen ondoan mercedient eta digne garatequeyen beçala çuen compañaia heldceco, eta çuequin batean seculaco fingabecotçat Iaincoaren laudatceco. Biz hala. <307>

Guiristinoac nola behar duen bere conciencia arratsean examinatatu

Guiristino onac içaitecotçat behar dugu arrats guztiaz gueure conciencia examinatatu,²⁴⁹ eta cer eguin, erran eta pensatu dugun eguin gogoeta, iaquitea gatic cer becatu eguin dugun egun hartan.

Eta concienciaren examinatce haur bortz pontu hautan dago:

Lehena da Iaincoari esquerren emaita haren ganic generalqui errecibitu <308> ditugun ontasan guztiez, eta beregainqui egun hartacoetz.

Bigarrena, Iaincoari gueure becatuen ezagutceco argui eta garacia escatcea.

Hirugarrena, gueure buruari contu galdeguitea geheroqui, egun hartan eguinez, erranez edo pensatuz eguin ditugun becatuez.

Laur garrena, bihotceco urriquimenduarequin Iaincoari gueure becatuez barca-mendu escatcea, ahalic eta fitetzena cofessatceco intencinoarequin.

Bortz garrena, fermuqui deliberatcea handic aiticina hobequiago <309> bicitceco, eta becatuetaric (Iaincoaren faborearequin batean) apartatceco.

Eta examinatce hunen errazqui eguiten ikasteco, emanen deratçut hemen molde bat, eta nahi nuque huni iarrai qui bacenenquitça.

Concienciaren examinatceco moldea

Arratsean, ohera baiño lehen nahi baduçu ceure conciencia examinatatu, bilha eçaçu cembait lecu²⁵⁰ apartatu etchean <310> edo bertcetanc, eta hartan belhaurico iarri ric, has çaita erraiten:

Gorputcez eta bihotcez, neure burua lurrera egotciric, presentatcen naiz çure maiestate guciz gaincoaren aiticinean, ene Iaincoa eta creatçaillea, adoratcen çaitudala neure arimaco indar guztiaz.

²⁴⁷ *euçue*: 'eduki ezazue'. **edun*-en agintera trinkoa.

²⁴⁸ *caritatea complitua*: bere horretan utzi dugu, baina bestela ere interpreta daiteke. -a errata izan daiteke edo hurrengo hitzaren hasiera (cf. frantsesez *accomplir*). Edonola ere, gainerakoetan Materrak -a gabe darabil.

²⁴⁹ Examinatu] testuan *ex*[.] - / *minatu* dago. Badirudi gidoiaren tipoa atereago zegoelako (izan ere, tipoarean goi-beheetako ertzak ere inprimatu dira), <a> letra inprimatu gabe gelditu zela.

²⁵⁰ lecu] testuan *leçu*.

Haur erran eta beheiti eçaçu ceure burua lurreraïño, eta berriz bere hala ailtchatu-ric, erraçu hunela:

1. Esquerrac emaiten derauzquitçut, iauna, <311> orai artean çure ganic errecibitu ditudan ontasunez, ceren ceure idurira eta imaginara creatu bainauçu, ceure odol preciatuaz redemitu, guiristino eguin, eta bai çure sagaramenduetan ere partale; añhitz periletaric beguiratu, behar dudán mantenua eman, eta becatuac barcatu. Baiña bereçiqui esquer derautçut ceren egungo egun hunetan ceure escutic eduqui bainauçu, ontasunic asco <312> eman, añhitz gauçatan faboratu eta munduco periletaric beguiratu bainauçu.

2. Eta ceren neure gaixtaqueria hutsez²⁵¹ oren oroz becatutan erortcen ohoitua²⁵² bainaiç, hargatic nagotçu othoitcez, ha Iainco handia, nahi derauzquidatçun çure contra egun eguin ditudan becatuac neure memoriora ekarri, bidezqui ezagutceco arguia eman, eta bai hetçaz urriquimendu ere içaiteco garacia. <313>

Hunen²⁵³ ondoan iraul eçaçu ceure espiritua, eta pensa eçaçu ea cein lecutan ibili çaren goicetic arratseraïño, norequin minçatu çaren, certan emplegatu duçun dem-bora, cer obra eguin duçun, geheroqui eguiten duçula gogoeta cer becatu eguin ahal duqueçun, eguinez, erranez edo pensatuz: hala gaizqui eguinac, nola ontasun eguin ahal cinitçaquelaric eguin gabe utçi dituçunac, eta halaber, ea ceure arduraco imperfecionequin eta inclinacino gaixtoequin nola gobernatu çaren.

Eta cer ere becatu edirenen <314> baituçu eguin duçula egun hartan, eçar eçaçu²⁵⁴ ceure memorian, eta har eçaçu ceure bihotcean urriqui handia, eta hiruretan²⁵⁵ escuz io eçaçu bulharra²⁵⁶ erraiten duçula:

3. Hauc dira (ene ustez), ene Iaincoa, nic egungo egunean çure contra eguin ditudan becatuac. Huna cein gaizqui emplegatu dudán çuc ongui eguiteco eman derautaçun dembora. Bildu dut becatua becatuaren <315> gaiñera, eta lehen eguin nituenac egungoez berretu ditut. Ezagutcen dut, iauna, erori naicela becatu hautan, çure amorioan eta beldurtasunean behar beçala egon gabez.

Contricioneco actea

Ene Iaincoa eta creatçaillea, ceren çaren ontassun guztien gaiñeco ontassuna eta nic gauça guztien gaiñetic maite çaitudana, hargatic dut damu <316> neure bihotz guztiaz, ceren çure contra eguin dudán becatu. Deliberatcen dut finqui eta fermuqui (çure garaciaren faborearequin batean) ez guehiago bihurtcera,²⁵⁷ ocasioetaric ihes²⁵⁸ eguitera, eguin ditudanen cofessatcera, eta emanen çaitan penitenciaren complitcera. Eta nola bainagotçu humilqui neure becatuen barcamendu esque, hala dut esperança ecen barcatuco derauzquidatçula çure misericordia eta <317> ontassun handia gatic. Biz hala.

²⁵¹ hutsez] testuan *hautçez*.

²⁵² *ohoitua*: aldaera hau beste inon aurkitu ez badugu ere, ez gara zuzentzera ausartu, *OEH*ren arabera Harrietek *ohoi* partikula badakarrelako, eta Larramendik *ooitu* (V-gip laburduraz *OEHn*).

²⁵³ Pasarte honek 3 zenbakia darama, beharrik gabe. Ondorioz, bi paragrafo beherago 4 zenbakia zuenari 3 jarri diogu.

²⁵⁴ eçaçu] testuan *eçaça*.

²⁵⁵ hiruretan] testuan *biruroetan*.

²⁵⁶ bulharra] testuan *balhara*.

²⁵⁷ bihurtcera] testuan *bigurtcera*.

²⁵⁸ ihes] testuan *ihéz*.

Eman²⁵⁹ diaçadaçu, othoy, hemendic aicina bekaturic ez guehiago eguïteco garacia, eguin ditudanetara ez guehiago bihurtceco, eta gauça guztietan çure borondate sailduaren complitceco indarra. Biz hala.

Hauquen ondoan erraçu *Confiteor*, latinez edo euscaraz. <318>

Guiristinoac nola behar dioen bere burua Iaincoari arratsean gomendatu

Erran dugun molde hunetan ceure conciencia examinaturic, gomenda diaçoçu ceure burua Iaincoari. Eta hartaracotçat erran itçaçu *Pater noster*, *Ave Maria*, *Credo in Deum* eta guero othoitz haur: <319>

Othoitça

Iainco eternala, çure botherearen indarraz eguna eta gaur guïçonaren probetchuco creatu eta ordenatu dituçuna, eçar diatçadaçu, othoy, neure arima eta gorputça gau hunetan ceure hegalean eta ontasunaren itçalaren azpian, eta beguira naçaçu gaurco periletaric. Deseguin itçaçu espiritu gaixtoaren indarrac, aguer itçaçu haren <320> celatac, ilhumbean atrapa ez naçan; indaçu pausu ona, lo sosegatua. Ezteçaçula permiti amets gaixtoric eguin deçadan. Aitcitic, halaco moldez eduqui naçaçu ceure escutic, non, ene gorputça lo datçan bizquitartean, ene espiritua egon dadin iratçarriric çure aicinean. Ha! Argui eternalaren iguzquia, argui diaçadaçu, othoi, gauzaco ilhumbe hunetan neure arima, eta <321> beguira naçaçu becatuco edo heriotceco ilhumbean erortcectic. Badacussat ecen egungo eguna bere arguiarequin iragan den beçala, iragaiten dela appur bana ene bicitceco dembora ere. Çau de, bada othoi, ene aldean gau hunetan, eta beguira naçaçu halaco moldez, non, salboric eta sendoric edireiten naicela bihar goicean, dizquitçudan esquerrac eta laudorioac <322> neure ahal guztiaz. Biz hala.

Aingueru saildua, ene presunaren beguiratceco cargua Iaincoaren pietatez hartu duçuna, argui diaçadaçu, othoy, gau hunetan, goberna naçaçu, eta beguira gaitcetaric. Biz hala.

Çure escuetan eçarten eta gomendatcen dut, iauna, neure arima. Educaçu nitçaz contu, hala nola redemitu bainauçu, <323> Iainco eguiati çarena. Biz hala.

Guero, hauquen ondoan, ur benedicatua harturic, etcin çaitte oherat Iaincoaren benedicionearequin batean, cembait pensamendu on gogoan erabiltcen duçula, eta hartan çaudela loac har çaitzqueyen beçala.

Iaincoa biz laudatu. <324>

Bekatuetic apartatceco maiz consideratu behar diren pontuac

Cer naiz? Lur.

Non nago? Lurrean.

Nondic heldu naiz? Lurretic.

Norat noha? Lurrera.

Noiz harago²⁶⁰ naiz? Ezta segurançaric.

Nagoen, beraz, bethi prestic, segurançaric eztenaz gueroztic. <325>

²⁵⁹ Pasarte honek 5 zenbakia darama, beharrik gabe.

²⁶⁰ *harago*: begiratu § 6.4.2.3.e).

Marinelec nola eguin behar dituzten bere othoitçac itsasoan dabilçan demboran

Ceren baitaquit iende añhitz dela Euscal Herrian itsasoan dabilanic, behar derauet hei ere eracutsi nola behar derautçaten²⁶¹ bere oracinoac eta othoitçac laincoari eguin, eta egun oroz haren maiestateari bere burua gomendatu. Eta eguia erraitera, premia handitaco <326> gauça da haur, ceren cenbatenez eta halacoac periletan ago baitabilça itsasoan, hanbatenez laincoari gomendatceco iratçarriagoac eta icassiagoac behar dute egon. Hequençat, bada, eçarten dut hemen othoitz eguiteco molde bat, ceiñetçaz probetcha ahal ditezque egun oroz, hambat goicean nola arratsean. <327>

Goicean erran behar dena

Goicean, demborac hala emaiten duenean, çuec, itsasoan çabiltçaten marinelec, bil çaitetzte elkar gana, iar çaitetzte belhaurico, eta ceuen gogoac laincoa gana ailtcharuric eta ceiñaturic, erran eçaçue *Pater noster*, *Ave Maria* eta *Credo*, latinez edo euscaraz.

Eta hauquen ondoan erran beça çuetaric batec appur bat <328> gora eta haguitz orai hemen ibenico dudan othoitzta, eta bitartean eduqui beçate bertceç ere hartan gogoa, ençun beçate, edo norc bere liburuetan ixilic iracur beçate, ceren estimatcen dut eztela içanen²⁶² batere iracurtcen daquien marinelec, liburu haur içanen eztenic.

Othoitça

Iainco iauna guciz botheretsua, huna gu, çure creatura gaixoac, presentatcen gara goiz <329> hunetan çure maiestate sainduaren aitcinera, çor derautçugun ohorearen eta laudorioaren ahal beçanbat errendatcera. Adoratçen çaitugu humilqui gueure indar guztiaz, eta aithortcen dugu çu çarela gure creatçaillea, salbatçaillea, iabea, habea, ontasun guztien ithurria, eta bai emaillea ere. Esquerrac emaiten derauzquitçugu çure ganic orai artean errecibitu ditugun ontasun <330> guztiez, eta beregainqui ceren ioan den gauean peril guztietaric beguiratu baicaitutçu. Bada, gauean beçala, egunean ere beguira gaitçaçu, othoi, eta ceure escutic eduqui gaitçaçu. Gure pensamenduac, sentimenduac, hitçac, obrac eta gorputçaren manayu guztiac governa itçaçu, eguinen, erranen eta pensatuco dugun guztia çure ohoretan eta laudoriotan guertha ditequeyen beçala. <331> Ceure ontassuna gatic, beguira gaitçaçu egungo egunean bekatu eguitetic, benedica eçaçu gure travaillua, eta iguçu çure beldurtasunean eta amorioan egun hunen iragaiteco garacia.

O Maria virgina, gure salbatçaillearen ama, çu çara haren ondoan gure esperança guztia, othoitceç gagozquitçu har gaitçaçun egun çure faborearen azpian.

Eta çuec, o aingueru²⁶³ sainduac,²⁶⁴ gure beguiratceco <332> eta gobernatceco laincoaren ontassuna gatic ordenatu çaretenc, hel çaquizquigute, othoi, egungo gure peril eta premia guztietan. Çaudete bethi gure inguruan, eta çuen indarraz beguira gaitçaçue incontru gaixtoetaric. Biz hala.

²⁶¹ derautçaten] testuan *derauctaten*.

²⁶² içanen] testuan *icanen*.

²⁶³ aingueru] testuan *Ainguetu*.

²⁶⁴ sainduac] testuan *sainduac*.

Bertce othoitça

Iainco iauna, guztiz botheretsua, lurreean <333> beçala itsasoan ere escu duçuna, eta çure baithan bere esperança eçarten dutenac ceure ontasuna gatic beguiratcen eta defendatcen dituçuna, ençun eçaçu orai gure othoitça, eta beha diaçaguçu ceure pietatezco beguiez. Eta nola Israeleco semeac, Egipteco gathibutasunetic atheraric, itsasoaren erditic oiñic busti gabe iragan baitcinituen, eta prometatu cenerauen herrira, egunaz <334> hedoi²⁶⁵ batez eta gauaz su arguiz guidatcen cinituela, heldu baitcinituen; Abraham çure cerbitçari leyala, caldeanoen escuetaric libratuic, bere bide guztietan beguiratu baitcenduen; Tobias çure adisquidearen semeari bidean lagun Refael ainguerua eman baitcinituen; hirur erregue çure adoratcera ethorri cirenac bere herritic Betlehemera eta berriz handic bere herrira <335> içar eder berri batez guidatu baitcinituen; eta hauquen guztion alderacotçat ceure faborea eracutsi baitcenduen; hala eguiçu eta eracuts eçaçu unci hunen eta hunetan goacinen alderacotçat ere. Badaquiçu, Iainco handia, ecen gure bicia peril handian uraren gaiñean dabilala, eta salboric ilkitceco baldin çuc ceure bothereaç²⁶⁶ fabora ezpagaitçaçu, segurançaric ecin duquegula. Fabora gaitçaçu, <336> bada; ceure itçalaren azpian eçar gaitçaçu. Incontru gaitz guztiaz gure ganic aldara itçaçu. Iguçu dembora ona, emea eta placenta, eta egor diaçaguçu çure ainguerua guidatceco, laguntceco, gobernatceco eta desiratcen dugun portura helceco. Guero, hunelatan hassi dugun biage haur contentamenduarequin akabaturic eta gueure etchetara osasunarequin bihurturic, eman diatçogun çure maistateari <337> ontassun hautaz²⁶⁷ guztioz esquerrac eta laudorioac, eta bethiere çure cerbitçuan emplega gaitecin. Biz hala.

Guero, guztioz elkarrequin, erraçue *Salve Regina* latinez, hemen eçarten ditudan oracinoequin.

Salve, regina, mater misericordię. Vita, dulcedo et spes nostra, salve. Ad te clamamus, exules filii Evę. Ad te suspiramus, gementes et flentes in hac lachrymarum <338> valle. Eia, ergo, advocata nostra, illos tuos misericordes oculos ad nos converte. Et Iesum, benedictum fructum ventris tui, nobis post hoc exilium ostende. O clemens, o pia, o dulcis virgo Maria.

Vers. Ora pro nobis, sancta Dei genitrix.

Resp. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Vers. Salvos fac servos tuos.

Resp. Deus meus, sperantes in te. <339>

Vers. Domine, exaudi orationem meam.

Resp. Et clamor meus ad te veniat.

Oremus

Concede, misericors Deus, fragilitati nostrę presidium: ut qui sanctę Dei genitricis memoriam agimus, intercessionis eius auxilio a nostris iniquitatibus resurgamus.

Deus, qui transtulisti patres nostros per Mare Rubrum et transvexisti eos per aquam nimiam, laudem tui nominis <340> decantantes: te supplices exoramus, ut in hac navi

²⁶⁵ *hedoi*: 'hodei'. Lapurterazko eta baxenafarrerazko tradizioan forma ohikoena.

²⁶⁶ *bothereaç*] testuan *bothereac*.

²⁶⁷ *hautaz*: 1650 arte Materrarena da agerraldi bakarra. Beste egile guztiek *hautaz* dute.

nos famulos tuos repulsis adversitatibus portu semper optabili, cursuque tranquillo tuearis.

Adesto, Domine, supplicationibus nostris: et viam famulorum tuorum in salutis tue prosperitate dispone: ut inter omnes via ac vitæ huius varietates tuo semper protegatur auxilio. Per Christum, dominum nostrum. Amen. <341>

Guero, ailtchatcen çaretela, erraçue: «Iaincoa lagun daquigula, eta goberna gaitçala egun eta bethiere. *In nomine patris et filii et spiritus sancti. Amen*».

Arratsean erran behar dena

Goicean beçain ongui arratsean ere behar derautçaçue, çuec marineloc, ceuen bu-ruac Iaincoari gomendatu. Halacotz, belhaurico iarriric eta ceinaturic, erran itçaçue *Pater noster*, <342> *Ave Maria*, *Credo in Deum*. Eta guero çuetaric batec erran beça arratseco othoitz haur, goiçecoaz erran den moldean:

Othoitzça

Iainco eternala, çure botherearen indarraz eguna eta gaua guiçonaren probetchuco creatu eta ordenatu ditutçuna, eçar diatçaçu, othoi, gueure arimac eta gorputçac ceure hegalean itçalaren azpian, eta beguira gaitçaçu <343> gaurco periletaric. Çu, argui eternalaren iguzquia çarena, argui diaçaçu gauazco ilhumbe hunetan, visita eçaçu çure benedicionez unci hunetan den compaña haur, khi itçaçu gure ganic es-piritu gaixtoaren enganamenduac eta celatac. Çure aingueru sainduac gurequin egon bitez, eta çu principalqui, çau de gure aldean gau hunetan, eta beguira gaitçaçu halaco moldez non, salboric eta <344> sendoric edireiten garela bihar goicean, dizquitçugun esquerrac eta laudorioac gueure ahal guztiaz. Biz hala.

Hunen ondoan, erraitçue Andre dana Mariaren letharinac²⁶⁸ hemen diren beçala:

Kyrie, eleison.

Christe, eleison.

Kyrie, eleison.

Christe, audi nos.

Christe, exaudi nos.

Pater de cælis Deus, <345> miserere nobis. Fili redemptor mundi Deus, miserere nobis.

Spiritus sancte Deus, miserere nobis.

Sancta Trinitas unus Deus, miserere nobis.

Sancta Maria, ora pro nobis.

Sancta Dei genitrix, ora pro nobis.

Sancta Virgo virginum, ora pro nobis.

Mater Christi, ora.

Mater divinæ gratiæ, ora pro nobis.

Mater purissima, ora.

Mater castissima, ora. <346>

Mater inviolata, ora.

²⁶⁸ *letharina*: 'letaria, letania, liturgia-otoitz'.

Mater intemerata, ora.
Mater amabilis, ora.
Mater admirabilis, ora.
Mater creatoris, ora.
Mater salvatoris, ora.
Virgo prudentissima, ora pro nobis.
Virgo veneranda, ora.
Virgo prædicanda, ora.
Virgo potens, ora.
Virgo clemens, ora.
Virgo fidelis, ora.
Speculum iustitiæ, ora.
Sedes sapientiæ, ora.
Causa nostræ letitiæ, ora pro nobis.
Vas spirituale, ora. <347>
Vas honorabile, ora.
Vas insigne devotionis, ora pro nobis.
Rosa mystica, ora.
Turris davidica, ora.
Turris eburnea, ora.
Domus aurea, ora.
Fæderis arca, ora.
Ianua cæli, ora.
Stella matutina, ora.
Salus infirmorum, ora.
Refugium peccatorum, ora pro nobis.
Consolatrix afflictorum, ora pro nobis.
Auxilium christianorum, ora pro nobis.
Regina angelorum, ora. <348>
Regina patriarcharum, ora pro nobis.
Regina prophetarum, ora pro nobis.
Regina apostolorum, ora pro nobis.
Regina martyrum, ora.
Regina confessorum, ora pro nobis.
Regina virginum, ora.
Regina sanctorum omnium, ora pro nobis.
Peccatores, te rogamus: audi nos.
Ut à cunctis periculis maris nos preseruare digneris, te rogamus: audi nos. <349>
Ut nos exaudire digneris, te rogamus: audi nos.
Mater Dei, te rogamus.
Agnus Dei qui tollis peccata mundi, parce nobis, domine.
Agnus Dei qui tollis peccata mundi, exaudi nos, domine.
Agnus Dei qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Antiphona

Sub tuum praesidium confugimus, sancta Dei genitrix, nostras deprecationes ne despicias <350> in necessitatibus, sed a periculis cunctis libera nos semper, Virgo gloriosa et benedicta.

Vers. Ora pro nobis, sancta Dei genitrix.

Resp. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Vers. Salvos fac servos tuos.

Resp. Deus meus, sperantes in te.

Vers. Domine, exaudi orationem meam.

Resp. Et clamor meus ad te veniat. <351>

Oremus

Concede, misericors Deus, fragilitati nostrae praesidium: ut qui sanctae Dei genitricis memoriam agimus, intercessionis eius auxilio, a nostris iniquitatibus resurgamus.

Deus, qui transtulisti patres nostros per Mare Rubrum, et transvexisti eos per aquam nimiam, laudem tui nominis decantantes: te suplices exoramus: ut in hac navi nos famulos tuos, repulsis adversitatibus, <352> portu semper optabili²⁶⁹ cursuque tranquillo tuearis.

Adesto, domine, supplicationibus nostris: et viam famulorum tuorum in salutis tuae prosperitate dispone: ut inter omnes viae ac vitae huius varietates tuo semper protegamur auxilio. Per Christum, dominum nostrum. Amen.

Eta guero, norc bere aldetic²⁷⁰ erran beça Angele Dei eta In manus euscaraz, hune-laje:

Aingueru saindua, ene <353> beguiratceco carga Iaincoaren pietatez hartu duçuna, argui diaçadaçu, othoi, gau hunetan, goberna naçaçu, eta beguira gaitcetaric. Biz hala.

Çure escuetan eçarten eta gomendatcen dut, iauna, neure arima. Educaçu nitçaz contu, nola redemitu bainauçu, Iainco eguiati çarena. Biz hala.

Iaincoac digula gau on. *In nomine patris et filii et spiritus sancti. Amen. <354>*

Itsasoan tormenta ailtchatcen denean erran behar diren oracinoac

Ikus badeçaçe tormenta ailtchatcen dela itsasoan, iar çaitetzte belhaurico, eta erran itçaçe Andre dana Mariaren letharinac, orai berean eçarri ditugun moldean, eta hec akabatu ondoan erran itçaçe oracino hauc:

Vers. Post partum, Virgo inviolata permansisti.

Resp. Dei genitrix, intercede <355> pro nobis.

Vers. Ora pro nobis, beata clara.

Resp. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Vers. Salvos fac servos tuos.

Resp. Deus meus, sperantes in te. Oremus.

²⁶⁹ optabilij testuan op- / rabili.

²⁷⁰ aldetic] testuan alde- / detic.

Concede nos famulo tuos, quæsumus, domine Deus, perpetua mentis et corporis sanitate gaudere: et gloriosa beatæ Mariæ semper virginis intercessione, a præsentis liberari tristitia, et æterna perfrui <356> letitia.

Famulos tuos, quæsumus Domine, beatæ Virginis tuæ claræ votivam commemoratiõnem recensentes, cœlestium gaudiorum sua faciã interventione participes, et tui unigeniti cohæredes.

Ne despicias, omnipotens Deus, nos famulos tuos in afflictione clamantes, sed propter gloriam nominis tui, tribulatis succurre placatus. Per Christum, dominum nostrum. <357> Resp. Amen.

Eta guero batec appur bat haguiz erran beça othoitz haur:

Othoitzã

Iainco guztiz botheretsua, beharrean daudecinac ceure begui pietatezcoaz miratcen ditutçuna, ençun eçaçu, othoi, premia hunetan eguiten derautçugun othoitzã. Ceure begui misericordiazcoac itçul itçaçu gure gana, eta ceure botherearen faborea egor diaçaguçu herstura handi hunetan. Dacussaçun beçala, <358> iauna, tormentatuac gara, biciaren galtceco periletan gaude, eta esperança guti ahal duquegu tormenta hunetic salboric ilquitceco, baldin çuc ceure bessu botheretsuaren indarraz atheratcen ezpagaitutçu. Ea bada, Iainco ona, libra gaitçaçu, othoi, peril hunetic, hala nola libratu²⁷¹ baitcenduen Abraham Caldeanoen escuetaric, Isaac sacrificatcectic, Iacob bere anayaren hasseretasunetic, Ioseph bere anayen <359> imbiatic, Noe diluioaren uretic, Loth Sodomaco sutic, Israelitic Egyptoco gathibutasunetic, David Saulen eta Goliassen botheretic, Susanna falso testimonioc, Daniel lehoiñetic, hirur morroinac (Ananias, Azarias eta Misael) labeco sutic, Ionas balearen sabeletic, Iondone Petri erregue Herodesen garceletic eta Iondone Paulo itsas uhinetan hundatcectic. Çuc orduan ceure adisquide <360> hauquen alderacotçat eracutsi cenduen ceure botherearen indarra: eguiçu, bada, orai gure alderacotçat ere hain bertce. Çure apostoluec, egun batez tormentatuac cebilçanean, eguin çuten laster fabore esque çure gana, eta bere hala faboratu cinituen. Huna, iauna, nola garen gu ere orai, hec orduan beçala tormentatuac, eta hec beçala çure ganatcen gara, oihuz gagozquitçu, erraiten deratçugu: «Salba gaitçaçu, iauna, <361> ceren bertcela hondatcera goaci. Gueldi itçaçu haiceac, sossega itçaçu uhinac, argui itçaçu hedoyac, clara eçaçu dembora, eder eçaçu itsasoa, deseguin eçaçu espiritu gaixtoaren indarra, eracuts diaçaguçu ceruco arguia, khien diaçaguçu bihotceco tristura, eta aleguera gaitçaçu ceure consolamenduz. Orhoituco gara fabore hunetçaz bici garen egunetan, eta esquerrac emanen derauzquitçugu <362> gueure ahal guztiaz.»

Eta çuri ere minça naquiçun, Virginia saindua, gure salbatçaillearen ama, orai da ordua. Çu çara itsasoco içarra eta beharrean daudenen faboratçaille handia. Hel çaquizquigu, bada othoi, herstura handi hunetan, çaren ararteco on, ardiets diaçaguçu tormenta hunen sossegua eta peril hunetic libratceco gracia. Biz hala.

Hauquen ondoan, iduritcen <363> bacaitçue, erran ahal deçaqueçue *Salve Regina* edo cenbait bertce oracino placer duqueçunetic.

²⁷¹ libratu] testuan *libra- / bratu*.

Iesus icen sainduaren ohoretan letharinac

Kyrie, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.
Pater de caelis Deus, miserere nobis.
Fili redemptor mundi Deus, miserere nobis. <364>
Spiritus sancte Deus, miserere nobis.
Sancta Trinitas unus Deus, miserere nobis.
Iesu, fili Dei vivi, miserere nobis.
Iesu, potentissime, miserere nobis.
Iesu, fortissime, miserere nobis.
Iesu, perfectissime, miserere nobis.
Iesu, gloriosissime, miserere nobis.
Iesu, mirifice, miserere.
Iesu, iucundissime, miserere nobis.
Iesu, charissime, miserere <365> nobis.
Iesu, splendidior stellis, miserere nobis.
Iesu, pulchrior luna, miserere nobis.
Iesu, clarior sole, miserere nobis.
Iesu, admirabilis, miserere nobis.
Iesu, delectabilis, miserere nobis.
Iesu, honorabilis, miserere nobis.
Iesu, humillime, miserere nobis.
Iesu, mitissime, miserere.
Iesu, patientissime, miserere nobis. <366>
Iesu, obedientissime, miserere nobis.
Iesu, dulcissime²⁷², miserere nobis.
Iesu, amator castitatis, miserere nobis.
Iesu, amator noster, miserere nobis.
Iesu, amator pacis, miserere nobis.
Iesu, speculum vitae, miserere nobis.
Iesu, exemplar virtutum, miserere nobis.
Iesu, zelator animarum, miserere nobis.
Iesu, refugium nostrum, miserere nobis. <367>
Iesu, bonitas infinita, miserere nobis.
Iesu, gaudiorum angelorum, miserere nobis.
Iesu, rex patriarcharum, miserere nobis.
Iesu, inspirator prophetarum, miserere nobis.
Iesu, magister apostolorum, miserere nobis.
Iesu, doctor evangelistarum, miserere nobis.
Iesu, fortitudo martyrum, miserere nobis.

²⁷² dulcissime] testuan delcissime.

*Iesu*²⁷³, *lumen confessorum, miserere nobis.*
Iesu, sponse virginum, miserere nobis. <368>
Iesu, bonitas infinita, miserere nobis.
Iesu, gaudium angelorum, miserere nobis.
Iesu, rex patriarcharum, miserere nobis.
Iesu, inspirator prophetarum, miserere nobis.
Iesu, magister apostolorum, miserere nobis.
Iesu, doctor evangelistarum, miserere nobis.
Iesu, fortitudo martyrum, miserere nobis.
Iesu, lumen confessorum, miserere nobis.
Iesu, sponse virginum, miserere nobis. <369>
Iesu, corona sanctorum omnium, miserere.
Propitius esto, parce nobis, Iesu.
Propitius esto, exaudi nos, Iesu.
Propitius esto, libera nos, Iesu.
Ab omni malo, libera nos, Iesu.
Ab omni peccato, libera nos, Iesu.
Ab ira tua, libera nos, Iesu.
Ab insidiis diaboli, libera nos, Iesu.
A transgressione mandatorum tuorum, libera. <370>
Ab incursu omnium malorum, libera nos.
Per incarnationem tuam, libera nos, Iesu.
Per aduentum tuum, libera nos, Iesu.
Per nativitatem tuam, libera nos, Iesu.
Per circumcisionem tuam, libera nos, Iesu.
Per labores tuos, libera nos, Iesu.
Per flagella tua, libera nos, Iesu.
Per mortem tuam, libera nos, Iesu.
Per resurrectionem tuam, liberanos, Iesu. <371>
Per ascensionem tuam, libera nos, Iesu.
Per gaudia tua, libera nos, Iesu.
Per gloriam tuam, libera nos, Iesu.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos, Iesu.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Iesu.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.
Iesu, audi nos. <372>
Iesu, exaudi nos.
Vers. Sit nomen domini benedictum.
Resp. Ex hoc nunc et usque in sæculum.

Oremus

Deus, qui gloriosissimum nomen Iesu Christi filii tui domini nostri fecisti fidelibus tuis summo suavitatis affectu amabile, et malignis spiritibus tremendum atq[ue] terri-

²⁷³ Agerikoa denez, aurreko orrialdeko eduki berbera errepikatzen da orrialde honetan.

bile: concede propitius, ut omnes qui hoc nomen Iesu devote venerantur in terris, sanctæ <373> consolationis dulcedinem in præsentî percipiant, et in futuro gaudium exultationis et interminabilis beatitudinis obtineant in cælis. Per eundem Christum, dominum nostrum. Amen.

Andre dana Mariaren ohoretan letharinac

*Kyrie, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison. <374>
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.
Pater de cælis, Deus, miserere nobis.
Fili, redemptor mundi, Deus, miserere.
Spiritus sancte, Deus, miserere nobis.
Sancta Trinitas, unus Deus, miserere nobis.
Sancta Maria, ora pro nobis.
Sancta Dei genitrix, ora pro nobis.
Sancta Virgo virginum, ora pro nobis.
Mater Christi, ora pro nobis. <375>
Mater divinæ gratiæ, ora pro nobis.
Mater purissima, ora pro nobis.
Mater castissima, ora pro nobis.
Mater inviolata, ora pro nobis.
Mater intemerata, ora pro nobis.
Mater amabilis, ora pro nobis.
Mater admirabilis, ora pro nobis.
Mater creatoris, ora pro nobis. <376>
Mater salvatoris, ora.
Virgo prudentissima, ora pro nobis.
Virgo veneranda, ora.
Virgo prædicanda, ora.
Virgo potens, ora pro.
Virgo clemens, ora.
Virgo fidelis, ora pro.
Speculum iustitiæ, ora.
Sedes sapientiæ, ora.
Causa nostræ letitiæ, ora pro nobis.
Vas spirituale, ora pro.
Vas honorabile, ora.
Vas insigne devotionis, ora pro nobis.
Rosa mystica, ora pro.
Turris davidica, ora. <377>
Turris eburnea, ora.
Domus aurea, ora pro.*

Fœderis arca, ora pro.
Ianua cœli, ora pro.
Stella matutina, ora.
Salus infirmorum, ora.
Refugium peccatorum, ora pro nobis.
Consolatrix afflictorum, ora pro nobis.
Auxilium christianorum, ora pro nobis.
Regina angelorum, ora pro nobis.
Regina patriarcharum, ora pro nobis.
Regina prophetarum, ora pro nobis. <378>
Regina apostolorum, ora pro nobis.
Regina martyrum, ora pro nobis.
Regina confessorum, ora pro nobis.
Regina virginum, ora pro nobis.
Regina sanctorum omnium, ora pro nobis.
Peccatores, te rogamus: audi nos.
Ut veram pœnitentiam nobis impetrare digneris, te roga.
Ut congregationes tibi peculiari obsequio devotas conservare et <379> augere digneris, te.
Ut Ecclesiæ sanctæ cunctoque populo christiano pacem et unitatem impetrare digneris, te rogamus.
Ut famulo tuo pontifici nostro N. prælatisque nostris, et toti Ecclesiæ spiritum divinæ gratiæ impetrare digneris, te rogamus.
Ut regi nostro N. et omnibus principibus christianis pacem et incolunitatem impetrare digneris, te rogamus: audi nos. <380>
Ut hæreticorum et inimicorum nostrorum humiliationem impetrare digneris, te rogamus: audi nos.
Ut omnibus fidelibus defunctis requiem æternam impetrare digneris, te rogamus.
Ut nos exaudire digneris, te rogamus.
Mater Dei, te rogamus.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, domine.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos, domine. <381>
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.
Kyrie, eleison.
Christe, eleison.
Kyrie, eleison.

Anthiphona

Sub tuum præsidium confugimus, sancta Dei genitrix: nostras deprecationes ne despicias in necessitatibus, sed a periculis cunctis libera nos semper, Virgo gloriosa et benedicta.

Vers. Ora pro nobis, sancta <382> Dei genitrix.
Resp. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Oremus

Pietate tua, quæsumus, domine, nostrorum solve vincula peccatorum, et intercedente beata²⁷⁴ Maria, Beato Francisco, cum omnibus sanctis, nos famulos tuos, benefactores, atque loca nostra in omni sanctitate custodi; omnesque consanguinitate, affinitate, atque familiaritate nobis coniunctos a vitiis purga, <383> virtutibus illustra, pacem et salutem nobis tribue; hostes visibiles et invisibiles remove; carnalia desideria repelle: aërem salubrem et terræ fertilitatem indulge; amicis et inimicis nostris charitatem²⁷⁵ largire, atque civitatem istam cum omnibus habitantibus in ea ab omni peste; hæreticorumque feritate et potentia illasam conserva: et omnibus fidelibus vivis, atque defunctis in <384> terra viventium vitam et requiem æternam concede; pontificem nostrum N. omnesque praelatos, regem nostrum N. et cunctum populum christianum ab omni adversitate custodi, et benedictio tua sit super nos semper. Per Christum, dominum nostrum. Amen. <[385]>

Thaula**Liburu hunetan diren gaucen iaquiteco eta edireiteco bidea**

Lehen partea

Guiristinoac iaquin behar duen doctrina declaracino gabe

Pater noster euscaraz. pag. 1

Ave Maria. p. 2

Credo in Deum. p. 3

Salve Regina. p. 5

Iaincoaren manamenduac. p. 7

Eliçaren manamenduac. p. 9

Articulu fedezcoac, *Credotic* atheratcen direnac. p. 11

Eliçaco sagaramenduac. p. 17 <[386]>

Verthuteac. p. 18

Perfesioneco conseilluac. p. 19

Obra misericordiazcoac. p. 20

Espiritu Sainduaren dohaiñac.²⁷⁶ p. [23]

Çortci dohatsutasunac. [p. 24]

Becatuen diferenciac. pag. 25

Becatu mortal buruçaguiac. p. 26

Çazpi becatu mortalen erremedioac. p. 27

Espiritu Sainduaren contraco becatuac. p. 28

Iaincoaren aiticnean oihuz mendecu esque dauden becatuac. p. 30

Bertceren becatu uquitzen gaituztenac. p. 31

Arimaren etsayac. p. 33

Laur azquen finac. p. 34 <[387]>

²⁷⁴ beata] testuan *Beta*.

²⁷⁵ charitatem] testuan *charita- / tatem*.

²⁷⁶ dohaiñac] testuan *dohai- / ac*.

Bigarren partea

Doctrina christianaren declaracinoa galdeguinez eta ihardetsiz eguina

- Guiristinoaren icenaz. Lehenbico capitulua. p. 36
 Guiristinoaren seiñaleaz. Bigarren capitulua. p. 41
 Guiristinoaren eguinbidez. Hirugarren capitulua. p. 44
 Fedez. Laugarren capitulua. p. 5[0]
Credoan dauden articulu fedezcoen declaracinoa. Bortzgarren²⁷⁷ capitulua.
 p. 53²⁷⁸
 [*Pater nosteraren* declaracinoa. Seigarren capitulua p. 74]²⁷⁹
Ave Mariaren eta *Salve Reginare*n declaracinoa. Çazpigarren capitulua. p. 9[1]
 Iaincoaren manamenduen declaracinoa.²⁸⁰ Çortci garren capitulua. <[388]>
 p. 100
 Eliçaco sagaramenduen declaracinoa. Bederatci garren capitulua. p. 135
 Çazpi verthute principalen declaracinoa. Hamar garren capitulua. p. 139
 Perfeccioneco conseilluen declaracinoa. Hameca garren capitulua. p. 146
 Espiritu²⁸¹ Sainduaren dohaiñen declaracinoa. Hamabi garren capitulua. p. 152
 Çortci dohatsutasunen declaracinoa. Hama hirur garren capitulua. p. 155
 Bekatuen diferenciaren declaracinoa.²⁸² Hamalaur garren capitulua. p. 161
 Çazpi bekatu mortal buruçaguien²⁸³ declaracinoa. Hamabortz <[389]> garren ca-
 pitulua. p. 198
 Espiritu Sainduaren contraco bekatuen declaracinoa. Hama sei garren capitulua.
 p. 172

Hirugarren partea

Debocinozco othoitç eta oracino batçuc bere demboretan eguin
 eta erran behar direnac

- Nola behar dioen guiristinoac bere burua Iaincoari goicean gomendatu. p. 181
 Meça sainduaren debotqui ençuteco cer eguin behar duen guiristinoac. p. 188
 Meça saindu[a]ren debotqui ençuteco moldea. p. 192
 Cofessatu baiño lehen erraiteco othoitça. p. 223 <[390]>
 Cofessatu ondoan eguiteco othoitça. p. 238
 Gorputz saindua errecibitu baiño lehen erraiteco othoitça. p. 246
 Gorputz saindua errecibitu ondoan erraiteco²⁸⁴ othoitça. p. 258
 Aita cerucoari eguiteco othoitça. p. 269
 Iaincoaren semeari eguiteco othoitça. p. 274
 Espiritu Sainduari eguiteco othoitça. p. 281
 Andre dana Maria Iaincoaren ama virginari eguiteco othoitça. p. 286

²⁷⁷ Bortzgarren] testuan *Seigarren*.

²⁷⁸ 53] testuan 74.

²⁷⁹ Lerro hau falta da testuan.

²⁸⁰ declaracinoa] testuan *ad / claracinoa*.

²⁸¹ Espiritu] testuan *Epiritu*.

²⁸² declaracinoa] testuan *decla- / acinoa*.

²⁸³ buruçaguien] testuan *buruçaga- / uien*.

²⁸⁴ erraiteco] testuan *erraitceco*.

- Aingueru beguiraleari eguiteco othoitça. p. 292
Parabisuco saindu guztiei eguiteco othoitça. p. 299 <[391]>
Nola behar duen guiristinoac bere conciencia arratsean examinatu. p. 307
Concienciaren examinatceco moldea. p. 309
Nola behar²⁸⁵ dioen guiristinoac bere burua Iaincoari arratsean gomendatu.
p. 318
Becatuetic apartatceco maiz consideratu behar diren pontuac. p. 324
Marinelec nola egun oroz eguin behar dituzten bere othoitçac itsasoan dabilçan
demboran, hala goicean nola arratsean. p. 325
Itsasoan tormenta ailtchatcen denean erran behar diren oracinoac. p. [354]
Jesus icen sainduaren ohoretan letharinac. [p. 363] <[392]>
Andre dana Mariaren ohoretan letharinac. p. 373

Fina.

²⁸⁵ behar] testuan *behar*.

Atal honek ez du izan nahi Materraren hizkeraren xehetasun ororen goitik behe-rako deskribapena, ezta frantziar sarartuaren euskarari buruzko behin betiko lana ere. Hemen aurkezten dugun gramatika gehiago da egindako edizioaren aurkezpe-naren zati, beste ezer baino gehiago. Azken batean, langai izan ditugun testuetako hainbat alderdi linguistiko bildu ditugu hemen, irakurlearen argigarri izan daitez-keelakoan. Hori dela eta, halako lanekin gertatu ohi den bezala, gramatika honek ez ditu aseko interesdun guztien jakin-minak oro: badira sakontzea merezi eta eska-zen duten ildoak, baina etorkizunerako eta aparteko monografietarako utzi ditugu. Gramatika-deskribapenak egitean baliatu ohi den eskemari jarraikiz, Materraren 1617ko eta 1623ko edizioetan agertzen diren ezaugarri, joera eta aldaera nagusien berri ematen dugu hurrengo orrialdeetan.

Ez da kasualitatea, jakina, 1617ko (A) eta 1623ko (B) argitalpenak izatea aztergai: azaldu dugunez, Materraren inguruan lanean hasi ginenean ez genuen lehenengo edi-zioaren alerik ezagutzen; are gehiago, aurkitu orduko amaituxe genituen 1623koaren inguruko eginbehar aurreikusi nagusiak. Lehenengo edizioaren ale bat aurkitzeak era-gindako zalapartak zalaparta, azterketa honetan hura bezain baliagarri (eta, askotan, argigarriago) izan zaigu bigarrena; izan ere, azaldu dugunarekin bat, lehenengo edi-zioan ez dago bigarren edizioari erantsi zitzaion hirugarren zatiaren arrastorik. Bietan luzeena izanik, 1623ko edizioa izan dugu langai nagusi gramatika osatzeko, eta adi-bide gehienak horren transkribapenetik atera ditugu. Nolanahi ere den, 1617ko edi-zioa ere aztertu dugu, eta lagungarritzat jo izan ditugunean, Materraren lehenengo laneko adibideak ere baliatu ditugu; zehazki, orrialde-zenbaki bakoitzaren aurretik ezarri dugu zein ediziori dagokion emandako adibidea, A1 *ikusi*, B1 *icusi* ereduari ja-rraituta. Tauletako adibideak, besterik adierazi ezean, B ediziokoak izango dira. Oro-bat, aintzat hartzekoa da hau Materraren beraren testuaren gramatika dela, eta haren hizkera dugula ardatz nagusi; halere, liburuaren hasierako baimenak eta/edo onespak beste egile batzuek idatzi zituzten (Axular, Guilantena, Miguelena, Oiharard), eta horiek ere aintzat hartu ditugu interesgarri iritzi diogunean. Beste alde batetik, Mate-rraren euskararen irudi zehatzagoa lortzeko, beste idazle garaikide batzuen lanak izan ditugu erkagai, gramatikako atal guztietan ikusiko denez.

Gramatikaren ataletan inoiz maiztasun-kontuekin sartu garelarik, gorabeherak atzematen dira A eta B edizioen artean: batetik bestera testuan bertan eginiko aldake-tez gain, ezaugarri batzuen maiztasuna murriztea/areagotzea ere nabarmena da. Hala-koek ez gaituzte nahastu behar, ordea, eta aintzat hartu behar dugu B edizioa A edi-zioa halako bi baino luzeagoa dela; hots, B edizioaren hirugarren atala A edizio osoa

baino luzeagoa dela; hitzetan zenbatuta, lehenengo edizioak 7.000 inguru ditu, eta bigarrenak 16.800 bat. Hori dela eta, komeni da bi testuen arteko proportzionaltasuna gogoan izatea, etengabe, A-tik B-ra aldatutako en irudia orekarik gabea edo okerra gerta ez dadin.

6.1. Grafia, hotsak eta fonologia

Atal honek²⁸⁶ elkarrekin lotutako zenbait esparru biltzen ditu: alde batetik, Materraren sistema grafikoa izango dugu hizpide; beste alde batetik, horretarako modua aurkitzen dugunean, zalantza-kasuetan grafiak zein ahoskera islatzen duen argitzen saiatuko gara. Horien osagarri, zenbait bilakabide fonologiko aipatuko ditugu: egia da, izan, arau fonologikoei aparteko lekua eman izan zaiela hizkuntza-deskribapenetan, baina Materraren testuak ez dakar halako bilakabide berezi eta aipagarri askorik; besteak beste, ematen du Lapurdiko nahiz Ipar Euskal Herriko euskaretan gerora ezagutu ditugun bilakabide batzuk 1620 inguruan sortu edo hedatu gabe zeudela, beste eremu batzuetan sortutakoak ez zirela Materrak oinarri hartutako Sarako euskarara iritsi, edo/eta herritar arruntek erabili arren, hala Materrak nola haren ondoko lapurtar klasiko gehienek beren testuetan ez erabiltzea erabaki zutela.

Aipa zitezkeen hona ekarri ez ditugun hainbat gai, jakina, baina ekarpena ez litzateke xehetasunen bilduma zatikatua besterik izango, hainbat bilakabide hitz gutxi batzuetan (edo bakarren batean) besterik ez direlako gauzatu eta ondotik ihartu.

6.1.1. Bokalak

6.1.1.1. <u>/<v>

Testuan balio bokalikoa zein kontsonantikoa izan dezakete <v> eta <u> grafemek, nahiz eta baten eta bestearen arteko banaketa osagarria izan.

Balio bokalikoari dagokionez, hitz hasieran <v> ageri da sistematikoki, 1670-80ra arteko frantses ortografiarekin bat etorriz (Mujika 2002: 160): B[xi] *vste*, B[xvii] *vrthean*, B2 *vtz*, B6 *vrriacalmendut sua*, B26 *Vrguillutafuna*, B103 *vrrez*. Hitz barnean <u> da erabat nagusi, baina ez bakar, atalen izenburuetako letra larrietan ohikoa baita <V>: Bi *HVNEC*, B[viii] *EVSCALDUNE[I]*, B[xxiv] *IRACVRCAILLEARI*, B11 *ARTICVLV*, B17 *SAGARAMENDVAC*, B23 *ESPIRITV SAINDVA*.²⁸⁷ Balio kontsonantikoa dela eta, <v> dago hitz hasieran (B[xvi] *vicario*, B7 *vanoqui*, B10 *vigilietan...*) eta <u> bokal artean: B5 *Euaren*, B24 *Euangelioco*, B26 *Auaricia*, B98 *Aue*,²⁸⁸ B127 *adoptiuo*, B 215 *çauualdu*, B245 *perseueratceco*.

Banaketa hori aintzat hartuta, kasu batzuetan zalantza sor dakiguke: esate baterako, duda egin dezakegu B37 *arauera* hitzeko <u>-k ahoskera erdi-bokalikoa ala

²⁸⁶ Atal honetan jasotako adibideak jatorrizko grafian eman dira eta ez edizio-irizpideen arabera moldatuta.

²⁸⁷ «Maiuskuletan, berriz, *V* egiten zuten normalean kokagune guztietan. Eta letra horrek, batera zein bestera idatzia, *u* bokala zein *v* kontsonantea adieraz zezakeen» (Mujika 2002: 160).

²⁸⁸ Birritan agertzen da <V>-z, baina izenburuetan eta letra larriz.

kontsonantikoa behar duen, baina ematen du A138 *araiiaz* aldaera grafikoak ahoskera erdi-bokalikoaren alde egiten duela, dieresia baitzen ahoskera bokalikoa markatzeko bideetako bat (cf. § 6.1.4); cf. Leizarragaren, Etxeberri Ziburukoaren, Axularen eta Oihenarten adibide andana Mujika (2002: 161) lanean.

6.1.1.2. <i>/<y>

A eta B edizioen artean bada alderik <i> eta <y> grafemen erabileran: 1617ko argitalpenean <i> erabili zen hala bokala nola diptongoko bokalerdia adierazteko; bestalde, hiatuetan <i> agertzen da zenbaitetan, itxuraz ahoskera bokalikoa dela zehazteko.²⁸⁹

A edizioan, latinez eta frantsesez ageri diren pasarteak bazter utzita, euskarazko testuan birritan besterik ez da agertzen <y>, bietan grafia mailegatuaren eraginez: A3 *Fray* eta A4 *Hyppodamus*. B edizioan, aitzitik, <y> arrunta da hiatuetan balio bokalikoz:²⁹⁰ B[xiv] *arbuyatceco*, B17 *Bathayoa*, B26 *fabeldarrayotafuna*, B107 *çayela*, B160 *enfeyatcen*, B296 *leyala*. Gutxi dira horren salbuespenak, hala nola *maiestate* hitza, sistematikoki ageri dena <i>-z.²⁹¹ Grafia mailegatua dela eta, hitz bitan besterik ez dago <y>: B303 *martyr* eta B359 *Egyptoco*.

Diptongoko bokalerdiari dagokionez, B edizioan ez da ezohiko <Vy> grafiaz adieraztea: B52 *oray*, B30 *lāguiley*, B63 *oney*, B231 *othoy*, B233 *baytuzu*, B242 *hogoy*. Nolanahi ere den, <Vi> da grafia arrunta: B1 *sainduqui*, B4 *baitcen*, B63 *erraiten*, B183 *orai*, B275 *aita*, B361 *haiceac*.

1617ko eta 1623ko edizioak alderatuta, aipatzekoa da A-ko <i> eta <i> alografoak <y>-z ageri direla zenbaitetan B-n, izan diptongoko bokalardi, izan hiatoko bokal: A38 *orai* → B48 *oray*, A49 *bai* → B55 *bay*, A128 *bathaïoa* → B127 *bathayoa*. Horrek ere <y>-ren ahoskera bokalikokoaren alde egiten du, nahiz eta ezin dugun erabat ukatu ahoskera kontsonantikoa zenik.

6.1.1.3. Bokal bikoitzez

Materraren lanetan gutxi dira bokal bikoitzak, gehienak *-e* amaiera duten hitzei deklinabide-atzizki pluralen bat gehitzean (genitiboa gehienetan) sortutakoak: B2 *emazteen*, B117 *bertceez*, A124 *Igandeetan* (§ 6.2.6.1). Gainerakoek bi azalbide dituzte: edo mailegatutako izenetan daude (B358 *Ifaac*), edo hitz-banaketaren edo/eta erraten ondorio dira (B33 *gureere* 'gure ere', B64 *Nolaaditcen* 'nola aditzen').

²⁸⁹ Orainsu arte, <i> xvii. mendearen bigarren zatiko egileen grafematizat jotzen zen; zehazki, uste zen Pouvreau izan zela halakoak erabiltzen lehenengoa (cf. Mujika 2002: 159). Materrak, bada, 1617ra aurreratu du halakoen erabilera (cf. § 6.1.4).

²⁹⁰ «Euskal ortografian ere *y* letra ez zen kontsonante gisa erabili xvi.-xviii. mendeetan, kasu bakan batzuetan izan ezik (Dassança xvii.ean eta Larregi xviii.ean, esate baterako)» (Mujika 2002: 34).

²⁹¹ «Beste bi bokalen [*i* eta *u*] aurrean, berriz, hau da idazkera: maileguetan, *e*-ren aurrean bata edo bestea idazten dira, jatorrizkoaren arabera normalean (*maiestate* / *majestate* baina *general*) eta *i*-ren aurrean beti *g*-, jatorrizkoan bezala (*imagina*)» (Mujika 2002: 167).

6.1.1.4. /o/ bokalaz: *sudurkari aurrean* o > u *bihurtzea*

Garaiaren eta eremuaren arabera aldatzen da /n/ aurreko o > u bilakabidearen indarra,²⁹² eta Materraren euskaran nahiko mugaturik dago. Funtsean, lehenengo graduko erakusleari loturik agertzen da: B39 *hunec*, B74 *HVneraiñoçoã*, B135 *hunela*, B147 *huneçaz*, B182 *huna...* Testuinguru horretatik kanpo, B359 *hundatçetic* bezalako ale bakanen bat aurki daiteke, baina gehienetan ez da aldaketarik ageri: B[xiii] *ongui*, B12 *guiçon*, B21 *onaren*, B171 *non*, B230 *hondarrera*, B361 *hondatçera*.

Ipar Euskal Herriko beste testu batzuetan ez bezala, Materrarenean ez dugu aurkitu o > u aldaketarik albokariaren aurrean.

6.1.1.5. -i- epentetikoaren adizkietan

Ipar Euskal Herriko testu zaharrenetarik, egilez egileko eta garairik garaiko gorabeherak gorabehera, arrunta da aditzari atzizki bat gehitzen zaionean eta *ee* hiatoa sortzen denean -i- epentetikoaren agertzea. Materraren testuetan, Caminok (2008: 131) esan bezala, sistematikoa da -*keie* aldaera: B[viii] *çataqueyela*, B[ix] *nuqueyela*, B20 *dituzqueyenc*, B217 *datequeyenc*, B235 *ditçaqueyenic*, B306 *garatequeyenc*.²⁹³

6.1.2. Kontsonanteak

6.1.2.1. /<v>

Ezpainetako igurzari ahostuna adierazteko, bi grafema baliatu zituen Materrak: eta <v>. Bietan lehenengoa da erabat nagusi, eta ager zitekeen testuinguru guztietan agertzen da: xxiv *baten*, [1] *beguira*, B[i] *debocinozco*, B[viii] *esquiribatceco*, B[ix] *eguinbidea*, B123 *cerbitçatuco*, B298 *albaitnençacu...*

<v>-ri dagokionez, ahoskera bokalikoa behar duten kasuak bazter utzita, gehienbat hitz hasieran agertzen da, oro har mailegutan: B104 *verthuteric*, B111 *vesperac*, B145 *vençutceco*, B158 *venialac*, B258 *visitatu*, B285 *velac*. Salbuespen gutxitan agertzen da <v> beste testuinguru batzuetan, hala nola bokal artean eta albokariaren ondoren (izenburuetako *AVE* eta *SALVE* hitzetan, letra larriekin), eta mailegutararen erantzua zen : B[xv] *borondate*, B22 *bestitu*, B 82 *bianda*, B105 *debocino* (*apud* Mujika 2002: 174).

6.1.2.2. *Hasperena eta herskari hasperendunak*

a) Hasperena

Bidasoaz iparraldeko testuetan ohi denez, hasperena markatu zuen Materrak <h> grafemaz: B[i] *hunec*, B[viii] *hartcea*; B[ix] *ahanci*, B7 *Lehenbicoica*; B42 *bulharre-*

²⁹² Zuberoan zekusan Mitxelenak indartsuen: «Las condiciones del cierre de *o en u, fenómeno no exclusivamente suletino aunque tenga su máxima intensidad en este dialecto, no pueden precisarse tanto como las de *u > ü» (Mitxelena [1961] 2011: 54). Ipar Euskal Herriko egileen erabilereaz, begiratu Camino (2008: § 4.1.5).

²⁹³ Oiharardek, bestalde, *datela* dakar. Ezberdintasun dialektala izan daiteke.

tan, B8 *burhafoac*; B[xii] *finhetfi*. Anitz hitzak hainbat aldaera ditu: *añhitz* & *anhitz* & *ainhitz* & *ainhitz*. Bestalde, ematen du B114 *desonhesqui* aldaera hasperenduna, ahoskerari jarraituta baino gehiago, *onhetsi*-ren analogia grafikoz eratua dela.²⁹⁴

Ohikoa denez, hasperen bakarra agertzen da hitz bakoitzeko, baina badago salbuespenik: cf. B[xxiv] *iKasbehar*. Mujikak (2002: 171) dioenez, bi hasperen dituzten hitzak elkartzean bietako bat «gal» daiteke (oro har, aurrekoa), atzerako disimilazioz: cf. Etxeberri Ziburukoaren *illabethe* eta Belapeireren *ilherri* (baina *hamairour*); nolahi ere den, biak bere horretan mantentzeko aukera ere badago, are ezohiko inguru-nean: cf. Leizarragaren *hillebetheac* eta Urteren *hatsshártcea*.

b) Herskari hasperendunak

Urgellek (2015b: 656) 1617ko edizioa aurkitu aurretik zioenez, Materraren testuan herskari hasperendunak adierazteko sistema, funtsean, Leizarragak baliaturiko berbera da. Ezbairik gabe, baieztapen hori Materraren B edizioari dagokio, baina ez A-ri. Izan ere, lehenengo edizioko sistema bestelakoa da: <ph>, <th>, <kh> eta, inoiz, <k> ditu; horrenbestez, 1617ko edizioan ez zioten Leizarragaren sistemari jarraitu, ezta Etxeparerenari ere.²⁹⁵

Herskari horzkari hasperendun ahoskabea adierazteko, <th> da arrunta hala A nola B edizioetan; hots, kasu horretan bat-etortzea dago 1617ko lanaren eta 1623koaren artean: B1 *ethor*, B100 *othoitz*, B101 *verthute*, B104 *othe*, B259 *athera*, B361 *botherearen*.²⁹⁶

Ezpainkari hasperendun ahoskabeari dagokionez, lehenengo edizioan <ph> da bakar: A11 *aphur*, A132 *Aphex*. Bigarreanean, aldiz, <ph>-rekin batera <pph> eta <pp> ere badaude, baina azken bi horien adibideak bakanak dira, eta *apur* hitzean sistematikoki agertzen da <pp>: B166 *apphurra*; B[ix] *appur*, B189 *appurra- ren*. B[xvi] *Approbacinoa* ere behin ageri da, baina latinetik grafia mailegatua da (cf. B178 *Approbatio*).

Belar hasperendun ahoskabeaz denaz bezainbatean, <kh>, <k> eta <k> agertzen dira. Hiruretan lehenengoa da ohikoena: B26 *emakhoitasuna*, B33 *khen*, B108 *ukhat-uric*, B110 *lekhuco*, B190 *khoroaz*, B223 *ikhara*, baina beste bien adibideak ere ez dira falta: B3 *bakoitz*, B4 *ikan*, B14 *leku*; B[ix] *iKalfia*, B[xv] *beKaiztuco*, B[xxv] *el- Kar*. Kasuren batean <kh> ere agertzen da: B185, *khen*, B230 *nekhaturic*.

A eta B edizioak alderatuta, <kh> ugariagoa da lehenengoan, bigarreanean baino (56 vs 18); <k> ere, testuen luzera kontuan hartuta, ugariagoa da 1617koan (59 vs 65); <k>-ren erabilera dela eta, ematen du horren aldeko joera dagoela B edizioan (61 vs 149), eta <kh>-ren agerrera nabarmen murrizten dira A ediziotik B ediziora; zehazki, 51 izatetik 3 izatera. Gogoan har, bide batez, versalitaren erabilera inprentako tipo faltari dagokiola eta, beraz, ez dagoela <k>-ren eta <k>-ren arteko alderik.

²⁹⁴ Mujikak (2002: 171) azaldu zuenez, zalantzaren adierazgarri izan daitezke hauek: *desonesqui* (Etxepare), *desonestqui* (Leizarraga), *desonhesqui* (Materra), *desonhestqui* (Etxeberri Ziburukoa) eta *desho- nesqui* (Axular). *Joanen* forma hasperendunaz, begiratu § 6.4.2.1.

²⁹⁵ Begiratu Mujika (2002: 182) Ipar Euskal Herriko idazleen testuetan ezpainkari hasperendunak adierazteko moduen berri izateko.

²⁹⁶ Gogoratzeko da <tt> grafia kontsonante palatalizatuari dagokiola B edizioan (cf. § 6.1.2.3).

Datuok aintzat hartzean, ez da ahaztekoa 1623ko edizioaren hirugarren atala 1617ko edizio osoa bezain luzea dela; hots, espero izatekoa dela hala grafema nola bestelako ezaugarri batzuk maizagokoak izatea B edizioan, neurri-kontu hutsak tar-teko, nahiz eta ez den beti horrela.

Herskari hasperendunen arloan ere badaude grafia-aldaketak 1617ko ediziotik 1623kora: A11 *aphur* → B[ix] *appur*, A45 *bekhatuen* → B5 *bekatuén*, A11 *ikhafteco* → B[ix] *ikasteco*. Hainbat eta hainbat kasutan, aldaketa horiek desagerrarazi egiten dute herskari hasperendunen eta hasperengabekoen arteko bereizketa grafikoa: A19 *ilkhitceco* → B[xix] *ilquitceco*, A122 *kalteric* → B123 *calteric*.

6.1.2.3. Palatalizazioa

Pikabeak (1993: 29) azaltzen duenez, xvii. eta xviii. mendeetako lapurtar testuetan kontsonante palatalizatuak grafikoki adierazten ziren, eta Materraren bi edizioek bat egiten dute gerora ere lekukotutako joera horrekin.

Sudurkari palataleki dagokionez, <n̄> ia guztiz sistematikoa da /Vj/-ren ondotik, bokalerdia bera galdu gabe:²⁹⁷ B[xii] *Gañeracoan*, B29 *baiña*, B7 *gaiñetic*, B11 *Trofaniaraiño*, B16 *compaiña*, B4 *escuiñeco*. Kontsonante palatalizatuaren kokaguneari dagokionez, hitz amaieran behin baino ez da agertzen (B204 *oiñ*), eta A edizioan ez dago halakorik. Horri loturik, *zein* galdetzaileak <n> du beti amaieran, hitzak bestelako markarik ez duenean, baina deklinabide-markak eranstea <n̄>-dunak dira nagusi (5 *cein-* vs 17 *ceiñ-*). A edizioan *ceiñ-* dago adibide guztietan (9 dira orotara).

Sudurkari palatalaren adierazpenean aldeak daude A eta B edizioen artean; batzuetan, edizio batean palatalizaturik dagoena palatalizaziorik gabe ageri da beste edizioan, eta alderantziz; cf.: A30 *seinaleaz* → B41 *seiñaleaz*; A50 *egundaiñoz* → B55 *egundainoz*.

Albokarrietan <ll> digrafoak adierazten du palatalizazioa, eta ia kasu guztiak /Vj/ bokalerdiaren ondotik daude, kasu honetan ere bokalerdia galdu gabe: B2 *Salbatçaillea*, B19 *conseilluac*, B26 *Vrguillutafuna*, B95 *abâtaillatuquiago*, B106 *thailu*, B147 *cõseillu*.²⁹⁸ Salbuespen dira *-tzaile* eta *-le* atzizkien aldaera palatalizatu gabeak (halere: 9 *-ile* eta 71 *-ille* daude, eta A edizioan denak —20— dira palatalizatuak).

/i/ bokalaren ondotik, oro har, albokaria ez da palatalizatzen: B[xxv] *cebilan*, B3 *eguilea*, B4 *hilen*, B10 *Ortcilare*, B32 *igilic*. Salbuespen da *milla* aldaera, sistematikoki palatalizatua.

Horzkari palatala dela eta, aipatzekoa da 1617ko ediziotik 1623kora dagoen aldaketa. Izan ere, A13 *liburucho* → B[xvi] *liburutto* bihurtzen da, eta A17 *chi-pia* → B[xvi] *ttipia*. Aldaketa grafiko interesgarria dugu, inprenta-erabilereki baino

²⁹⁷ Kasu bakanen batean izan ezik; cf. *añhitz* aldaera, arestian aipatutako beste batzuekin batera ageri dena, edo B11 *arteño*, nahiz eta B135 *arteraiño* ere badagoen. Bestalde, Materraren testuetan ez dago <ign> kontsonante-multzorik: «Idazle nafar-lapurtarrek (i)ñ grafia hobetsi zuten oro har, Materregandik hasita, nahiz eta Pouvreakuk inoiz edo (i)gn ere erabiltzen duen» (Mujika 2002: 190).

²⁹⁸ Salbuespen txikiren bat badago, halere; cf. B288, B291 *miracullua* vs B215 *miraculluzcoa*.

gehiago, egileen hautu grafikoei lotua ziur asko, bi hamarkadaren buruan Axularrek horri buruz idatzitakoa aintzat hartuta.²⁹⁹

Finean, eskiribatze hunen gainean diot ezen, nola latinak bi *i* eta bi *u* egiten baititu bat eta hartzen batentzat: *Adjicio*, *Conjicio*, *Vultus*, *Vulnus*. Eta espainolak ere bi *l* egiten baititu bat, *llamo*, *lloro*, hala euskarak ere bi *t* egiten dituela bat: *ttipia*, *ttipittoa*, *gizonttoa*, *haurttoa*. Zeren eskiribatzeraz *chipia*, *chipichoa*, *gizonchoa*, *haurchoa* ezta ongi heldu, euskaraz ongi minzaten direnen artean. (Axular 1643: 18, *apud* Urgell 2015a)

Hurrengo azpiatalean azalduko dugunez, /i/ eta /Vj/ ondoren badago txistukari igurzkari apikariaren palatalizaziorik, nahiz eta, itxuraz, hitz gutxi batzuetan besterik ez agertu (igurzkari palatala adierazteko grafemez, begiratu § 6.1.2.4); zehazki, bustidura adierazgarria gertatzeko arlo semantiko egokienetako formetan dago lexikalizatauta palatalizazioa Materraren lanean: *gaixto*, *gaixo*, *ixilik*, *xuxen*...

6.1.2.4. Txistukariak

Euskararen txistukarien sailak alboko hizkuntzetan ez egotea arazo-iturri ohi da euskal testuen ikertzaileentzat, hain zuzen ere alboko hizkuntza horietako sistema grafikoa moldatuz jokatu izan zutelako egile-inprimatzaileek. Txistukariak grafikoki bereizteari dagokionez, bi alderdi aztertu behar dira: alde batetik, apikariak eta lepokariak bereizten ote diren, eta, beste alde batetik, igurzkariak eta afrikatuak bereizten ote diren. Azken horri dagokionez, Ipar Euskal Herriko tradizioan lehenengo testuetako nahasteen ondotik, Leizarragaren sistema (igurzkariak eta afrikatuak bereizteko, azken horiei *t* ezartzea aurretik) finkatu eta hedatu zen, Materraren edizioetan bertan ikusten denez.

a) Igurzkariak

Apikarietan <f>, <s>, <ff>, <ss>, <sf> eta <fs>³⁰⁰ baliatu zituen Materrak, baina grafemen banaketa osagarria da. <f> eta <s> erabiltzen dira testuinguru gehienetan: lehenengoa arrunta da hitz hasieran, bokal artean, ozen ondoren eta herskari aurrean, baina ez hitz amaieran; bestalde, <s> sarri agertzen da hitz hasieran eta amaieran, baina gutxiagotan hitz barneko testuinguruetan; zehazki, mailegutan bokal artean, ozen ondoren eta herskari aurretik dago: B36 *Gviristinoaren*, B74 *Pater nosteraren*, B363 *Iesvs*.

<ff>, <ss>, <sf> eta <fs> digrafoen erabilera are mugatuagoa da: lehenengo biak bokal artean baino ez daude, eta <ff> ugari agertzen bada ere (130 aldiz zenbatu dugu B edizioan), <ss> bi hitzetan baino ez dago 1623ko alean: B67 *Saindutassuna*, B238 *COFESSATV*. <sf>, bestalde, behin aurkitu dugu (B206 *esfcuetaco*), eta <fs>-ren (B189 *Pafsione*, B95 *ontafsi*) bederatzia adibide daude (batzuk etimologikotzat jo daitezke).

²⁹⁹ Mujika (2002: 181)-rekin bat, Materra izan zen fonema hori idatziz adierazten lehena, hala hitz hasieran nola *-tto* morfemaren hasieran. Baieztapena 1623ko edizioari baino ez dagokio, jakina, 1617koan <ch> baliatu baitzuen.

³⁰⁰ Materraren hizkera lapurtarra izanik, ez dirudi <s> bakunaren eta <ss> bikoitzaren artean ahos-tunaren eta ahoskabearen arteko bereizketarik proposatu behar denik.

Lepokarietan ere osagarria da <z>, <ç> eta <c> grafemen arteko banaketa. <z>-ren erabilera oso murriztua da bokal aurrean: *ezagutu* hitzean eta atzerriko izenetan (B93 *Elizabeth*, B359 *Azarias*). Bakar da, ordea, herskari aurrean eta hitz amaieran. Bestalde, <ç> dago hitz hasieran, *a*, *o* eta *u* bokalen aurrean, eta ozen ondoren; <c> /e/ eta /i/ bokalen aurretik ageri da, oro har. Azken horiek direla eta, edizio-lanean dagokien banaketa ezarri dugun arren, aipatzekoa da letra larrietan Materraren jatorrizkoek ez dutela <Ç>-rik, ezpada <C>. Itxuraz, grafema berria izanik, badirudi moldiztegieta falta zela: cf. «Mattererenean eta besteetan ikus daitekeen moduan, moldiztegieta askotan falta izaten zuten letra larrietan Ç tipoa eta horrelakoetan ez gutxitan C ipintzen zuten besterik gabe» (Mujika 2002: 197).

b) Afrikatuak

Afrikatuen sailean, <ts> eta <tʃ> digrafoak baliatu zituen Materrak apikaria adierazteko. Bietan bigarrena da nagusi (45 <ts> vs 142 <tʃ> B testuan), baina baten eta bestearen erabilera osagarria da: <ts> bokal artean eta hitz amaieran erabiltzen da, oro har, eta <tʃ> bokal artean eta ozen ondoren, baina ez hitz amaieran. Kontsonante aurreko erabilerari dagokionez, aldea dago A ediziotik B ediziora: 1623ko testuan bakanak dira grafia etimologikoaren ondorioz sortutako <tsC> bezalakoak (cf. B6 *hats-beherapenez*, B169 *aberatstafunen*, B264 *aberatstafuna*), baina 1617koan hainbat dira <tsC> multzoaren adibideak (<tst> multzoa da ugariena): A37 *eracutsten*, A39 *ardietste*, A41 *sinhetsten*, B84 *eracutste*, B108 *sinhetste*, B260 *miretsgarrizco*.

Afrikatu lepokariez denaz bezainbatean, hau zioen Urgellek B edizioa mintzagai zuela:

Materrek —edota inprentak— Leizarragaren arabera jokatu zuen, salbu eta honetan, alegia, <tz> denetarako erabili beharrean, hark bezala, frikarietako grafema banaketa klasikoari heldu baitzion, testuinguruaren arabera <tç>, <tc> eta <tz> erabiliz, gerokoek ere egingo zuten legetxe. (Urgell 2015a: 656)

Lepokari afrikatua adierazteko hiru alografoen banaketa igurzkarietan dagoena ren antzekoa da Materraren testuan: <tz> dago lexemen amaieran (B10 *Gorputz*, B73 *hitz*; B23 *Borthitztafuna*, B190 *borthitzqui*) eta gutxitan ageri da bokal aurrean: B170 *gaitzerizcoa*, B308 *fitetzena*, B328 *othoitza*.

<tç> bokal artean eta ozen ondotik agertzen da, baina ez herskari aurrean, ez hitz amaieran: B12 *çaitçanac*, B17 *Ezcontça*; B121 *Certçaz*, B327 *çabiltçaten*. Hirugarrenik, <tc>³⁰¹ digrafoa arrunt askoa da bai bokal artean, bai ozen ondotik, betiere <e> eta <i> aurrean.

Txistukari lepokari eta apikarien arteko nahaste grafikoak bakanak dira: alde batetik, ahoskera ere uki dezakeen neutralizazioa du B214 *odolstatu* adibideak, are ozen ondoren eta herskari ahoskabearen aurretik; Lapurdiko klasikoen artean, ematen du neutralizazioak arruntagoak zirela kostaldeko idazleen artean (cf. Mujika 2002: 200 eta Atutxa & Zuloaga 2014ko azken iradokizunak); beste alde batetik, B209 *gorputs* bezalakoetan nahastea ez bide da grafiatik haragokoa.

³⁰¹ <tC> ere ageri da behin: B[ix] *iduritCen*.

c) Ozen ondokoak

Euskal testuetan, arestian aipatutako grafia-gabeziak direla eta, askotan ez dago erabakitzerik kontsonante ozenen ondoko txistukarien grafemak nola ahoskatu behar diren; zehazki, igurzkari ala afrikatu ahoskatu behar diren. Ipar Euskal Herriko tradizioan ere joera bat baino gehiago egon zen, baina Mujikari (2002: 216 eta hh.) jarraikiz, ematen du Aranbillaga arteko egileen artean igurzkaria erabiltzeko joera dagoela, Etxeberri Ziburukoaren, Axularren eta Pouvreuren testuetan izan ezik.³⁰² Materrak igurzkariaren aldeko joera horrekin egiten du bat, dardarkariaren ondoko txistukarietan izan ezik, non afrikatuen ohiko grafia ugariagoa baita.

d) Palatalak

Sabaiaurreko igurzkari ahoskabeari dagokionez, palataletan grafema bat baino gehiago agertzen da testuetan, eta horrek nahasteak eragin ditzake. Alde batetik, <x> dago bai hitz barruan (bokal nahiz herskari aurrean), bai hitz amaieran: B35 *gaixtoec*, B222 *mereximenduez*, B226 *laxoqui*, B282 *gaixoen*, B84 *errax*.³⁰³

Beste alde batetik, <g> eta <j> grafemek islatzen dute sabaiaurreko igurzkaria B edizioan: Bxvi *meregi* ‘merexi’,³⁰⁴ B244 *gedea* ‘xeda’; B298 *jugeneā* ‘xuxenean’, B193 *juri* ‘xuri’, B352 *hunelaje* ‘hunelaxe’.

Sabaiaurreko igurzkariak adierazten dituzten <g> eta <j> grafemetan ere aldeak daude 1617ko ediziotik 1623kora; zehazki, grafema horiek ugari dira B edizioan, adibideok erakusten dutenez: A129 *xahutcea* → B127 *jahutcea*, A122 *xeheroqui* → B313 *geheroqui*.

Grafia horri loturik, Salaberri Muñoak (2013: 646, 29. oin-oharra) ohartarazten duenez, B edizioa grafiaren inguruko zalantzen lehenengo testigantza da, eta besteak beste Axularrek gaitzetsitako formak dakartza (<g> & <j>). Nolanahi ere den, aipatzekoa da urdazubiarrak kritikaturiko forma horiek 1623ko edizioan daudela, ez 1617koan; beraz, Axularrek bere gaitzespen-iruzkinak egitean buruan Materra bazuen, 1623ko edizioa zukeen gogoan. Beste alde batetik, Salaberri Muñoak esandakoaren haritik, Axularrek ez zuen kontuan hartu Materrak B328 *ixilic* eta B226 *laxoqui* bezalakoetan proposatutako <x>-ren aldeko berrikuntza grafikoa.

Sabaiaurreko afrikatu ahoskabea adierazteak ez du arazo grafikorik ematen: <tch> multzo grafikoa da arrunt Materraren lanetan (zehazki, 45 aldiz agertzen da B edizioan): B[ix] *probetchutan*, B23 *bortchazcoac*, B43 *etchetic*, B181 *ailtcha*, B226 *itchequitcea*.

³⁰² Nolanahi ere den, ematen du Ipar Euskal Herriko egileen artean bereizte gabezia baino gehiago, ahoskerari loturik dagoela grafia. Ez da ahaztekoa, bestalde, Leizarragarenean ere igurzkariak direla ohiko ozen ondotik.

³⁰³ Ematen du <x>/<ch>-ren erabilerak autoreka aldatzen zirela hitz amaieran ere: «Etxeparek, Materrak, Axularrek, *FPrBN-k* [*Formulaire de prône en langue basque*], Harizmendik, Pouvreauk, Etxeberri Sarakoak, Zalgizek, Tartasek eta Belak *x* darabilte kokagune horretan; Leizarragak, Gazteluzarek, Xuriok eta Urtek, berriz, *ch* darabilte hor ere» (Mujika 2002: 205).

³⁰⁴ Halere, horrek zalantzak eragin ditzake; izan ere, *mereci* eta *mercimendu* ere hainbatetan agertzen dira B222 *mereximenduez* bezalakoekin batera.

6.1.2.5. *Herskari belar ahostuna*

Herskari belar ahostuna adierazteko grafia oro har gainerako euskal testuetan eta inguruko ortografia-sistemetan aurki daitekeena da; hots, <g> dago /a/, /o/ eta /u/ aurretik, eta <gu> /e/ eta /i/ aurretik. Grafema eta digrafo horien inguruko nahasteak egon badaude, baina gutxi dira: ematen du B322, B353 *cargüa* eta B352 *soffegüa* bezalakoetan <u> beharko lukeela, ondoko <a>-k berez bermatzen duelako irakurketa bokalikoa. Akats tipografikotzat ditugu, halaber, B33 *Haragia*, B66 *egiten* edo B86 *geure* bezalakoak, baita itxuraz dieresia-edo beharko lukeen adibideren bat ere: cf. B199 *gazituetaric*.

6.1.2.6. *Herskari belar ahoskabea*

Belar ahostunaren pareko banaketa dute belar ahoskabea adierazten duten grafemek; hots, <c> ageri da /a/, /o/ eta /u/ bokalen aurretik, eta <qu> /e/ eta /i/ aurretik: B[ix] *Eufcal*, B[viii] *batceco*, B[xii] *iracurtu*; B[ix] *nuqueyela*, B[xi] *esquiribuz*. Hala-koetan gertatu ohi den bezala, salbuespenak grafia etimologikoaren esparrukoak dira.

6.1.2.7. *Dardarkariak*

Dardarkarien sailean ere eredu erromanikoari jarraitu zion Materrak, nahiz eta adibideren batean garaiko beste egile batzuen egoerarekin bat egin: «Lexemaren azken buruko -r azkarra bere horretan uzten dute inoiz morfemaren hasierako bokalen aurrean» (Mujika 2002: 194). B46 *Pater nosterean* bezalako adibideak bakanak dira Materraren lanetan; are gehiago, A36 *Pater nosterrean* → B46 *Pater nosterean* da bi edizioen arteko ezberdintasunetako bat. Hasierako <r>-ez, begiratu § 6.1.3.

6.1.2.8. *Igurzkari palatal ahostuna*

Ipar Euskal Herriko testuetan ohikoa da igurzkari palatal ahostuna ([ʒ]), erromantzeen eraginez sartua eta Materraren lanetan <ge, gi> grafiaren bidez ematen dena, maileguetan baino ez: B[ix] *Euangelioco*, B[xvi] *Generalaren*, B336 *biage*; B20 *corregitcea*, B25 *Originala*; B104 *imagina*. Ez dugu uste aurreko azpiatalean (§ 6.1.2.5) aipaturiko B33 *Haragia* edo B66 *egiten* bezalakoetan ere igurzkari palatal ahostuna dagoenik; esan bezala, halakoak inprenta-tipoen inguruko hutsak direlakoan gaude.

6.1.2.9. *Irristari palatal ahostuna*

Salbuespen bakanen batean izan ezik, xvii. mendearen amaierara bitarteko tradizioarekin bat (Mujika 2002: 166), <i> grafemak adierazten du irristari palatala Materraren A eta B edizioetan: B[ix] *Iaincoac*, 202 *Ierusalemeco*, B278 *ioan*, A44 *iuatcera*. Salbuespen ditugu B388 *Jaincoaren* eta A142 *Jaincoac*, bai eta 1617ko edizioako Axularren baimeneko A17 *Jaun* ere, nahiz eta orrialde bereborean *iendartean* dakarren urdazubiarrak eta, 1623ko ediziorako, A17 *Jaun* → B[xvi] *Iaun* bihurtu zuten.

6.1.2.10. *Ezpain-hortzetako igurzkarri ahoskabea*

Ezpain-hortzetako igurzkaria adierazteko grafema arruntena <f> da, baina <ff>-rik agertzen da lantzean behin, batez ere grafia mailegatua edo etimologikoa denean: B111 *officioac*, B132 *offerendatcē*, B388 *differenciaren*. <ph> atzerriko izenen batean besterik ez dago (B358 *Ioseph*); izan ere, gogoratzekoa da <ph> digrafoak ezpainkari hasperenduna adierazten duela Materraren sistema grafikoan.

6.1.2.11. <mb>, <mp> vs <nb>, <np> kontsonante-multzoak

Ezpainetako herskari ahostunaren aurretik, <mb> zein <nb>³⁰⁵ baliatu zituen Materrak hala A nola B edizioetan, baina bi digrafoetan lehenengoa da ugariena, bataren eta bestearen arteko aldea oso handia ez bada ere: 1617ko edizioan 29 aldiz aurkitu dugu <mb> multzo grafikoa, eta 21 aldiz <nb>; 1623ko edizioan antzekoa da egoera (gogoratzekoa da, kopuruak direla eta, bigarren edizioa lehenengoa baino nabarmen luzeagoa dela): 55 aldiz aurkitu dugu <mb>, eta 39 aldiz <nb>; nolana ere den, aintzat hartzekoa da <nb> duten forma horietatik gehienak (B edizioan, esaterako, 39tik 26) *lehenbiziko* hitzari dagozkiola, sistematikoki agertzen baita <nb>-z.

Ezpainetako herskaria ahoskabe denean, ez dago sudurkariaren eta ezpainkariaren arteko lehiarik, ezpainkaria besterik ez delako agertzen bai A edizioan, bai B edizioan.

6.1.3. Grafia etimologikoak

Materraren lanaren lehenengo bi edizioetan grafia etimologikoak ageri dira zenbait hitz eta testuingurutan. Oro har, garaiko (eta Ipar Euskal Herriko) beste egile batzuek bezala, mailegu batzuetan jatorrizko idazkerari eutsi zion Materrak. Adibideotan hasiera dardarkariduna mantendu da: B104 *representatcen*, B105 *representatçaille*, B195 *reberenciarequin*, B210 *redemcioneco*, B293 *recibitu*, B353 *redemitu*. Halere, <r> ez da sistematikoa, ezta maileguen artean ere: cf. B[x] *errecibitu*, B48 *errepartinendu*, B73 *erremedio*, B79 *erreberenciarequin*, B108 *erremedioez*, B225 *errebelatua*.

Bestalde, ematen du <cc> kontsonante multzoa mailegatu dela, kultismoz: A115 *accusatū*.

Euskal ondareko hitzetan ere grafia mailegatua edo etimologikoa agertzen da bi testuingurutan: alde batetik <tt> duten aldaeretan³⁰⁶ eta, beste alde batetik, afrikatu lepokariaren ondoren herskari ahoskabea dagoenean. Lehenengo sailekoa dugu *-tasun* atzizkiak eratutako baten bat: B65 *battasun*. Bigarren sailekoak dira, bestalde, <tzt> eta <tzq> & <tzc> multzo grafikoak: B23 *Borthitztasuna*, B84 *vtzten*; B[ix] *hitzcunça*, B190 *borthitzqui*. Grafia etimologikoak sistematikoki ematen ditu Materrak hitz horiek oinarri dituzten formetan, *bortitz*-ekin izan ezik, <zt>-ren bat ere baitago: B142 *borthitztasuna*, B143 *borthitztasunaz*.

³⁰⁵ <nb> kasuak direla eta, etimologikoak izan daitezke.

³⁰⁶ Kasuren batean, grafia zuzenean mailegatu da: B194 *attentoqui*.

Euskal hitzen grafia etimologikoez ari garela, komeni da A ediziotik B ediziora dagoen aldaketa batez jabetzea: *-tsi* partizipio-marka duten aditz-izenetan, *-tste* → *-ste* bihurtzen da A ediziotik B ediziora: A36 *ardietstecoac*, A41 *sinhetsten*, A84 *eracustfeco*; B47 *ardiestecoac*, B130 *Sinhetsten*, B144 *eracustfen*.

6.1.4. Dieresiak eta sudurkarien diakritikoak

Gure edizio-irizpideetan dieresiak kentzea erabaki dugun arren, ezin utz daiteke aipatu gabe <i>-ren eta <ü>-ren erabilera. Mujikak (2002: 159) azaltzen duenez, xvii. mendearen bigarren zatian frantsesaren ortografia-sistemari jarraituz <i> erabiltzen hasi ziren euskal idazleak, letra guztiak ahoskatzen zirela adierazteko. Hain zuzen ere, Materraren 1623ko edizioan halakorik agertzen ez zela eta, ohitura horren arabera jokatzeko lehenengoa Pouvreau izan zela pentsatu izan da; 1617ko edizioa agertzeak, aldiz, lapurtera klasikoaren hasierara aurreratu du ohitura: A40 *ditequeiēna*, A57 *bathaiiatu*, A62 *barraiatua*, A78 *barraia*, A93 *gaiago*, A129 *Bathaiioac*. Bokal artean besterik ez dira agertzen <i> dutenak, ahoskera bokalikoa bermatzeko. 1623ko edizioan, aldiz, ez dago <i>-rik eta horren ordez <y> agertzen da (begiratu § 6.1.1.2).

Beste alde batetik, <ü> grafema A eta B edizioetan agertzen da, ziurrenik ondoz ondoko bi bokalen irakurketa hiatikoa markatzeko eta <u> bokal ahoskatu behar dela markatzeko: B78 *ceriua*, B81 *Aingueriua*, B82 *manteniua*, B101 *buria*. Horiekin batera, badaude hiperkarakterizazio-kasuak ere (cf. B115 *contian*, B214 *escuetan*); izan ere, euskaraz ez dago <tb> ahoskatzerik.

Diakritikoei gagozkielarik, ezagun da inprenta-arrazoiak tarteko (eta, zehazki, lerrokada bakoitzean letra edo hitz gehiago sar zitezen) sudurkariaren ordainetan bokalari diakritikoa eranstea ohitura arrunta zela: B[xxvi] *aiuhitz*, B7 *Igadeac*, B15 *ceudē*, B22 *cōsolatçea*, B63 *guiçō*, B256 *hautatuēçat*.

Gure edizioan bokal diakritikodunak luzatu eta kontsonanteak <n>-z eman badiugu ere, aintzat hartzekoa da § 6.1.2.11 atalean herskari aurreko ezpainetako sudurkarietz esandakoa: horren arabera, arestian aipatutako diakritikoez jatorrizko /n/ zein /m/ ordezka ditzakete.³⁰⁷

6.1.5. Hitz-banaketa

6.1.5.1. Marratxoa

Hitz-banaketaren arloan, aipatzekoa da marratxoaren erabilera; izan ere, testuko zenbait partikula marratxoaren bidez lotzen zaizkie aurreko eta atzeko elementuei. A ediziotik B ediziora aldea dago puntu honetan ere; zehazki, ematen du Etxepare eta Leizarragagandik (eta sasoiko frantses ortotipografiatik) hurbilago ibili zela Materra 1617ko lanean, marratxoak ugariagoak eta sistematikoagoak baitira 1623ko edizioan baino; are gehiago, A edizioa hainbat marratxo desagertu ziren B-n; cf. A15 *ez-paitaquit* → B14 *ezpaitaquit*.

³⁰⁷ Latinezko pasarteek ere uste horren alde egiten dute; izan ere, akusatiboko *-m*-aren ordez <-> diakritikoa ageri da askotan.

Marratxoaren erabilera ez da sistematikoa, nolahi ere den, ez Materrarengan, ez gainerako egileen lanetan: erraz aurki daiteke hitz bera bizpahiru modutara idatzita, eta horrek zaildu egiten du ikuspegi garbirik ateratzea. Hala ere, Mujikarekin (2002: 237) bat etorritz, Materra bereizi egiten da beste egile batzuetatik zenbait puntutan; esate baterako, aipagarri da *ez*, *ba-*, *bait-* zein *ere* partikulak marratxoaz (ere) adieraztea: B[ix] *ez-panu*, B[xv] *ez-naiz*, B216 *ez-tuenac*; B[viii] *ba-dadi*, B[xi] *banuen*, B[xiv] *ba-dur*, B31 *bai-tira*, B112 *bai-caituzte*, B116 *bai-tugu*; A4 *Platonec-ere*, A8 *lekhua-ere*, A9 *gutziz-ere*.

6.1.5.2. Kontsonante-bilkurak (ez + kontsonantea)

Kontsonanteen bilkuretan, oro har xvii. mende hasierako idazleen ohiturarekin egin zuen bat Materrak. Mujikak (2002: 222 eta hh.) 1650. urtearen inguruan ikusi zuen halako eten bat. Ordura arte, 3. taulan dagoen eskemaren arabera aritu ziren lapurtar idazleak, Materra barne, salbuespenak salbuespen.

3. taula

ez + kontsonantea (Mujika 2002: 222)

<i>l, n-</i>	<i>b, d, g-</i>	<i>z-</i>	<i>h-</i>
<i>ezl-</i>	<i>ezp-</i> [Etxeberri Ziburukoa: <i>ezb-</i>]	<i>etç-, etc-</i>	<i>ez-</i>
<i>ezn-</i>	<i>ezt-</i>	<i>ezc-, ezqu-</i> [Leizarraga: <i>ezg- / ezc-, ezqu-</i>] [Etxeberri Ziburukoa: <i>ezg-</i>]	

6.2. Izenaren morfologia

Atal honetan izen sintagmaren barneko morfologiaz mintzatuko gara, hura deskribatuz eta garaiko beste autore batzuek dutenarekin erkatuz. Lehenik erakusleez eta 3. pertsonako izenordainez arituko gara; gradu desberdinen erabilera, sinkretismoez eta forma supletiboez. Pertsona-izenordainez mintzo, zenbait aldaera eta forma indartu iruzkinduko ditugu. Gisa berean, izenordain zehaztugabeekin ere hainbat polimorfismo nabarmenduko ditugu, eta gauza bera bihurkari eta galdetzaileekin. Deklinabidean sartuta, mugagabearen erabilera, plural hurbila, bizidun/bizigabe bereizketa edo genitiboaren erabilera landuko ditugu, eta, ondotik, zenbait kasuren eta postposizioen formaz mintzatuko gara.

6.2.1. Erakusleak eta hirugarren pertsonako izenordainak

4. taulak biltzen ditu Materrak baliauturiko erakusle eta hirugarren pertsonako izenordainen aldaerak. Hirugarren pertsonako izenordainen sailean, arruntak (ar.) eta indartuak (ind.) bereizita eman ditugu.

4. taula

Erakusleak eta hirugarren pertsonako erakusle eta izenordainak

	1. pertsona		2. pertsona		3. pertsona (ar.)		3. pertsona (ind.)	
	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.
ABS	haur	hauc	hori	horiec	hura	hec	bera	berac
ERG	hunec		horrec	—	harc		berac	berec
DAT	huni	—	—	—	hari	hei	—	—
GEN	hunen	hauquen	—	—	haren	hequen	bere, haren beraren	bere
-KO	hunetaco	—	—	—	hartaco(ez)	—	—	—
INSTR	hunetçaz	hautaz	—	—	hartçaz	hetçaz	beraz	—
SOZ	hunequin	hauquin (A)	—	—	harequin	hequin	berequin	—
MOT	—	—	—	—	hargatic, hura gatic	hequen gatic	—	—
DEST	—	—	—	—	—	hequençat	—	—
INES	hunetan	hautan	horretan	—	hartan	hetan	bere baithan, hura bera baithan	bere baithan
ADL	—	—	—	—	hartara (A)	hetara	—	—
MUG ADL	huneraifocoan	—	—	—	—	—	—	—
ABL	hunetatic	hautatic	horretatic	—	hartatic, haren ganic	hetatic	—	—

Ikus daitekeenez, hirugarren graduko erakusleen paradigma da formetan aberatsena, eta bigarrena leku huts gehien dituen. Horrez gain, forma gehienak absolutiboan, ergatiboan eta inesiboan agertzen dira.

6.2.1.1. *Graduen arteko aldeak*

Testuetara jota, ez da beti erraz argitzen noiz baliatu zuen Materrak gradu bat eta noiz beste bat. Are gehiago, A ediziotik B ediziora aldeak daude, hala graduen nola artikularen eta erakuslearen erabileran, bi norabidetan (lehenengo gradutik hirugarrenera eta hirugarrenetik lehenbizikora), honako adibide hauek erakusten dutenez:

A59 Eguiazco Eliça haren ezagutceco markac eta seiñaleac cein dira eta cembat?
B67 Eguiazco Eliça hunen eçagutceco markac eta seiñaleac cein dira eta cembat?

A71 Eliça hartan ba-dela obra on guztien partaletassuna
B16 Eliça hunetan badela obra on guztien partaletassuna

A64 ba-da Eliça hunetan behar den erremedio guztia

B72-73 bada Eliçan behar den erremedio guztia

A139 Guc hauquin batean Iaincoaren dohaiñen eta garacien ardiesteco

B138 Guc hequin batean Iaincoaren dohaiñen eta garacien ardiesteco

A134 Cer condicino dira hauc?

B133 Cer condicino dira hec?

5. taulak erakusten ditu B edizioako absolutibo singularreko hiru graduetakoko datuak, lapurtera klasikoko beste egile batzuek erabilitakoekin erkatuta.³⁰⁸

5. taula

3. pertsonako erakusleen erabilera-maiztasunak, graduka

	Haur/Hau ³⁰⁷	Hori	Hura
Materra	40	3	16
Axular	229	25	275
Etxeberri Ziburukoa	96	10	182
Haranburu	59	1	40
Voltoire	10	9	3
Guztira	434 (% 43,49)	48 (% 4,81)	516 (% 51,7)

Materrak gutxien darabilena bigarren gradua izanik ere, aldea ez da Axularrek, Etxeberri Ziburukoak edo Haranburuk ageri dutena. Aipagarria da, orobat, Materrak hirugarren gradua lehena baino gutxiago erabili zuela.

6.2.1.2. Absolutiboalergatiboa sinkretismoa pluralean

Ergatibo eta absolutibo pluralak forma bera dute erakusleen hiru graduetan; bezaz, lehenengo graduko *hauc* eta hirugarren graduko *hec* absolutibo zein ergatibo plural izan daitezke. Bigarren graduan, *horiec* plurala absolutiboan besterik ez du Materrak, baina ergatiboan ere forma hori zukeela pentsatzea da bidezkoena:³¹⁰

ABS: B31 Erraiten da laur bekatu hauc mendecu esque daudela

ERG: B119 cer eduquitcen dute bere baithan manamendu hauc?

ABS: B104 badaquigu imagina hec çurez edo harriz eguinac direla

ERG: B141 Eta nola hirur verthute hec (fedecac, esperançac eta caritateac) Iaincoari behatcen baitiote

³⁰⁸ Datuak *EKCTik* hartu dira.

³⁰⁹ Materraren testuetan *haur* da sistematikoki absolutibo singularraren lehen graduko forma, Axularren *Geron* bezala. Voltoirek *haur* eta *hau* ditu, baina lehena gehiago. Etxeberri Ziburukoak aldiz, *hau* du beti. *EKCK* Etxeberri egotzen dizkion *haur* guztiak hutsak dira, eta *hura* behar da irakurri.

³¹⁰ Bide batez, Materraren testuetan ez dago *horiok* aldaeraren aztarnarik. Pikabeak (1993: 252) dioenez, Axularrek badu halakorik, baina adibide bakarra da: ugariagoa da Etxeberri Ziburukoaren, Aranbillagaren eta Etxeberri Dorreren lanetan, eta, batez ere, Pouvreauren eta Urteren testuetan.

6.2.1.3. *Hirugarren graduko izenordain indartua*

Hirugarren graduko izenordain indartuaren absolutiboa eta ergatibo plurala formalki bereizten badira ere, ez dago halako bereizketarik absolutibo pluralaren eta ergatibo singularraren artean, 6. taulak erakusten duen moduan.

6. taula

3. graduko izenordain indartuaren sinkretismoa

	Sg.	Pl.
ABS	bera	berac
ERG	berac	berec

Materraren testuan, Axularrenean ez bezala, ez dago *bera*-rik gainerako graduetan; cf. Axularren lehen graduko *hau beror* absolutiboan eta *hunec beronec* ergatiboan, *apud* Pikabea (1993: 254 eta hh.).

Genitiboan *bere* & *beraren* agertzen dira, eta banaketa osagarria dute: bietan azkena indartzaile da dauden bi adibideetan, eta aurretik izen-sintagma eskatzen du:³¹¹

B132 Iesu Christo beraren passionearen orhoitçapenetan

B219 esperançã dugu haren beraren verthutez barcatuco derauzquigutçula gueure becatuac

Orobat, *bere* singular zein plural izan daiteke, honako adibideok erakusten dutez:

Sg.: B44 Cer iaquin behar du guiristinoac bere eguinbidearen eguiteco?

Pl.: B31 Cerbitçarief eta languiley bere soldataren eta iornalaren goratcea

Aurrekoarekin lotuta, *bera* & *hura bera* dira forma indartuak:

B7 hura bera gauça guztien gaiñetic onhets, adora eta cerbitça deçagula

B61-62 ikan cela hequen buruan bera bere botherez ceruric gorenera

6.2.1.4. Hargatik eta hura gatic

Bi formen arteko banaketa sistematikoa eta osagarria da: *hargatic* beti da izenordain, eta *hura gatic* erakusle. *Hura gatic* dela eta, aipatzekoa da beti agertzen dela egi-tura berean:

B197 orduan sentitu cenduen tristecia handi hura gatic

B199 ordu hartan sentitu cenduen dolore handi hura gatic

B201 ordu hartan iragan cenduen dolore handi hura gatic

³¹¹ Ohar bedi lehenengo adibidean aurreko sintagma (*Iesu Christo*) absolutiboan dagoela, baina bigarrenean izenordaina genitiboan datorrela (*haren beraren*).

6.2.1.5. *Aditzondoak*

7. taulak modu- eta leku-aditzondoak biltzen ditu, graduka antolatuta. Agerikoa da, erakusleekin gertatzen zen bezala, aditzondoan esparruan ere lehenengo eta

7. taula

Moduzko eta lekuzko aditzondoak, graduka

	1. gradua	2. gradua	3. gradua
modua	hunela(je) hunelatan hunelacoençat hunelaco	horrela	hala halatan halaco halacoec halacoac halacotz
lekua	hemen hemendic huna huneraïño(coan)	—	han handic hango hara han berean

8. taula

Moduzko eta lekuzko adberbio zenbaiten erabilera-maiztasunak, graduka, xvii. mendeko lapurteraz

	1. gradua		2. gradua		3. gradua		
Modua	Hunela	202 (% 8,72)	Horrela	133 (% 5,74)	Hala	1981 (% 85,54)	2.316
	Hunelatan	53 (% 16,57)	Horrelatan	1 (% 0,31)	Halatan	266 (% 83,13)	320
	Hunelako	88 (% 13,69)	Horrelako	63 (% 9,8)	Halako	492 (% 76,52)	643
	Guztira	343 (% 10,46)	Guztira	197 (% 6,01)	Guztira	2739 (% 83,53)	3.279
Lekua	Hemen	428 (% 47,14)	Hor	38 (% 4,19)	Han	442 (% 48,68)	908
	Hemendik	80 (% 17,02)	Hortik	14 (% 2,98)	Handik	376 (% 80)	470
	Huna(t)	216 (% 44,81)	Horra(t)	110 (% 22,82)	Hara(t)	156 (% 32,37)	482
	Guztira	2.324 (% 38,92)	Guztira	162 (% 8,71)	Guztira	974 (% 52,37)	1.860
Modua eta lekua	Guztira	2.667 (% 51,9)		359 (% 6,99)		3713 (% 72,25)	5.139

bigarren graduak direla defektiboak, hurrenez hurren. Horren harira, ezin bazter daiteke frantsesaren bi graduko sistemaren eragina gero eta handiagoa izatea, eta aintzat hartu beharko litzateke Materrak bere dotrina egiteko balia zezakeen jatorrizko (erdal) testuaren eragina. Gai horretan sakondu artean, 8. taulan, graduak bereizten dituzten zenbait aditzondo hautatu ditugu; ondoren, *EKC*ren arabera xvii. mendean dituzten agerrerak bilatu ditugu (ehunekoek gradu bakoitzean forma bakoitzak duen agerrera-kopurua adierazten dute, eta azken lerroak forma guztien datuak biltzen ditu). Bada, ikusten denez, Materraren erabilerak bat datoz xvii. mendeko beste egile batzuenekin:³¹² hirugarren graduko formak erabiltzen dira gehien, eta bigarrenekoak gutxien.

6.2.2. Pertsona-izenordainak

9. taula

Pertsona-izenordainak

	1. sg. (ar.)	1. sg. (ind.)	2. sg. (ar.)	2. sg. (ind.)	1. pl. (ar.)	1. pl. (ind.)	2. pl. (ar.)	2. pl. (ind.)
ABS	ni	—	çu	çu cerori	gu	gueuroc	çuec	—
ERG	nic	—	çuc	cerorrec ceurc	guc	guc gueuroc	çuec	—
DAT	niri	neroni	çuri	—	guri	—	—	—
GEN	ene	neure	çure	ceure	gure	gueure / gere	çuen	ceuen
INSTR	niçaz	—	—	—	gutçaz	—	—	—
SOZ	enequin	—	çurequin	çurequin	gurequin	—	çuequin	—
MOT	ene gatic	—	—	—	gure gatic	—	—	—
PART	—	—	—	—	—	—	çuetaric	—
DEST	enetçat	neuretçat	çuretçat	—	—	gueuretçat	—	—
INES	ene baithan	neure baithan	çure baithan	—	gure baithan	gueure baithan	—	—
ADL	ene gana	—	çure gana	ceure gana	gure gana	—	çuen gana	—
ABL	ene ganic	—	çure ganic	ceure ganic	gure ganic	gueure ganic	—	—

³¹² Zehazki, honako hauekin alderatu ditugu Materraren B edizioko formak: Voltoire, Etxeberri Ziburukoa, Pouvreau, Haranburu, Harizmendi, Argaiñaratz, Axular, Etxeberri Dorre, Gazteluzar, Aranbillaga eta Dasanza.

6.2.2.1. *Pertsona-izenordain indartuak*

Pertsona-izenordainen aldaera indartuek (9. taula) *-eu-* dute hala genitiboan nola genitiboaren gainean eraikitako formetan; aitzitik, [-*er-* + *haulhorilhura*] egitura dute ergatiboan, absolutiboan eta datiboan. Nolanahi ere den, banaketa ez da guztiz zurruna: esate baterako, ergatiboan bigarren pertsona singularraren izenordain indartuan *cerorrec* badugu ere, B275 *ceurc* bezalako salbuespen bakanen bat ere badago. Bestalde, lehenengo pertsona pluralean *gueuroc* ageri da. Kontrara, genitiboan bertan ere badugu salbuespenik, *gueure* formarekin batera *guere* ere badugulako bi aldiz.

6.2.2.2. *Geurok aldaera*

Plural hurbileko aldaera hori baliatzen da lehenengo pertsona pluraleko izenordain indartu gisa. Zehazki, birritan lekukotzen da (behin absolutibo-balioarekin eta beste behin ergatibo-balioarekin), eta forma indartu gabea ere har dezake aurretik. Pikabeak (1993: 208 eta hh.) *geroni* eta *gerorri* bezalakoak aurkitu zituen absolutiboan, eta *geronek* zein *gerorrek* ergatiboan, baina adibide guztiak ziren xviii. mendeaz geroztikoak: horra, bada, absolutibo zein ergatibo izan daitekeen *gueuroc* aldaera.³¹³ Bestalde, ergatiboko formaz ari zela, «**geronek** uste dugu zela erabiliena xvii. gizaldian» zioen Pikabeak (1993: 213), baina Materraren bi adibideek, besteak beste, aurka egiten diote:

B113 obeditu behar ditugula gueuroc baiño çaharragoac

B164 Guc gueuroc Iaincoaren leguearen contra eguiten, erraiten eta pensatcen duguna

6.2.2.3. *Zerori / zerorrek & zeurk aldaerak*

Aldaera horiek ditu Materrak bigarren pertsona singularreko absolutiboan eta ergatiboan, hurrenez hurren. Mende berean, Etxeberri Ziburukoak eta Pouvreaux *zeroni* eta *zeronek* zituzten absolutiboan eta ergatiboan, eta ematen du orduz geroztik aldaera horiek hedatu zirela (Pikabea 1993: 2010 eta hh.). Bestalde, ez da ahaztekoa ergatiboan B275 *ceurc* ere badagoela, Axularrek bi formak zerabiltzala, eta banaketa argitzea ez dela beti erraza (cf. Rebuschi 1995: 325).

³¹³ Axularrek *gueroc* zerabilen. Haranburuk eta Etxeberri Ziburukoak *gueuroc* bana dute absolutiboan. Hona, hurrenez hurren: «Berriz ordea badaquit gu gueuroc gabe çu gabe baino hobequi garatequela» (*Debocino Escuarra*, 140), «Lagun gaitçatçue lagun gueuroc moian vtçiez» (*Manual Devotionezcoa*, 122).

6.2.3. Izenordain zehaztugabeak

10. taula

Izenordain zehaztugabeak

ABS	bat/bata	batbedera	nihor (A), nehor (A, B)	batçuc, (batçuec)	cembait, cenbait	cerbait	hambat, hanbat
ERG	batec, batac	batbederac	nehorc				norc bere
DAT		batbederari	nehori				norc berei
GEN	baten		nihoren	batçuen			
INSTR	batez, batatz			batçuez			
SOZ	batequin		nehorequin				
MOT	bata gatic						
INES	batetan, batean						
ADL				batçuetara			

6.2.3.1. Nehor eta nihor

Genitiboko formak behin baizik ez du <i> (B157 *nihoren*), eta gainerakoek <e> dute (10. taulak Materraren izenordain zehaztugabeak biltzen ditu). A edizioa begiraturuta, ez dugu forma genitibodunik aurkitu, eta ezinezkoa zaigu erkaketa-lanik egitea. Absolutiboan, *nehor* da erabiliena A eta B testuetan, nahiz eta salbuespen bat ere bada- goen: A64k *nihor* dakar, baina 1623ko edizioan B72 *nehor* bihurtu da pasarte horre- tan bertan. Argi bila xvii. mendeko beste egile batzuen lanak begiraturuta, emaitza argi- garri askoa izan da, Axularrek besterik ez baitarabil *nihor* aldaera, Materrarekin batera.

6.2.3.2. Batzuk eta batzuek

Batzuk aldaera erabiltzen da absolutiboan,³¹⁴ salbuespen bakar batean izan ezik: B174 *Becatu hetaric batçuec (lehenbico partean eçarriac baitira guztiaç) eztirela bar- catcen*. xvii. mende hasierako egileen lanak arakatuta, *batzuk* absolutiboari ohi dago- kio, eta *batzuek* ergatiboari.

6.2.3.3. Bat: forma mugatuak eta forma mugagabeak

Espero bezala, deklinabide mugagabea hartzen du *batek*: *bat*, *batec*, *batequin* eta *batez* ditugu (ez *batetaz*, baina cf. *batetan* beherago). Forma mugatuak [*bata* + *ber- tzea*] egituran ditugu:

B26 Bata da mortala eta bertcea veniala

B71 Aditcen dut guiristino fidel guztieç badutela parte batac bertcearen oracinoe- tan eta bertce obra on guztietan

Instrumental mugatuak eta inesiboak arreta berezia merezi dute. Espero geneza- keen bezala, instrumental mugatua arestian aipatutako egituran dago (cf. B259-260

³¹⁴ A eta B edizioetan ez dugu aurkitu ergatiboaren adibiderik.

ceren *bataz*, ezta *ene baithan halaco oborea mereci duen ontasunic*, eta *bertceaz*, *ceren çureac baitira gauça guztiac*, eta *ezpaituçu deusen beharric*); aitzitik, *berriz* lokailua tar-tean dagoenean, *bertzea* dugu, absolutiboan:

B77-78 Ceren hura baita gure aita eguiazcoa, *bataz*, *ceren* harc creatu eta munduan eçarri baicaitu, eta *berriz bertcea*, *ceren* beregainqui eta *bertce* guztien gainetic gu, *guiristinoac*, bere seme eta bere etcheco baicadutça

Ez dugu horren bestelako adibiderik, baina aldaketak iradoki lezake halako kasuetan oposizioa ez dela *bata* eta *bertzea* elementuen artekoa, ezpada *batazen* eta *berrizen* artekoa. Deigarria da, bestalde, halakoak Axularrean agertzen diren arren, alerik ez egotea Voltoireren, Etxeberri Ziburukoaren edo Haranbururen lanetan.

Inesiboari dagokionez, *batetan* behin besterik ez da lekukotzen, *batean* postposizio gisa agertzen da Materraren euskaran, sozietibo baten ondoren:

B59 ehorci çutela thomba berri batetan

B82 *ceren* hequin batean

B205 Iaincoaren faborearequin batean

B edizioko forma mugatu batek aparteko azalpena merezi du:

B218 Ceren baldin alde batean eçar baditeci gure gaixtaqueriac eta becatuac eta bertcean gure salbatçaillearen ontassuna eta merecimenduac, edirenen da segurqui handiago eta guehiago dela pagamendua çorra baiño

Esan bezala, perpaus horretan forma mugatua baliatu zuen Materrak, [*bata + bertzea*] egiturak eskatzen duenarekin bat etorriz. Tamalez, *batean* eta *batetan* horien adibide bana besterik ez dugu, eta hori ez da nahikoa segurtasunez baieztatu ahal izateko Materraren euskaran inesiboan mugatuaren eta mugagabearen arteko txandaketa osagarria zegoela. Axularren *Gero* arakatuta, emaitzak emankorrakoak dira: *batean* sozietiboaren ondoren eta (Materraren adibidean bezala) *bertzeane*kin oposizioan agertzen da. Halere, testuinguru horietatik kanpo ere badago *batean*, eta ez da aise *batetan* formarekiko aldea zein den asmatzea. Axularren lanean, nahiz eta ez den sistematikoki hala gertatzen, *batetanen* esanahia ‘batera’ edo ‘berberean’ da, Materraren adibide bakarrean ez bezala. Etxeberri Ziburukoak eta Haranburuk (adibide bana) izan ezik, gainerako lapurtar klasikoek *batean* dute.

6.2.4. Bihurkariak eta elkarkariak

11. taula

Elkarkariak eta bihurkariak		
	Bihurkariak	Elkarkariak
	bere burua	
ABS	ceure burua	
	ceuen buruac	
GEN		elkarren
SOZ		elkarrequin
ADL		elkar gana
ABL		elkar ganic

Bihurkarien sailean (11. taula), espero bezala, bihurkaritasuna *bururen* bidez adieraztean, aurreko izenordainak forma indartua eskatzen du. Elkarkaritasuna adierazteko, bestalde, *elkar* baliatu zuen Materrak, eta lekukoturik ditugun forma apurretan genitiborik gabe agertzen da bizidunetan:

B[xxv] bereci ditut elkar ganic
B327 bil çaitetzte elkar gana

6.2.5. Galdetzaileak

Izenordain galdetzaileak 12. taulak biltzen ditu.

12. taula

Izenordain galdetzaileak

ABS		noiz	cer	cein	cembatnola		
ERG	norc		cerc	ceñec			
DAT	nori						
GEN	noren				ceñen		
-KO						nolaco	
INSTR			certçaz	ceinetçaz, ceñetçaz, ceñez			
SOZ	norequin						
DEST			certaco				
MOT	noren gatic	cergatic					
INES	non, noren baithan		certain	ceinetan, ceñetan	cembatetan	nolatan	
ABL	nondic						
ADL	norat						

6.2.5.1. Zein

Materraren testuan *zein* beti da mugagabe, hala adiera singularra nola plurala duenean, eta deklinabideko kasu guztietan, Leizarragaren eta Axularren lanetan bezala (begiratu Pikabea 1993: 279). Lapurtar klasikoen artean, aldiz, Pouvreaux, Etxeberri Ziburukoak eta Haranburuk (behin) zenbait mugatu ere badituzte. Hona hemen Materraren adibide batzuk:

ABS sg.: B39 Hirur presuna hetaric bigarrena (cein baita semea)
ABS pl.: B61 lurraren barreneco leku behera batçuetara, cein dei baititezque limboac

INSTR sg.: B161-162: Bekatu hura ceinetçaz cutsaturic sortcen baicara
 INSTR pl.: B[xxvi] eguin ditut halacoençat euscaraz debocinozco othoitz eta oracino batçuc, goicetan, arratsetan eta bertce añhitz demboratan eta ocaşinotan eguin eta erran ahal ditezqueyenac, ceinetçaz eguiten baitut hirurgarren partea
 INES sg.: B49 gaitecin minça credoaz, ceifnetan baitaude articulu fedezcoac
 INES pl.: B189 çazpi principalenac hautatu ditut, baitira çazpi aldiac ceifnetan gure salbatçailleac bere odol preciatua issuri baitçuen bere passioneco egunean

6.2.5.2. Zeinez eta zeinetzaz

Aipatzekoa da, galdetzaileez ari garela, instrumentaleko *ceinetçaz* formarekin batera *ceinez* ere badugula behin, adiera singularrarekin: B101 *Caritatea da verthute bat ceifnez onhesten baitugu Iaincoa gauça guztien gainetic*. A edizioan ere, *zeinen* forma instrumental bakarra adibide horretan bertan dago, eta xvii. mendeko beste egile batzuen lanak begiratura, ikusi dugu Axularrek *zeinetzaz* eta *zeinez* dituela, nahiz eta azken horren adibide bakarra duen. Etxeberri Ziburukoak ere biak ditu, baina *zeinez* da nagusi.

6.2.6. Deklinabide-gaiak

6.2.6.1. Mugagabearen erabilera

Materra ohitura zaharrari datzekio *errege* hitza deklinatzean: mugagabeen jokatzen du A edizioan Etxauzi eginiko eskaintzan Frantziako erregea aipatzen duenean eta B edizioaren azalean:

A3 Beltran de Echaus Baionaco ipizpicu, erreguerren conßeillari eta lehenbico erremosinari

B0 Iacques Millanges erreguerren imprimaçaillearenean

Bestelako kasuetan, mugatzailearekin agertzen da Jainkoaz ari denean, baita funtzio bokatiboan ere:

B256 Ha! Ceruetaco erreguea

B265 bere bihotçean ceruetaco erreguea errecibitu duenac ostica ditçan lurreco gauça guztiaç

Amaieran *-e* duten hitzetan, mugagabea eta plurala *ez dira* beti garbi bereizten leku-denborazko kasuetatik kanpo, *e* hori ez baita sistematikoki bikoitz. xvii. mendeko lapurtar egileen lanetan ohikoa da <ee>/<e> txandaketa; esate baterako, *bertze* hitzari begiratura, ergatiboan mugatu garbia dena *-e-* bakarrarekin aurki dezakegu, eta mugagabetzat har daitekeena *-ee-z* adierazita:

B327-328 Eta hauquen ondoan erran beça çuetaric batec appur bat gora eta haguiz orai hemen ibenico dudan othoitz, eta bitartean eduqui beçate bertcec ere hartan gogoa

B234-235 Neure becatu ene ganic estaliric daudecinaric edo orhoitcen ez naicenetaric garbi naçaçu, iauna, eta bertceec ni naicela causa eguin dituztenac ere barca diaitçadaçu othoi

Honako soziatiboko forma honek ere *-e-* bakarra du: B240 *Espiritu Sainduaren dohaiñac barreneco bertze verthutequin eman derauzquidatçu*. Mugatutzat dugu, nahiz eta *bertze* hitzarekin frankotan mugagabea duen Materrak. Gure ustez, baina, mugagabea balitz, *verthuterequin* beharko luke.

Edizio bakar batean aurki daitezkeen nahaste horiei A-tik B-ra aldatzen diren kasuak gehitu behar zaizkie. Honako adibide hauetan, lehenengo bietan mugagabe behar zuena mugaturik eman zen 1623ko edizioan, eta azken bi adibideetan aurka-koa gertatzen da:

A32 Noiz edo cer okhasinotan eguin behar da gurutcearen seiñalea?

B43 Noiz edo cer okasinoetan eguin behar da gurutcearen seiñalea?

A124 igandetan eta bertce bestetan meça ossoa ençun deçaçula

B9 igandetan eta bertce bestetan meça ossoa ençun deçaçula

Beste alde batetik, [*bata... bestea*] egituran izan ezik, *bertze* hitza mugagabean ematea da ohikoena Materrarengan:

B29 Bertceren ontassun espiritualaz damu hartcea

B71 Aditcen dut guiristino fidel guztiec badutela parte batac bertcearen oracinoetan

Handi adjektiboari gagozkiolarik, mugagabean agertzen da (*handitako*), lapurtar klasikoan arteko ohiturari jarraituta (Pikabea 1993: 266 eta hh.).

Gauza hitzaren instrumentalean ez dira mugagabea eta plurala bereizten:

B74 Huneraiñoocoan minçatu gara fedeari dagotçan gauçez

B167 Galde. Bekatu venialac certçaz barkatcen dira? Ihar. Hamar gaucez

Orobat, azpiko adibideak bitara interpreta daitezke. Arkaismotzat har ditzakegu, baina baita erdal ereduaren eraginpeko adibidetzat ere:

B80-81 eman diaçaçula garacia eta fabore

A111-112 cortesia handirequin minçatu behar faboratu behar ditugula, ahal duguigun lekuraiño³¹⁵

B112 pena handirequin haci baicaituzte

B324 Cer naiz? Lur

B352 amoriozco misterio haur amoriorequin errecibi deçaçuedan beçala

Ezezko polaritatea duten perpaus batzuetan ere mugagabea agertzen da:

B94 ceren ezpaitçuen egundaiño içan bekaturic, ez eta bekaturen cutsuric ere

B124 eztugu haren emazteren eta ez onen ere guticia gaixtoric içanen

B159 Halacoac dira bekaturen notharic bere concientiçan sentitcen eztutenac

³¹⁵ B edizioan aldatu egiten da: B112 *handiarequin*.

6.2.6.2. *Forma hurbilak*

Materraren testuan badaude plural hurbilaren aleak (batez ere *guzti* hitzean) adibideok erakusten dutenez:

B16 munduaren azquen finean guztioac piztu beharco dugula
B337 Guero, guztioac elkarrequin, erraçue Salve Regina latinez

Hain zuzen ere, aurretik erakusleren bat dagoenean, plural hurbilak esanahi erreferentziala du. Materrarenean lehen graduako erakusleekin agertzen da plural hurbila:

B215 nola pena hauc guztioac pairatu dituen becatoreen salbatcea gatic
B279 Nondic ethorri çaiçquit niri pietatezco obra hauc guztioac, çure amoriotic baicen?

Bigarren graduako adibiderik ez dugu konparagarri, baina hirugarren graduan ez dugu plural hurbilitik, espero bezala: B76 *oracino hartan edireiten dira gauça hec guztiaç laburzqui* esaldikoa.

Hona hemen aposizioan ageri diren beste plural hurbil batzuk. Lehen adibideak hizlaria barne hartzen du eta bigarrenak, aldiz, ez:

B3 eguiçu othoitz gu bekatoreoc gatic³¹⁶
B327 çuec, itsasoan çabiltçaten marineloc

Bestalde, forma hurbilek hurbiltasun kronologikoa ere adieraz dezakete, xvii. mendeko nahiz lehenagoko beste testu batzuetan bezalaxe (Pikabea 1993: 262):

A66 Erran duçu aitcineon
B90 beguira gaitçala orai presenteon sentitcen ditugun gaitz guztietaric

Azkenik, esan dezagun, Axularrek ez bezala, Materrak ez zuela mugatzaile hurbil singularrik baliatu, ezta *haur guztior* bezalako egiturarik ere: B87 *hura guztia* baizik ez dugu aurkitu, eta ez dago *haur guztia* edo *hori guztia* legezkorik.

6.2.6.3. *Bizidun/bizigabe bereizketa*

Leku-denborazko kasu bizidunetan eta elkarkarian erreferente biziduna markatzeko bi elementu baliatu zituen Materrak: *baithan* eta *-gan-*. Lehenengoa inesiboan agertzen da, eta bigarrena gainerako kasuetan:

B143 sinhesten dugu Iaincoa baithan
B209 Maria virgina ganic sorthu eta gurutçean ene gatic hil çarena

XVII. mendeko lapurtar guztiek dute *bait(h)an* inesiboan; bestalde, Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek badituzte *bait(h)ara* batzuk, eta *bait(h)arik* ere badago Etxeberri Ziburukoaren eta Haranbururen testuetan.

³¹⁶ Badago antzekoa datekeen adibide bat: A77 *gu guiristinoc* → B78 *gu guiristinoac* bihurtu da. Hori izan liteke <o>-z amaitutako formen plural hurbila. Errata bada, *guiristinooc* edo, B-n egin den bezala, *guiristinoac* zuzendu beharko genuke.

Esandakoak esanda, aitortzekoa da bizidun/bizigabe bereizketa ez dela beti nahi genukeen bezain argia; izan ere, bizigabe markatutako entitate bizidunak daude,³¹⁷ hala nola B27 *emaztetaric apart egoitea*, B43 *Sinhesten dut Iainco aita bothere guztia duena baithan, ceruaren eta lurraren eguilean* edo B107 *eguiten dute ahal daguiten gaizqui guztia, guztiz ere haurretan eta lurreco fruituetan* esaldietan.³¹⁸

Adibide horietan bigarrena arkaismoa izan daiteke, *Credotik* hartutako pasartea izanik; alabaina, B edizioan aldatu dago: B3 *Sinhesten dut Iainco aita bothere guztia duena*.³¹⁹

Beste alde batetik, aurkako adibideak (bizigabeak bizidun balira bezala markatutakoak) askoz ugariagoak dira, baina adibide bakarra aurkitu dugu *-gan-* elementuarekin (hots, inesiboaz kanpo). Beharbada izaki animatuz osatutako zerrenda batean agertzeak analogiaz ekarri du *ura* animatua balitz bezala markatzea:

B247-248 ontasunean fidaturic heldu naiz; eria midicua gana, probea aberatsa gana, escalea emaillea gana, biluça bestitçailea gana, liçuna ura gana eta itsua arguitçailla gana beçala

Gainerako kasu guztiek *baithan* dute tarteko:

A84 Oracino hunec bere baithan cer eduquitcen du?

B86-87 ceren oracino hunec eduquitcen du bere baithan laburzqui cer ere galdeguin ahal baitiaçayogu Iaincoari

B119 imagina hec çurez edo harriz eguinac direla, eta hec berec ez tutelera bere baithan verthuteric

B189 passione dolozco harc misterio añhitz baitaduca bere baithan

Adibideok aztertuta, ohartu gara guztiak daudela *izan* edo *eduki* aditzei lotuta, eta gehienek ‘zerbaiten barnean eduki’ edo ‘gorde’ esanahia dutela. Ematen du, horrenbestez, *baithan* horrek ez duela benetan izaki animatu baten forma inesiboa adierazten (edo ez hori bakarrik), ezpada berezko ezaugarri bat.

Mugimendu-aditzarekin, izaki animatua izanik ere, postposizioa erabili zuen Materrak: B254 *sar çaita ene baithan barrena*. Orobat, ematen du beregain dela ekintza bat abiarazteko gaitasuna duela adierazteko:

B97 Erran nahi du ecen virgina bere baithan laudatcecoa dela, eta are guehiago bere fruitua ere, Iesus

³¹⁷ A6 *erraiten dugunean haurrei haurretic eracutsi behar çaiela ongui* esaldia dela eta, gaude ez dugula pentsatu behar bizigabe deklinatu denik; izan ere, testuinguru horretan, *haurretic* ‘haurtzarotik’-en baliokidetzat dugu.

³¹⁸ Azken adibide honetan bi izan daitezke bizigabea agertzeko arrazoiak: batetik, *lurreco fruituetan* formaren hurbiltasunak eragin izana; bestalde, haur horiek ez izatea haur zehatz eta jakin batzuk.

³¹⁹ Har bedi kontuan inesibo mugagabe eta pluralean kausitzen direla bizigabe gisa deklinatutako izen bizidun gehienak (begiratu Creissels & Mounole 2011: 177-178). Materrak badu halakorik, baina bestelakorik ere bai.

6.2.6.4. *Genitiboa leku-denborazko kasu bizidunetan, motibatiboan eta elkarkarian*

Leku-denborazko kasu bizidunek eta motibatiboak genitiboa eskatzen diete pertsona-izenordain eta galdetzaileei. Horren salbuespen bakarra iharturik dagokeen *certgatic* da:

- B5 Çure gana gaude oihuz Evaren seme desterratuoc
- B75 Noren baithan
- B186 ene baithan
- B209 gurutçean ene gatic hil çarena

Hirugarren graduko erakusleen edo artikuluaeren bidez mugatutako izen-sintagmekin edo mugagabeekin absolutiboa baliatu zuen Materrak. Hirugarren graduko erakuslea izenordaina denean, aldiz, forma genitiboduna dugu leku-denborazko kasuetan. Motibatiboan *hargatic* izenordaina dugu, iharturik hain segur.

- A43 Sinhesten dut Iainco aita bothere guztia duena baithan
- B[xv] ez naiz ni hargatic bekaiztuco
- B56 gure iauna baithan
- B97 Erran nahi du ecen virgina bere baithan laudatcecoa dela
- B143 Iainco hura bera baithan
- B259 Ez bata gatic, eta ez bertcea gatic

Pluralean oso forma gutxi lekukotzen dira *bere baithanez* gain, eta gogoan izan behar da azken hori singular ere izan daitekeela. Pertsona-izenordain adlatibo bat dugu genitiboan, eta gainerako adibideak motibatiboan daude. Horiek horrela, corpusa txikiegia da baieztapen irmoak egin ahal izateko, baina ematen du, motibatiboaren jokaera ikusita, hirugarren graduko erakuslea izenordain denean genitiboa dugula, eta izen-sintagma artikuluduna denean absolutiboa dagoela; nolana ere den, lehenengo adibideak agertzen duenez, bada salbuespenik ere:

- B21 Bicien gatic, hilen gatic eta gaizqui eguiten deracutenac gatic othoitz eguita
- B199 eta hequen gatic merci ditudan gatziguetic ere nahi nauçun, halaber, libratu
- B245 ceure passione sainduaren mercedmenduc gatic
- B299 heldu gara çuen gana fabore escatcera

Erabilera horiei dagokienez, beste egile batzuen ohiturak ere begiratu ditugu; zehazki, leku-denborazko kasuak eta motibatiboa arakatu ditugu, singular eta pluralean, artikuluaekin, izenordain erakusleekin eta determinatzaile erakusleekin absolutiboa (A) edo genitiboa (G) darabilten argitzeko. Datuak 13. taulan bildu ditugu, eta argi ikusten da Materraren sistemarekin erabat bat egiten duen testurik ez dagoen arren, Axularren *Gero* dela, forma eta txandaketetan aberatsagoa izanik ere, hurbilen dagoena.

Elkarkariak beti eskatzen du absolutiboa; cf. B327 *bil çaitetzte elkar gana*.

13. taula

Absolutiboa eta genitiboa leku-denborazko postposizio bizidunetan eta motibatiboan, autoreka

	<i>Baitban</i>						<i>-gana</i>						<i>-ganik</i>						<i>-gatik</i>						
	Art.		Det. erak.		Izord. erak.		Art.		Det. erak.		Izord. erak.		Art.		Det. erak.		Izord. erak.		Art.		Det. erak.		Izord. erak.		
	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.	Pl.	Sg.
M	A	—	—	—	G	—	A	—	—	—	—	—	A	—	—	—	G	—	A	A	A	—	—	G	
Ax	A	—	—	—	G	—	A	—	G	—	G	G	A	—	G	—	G	—	A	A	A/G	G	G/A	G	
H	A	A	—	—	G	—	A	A/G	G	—	A	—	A	—	—	—	—	—	A	A	A	—	A	A	
V	A	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	A/G	—	—	—	—	—	A	—	—	—	—	—	
EtX	A/G	—	—	—	G	—	A/G	A	—	—	G	—	A/G	—	—	—	—	—	A/G	G/A	—	—	G	—	

6.2.6.5. *Zenbait kasu-markaren formez*

a) Ergatiboa

Euskararen isoglosa zaharrarekin bat etorritz, Materraren testuan bereizi egiten dira ergatibo singularra eta plurala; zehazki, *-ek* du azken horrek:

B35 onec eta iustuec fin gabe goçatuco duten loria
B44 espiritu gaixtoac tentatcen gaituen guztietan

b) Datiboa

Datibo pluraleko atzizkia *-ei* da sistematikoki, lapurtar klasikoen testuetan bezala, nahiz eta xvii. mendeko Gazteluzar lapurtarrak *-er* duen (Pikabea 1993: 45 eta hh.). Honatx Materraren adibide bat:

B30-31 Cerbitçaríey eta languiley bere soldataren eta iornalaren goratcea

c) Genitiboa

Genitiboak ez du berezitasun morfologikorik, baina, erabilerari dagokionez, aipatzekoa da distantziak, kopuruak eta iraupenak markatzeko erabiltzen dela:

B268 berrogoy egunen eta hain bertce gauen bidea eguinic

d) Soziatiboa

-kin da soziatiboaren marka bakarra: B308 *bihotceco urriquimenduarequin Iaincoari gueure becatuez barcamendu escatcea*.

Horiek horrela, izen arruntekin ez bezala, erreferentziakide bizigabeak dituzte-nean, gaitza da izenordainekin forma soziatiboak aurkitzea; instrumentalean agertu ohi dira. Salbuespen hau besterik ez dugu aurkitu:

B274 Eta hala, esperança hunequin eguiten derautçut othoitz

e) Instrumentala

Oro har, *-z* baliatu zuen Materrak izen arruntekin, eta *-tzaz* izenordain eta erakusleekin:

B121 Caritateaz eta amorioaz

B239 Ezagutcen dut ecen penitenciazco sagaramendu hunetçaz bethe nauçula ontasunez

Hala ere, behin B337 *hautaz* dago eta ez dago *hautçaz* formarik konparagarri, hutsa den ala ez jakiteko. Aitzitik, 1650 arte Materrarena da agerrera bakarra; beste egile guztiek *hautzaz* dute.

f) Ablatiboa

Singularreko atzizkia *-tik* da, eta pluralekoa eta mugagabekoa *-(e)tarik*. Bestalde, leku-genitiboaren marka hartzen duenean, *-tikako* ageri da, *-tika* zaharragoaren arrasto izan daitekeena:

B190 Ierusalemeco carriquetaric gurutçea soifnean çuela iragan cenean

B224 Ni naiz seme gazte desordenatu çure etçetic ilqui cen hura

B233-234 argui eçaçu, bada othoy, ene espiritua eta memoria ceruticaco arguiaz

Gainera, *-tik* morfemak prosekutiboaren balioa ere izan dezake: B79 *barraya dila icen hura fama handiarequin mundu guztitic*.

g) Adlatiboa

Adlatiboaren atzizkia herskaririk gabe ageri da gehienetan, baina [*norbaiten alderat egin*] egiturak forma herskariduna dakar sistematikoki. Hain zuzen ere, egitura gehienak eredu horren arabera eraikiak dira (B232 *eguiçu, bada, ene alderat*), eta hiru salbuespen besterik ez ditugu aurkitu horietatik kanpo:

A111 eta aitcinerat erortçetic beguira gaitçala

B323 etcin çaitte oherat Iaincoaren benedicionearequin batean

B324 Norat noha? Lurrera

h) Destinatiboa eta helburua

Materraren euskaran *-rentzat* aldaera da nagusi, baina ez du sekula afrikatua ematen genitiboaren ozenaren ondoren; *-tzat* morfema, ordea, genitiborik gabea, behin dago lekukoturik ozen ondoren funtzio prolatiboan, eta hor afrikatua dugu.

B73 onençat ontassunez eta dohainez bethea

B119 Iesu Christo gure iaunac confirmatu eta ontçat eduqui ditu legue berrian

-rentzaten funtzioa destinatiboa da beti, xvii. mendetik aurrera Lapurdiko auto-reengan gertatuko denaren kontra (Pikabea 1993: 153 eta hh.). Salbuespen bakar bat dago:

B289 esca çaquitça ceure semeari ene partez ene becatuen barcamenduarençat

Pikabeak (1993: 156 eta hh.) erakusten duenez, erdarazko *pour* preposizioaren ordeztasunaz *-rentzat* sartu da emeki lapurteraz hainbat egituratan. Gure adibidearen egitura zuzenean aipatzen ez badu ere, antzekoa den [*-rentzat othoitz egin*] aztertzen du: dagoeneko xvii. mendean *Pouvreauk* edo *Etxeberri Ziburukoak* badakarten arren, xviii. gizaldian hedatu zen.

Orobat, *-tzat* leku-genitiboari atxikirik ere ager daiteke (*-kotzat*), are adlatiboarekin ere (*-rakotzat*). Esate baterako, *alde* hitzarekin ia sistematikoki agertzen da, baliio destinatiboz, eta kausa ere adieraz dezake *hartarakotzat* ihartuan. Kasu horietatik kanpo, *arima* hitzarekin behin aurkitu dugu.

Beste alde batetik, helburua adierazteko *-ko* ere ikus dezakegu, are mugagabearen ere (*-tako*):

B45 Iesu Christo gure iaunac arimaren salbamenduco eracutsi derauzquigun gauçen declaracino bat

B50 Cer finetaco creatu içan da guiçona

Azkenik, denbora zentzuan, *-koz* instrumentaldun bat ere badugu:

B10 gorputz saindua Bazco garizumacoz errecibi deçagula

i) Muga-adlatiboa

Materraren testuan *-raño* da muga-adlatiboaren marka, salbuespen bakar batekin: *arte* hitzak A126 *artiño* du, gerora B11 *arteño* aldatua. Gainerako bi lekukotasuntan, 1623ko testuak *arteño* dakar. Ez dugu pareko adibiderik aurkitu Materraren lapurtar garaikideetan:

A126 Bazco çahar artiño ezteiric ez eguitea

B11 Bazco çahar arteño ezteyric ez eguitea

Materrarenean *arteraiño* bat ere badago (B135), baina denbora-esanahia duen egitura batean: gaur egun *anarteraino* dugu horren partez gramatikalizaturik.

6.2.6.6. Postposizioak

Jarraian datorren taulan bildu ditugu postposizioak. Ondoren, interesgarrienak iruzkindu ditugu.

14. taula

Testuan agertzen diren postposizioak

Postposizioa	Erregimena	Adibideak
AITZIN (<i>-can, -era, -eko</i>)	Genitiboa	B30 Iaincoaren aitcinean
AITZINA	Ablatiboa	B244 hemendic aitçina
ALDE	Genitiboa	B32 Gaizqui eguilearen alde
ALDEAN	Genitiboa	B181 ohearen aldean

Postposizioa	Erregimena	Adibideak
ALDERA(T)	Genitiboa	B119 guiristino lagunaren alderacoçat, B119 Iaincoaren alderatcoa B241 parabisuco aldera
ALDETIK	Genitiboa	B97 bere aldetic denaz beçanbatean
ARAUERA	Genitiboa	B37 haren arauera
ARUAZ	Genitiboa	B63 bere obren aruaz
ARTEAN	Genitiboa	B[xxiv] benedicatua çara emazteen artean, B3-4 batçuen artean
	Adverbio-sintagma [+Denbora]	B183 orai artean
ARTE(RA)IÑO	IS soila	B11 Bazco çahar arteño, A126 Bazco çahar artiño
	Adverbio-sintagma [+Denbora]	B135 han arteraiño, B238 orai arteiño
	[... -(e)n]	B257 placer duqueçun arteiño
ARTETIK	Genitiboa	B4 hilen artetic
AZPIAN	Genitiboa	B4 manuaren azpian
BAITHAN	Absolutiboa	B3 ceruaren eta lurraren eguilea baithan
	Genitiboa	B46 bere baithan
BARRENA	Inesiboa	B173 bekatutan barrena sartcea
BARRENEAN	Genitiboa	B189 hain dembora appurraren barrenean
BATEAN	Soziatiboa	B48 Eliçaco sagaramendu sainduequin batean
BEGIRA	Genitiboa	B14 haren ethortcearen beguira
BEHAR BIDEAN	Partizipioa	B32 Gaizqui eguiten duela avisatu behar bidean, igilic egoitea
BEHERA	Ablatiboa	B153-154 gaiñetic behera
BERTZETAN	Instrumentala	B23 ordu premiazcoz bertcetan
BIDEZ	Genitiboa	B51 ceiñen bidez
BURUAN	Genitiboa	B61-62 eguinic bere apostoluequin berroquei egun, ikan cela hequen buruan bera bere botherez ceruric gorenera
ERDI	Genitiboa	B333 itsasoaren erditic
ESKE	Izen-sintagma soila (mugagabea)	B30 mendecu esque
	Genitiboa (mugatua)	B237 neure becatuen barcamenduaren esque, 316 neure becatuen barcamendu esque

Postposizioa	Erregimena	Adibideak
ESKER	Datiboa	B37 Iaincoari esquer
ESKU	Genitiboa	B272 ceure escutic eduquico nauçula, 322 Çure escuetan eçarten eta gomendatcen dut, iauna, neure arima
FABORETAN	Genitiboa	B132 hilen eta bicien faboretan
GABE	Izen-sintagma soila	B[i] declaracino gabe
	Partizipioa	B[x] emplegatu gabe
	Partitiboa	B29 obra onic gabe
GABEZ	Partizipioa	B136 orhoitu gabez, iaquin gabez
GAIN (-ean, -era, -etik...)	Genitiboa	B7 gauça guztien gaiñetic
		B10 Bortz manamendu hauquen gaiñera
GERO	Partizipioa + instrumentala	B14 erdiz guero
GEROZ	[... -(e)naz]	B[ix] eman derautanaz gueroz
	Partizipioa + instrumentala	B207 gurutcean hilez gueroz
GEROZTIK	Instrumentala	B54 egundaiñoz gueroztic
	[... -(e)naz]	B77 gure aita denaz gueroztic
GIBEL	Genitiboa	B229 çure guibelean
GORA	Ablatiboa	B253 azpitic gora
	Inesiboa	B190 airean gora
INGURU (-an)	Genitiboa	B293 Ene inguruan
KANPOAN	Instrumentala	B8 ezcontçaz campoan
	Ablatiboa	B147 ezconçatic campoan
KALTETAN	Genitiboa	B254 ene caltetan
KONTRA	Genitiboa	B27 Avariciaren contra
LEKHORA	Instrumentala	B92 Iaincoaz lekora
ONDO (-an)	Genitiboa	B6 desterru hunen ondoan
	Partizipioa	B238 Cofessatu ondoan
PARTEZ	Genitiboa	B215 hequen partez
USTEZ	Genitiboa	B314 ene ustez

a) *Aitzin*

Ezkerrean ablatibo markadun sintagma bat duenean (esaterako, B244 *hemendic aitcina* eta B308 *handic aitcina*), *aitzina* ageri da beti, eta adlatiboko *-a* zaharra fosil-

durik geratu dela dirudi. Aurkitutako adibide guztietan denbora-adierarekin baliatu zuen Materrak; beraz, ez dakigu lekuari dagozkionetan norabidea adierazteko forma bera baliatuko zuenetz.

Beste alde batetik, [genitiboa + *aitzin*] egituran *aitziner*a erabili zuen adlatiboan, adibideok erakusten dutenez:

B183 çure maiestate handiaren aitcinera
B329 çure maiestate sainduaren aitcinera

Azken kasu horretan, 'aitzineko alde' (lekua) adierazten da. Axularrek ere banaketa bera du (*-tik aitzina(t)* vs *-ren aitzinera*), nahiz eta postposizio-sintagma horietatik kanpo bi aldaerak (*aitzina(t)* & *aitziner(a)(t)*) agertu.

b) *Alderat*

Blanca Urgellek (2015a) *Geroren* edizioan aipatzen duenaren arabera, badira aldeak 1643ko ediziotik *Geroko geroren* ediziora. Hain zuzen ere, bigarren edizio haren arduradunetako bat Axularrek beste hizkera batekoa eta, batez ere, beranduagokoa dela uste du gasteiztarrek, eta lehenengo ediziotik hurrengora aldatutakoen artean *alderakotzat* > *alderatkozat* aipatzen du:

Alderakotzat bera ez da Materre eta Axularrek bestetan lekukotzen (OEH, s.v. *alde*); grafia etimologikoa da, noski, edo «morfologiko-analogikoa», Mujikaren terminologiaren arabera (2002: 264); hots, zalantzarik gabe *alderaren* ordez *alderat* esaten ohitua zegoen hitzuna behar du izan; testuetan behintzat [genit. + *alderat*] egitura ez da Larregi eta Monho arte lekukotzen. (Urgell 2015a: xvii)

Ikus daitekeenez, Materrak *alderakotzat* du, baina *alderatkoa* ere badago. Nolanahi ere den, deklinabideaz aritzean aipatu dugunez, [*norbaiten alderat egin*] egituran forma herskariduna besterik ez dago.

c) *-en arauaz/-en arauera*

Bi aldaera horietan bigarrena arrunta bide zen lapurtar klasikoen artean; besteak beste, Etxeberri Ziburukoaren zein Pouvreuren obretan ageri da, bai eta Etxeberri Sarakoarenetan ere (OEH, s.v. *arabera*). Axularrek, aldiz, *arauaz* besterik ez zuen erabili.

d) *Artean/arte(ra)ino*

Axularren lanaren lehenengo edizioan, *artean* postposizioak inoiz ez du denborabaliarik, *anartean* gramatikalizatuan ez bada. *Geroko geron*, aitzitik, «ediren çaitçan artean» 'edireiten zaituenean' dago (*apud* Urgell 2005a: 360, 119-36 oharra). Materrak, bere aldetik, *orai artean* baliatu zuen.

e) *Barrena/barreanean*

Pikabeak (1993: 229) zioenetz, *-n barrena* egitura erabili zuten Materrak, Pouvreauk, Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek lekuari loturiko adierarekin, eta *-(r)en barreanean* denborari loturikoan. Materraren liburuan *-(r)en barreanean* egituraren adi-

bide bakarra dago: B60 *Eta hain denbora apurraren barrenean*. Aitzitik, *-n barrena* lau aldiz baliatu zuen, guztietan ere lekuari loturiko esanahiaz:

- B60 thomban barrena ceţcan
- B173 bekatutan barrena sartcea
- B200 arance puntac heçurrean barrena sarthuric
- B254 sar çaita ene baithan barrena

f) *-en gainera*

Materrak *-en gainera* besterik ez duen arren (B10 Bortz *manamendu hauquen gainera baditu Eliçac bi debecu*), forma ez da bakar beste lapurtar batzuetan; Axularrek *-en gainera* eta *-z gainera* baliatu zituen, esaterako: *bere leheneko erhokeriaren gainera bertze bat, are handiagoa, egiten zuela; are mundu hunetan ere, bertze mundukoaz gainera* (apud Urgell 2015a: 162 eta 243, hurrenez hurren).

g) *-tik/-z kanpoan*

Postposizioa bera beti agertzen da inesiboan lapurtar klasikoen testuetan, hala nola Pouvrearen eta Axularren lanetan (Pikabea 1993: 234), baina aurreko izen-sintagmak ablatiboa zein instrumentalala izan dezake, Materraren testuak berak erakusten duenez: B8 *ezconçaz campoan*; B147 *ezconçatic campoan*.

6.3. Hitz eratorriak

Oyharçabalek (1996) zehatz aztertu zituen Materrak erabilitako hitz eratorriak; beraz, atal hau osatzeko, lan hura hartuko dugu oinarri. Zehazki, taula batean bildu ditugu Materrak erabilitako hitz eratorriak, Oyharçabalek aipatu gabeko gutxi batzuk eta 1617ko edizioan baizik lekukotzen ez direnak gehituta. Hitz eratorriak bestelakoe-tatik bereizteko, Oyharçabalek berak baliatutako irizpideak erabili ditugu. Beste alde batetik, oso interesgarri zaigu Urgellek (2015b: 655 eta hh.) orain gutxi argitaratutako lana, aztergai izan duena Leizarragak Materraren hitz eratorrietan izandako eragina.

15. taula

Materraren testuko hitz eratorriak

<i>-an(t)za</i>	B264 alegriança
<i>-ari₁</i>	B[ix] cerbitçari, B78 gobernari, B159 urricari, B282 guidaria
<i>-ari₂</i>	B277 edaria
<i>-dun</i>	B[viii] euscaldunei, B2 çordun
<i>-dura</i>	A4 aztura, B17 oliadura, B34 herstura, B44 icialdurac, B162 nothadura
<i>-duri</i>	A4 axolduri, B216 hobenduriac
<i>-garri</i>	B163 hilgarria, B252 nardagarrian, B260 miretsгарrizco
<i>-gile</i>	B30 languiley

<i>-ka</i>	B114 bessarcac, B142 banaca
<i>-(k)eria</i>	B18 falseriaric, B218 gaixtaqueriac
<i>-(k)eta</i>	B297 gogoeta
<i>-ki₁</i>	A5 prestuqui, B[xii] laburzqui, B[xiii] ongui, B[xv] hobequiago, B[xxv] beregainqui, B[xxv] bereciqui, B[xxv] gaizquiago, B1 sainduqui, B7 vanoqui, B10 ossoqui, B21 pacientqui, B38 principalqui, B66 comunzqui, B74 eguiazqui, B95 abantailatuquiago, B114 desonhesqui, B116 falsoqui, B122 geheroqui, B130 errealqui, B133 bidezqui, B135 debotqui, B157 libroqui, B164 errazqui, B183 humilqui, B190 borthitzqui, B194 atentoqui, B196 pausatuqui, B218 segurqui, B224 ahalquegabequi, B226 laxoqui, B226 ansicabequi, B228 emequi, B228 amoriozqui, B234 librequi, B234 clarqui, B236 finqui, B237 fermuqui, B243 espiritualqui, B256 aguertuqui, B260 dignequi, B261 complituqui, B267 generalqui
<i>-ki₂</i>	B64 ethorquia, B256 estalquiric, B265 iaquia
<i>-(k)izun</i>	B90 ethorquiçuneco, B164 barkaquiçuna
<i>-(kh)oi</i>	B26 emakhoitasuna
<i>-kuntza</i>	B[xiii] hitzcuntça, B[ix] hitzcunça
<i>-le</i>	B[xii] eracusleric, B[xvi] partale, B3 eguilea, B183 emaillea, B194 erraillea, B248 escalea, B292 beguiraleari, B293 beguiraillea
<i>-mendu</i>	B[xi] salbamenduco, B2 tentamendutan, B5 barkamendua, B6 urricalmendutsua, B7 manamenduac, B17 sagaramenduac, B23 adimendua, B48 errepartimendu, B115 enganamenduric, B133 urriquimendua, B149 merecimendu, B165 consentimendu, B184 pensamenduac, B184 sentimenduac, B207 contentamendu, B210 pagamendutan, B222 mereximenduez, B232 sacramendua, B244 desiramendu, B245 deliberamendu, B261 testamenduac, B264 consolamendua, B282 guidamendua, B284 complimendua
<i>-os</i>	B153 guthicios
<i>-pen</i>	B6 hatsbeherapenez, B132 orhoitçapenetan, B231 erospenez,
<i>-ro</i>	B122 geheroqui
<i>-sun</i>	B54 iaquinsuna
<i>-(t)asun</i>	A4 haurtasuneco, A5 prestutasunaz, A7 ipizpicutasun, B5 partaletasuna, B5 eztitasuna, B9 onhasunari, B15 battasun, B18 borthitztasuna, B19 probetasuna, B23 iaquintasuna, B24 beldurtasuna, B24 dohatsutassunac, B26 urguillutasuna, B26 emakhoitasuna, B26 sabeldarrayotasuna, B26 hasserretassuna, B27 naguitasuna, B27 humiltasuna, B27 liberaltasuna, B29 ontassun, B39 iaincotassun, B67 saindutassuna, B67 generaltasuna, B68 partaletassun, B71 guiristinotassun, B96 Amatassuna, B96 virginatassunarequin, B128 fermutassun, B135 adisquidetasunean, B136 ossasuna, B142 borthitztasuna, B149 guiristinotasuneco, B155 dohatsutasunen, B156 handirasunac, B160 etsaitasunac, B169 aberasttasunen, B170 hasserretasuna, B171 hiltasun, B173 flacotasunezco, B186 beldurtassuneco, B186 arartecotassunaz, B197 baliotasuna, B206 pisutasunaz, B216 Gathibutasunetic, B219 indignetasuna, B226 emetasuna, B226 esquergabetasuna, B234 itsusitasuna, B234 handitasuna, B248 hutstasuna, B248 biluzgorritasuna, B248 liçuntasuna, B248 itsutasuna, B248 garbitasuna, B254 epeltasuna, B255 gaxotasunari, B258 goratasuna, B261 eritasunac, B262 iaincotasuna, B282 berotasuna, B282 pausatassuna, B283 ilhuntasunac, B283 hotztasuna, B291 saindutassunaren

-ti	B323 eguiati
-t(t)ol/-txo	A8 liburuko, AM19 liburuto, B[xii] liburutto
-to	35 gaixtoac
-tsu	A4 arduratsu, B6 urricalmendutsua, B53 botheretsua, B159 dohatsu, B250 egartsu
-tza	A33othuruntçaren, B[ix] ezagutça, B17 ezcontça, B132 orhoitçapenetan
-tzaile	A106 presentatçaille, A68 atheratçaillea, B0 imprimaçaillearenean, B[xxiv] Iracurçailleari, B2 salbatçaillea, B13 creatçaillea, B13 lorificatçaillea, B68 eduquitçaillea, B105 iratçarçaille, B105 orhoitçaille, B105 representatçaille, B213 sacrificatçaille, B248 bestitçaillea, B251 maitaçaille, B278 arintçaillea, B278 barcatçaillea, B281 arguitçaillea, B281 consolatçaillea, B282 iracatsaillea, B282 sendatçaillea, B282 garbitçaillea, B293 faboratçaillea, B293 inspiratçaillea
-tze	B30 heriotcea
-zale	B[xvi] examinaçaleen, B2 imprimaçalearenean, B115 nekaçaleen
-zarre	B65 biltçarre
-(t)zia	B[viii] ausartciaren, B23 çuhurçia, B154 çuhurtçiaz, B197 tristecia

6.3.1. Hitz eratorri mailegatuez

Oyharçabalek kanpo utzi zituen arren eta zailtasunak zailtasun, atal honetan hitz eratorri mailegatuak ere aintzat hartu ditugu, [oinarri mailegatua + euskal atzizkia] zein [euskal oinarria + atzizki mailegatua] egituraren arabera eratuak izan.

6.3.1.1. -an(t)za

-an(t)za atzizkiari dagokionez, esate baterako, B46 *esperança* eta B247 *segurança* gaztelaniaz ere aurki daitezkeenez, Oyharçabalek (1996: 43) dioenaren arabera osorik mailegatu bide ziren hitzak; hain zuzen ere, B264 *Alegriança* aipatzen du euskararen inguruko erromantzeetan agertzen ez den salbuespen bakartzat. Guri geuri zalantzak eragiten dizkigu hitz hori euskaraz eratu den erabaki beharrak. Horiez gain, B137 *ordenançen* eta A4 *usantça* ere badaude.

6.3.1.2. -os

-os atzizkidunen artean, Oyharçabalek B153 *guthicios* besterik ez du aintzat hartzen. Beste hitz hauek ere badaude Materrarenean: B[xv] *imbidios*, B85 *victorios*, B105 *supersticiosec*, B143 *misericordios*, B173 *perilosenac* eta B217 *baliossena*.

6.3.1.3. Atzizki batzuen aldaerez

Inoiz, atzizki beraren aldaerak agertzen dira, hitza mailegatua ala euskal ondarekoa izan; esate baterako, *-mentu* & *-mendu* (B[xx] *barcamendu*, B109 *iuramenturic*) eta *-tura* & *-dura* (B78 *creatura*, B162 *nothadura*) aldaerekin ezin hobeto ikusten da.

6.3.1.4. *-ione*

Erromantzez *-ion(e)* amaiera duten hitzak ere bildu ditugu, nahiz eta osoki mailegatuak izan, alderdi formala interesgarri zaigulako. Materraren testuetan *-ino* & *-ione* daude (16. taula). B-n lehenengoaren hemeretzi adibide daude, eta bigarrenaren hamahiru; gainera, hiru hitz hauek bi aldaerak dituzte: *benedicino* & *benedicione*, *intencino* & *intencione*, *satisfacino* & *satisfacione*.

16. taula

-ino eta *-ione* atzizkiak Materraren testuan

<i>-ino</i>	A17 aprobacinoa, B36 declaracinoa, B38 incarnacinoa, B43 okasinoetan, B43 oracino, B91 salutacinoa, B128 confirmacinoa, B133 condicinoequin, B133 cofessinoa, B133 satisfacinoa, B150 obligacinozcoac, B166 debocinoa, B168 benedicinoaz, B203 tribulacinoetan, B212 intencinoarequin, B227 ocasino, B231 creacinoz, B232 comparacinoeric, B294 inspiracino, B313 inclinacino
<i>-ione</i>	AO21 attestacione, B0 impressionean, B97 passione, B116 maradicioneric, B146 perfeccioneco, B160 persecucionean, B185 intencionean, B196 atencionean, B209 redemcioneco, B215 satisfacione, B239 iustificacioneco, B254 imperfeccionean, B262 benedicionez, B315 contricioneco

Mitxelenaren ([1961] 2011: 122) arabera, *-ione* ohiko aldaera da Euskal Herriaren ekialdean, baina Axularrek *-ino* zuela aipatu zuen errenteriarrak (*debocino*, *oracino...*).³²⁰ Etxeberri Ziburukoak, berriz, *devotione* du. *EKCn debozio* eta *orazio* hitzen aldaerak bilatuta, argi ikusten da xvii. mendeko lehen erditik bigarrenera lapurtar idazleen artean nabarmen murriztu zela *-ino* aldaeraren erabilera (17. taula).

17. taula

-ino eta *-ione* xvii. mendeko lapur teraz

	xvii ^{1/2}	xvii ^{2/2}
debozino	74	5
deboziona	47	376
orazino	70	7
oraziona	10	127

³²⁰ Hegoaldeko goi-nafarreran ere *-io* & *-ione* aldaerak daude, eta, Mitxelenak dioenez, *-io* amaiera duten hitzek osatzen dute multzo handiena. Errenteriarraren ustez, horiek lirateke mailegu zaharrenak (Mitxelena [1961] 2011: 48). Azalpen horrek balio dezake, beharbada, lapurtar klasikoetan ageri den polimorfismoa azaltzeko.

XVII. mendearen lehen erdiko idazleen artean, Etxeberri Ziburukoak besterik ez zituen erabili *debozione* eta *orazione* aldaerak: Materrak, Haranburuk eta Axularrek *-ino* aldaeradunak dituzte. Halere, datuak xeheago aztertuta, Axularren *Geron*, Materraren lanetan bezala, bi aldaerak aurki ditzakegu, eta kopuruak ere antzekoak dira: *-inoren* eta *-ioneren* hamalauna adibide aurkitu ditugu.

6.3.2. Atzizki ihartuez

Aurreko taulan Materrak baliatutako hitz eratorri guztiak bildu ditugun arren, hau da, hitzaren eraketan oinarri eta atzizki batez osaturiko guztiak, atzizki horietako batzuk jada ez ziren emankorrak Materraren garaian; ez zituzten hitz eratorri berriak sortzen. Horrelakoetan sarritan hitzaren osaera ere lausoagoa izaten da hiztunentzat, eta eratorriok hitz bakuntzat jotzen dituzte.

6.3.2.1. *-ari*₂

*-ari*₂ atzizkia jan-edanari lotutako izenetan agertzen da, eta ihartutzat jo dezakegu. Hori dela eta, B277 *edari* hitza besterik ez zuen sartu Oyharçabalek bere zerrendan, eta guk geuk B256 *afari* gehitu dugu.

6.3.2.2. *-ka*

-ka atzizkiarekin B144 *besarac* besterik ez du aipatzen Oyharçabalek, Mitxelearen etimologia-proposamenari (**beso-har-ka*, *apud* Oyharçabal 1996: 46) jarraikiz. Hitz horretan ere atzizkia ihartuta dagoela ematen du, hasieran atzizki adberbiala zatekeena izen gisara lexikalizatu dela. Bestalde, Oyharçabalek ez du B142 *banaca* aipatzen, nahiz eta, gure ustez, *-ka* atzizkia kasu horretan besterik ez den emankor.

6.3.2.3. *-to*

-to atzizkia emankorra da txikigarri gisa, baina ez *gaixtoren* kasuan. Oyharçabalek (1996: 57) dioenez, «iduri luke atzizki berak kontrako balioa hartu zuen»; baina, baliteke, besterik gabe, *-ki*₁ atzizkiak bezala, adberbioaren balioa izatea. Nolanahi ere den, *-to* hori ere ihartutzat jo daiteke, eta hortik *-t(t)ol/-txo* (txikigarria) eta *-to* (ihartua) bereiztea.

6.3.3. Zenbait atzizkiren formaz

Materraren testuan aurkitzen ditugun gainerako eratorpen-atzizkien artean zenbait erabilera eta aldaera aipagarri dira.

6.3.3.1. *Atzizki bikoitzak*

Atzizki eratorle bi edo gehiago konbinatuz hitz berriak era daitezke, eta Materrak baliatutako hitz eratorrien artean ere badira horrela eraturiko gutxi batzuk.

Batzuetan, elkarri erantsitako atzizki horiek kategoria berekoak izan daitezke: Materrak, esaterako, B122 *geheroqui* hitz eratorria darabil, *-ro* + *-ki* atzizki adberbiak adjektibo oinarriari lotuta. B132 *orhoitçapenetan* adibidean *-tza* eta *-pen* atzizkiak gehitzen zaizkio aditzoinari, izena eratzeko.

Beste batzuetan, ordea, kategoria desberdineko atzizkiak konbinatzen dira. B6 *urricalmendutsua* hitzean izen-kategoriako hitz eratorri bati (*urrikal-mendu*) atzizki adjektibal bat erantsi zaio (*-tsu*). Alderantziz, adjektibo kategoriako eratorri bat du oinarri, eta izen bat sortzen du *-(t)asun* atzizkiak: *-(kh)oi* + *-(t)asun*: B26 *emakhoitasuna*.

6.3.3.2. *-ki*₁

*-ki*₁ atzizkia oso emankorra da, izenondo edo partizipioak oinarri hartuta adberbioak sortzeko. Batzuetan, instrumentaleko markarekin batera agertzen da (*-zki*): B[xii] *laburzqui*, B66 *comunzqui*, B74 *bidezqui*, B133 *eguiazqui*... Bestalde, behin ageri da *-ro* atzizkiarekin batera: B122 *geheroqui* 'xeheroki'.

Konparazioetan, *hobequiago* & *hobeago* baliatu zituen Materrak; hots, atzizkiduna eta atzizkirik gabea. Bigarrenak adjektiboaren balioa du, eta lehenengoak adberbioarena; cf. B[xv] *ezquiriba beça bertce euscara hobeago batez eta hobequiago*.

6.3.3.3. *-le*, *-tu*, *-zale* eta *-(t)zail(l)e*

-le atzizkia amaieran *-i* edo *-n* duten aditzekin baliatu zuen Materrak: B3 *eguillea*, B183 *emaillea*; B[xii] *eracusleric*. Berezi dira B[xvi] *partale*, B292 *beguiraleari* (eta B293 *beguiraillea*) eta B248 *partalea*.

-tu partizipioa edo erroan *-i* duten aditzekin, berriz, *-tzaille* da arruntena, nahiz eta salbuespenik ere badagoen; cf. B105 *iratçarçaille* eta B282 *iracatsaillea*. Oyharçabalen arabera (1996: 59), *atzartu* forma lekukotzen da, baina ***irakastu ez*. Nolanahi ere den, Materrak B28 *iratçarri* partizipioa darabil, inoiz *ez atzartu* edo *iratzartu*, ez eta *atzarzaille* modukorik ere. Atzizkiaren aldaerak direla eta, albokari palatalizatua duten formak dira erabat nagusi (cf. § 6.1.2.3); bestalde, <ç> grafemak zalantzak eragiten ditu: § 6.1.2.4.c atalean esan dugunez, ez da beti erraz zehazten ozen ondoko txistukaria igurzkarri ala afrikatu ahoskatu behar den: *iracurçaille* eta *iratçarçaille* ditugu horien lekuko. Ozen ondoren ez, baina bokalarlean egonik, B251 *maitaçaille* ikusita *maitaçaille* eman zuen Oyharçabalek (1996: 59).

-zale behin baliatu zuen Materrak (B115 *nekaçaleen*), baina, kasu horretan, forma hori ez da egilea adierazteko *-tzaille* atzizkiaren pareko. Materraren liburuetan, Axularen baimenean ageri da B[xvi] *examinaçaleen*, eta A edizioan ere *imprimaçalearenean* aldaera testu nagusitik kanpo ageri da: azalean eta Oihararden baimeneko B22 *crea sale ac* eta *iracas sale* formetan.

6.3.3.4. *-sun/-tsu*

Materraren B54 *Iaquinsuna* formako *-sun* arazorik gabe har daiteke adjektiboak sortzeko *-tsu*-ren aldaeratzat; baina, azken horrek izenkiak izan ohi ditu oinarri, eta B54ko adibide horretan partizipioa dago oinarrian.

6.3.3.5. *-(t)asun*

-(t)asun atzizkia da, luzaz, testuko emankorrena edo adibide gehien biltzen dituenena. Bestalde, aldaera bat baino gehiago ere badu, eta baten eta besteen arteko alde semantikoa da (cf. *OEH*, s.v. *handitasun* eta Oyharçabal 1996: 56), honako adibide hauetan ikus daitekeenez:

B156 Halacoac dira munduco onhassunac eta handirasunac Iaincoa gatic uzten dituztenac edo, aberats içanagatic ere, hetan gogoa eçarten eztutenac

B226 Utcı çaitut, ene ontasun guztia çarena, lurreco onhasun ezteusei itchequitcea gatic

B234 neure becatuen itsusitasuna, handitasuna eta pisutasuna eçaguturic

6.3.3.6. *-t(t)ol/-txo*

Grafia-gaiez aritu garenean esan bezala (§ 6.1.2.3), *-t(t)ol/-txo* atzizki txikigarriaren aldaera grafikoak daude A eta B edizioetan: A8 *liburucho*, B[xii] *liburutto*. Miguelenak, bestalde, A19 *liburuto* baliatu zuen.

6.4. Aditzaren morfologia

Atal honetan Materraren liburuaren lehen bi argitalpenetako aditzaren morfologia aztertuko dugu. Bi atal nagusitan banatua dago: lehenik, forma jokatugabeak aurkeztuko ditugu, eta, ondoren, jokatuak. Azken horien barruan, trinko nahiz laguntzaile eta perifrasi nahiz lokuzioen inguruko jakingarriak aurkituko ditu irakurleak, bai eta denbora-modu-aspektuei edota pertsona-numero komunztadurari dagozkionak ere.

6.4.1. Forma jokatugabeak

Materrak ikasi zuen hizkera Sarakoa zela onarturik eta kontuan harturik, ez dugu espero aditz jokatugabeen formari dagokionez berezitasun nabarmenik (aditz-izenaren eta, oro har, forma jokatugabeen ikuspegi diakroniko oso baterako, begiratu Urgell 2006 eta Urgell 2016 lanak). Adibidez, Euskal Herriko erdi-ekialde osoan bezala, Materrak bi atzizki besterik ez du aditz-izenak sortzeko: *-te* zaharra, eta *-tze* berriagoa. Areago, aipatu eremu zabalaren barruan Lapurdi-hegoaldea erdigunean dagoela eta, atzizkion erabilera ere aski ezaguna (ia Euskara Batukoaren berdina) izango dela aurreikus daiteke, testuaren beraren zahartasunaren ondorioz gordetako arkaismo apurak gorabehera. Bestalde, ez da harrizkoa aditzoinak eta partizipioak ongi bereiztea, mendebalerago ere aski ongi gordetzen baitziren artean. Hortaz, atal honetan eredu ezagunenetik aldentzen diren arkaismoak eta berrikuntzak aipatuko ditugu batik bat, eta, beharrezkotzat jotzen dugunean, garai hartako beste egile lapurtar batzuekin alderatuko (forma jokatugabe guztiak hiztegian daude, partizipio-sarriren pean).

6.4.1.1. *Partizipioa*

Aldaki lexikoak alde batera uzten baditugu, partizipioak ez du aldakortasun dialektal handirik. Trask-en (1995) sailkapena zertxobait moldaturik, Materraren adi-

tzak 6 klasetan bana ditzakegu, partizipio-formaren arabera (hemen hiztegiko sarre-
ren moduan emanak):

- i) *-n*: egin, eman, eragin, iakin, ioan, iragan, iraun...
- ii) *-o*: io
- iii) *-i*: ibeni, ehor(t)zi, eritzi, hautsi, iarri, miretsi, utzi...
- iv) *-ki*: iaiki, ideki, ilk(h)i, iguriki...
- v) *-tu*: benzutu, konzebitu, ezagutu, gogortu, hartu, itsutu, khendu, sorthu...
- vi) *-ø*: athera, gorde, hil...

Materraren hizkeraren erdigunekotasunari dagokion moduan, aditz-forma haue-
tan berezitasunik bada, aipatzeke utzi ditugun partizipio analogikoena da, egun batik
bat Nafarroa eta Lapurdi bitartean erabiltzen baitira.

Alde batetik, jatorrian *-n* amaierako aditzak ditugu, Materraren hizkeran kon-
tsonante hori ere galtzen dutela: *egotu* eta *izatu* (Lapurdikoak *OEH*ren arabera,
zeren eta Gipuzkoa-Nafarroetan *egondu* eta *izandu* aldaerak erabili baitira). Ala-
baina, Materrak ez zituen horiek bakarrik erabiltzen, baizik eta askoz ere maiza-
goak diren *izanekin* eta *egonekin* batera. Ildo horretan, argitu behar dugu *egotu*
behin bakarrik ageri dela (B[xxiv] *beha egotu naiz*), eta *izatu* guztiak *nahi içatu* lo-
kuzioan agertzen direla (eta hartan sistematikoki); hiztegian ikus daitekeenez, adi-
bide guztiak 1623ko argitalpenekoak dira, baina ezin egotz dakioke hizkera-ere-
duaren aldaketari: 1617ko edizioan ez zituen lokuzio horiek (partizipio-forman
bederen) erabili.

Beste alde batetik, mintzo gehienetan *-i* partizipio-marka duen *irakurtu* ere erabili
zuen Materrak, besteak beste Axularrek bezala (baimen-emailetako batek ere, Gui-
lantenak, badu horrelako ale bat). Nolanahi ere den, aldaki hori aurrekoak baino he-
datuago dago Ipar Euskal Herriko testuetan, eta Zuberoaraino iristen da (*OEH*, s.v.
irakurri).

6.4.1.2. Aditzoia

Oinarrizko forma ustez arkaikoenari buruz (ordea, begiratu Urgell 2016), bi
puntu daude azaltzeko: batetik, indikatiboaz kanpoko moduetan sistematikoki era-
bili zuela eta, bestalde, formari dagokionez *-tu* eta *-i* partizipiodun aditzei eragiten
diela soilik, *-kidunek* ez baitute azken bokala galtzen.³²¹

B184 beguira naçaçu othoi, eta ceure escutic eduqui naçaçu

B192 molde huni iarraiqui baçaquitça

Badira beste bi mota «berezi»: alde batetik, *-tu* atzizkidunak izanik *-t* kontsonan-
tea gordetzen dutenak (*çaurt* ‘zaur(i)tu’, *ezagut*, *lot*, *neurth*, *orhoit*) eta, beste alde
batetik, *-e* amaieradun partizipio irregularrak, *-a* ematen baitute gehienetan (*erre*
part. → *erra* adoin.; *bethe* part. → *betha* adoin., baina *bethe* adoin. behin).

³²¹ Ez dugu aditz arazleen adibiderik testuinguru horretan, baina Leizarragak, esaterako, *arazi* eta
utzi erabili zituen beti.

Azkenik, partizipioan txistukari igurzkaria dutenen artean (*hazi, hasi, piztu*), bakkarrak du afrikatua aditz-oin forman: *pitz* (cf. *bizi*, igurzkariaren jatorrizkotasunaren berme).

6.4.1.3. Aditz-izena

Partizipio inperfektiboa sortzeko, Materrak bi atzizki zerabiltzan, lehenago aurreratu bezala: *-te* eta *-tze*. Jarraian partizipio perfektiboaren araberako sailkapen bat aurkeztuko dugu eta eredu horretatik kanpokoak azalduko ditugu ondoren.

Labur esateko, *-te* atzizkia arestiko (§ 6.4.1.1) i. eta ii. taldeetako aditz guztiekin zerabilen, eta iii. nahiz v.-eko zenbaitekin ere bai, beherago azalduko ditugun kasuetan (a); *-tze*, aldiz, i. eta ii.-ekoak ez beste guztiekin baliatu zuen (b):

- (a) i. aditz-klasea: B21 eguiten, B93 ençuteaz, B168 iatteez, B186 irauteco...
 - ii. aditz-klasea: B167 ioiteaz (begiratu beherago *-ite-z*)
 - iii. aditz-klasea: Bi eçarten, B22 ehorztea, B47 ardiestecoac, B208 issurteaz...
 - v. aditz-klasea: B166 hozten, B261 borthitzten, B261 pizten...
- (b) iii. aditz-klasea: B32 iartcen, B122 ibentcen, B105 iratçartcen, B229 itçultcera...
 - iv. aditz-klasea: B31 eduquitcea, B31 iaiquitcen, B164 iraunguitcen, B170 iarraitquitcea...³²²
 - v. aditz-klasea: B20 corregitcea, B87 khentceaz, B145 vençutceco, B166 elkartcen...
 - vi. aditz-klasea: B22 atheratcea, B29 hiltcea...

Esan bezala, iii. eta v. taldeetakoek arreta apur bat eskatzen dute. Funtsean, (b)-ko eredu da arau, eta salbuespenak bi motatakoak dira: alde batetik, azalpen fonologikoa dutenak daude (txistukari ondoren *-te* da beti; beraz, Materrak ez du Leizarragaren *hatse* 'haste', ez Etxepareren *botzen* 'pozten' bezalakorik), eta, bestalde, arkaismozat hartu behar direnak (iii. taldean: *eçarte-*, *issurte-*); azken horien artean, gainera, batzuek bi atzizkiak onartzen dituzte, betiere *-tze* nagusi dela: *ekarten/ek(h)artce-*, *erabilte-/erabiltece*, *erorten/erortce-*, *ethorten/ethortce-*, *ibilte-/ibiltce-*.

Horrez gain, iii. klaseko bi aditzek ez dute (beti) partizipioko atzizkia galtzen; halakoetan *-tze* atzizkia agertzen da: *aracitce* (baina *barka arazte*, birritan), *etsitce* (baina *-este* beti, konposatuetan: *ardieste*, *ihardeste*, *mireste*, *onheste*, *sinheste*)

Era berean, i. klasekoak ere inoiz iii.-ekoak izan zirela pentsarazten digun fenomeno ezaguna dugu, zeinagatik kontsonante sudurkariaren lekuan *-i* baitago: *-ite* atzizkitzat aipatu ohi dena, alegia (begiratu Trask 1995; orain, ikuspegi berria dakar Urgell 2016 lanak): *edireite-*, *egoite-*, *emaitte-* (eta *hautemaitte-*), *erraitte-*, *ioaitte-*, *iragaite-*, *içaitte-*.

Aditzoin berezien artean kokatu ditugun *betha* eta *erra* berragertzen zaizkigu haie-tatik eratorritako izenetan: *bethatcen* eta *erratceca*.

³²² Salbuespen bakarra Materraren testutik kanpo kausitu dugu, Guilantenaren 1617ko edizioko baimenean: *ilkhitceco* (1623koan *ilquitceco* aldatua).

6.4.1.4. Geroaldia

Aspektu prospektiboa markatzeko, bi atzizki ditu euskarak: *-(r)en* genitiboa, eta *-ko* erlaziozkoa (*jabetza-genitibo* eta *leku-genitibo* ere esaten zaie, haien arteko harreman semantikoaren adierazle). Ezagun da mendebal zabal batean *-ko* besterik ez dela baliatzen, eta zenbat eta ekialderago joan, orduan eta *-(r)en* gehiago kausituko dugula.

Materra erdialdekoa izanik, gorago aipatu partizipio-taldeetatik i.-ekoekin erabili zuten *-en* geroaldian, eta *-ko* bestelakoekin.

-en: edirenen, iñanen, eramanen, eguinen, erranen...

-ko: miretsico, goratuco, erorico, helduco...

Horiez gain, *ase izan*, *behar izan* eta *bizi izan* lokuzioetako izenei loturik ere *-ko* erabili zuten Materrak: *assecu*, *beharco*, *bicico*. Lehen biak orokorrak dira; hirugarrena ere orokorra da, baina ekialderagoko hizkeretan *biziren* ere lekukotzen da (Etxeberri Ziburukoak ere erabili zuten behin, bere *Noeletan*, errimogatik izan badaiteke ere).

6.4.1.5. Bestelako berezitasun lexikoak eta aldaerak

a) *Izan* iragankorra

Gerora nabarmen hedatu den arren, artean (eta xix. mendera arte) ez zen *izan/ukan* bereizketarik lapurteran, edo haren zati batean bederen, ekialderagoko hizkeretan ez bezala (salbu eta, bitxiro, Haranbururen *ukhetu* batzuk, 1635ean).³²³ Hala, Materrak *izan* aditza dauka bai adiera iragangaitz arruntean, bai iragankorrean. Honatx adibide bana esaldi berean bildurik:

B16 Bortzgarrena, mundu hunetaco bicitcearen ondoan iñanen dela bertce munduan bicitce finic eta akabatceric iñanen eztuen bat

b) *Etzan* aditzaren aldaeraz

Egun hain hedatua egon ez arren, antzinako euskalki orotako testuetan (Zube-roakoetan izan ezik) *etzin* nahiz *etzan* aldaerak aurki ditzakegu, maiz autore beraren testuetan eta antzeko maiztasunez, *OEHk* aditzera ematen duenez. Alabaina, aztergai dugun eremuko egileen lanetan garbia da banaketa: Axularrek *etzan* erabili zuen ia beti, salbuespen bakarrak; Haranburuk, ordea, *etzin* sistematikoki; orobatsu Etxeberri Ziburukoak, baina *etzan* eta *etzantza* eratorria ere bai, aldi bakoitzetan (aldiz, *etzite*-soilik); Pouvreaux, ordea, *etzan* zuen forma nagusi, *etzin* pare batekin, bi-biak liburu eta lokuzio berean (*-ra etzin* ‘-ra makurtu’ adieraz). Axularren eta Haranbururen arteko ezberdintasuna nabarmendurik, esan behar da Materrak adibide bat baino ez duela, eta, horrenbestez, ondorio larririk ezin atera genezakeela; nolnahi ere, Haranbururekin bat dator, *etzin* erabili baitzuen.³²⁴

³²³ Ez nolnahirakoak ordea, Materraren *izaturen* kidekoak baizik, *bizi ukhetu* eta *behar ukhetu* lokuzioen aspektu burutuan.

³²⁴ Besterik da aditza trinkoki jokatzean ageri ohi den erroa, beti *-tza-* baitugu aldi eta alde orotan (Oihenartek eta Zalgizek dakarten errefrau bateko *atzi lo* ‘etzan hadi lo’ eta Lazarragaren *zautzidenean* ‘zautzanean’ bereziak alde batera utzita). Materrarenak dira *datçan* eta *ceçan*, besteak beste.

c) *Igo* aditzaren aldaeraz

Aditz honek hiru aldaera nagusi ezagun ditu, mendebaletik ekialdera: *igon*, *igo* eta *igan*. Alabaina, bada azkenaren beste aldaki berezi bat, *OEH*ren arabera *Pouvreauk* eta *Etxeberri Sarakoak* baizik erabili ez zutena, Materraz gain:³²⁵ *ikhan*. Badirudi behialako euskararen aditz-izenetako atzeranzko ahoskabetzeari zor zaiola (cf. *kalte* < *galte*; *ekoizte* < *ego(i)zte*; *Refranes y sentencias* bildumako *ituten* < **eduten*); hau da, *igaiten* > **ik(h)aiten* sortu zatekeen, eta handik atzera partizipio berria.

d) *Ukitu* aditzaren aldaerez

Ukitu aditzari dagokionez, ezberdintasun nabarmen bat dago bi edizioen artean: A-n herskari hasperenduna du beti (*ukhi-*), eta B-n ahoskabea soilik (*uki-*). Beste alde batetik, B-n aditz-izena izen moduan erabiltzean, hasperenez hasten da: *hukitze* (A-n *ukhitze*, gainerakoak bezala). Ez dakigu horren arrazoia zein den, baina adibide bakarra da, *hunki-* aldaera erabiltzen dutenetatik kanpo (eta forma hori ez da Lapurdin erabili ohi dena, Leizarragarenean salbu). Axularrek, esaterako, *utki-* du oro har (*ukhi* bakarra, '(gai bat) ukitu' adieran). Haranburuk eta *Etxeberri Ziburukoak* herskari hasperengabez dakarte. Aldiz, *Pouvreauk* eta, beranduago, *Etxeberri Sarakoak* ere *ukhi-* dute.

6.4.2. Forma jokatuak

Bigarren atal nagusi honetan, hasieran adierazi bezala, trinkoki nahiz analitikoki jokaturiko aditzez arituko gara, betiere formaz, egituraz nahiz adieraz aipagarri irudititu zaizkigun ezaugarriak nabarmenduz. Trinko eta laguntzaileen forma jokatu guztiak Materraren adizkitezian (§ 5.3) aurki ditzake irakurle jakin-nahiak.

6.4.2.1. *Trinkoak*

Atal honetan gutxienez trinkoki jokaturiko forma bat duten aditzak izango ditugu hizpide, batik bat erabilerari loturikoak edo formaz berezi direnak.

Materrak, orotara, 21 aditz-erro jokatu zituen trinkoki bere lanaren lehen bi edizioetan, nahiz eta haietariko 8 bigarrenean bakarrik agertu, eta behin edo birritan soilik: *eman*, *erabili*, **eradun*, *ethorri*, *-idi-*, *ikhusi*, *iraun* eta *iraungi*. Areago, *eman*, *ethorri* eta *iraungi* trinkoan (edo jusiboan) besterik ez dira agertzen.

Guztietatik sei dira iragangaitzak, edo zazpi, *iraun* ere argumentu bakarrekotzat hartzen badugu, ergatiboa eskatu arren (*egon*, *ethorri*, *etzin*, *ibili*, *ioan*, *izan*); gainerakoak iragankorrek dira, bai bipertsonal gisa jokatuak (*eduki*, **edun*, *egin*, *erabili*, *erran*, *iakin*, *-idi-*, *ikhusi*, *-io-*, *iraungi*), bai hirupertsonal gisakoak (*eman*, **eradun*, *erran*, *-i(n)-*, *iritzi*). Bestalde, iragangaitz guztiak atelikoak dira, eta iragankorren artean erdi-tsuek dute berezko telikotasuna: *erran*, *-io-*, *egin*, haren geroaldi-ahalerako aldaera besterik ez den *-idi-*, eta adiera bera duten hirurak: *eman*, **eradun* eta *-i(n)-*. Hortaz, esan liteke hiru *ekintza* mota soilik direla telikoak berez: *esatea*, *egitea*, *ematea*.

³²⁵ Hortaz, ezaugarri honetan ere Materra ez doa Axularrekin, urdazubiarrak *igan* besterik ez baitu.

Nolanahi ere den, horrek ez du esan nahi aditzok beti trinkoki jokatzeko dituenik. Adibidez, *ethorriren* adizkiak inperatibo-jusibo moduetan darabiltza soilik; *eduki* analitikoki jokatzeko du gehiagotan; *egin*ek, aldiz, mendeko perpausetan eta inperatiboan besterik ez ditu gordetzen forma trinkoak. Esan liteke, hortaz, ekialdeko xvi. mendeko testuetatik (Leizarraga, Etxepare) bereizten duen ezaugarrietako bat dela trinkoen erabilera: dagoeneko ez dira sistematikoki eta ahal den guztietan erabiltzen (cf. Mounole 2011).³²⁶

a) *Ethorri*

Aditz honek inperatibo-jusiboetako forma trinkoak baino ez ditu Materraren hizkeran (*bethor*, *zatho*). Aitzitik, *heldu izan* lokuzioa erabiltzen da ‘etorri’-ren orainaldi burutugabea adierazteko:

B37 Nondic heldu da...? ‘dator’

B162 ethorquizcoa edo ithurburutic heldu dena ‘datorrena’

B247 çure misericordian eta ontassunean fidaturic heldu naiz ‘nator’

Baina: B268 heldu baitzen ‘iritsi baitzen’

b) *Egin*

Egin, trinkoki jokatu, baldintzan, aginteran, edo aginte-kutsuko *-elal-en* mendegarailuekiko formetan erabili zuen bakarrik Materrak. Hona hemen testuan usuenik agertzen diren bi formen adibideak:

B3 eguiçu othoitz gu bekatoreoc gatic

B8 Seigarrena, haraguzco obraric ezcontçaz campoan eztaguigula

c) *Egin* sasi-laguntzaile

Bada *egin* aditzaren erabilera berezi bat, zeina baita aurretik erabilitako beste aditz baten ordezkoa, hura errepikatu gabe. Ekialdeko idazleek, gainera, aditz iragangaitzekin ere bazerabilten (cf. Axularren *Hala dabillanari gerthatzen oi zaikana egin* [= gertatu] *zait niri ere*).

Hala bada, ziurrenik erabilera horrekin loturik, euskalki guztietan lekukotua dugu aditz hau ahalezko «sasi(?) -laguntzaile» moduan (hots, *egin* bera trinkoki jokaturik, Axularren adibidean ez bezala), baina ez lehenago aipaturiko aditz baten ordezkari, baizik eta ondoren datorren bati dagokiola.³²⁷ Bada, halakoak dira Materrarenak ere:

A107 ahal daguiten gaizqui guztia

A112 faboratu behar ditugula, ahal daguigun lekuraño

³²⁶ *Egin*en eta *ekharr*en kasuan (azken horren forma trinko bakar bat ere ez baitakar Materrak), esan behar da ekialdeko testu zaharrenetan ere orainaldi burutugabea adierazteko perifrasiak jotzen dela maizago (Mounole 2011: 336).

³²⁷ Ausartuko ginatze esatera mendebaleko *egin* laguntzailearen gramatikalizazioaren lehen pausoa horixe izan zela, eta euskararen eremu osoan gertatu zatekeela (begiratu Camino 2008).

B160 ahal daguiten beçambat, guztien adisquidetcera enseyatcen direnac
B292 esquer deratçut ahal daguidan beçambat

d) *Ibili/erabiliren* eta *ik(h)usiren* adizkietako *-a*

Lapurterazko idazleen lanetan, Leizarragandik hasita, *-a* bokala hartu izan dute aditz horiek (absolutibo singularreko formatan, betiere),³²⁸ eta hala ematen ditu Materrak ere (adibide gehienak menderagailuekikoak badira ere, kontuan hartu behar da gainerakoetan *-en/-ela* direla Materraren hautuak, ez *-an/-ala*):

A108 cer fede eta sinhetste eman behar çaicen sorguinez dabilan solhasari eta eguitecoari?

B300 baiña guc orai darabilagu escuen artean

B321 Badacussat ecen egungo eguna bere arguiarequin iragan den beçala...

e) *-idi-*

Euskara Arkaikoan eta Euskara Zaharrean ezin zitekeen *-ke* atzizki modala *egin* aditzarekin erabili. Horren ordez, *-idi-* erroaz baliatzen ziren, zeina *-gi-* erroari *-di* atzizkia (**edinen* erroa) gehituz sortua den; gerora, beharbada *-idiren* balio modala ilundu zelarik eta analogiak bultzaturik, *-ke* erantsi zitzaizen halako formei. Materrak ere hala egin zuen, nahiz eta adibide bakarra utzi:

B296 Behar beçala eztaidiquet ez bata ez bertcea ere ceruraino

f) *Joanen* adizki hasperendunak

Hasperena gorde duten hizkeretako testu zaharrenetan forma jokatugabeetan *joan* besterik ez badugu ere, adizki jokatuak hots hori daukate erroko bokalen artean. Materrak ere hala ditu: A123 *dohaque*, B[xxvi] *dohaci*, A38 *ba-noha*, B324 *noha* eta B242 *oha*.

Aldiz, badirudi 1. pertsona pluralean ez zela beti gorde, Materraren B361 *goaci* eta B335 *goacinen* adibideek erakusten dutenez. Axularrek ere *goazi* dakar, eta *zoazte* ere bai 2. pertsona pluralerako. Bestalde, urdazubiarraren testuan 2. pertsona plural zaharrak ere (errespetuzko singular bihurtu zenak) hasperen gabeko formak ditu, hasperendunekin batera: *zoazi* nahiz *zohazi*. Beharbada formaren luzera (pluralgilearekin) izan liteke horren azalpena, nahiz eta 3. pertsona pluralekoetan beti eman zuen hasperena, Materrak bezala.

g) Hitanoko formak

Beste ezaugarri zahar bat da hitanoko adizkiek *h-* galtzea, hasiera absolutuan doalarik (hau da, aurrizkirik gabe). Materrak bi adibide ditu: B242 *aicenaz* eta B242 *oha*.

³²⁸ *Ibiliren* kasuan, Nafarroa Garaitik Zuberoaraino hedatu da berrikuntza bera, indar ezberdinez (Camino 2013: 126).

Biak, orrialde berean ez ezik, esaldi berean ageri dira; Materraren obra osoan hita-noan emana dagoen esaldi bakarrean, hain zuzen ere. Horiez gain, *eztaguiala* ‘ez de-zaala egin’ ere erabili zuen bertan. Hauxe da testuingurua eta esaldi osoa:

B242 Orhoitcen naiz, ha ene salbatçaillea!, ecen çuc hogoy eta hemeçortçi urthe-taco eri Siloeco urean sendatu cenduen hari erran ceneraucala: «Huna, orai sendatu aicenez gueroz, oha, eta eztaguiala guehiago becururic»

Egia da inperatiboko formaren *hrik* eza Grassmann legearen bidez azal daitekeela, bigarren hasperenak eraginda. Hala ere, ezaugarri zahartzat dugu, ezen bokal arteko hasperen hori bera ere halakoa da, arestian esan bezala, eta hizkera modernoagoetan *boa* formaz «erregulartu» baita gehienetan (Etxeberri Ziburukoaren testuetakoak dira berrikuntzaren lehen lekukotasunak).

h) Polimorfismoa

Euskalki guztietan gutxienez bi erro erabili izan dira ‘eman’ adierazteko: *eman* bera (trinkoki nahiz perifrastikoki), eta historikoki soilik forma trinkoak izan dituen *-i(n)-*. Horrez gain, tokian-tokian indikatiboko Nor-Nori-Nork laguntzaile funtzioa betetzen duten erroek ere utzi dute erabilera zahar horren lekukotasunik: **edutsi* mendebalean eta **eradun* ekialdean (erdialdean *-i(n)-* bera da laguntzailea). Materra ekialdeko hizkerekin bat dator, eta, *emanen* zein **eradunen* agerpenak oso bakanak diren arren, banaketa garbia ikusten da hiru aditzen erabileran. Indikatiboan **eradun* erabili zuen (B207 *esquer eta laudorio derautçut*); inperatiboko datiboa 3. pertsona-koa denean (B253 *Emoçu, bada, aiticinetic ene arimari ceruco benedicionea*), *eman*; eta gainerako inperatibo/subjuntiboko formetarako *-i(n)-* erroa ageri da (A142 *Iaincoac digula hara beltceco indar, dohain eta garacia*).

Horrez gain, **eradun*-en adizki batzuek *-erau-* : *-era-* txandaketa erakusten dute, ondoko morfemaren arabera: erroari itsatsiriko komunztadura markak *-u-* bokala badu, errokoa erortzen da maiz (a), nahiz eta gehienetan forma osoa ematen duen Materrak (b):

- (a) B235 Erraiten deracu çure profetac ecen (...)
B309 emanen deratçut hemen molde bat (...)
- (b) B166 Cer calte ekartcen deraucute becatu venialec?
B311 Baiña bereciqui esquer derautçut ceren (...)

i) *Etzanen* pluraleko formak

Ekialdeko egileen artean, Materra barne, *etzanen* pluraleko formek *-n-* bat dute orainaldian ere, erroaren aurretik: *daun(t)ça-* (vs *datça-*, *ceçan*).

j) Konparazioko adizki berezia

Mounolek (2011) dioenez, xvi. mendean ez da *bait-* aurrizkiarekiko forma berez-
ion arrastorik; ordea, badago xviii. mendetik aurrera (Mounolek berak ez du azter-
tzen xvii. mendeko egoera). Hala bada, Materraren lekukotasunak (A0 *Bi presuna el-*

karren artean minço bai-lira beçala) xvii. mendearen hasierara aurreratzen du lehen lekukotasuna, baina pentsatzekoa da lehenago ere izan zitekeela (Barrutiak ere badu, beraz ez zatekeen Sarako euskararen berrikuntza bat).

k) Adizki trinko bat lexikoan gorderik

Materrak ez zuen *jarraiki* aditzaren forma trinkorik erabili, horretarako tesuinguru aproposik ere ez baita haren lanean. Alabaina, halako baten arrastoa dakusagu izen batean lexikalizaturik: B26 *sabeldarrayotasuna*. Hitz hori Axularrek ere erabili zuen, nahiz eta aditzaren singularreko forma jokatu ia guztietan *-ka* agertzen den, ez *-o* (adb.: *darraika*; salbuespen bakarra *narraio* da). Horrek pentsaraz lezake autore hauentzat bederen hitz «berria» edo ikasia zela *sabeldarraio*, beharbada erdal 'gula' euskarara itzultzeko (eta aldi berean azaltzeko) sortua; izan ere, Axularrek *gula* hitzarekin batera aipatzen du. Materrak ere behin erabili zuen, «gula edo...» testuinguruan, eta gainerakoetan mailegua besterik ez (orobat Haranederrek: *sabeldarraioa edo gormandiza*). Noiz-non eta nork sortua den ez dakigu, baina, *OEHn* begiratuta argi ikusten da Lapurdi hegoaldeko idazleek erabili izan zutela soilik, eta kontuan hartu behar da Axularrek ez bezala Haranederrek, Pouvreaux eta Etxeberri Ziburukoak *darraio*ren modukoak erabili zituztela (eta ez *darraikarik*).

6.4.2.2. Laguntzaileak

Materrak sei aditz laguntzaile ditu: euskara batuko bostak (*izan*, **edin*, **edun*, **ezan*, *-i(n)-*) eta Zuberoatik Gipuzkoaraino hedaturik zegoen **eradun*. Azken hori, hain zuzen, *-i(n)-*ekiko banaketa osagarrian dago: onuraduna hirugarren pertsonakoa denean, orainaldian eta objektu singularrekin, *-i(n)-* erabiltzen da; gainerakoetan, **eradun* (salbuespen bakarra B334 *baitcinioen* 'baitzenion' da, zeinaren ondoan baititugu B229 *ceneraucan* eta B242 *ceneraucala*). Trinkoetan, ordea, *-i(n)-* da nagusi. Hona hemen pasarte batean aditz biak txandaka:

B83-84 Ihar. Hemen eguiten diogu othoitz Iangoicoari barka diatçagula gueure bekatuac, guc gaizqui eguiten deraucutenei barkatcen derauztegun beçala eguiten derauzquiguten faltac. Eta hunetan emaiten da aditcera ezterauzquigula Iaincoac guri barkatuco eguiten ditugun bekatuac, baldin guc barkatcen ezpadiogu gueure etsayari eguiten deraucun bidegabea

Hortaz, ez du **ironen* adibiderik, nahiz eta litekeena den inguru horietan artean bizirik egotea, garai hartan gutxi-asko lekukotuta baitago Lapurdiko beste autore batzuetan (Etxeberri Ziburukoak, Pouvreaux eta Harizmendi saratarrak darabilte, esaterako; begiratu Padilla 2013).

Azkenik, aipatzekoa da *izanen* Nor-Nori konfigurazioko iraganeko formetan ekialdeko *zei-* (ez erdialdeko *zitzai-*) hasiera duten formak zerabiltzala, bi argitalpenetan (berdin Axularrek eta Haranburuk, besteak beste; badirudi Lapurdiko kostaldean zebilela hedatuen *zitzai-*). Salbuespen bakarra, harrigarriro, edizioaldaketak ekarri du: lehenbizikoan A11 *ceitala* dena, bigarrenean B[ix] *ciçaitala* bihurtu da.

6.4.2.3. Lokuzio eta perifrasiak

a) Erresultatiboak

Iparraldeko euskalkietan ohikoa den bezala, erresultatiboko hiru egitura erabili zituen Materrak:

(a) *-a(k) izan / *edun*:

B[xvi] Finean hemen den guztia borondate on batequin Iaincoaren ohoretan eta arimen probetchutan eguina da

B97 Erran nahi du ecen virgina bere baithan laudatcecoa dela, eta are guehiago bere fruitua ere, Iesus, dohain eta garacia guztiez complitua duela

(b) *-rik egon / eduki*:

B4 iarriric dago Iainco aita bothere guztia duenaren escuiñeco aldean

B256. Ceruetaco erreguea, afari dohatsua ceure hautatuñcat parabisuan presaturic daducaçuna, noiz iarrico naiz ni loriazco mahay hartan?

(c) *-a(k) egon / eduki*:

B301 Badaquiçue nola gauden peril suerte guztiez inguratuac

B[x] ceren irabacian erabiltceco errecibitu çuen talentua eta dirua estalia eta ehortcia eduqui çuen

Testuan maizenik *-rik egon / eduki* eta *-a(k) izan / *edun* egiturak agertzen dira (begiratu 18. taula), eta erresultatibo iragangaitzak iragankorrak baino gehiago erabili zituen Materrak.

18. taula

Erresultatiboko perifrasiak³²⁹

	<i>egon/eduki</i>	<i>izan/*edun</i>
<i>-a(k)</i>	18 (10/8)	71 (67 ³²⁸ /4)
<i>-(r)ik</i>	31 (24/7)	—

³²⁹ Bada beste egitura interesgarri bat ere: [*inon/ezertan -(r)ik/-a(k) ibili*]. Horren bitartez, *egoneki*-koen *egoera* hutsa bainoago, *egoera* hartan *zerbaitetan* aritzea adierazi zuen Materrak. Hona hemen adibide batzuk:

B300 baiña gu orai gabilça perilez inguraturic itsas uhinen artean

B249 ethorten natçaitçu munduco eguitecoen ondoan nabilala nekhaturic

B360 Çure apostoluec, egun batez tormentatuac cebilçanean, eguin çuten laster fabore esque çure gana

B158 eta bere bekatuez urriquituric penitenciazco obretan ibiltcen direnac

³³⁰ Pasibo adierakoak barne daudelako puztu da hainbeste kopuru hori. Nolanahi ere, argigarria da *-(r)ik izan/*edun* lokuzioaren arrastorik ere ez aurkitzea, eta, iragangaitzen kasuan, *-(r)ik egon* askoz ere maizago agertzea *-a(k) egon* baino.

Egitura horien esanahiari dagokionez, normalean erresultatiboa adierazten dute, baina batzuetan pasiboaren antza ere hartzen dute. Beste batzuetan, ematen du egoe-rari baino gehiago, ekintzari egiten zaiola erreferentzia:

- Bxiii-xiv Baíña nahi dut iaquin deçaten halacoec nic hitzcuntça hunetan daqui-dana Saran ikassia dudala
- B275 Icussi cinituen Adamen ondoco miseriac, ençun cinituen oyhuac eta erren-curac, eta halatan ceurc ordenaturic ceneducan dembora complitu cenean

b) Pasiboa

Goian aipatutako egitura erresultatibo zenbaiten pasiboaren adieraz gain, Mater-rak bazerabiltzan beste zenbait egitura «iragangaizle». Batetik, erresultatiboen antzeko partizipiodunak, baina biluziak, determinatzaileak gabeak (B50 eta B292-293). Bestalde, inpersonalen antzera laguntzaile iragangaitza erabiliz sorturikoak (B88). Azkenik, agenteari instrumentala ezartzen diotenak, ergatiboaren ordez (B107).

- B50 Cer finetaco creatu içan da guiçona?
- B292-293 Iaincoaren ainguerua, ene beguiratçeco ordenatu çarena, esquer deratçut ahal daguidan beçambat çure ganic orai artean errecibitu ditudan ontasun guztiez
- B88 Ontassunez denaz beçanbatean, lehenbicico galdeguiten dugun ontassuna da ohora eta lauda dadin Iaincoa, erraiten dugula «erabil bedi sainduqui çure icena»
- B107 Eta halatan hec dira munduan diren ienderic gaixtoenac, Iaincoz eta munduz erratcea merci dutenac.

c) *-z egon*

Erresultatiboetako «egoera» ez ezik, *egon* aditzak progresibotasuna edo jarraitutasuna ere adieraz zezakeen euskara zaharrea (Mounole 2011: 41). Ez da nahasi behar batik bat mendebaleko euskararen erabiltzen den *-tzen egon* egiturarekin: Materrak zerabilen lokuzioak izen bat instrumentalean eskatzen du. Hona adibide zenbait:

- B5 Çure gana gaude oihuz
- B6 Çure gana gaude hatsbeherapenez, ayez eta nigarrez
- B331 O Maria virgina, gure salbatçaillearen ama, çu çara haren ondoan gure esperança guztia, othoitcez gagozquitçu har gaitçaçun egun çure faborearen azpian
- B312 Eta ceren neure gaixtaqueria hutsez oren oroz becatutan erortcen ohoitua bainaiz, hargatic nagotçu othoitcez, ha Iainco handia!
- B229 çure guibelean bere burua lurrera egotciric nigarrez cegoena
- B197-198 gure gatic hain tristatu baitcinen, non, othoitcez ceneundela, odolezco icerdia çure gorputcetic ilquiric lurreraifio issuri baitcen

Ikusten denez, Materrak *nigarrez* eta *othoitcez* adizlagunekin erabiltzen du bereziki, nahiz eta adibideetako batean *hatsbeherapenez* eta *ayez* ere badauden. Bada beste bat (*eske*), instrumentalik gabe ere adizlagun funtzioa bete dezakeena:

- B30 oihuz mendecu esque dauden bekatuac (...)
- B232 Misericordia handiaren nagotçu esque (...)

B237 Eta nola bainagotçu humilqui neure becatuen barcamenduaren esque, hala (...)

B316 Eta nola bainagotçu humilqui neure becatuen barcamendu esque, hala (...)

d) Loari loturiko bi lokuzio

Ikusi ditugun *egonekiko* lokuzioak ez bezala, egun *lo egon* erabiltzen da «lo egite» egoera gisa adierazteko. Ordea, Materraren hizkeran oraindik *lo etzan* zen ohikoa: B320 *lo datčan bizquitartean*.

Bestalde, dagoeneko Leizarragak *lokhartu* erabili zuen arren, bizirik iraun du haren jatorrian daztan *loak (inor) hartu* lokuzioak ere. Bada, jatorrizko egitura iragan-korraren eta *lokartu* iragangaitzaren arteko egoera erakusten du Materrak honako adibide honetan (cf. Axularren *lobakartu* jada desitxuratua):

B323 loac har çaitезqueyen beçala

e) *Harago izan*

Hona, horra, hara izan sailekoa itxura batean. Balirudike *harago izatea* ez dela besterik gabe *are harago, urrunago* den zeinahi tokitan izatea, baizik eta *beste munduan* (cf. gazt. *el más allá*, fr. *l'au-delà*), baina testuinguruak geroaldiko forma bat eskatzen du (OEHN, esaterako, *harako* «zuzendu» dute, nahiz eta nekez uler daitekeen <g> *pro* <c> aldaketa akats huts gisa. Honatx pasarte (B324 orrialde osoa hartzen du):

Bekatuetic apartatceco maiz consideratu behar diren pontuac

Cer naiz? Lur.

Non nago? Lurrean.

Nondic heldu naiz? Lurretic.

Norat noha? Lurrera.

Noiz harago naiz? Ezta segurançaric.

Nagoen, beraz, bethi prestic, segurançaric eztenaz gueroztic.

f) Uzkurdurak

Testu zaharrenetan han-hemenka idazle gehienek utzi dituzte ahozkoari dagozkion uzkurduren aztarnak beren idatzietan. Materraren hizkera zaindua da oso, eta bi uzkurdura besterik ez ditugu aurkitu (biak B-ko hirugarren zatian): B283 *arguitçaçu*, B278 *pagatu itutçu*.

6.4.2.4. *Pertsona*

Pertsona-komuntaduretan, 3. pertsonari dagozkion datibo-marketan daude bezitasunak, nahiz eta 1. eta 2. pertsonen ere badituzten aldaerak.

a) 3. pertsona (datiboan)

Bi atzizki ditu: *-a* (beti *-k-* datibo-ikurraren edo *-tz-* pluralgilearen ondoren) eta *-o* (ageriko datibo-ikurrik ez denean).

Materraren testuan hiru aditzekin idoro dugu *-(k)a*: *izan*, **eradun* eta *egon*: B[xiii] *çaicala* (baina behin B132 *baitçayo*), B229 *zeneraucan* (vs Oihararden *dakola*), B249 *dagoca...*

-o aldaera hori **ezan*, *eman* eta *-i(n)-* aditzekin erabili zuen, eta, oro har, datibo-ikurrik gabeko formetan ageri da (lehen bien kasuan erroko bokalarekin guztiz fusio-naturik, emaitza *-o* hutsa dela): B8 *eztiaçogula*, B216 *diaçoçu* (baina behin B87 *baitiaçayogu* 'baitiezaiokegu', eta arestion aipatu B132 *baitçayo*, *-i* datibo-ikurrarekin); B80 *diogu*, B144 *dio*, B253 *emoçu*.

b) 1. eta 2. pertsonak

Ohiko *-da-*, *-gu*, *-zu(e)* atzizkiez gain, aldaera «indartuak» ere badituzte: *-ta-*, *-ku*, *-tzu(e)*. Horiek normalean datibokoak dira, eta **eradun*, *izan* eta *egon* aditzetan agertzen dira (orobat *-tzu* ergatiboa **edunen* eta datiboa *-i(n)-* errokoetan, objektua pluralean bada):

A11 Ceren Iaincoac niri hitzcuntça hunen ikhasteco ance aphur-bat eman derau-
tanaz gueroz

A38 Eliçaco sagaramendu sainduequin batean emaiten çaicun garacia

B197 Othoitçez nagotçu odol preciatu haren baliotasuna gatic

B276 Orduan, ceure ontasuna gatic visitatu guinitutçunean (...)

B321 halaco moldez, non, salboric eta sendoric edireiten naicela bihar goicean,
dizquitçudan esquerrac eta laudorioac

c) Adizki hirupertsonaletako bokala

**ezan* aditzaren adibideak baino ez ditugu, eta horietan erroaren aurreko bokala *-ia-* bihurtzen da Nork-Nor → Nork-Nori-Nor aldatzerakoan (cf. Axularren *diaduko*).

Berezko hirupertsonalen kasuan **eradunen* adizkiak dira argienak, eta horietan *-e-* bokala dago (vs Oihararden *dakola*).

Eritzi aditzaren kasuan, Materrak lehenaldian soilik erabili zuenez, aldiari (ere) dagokion *-e-* du, baina baimenetan *daritçan* erabili zuen Axularrek.

6.4.2.5. *Numeroa*

Azpiatal honetan numero-komuntadurarako (hau da, pluraltasuna adierazteko) Materrak darabiltzan baliabide morfologikoak izango ditugu hizpide, kasu gramatikalen arabera sailkatuz.

a) Absolutibo plurala

Hiru aldaera ditu, banaketa osagarrian: *-(t)za*, *-zi* eta *-z*. Lehena *ibili* aditzaren formetan ageri da, erroko kontsonante ozenaren ondoko igurzkariekin (behin bes-

terik ez du afrikatua: B327 *çabiltçaten*). Bigarrena, **edin*, *egon* eta *joan* aditzekin, betiere adizkiaren amaieran edo *-(e)nl-(e)la* menderagailuen aurretik. Hirugarrena, aldiz, **edin* eta *egonekin* ez ezik, **edun*, **eradun* eta *izanekin* ere ageri da, baina tesuinguru morfologiko jakin batean: *-te* pluralgilearen, *-ke* modalaren eta *-k(i)* datibokurraren aurrean (salbuespen bakarra **edinen* jusiboko forma bat da: B343 *Çure aingueru sainduac gurequin egon bitez*; begiratu beheraxeago *egon* Nor-Nori adizkietakoko pluralgileaz). Azken biak, bestalde, pleonastikoak diren kasu batzuetan ere ageri dira: *daudezin* (vs *daude*) edo *dituzket* (vs *ditut*). Hona hemen aukera ezberdinen zenbait adibide:

ibili: B326 baitabilça

**edin*: B10 gaitecila (vs B302 gaitezque)

**edin*: B263 daquizquidan

egon: B230 daudecinac (beti erlatibozkoak, vs *daude*)

joan: B[xxvi] dohaci

**eradun*: B135 derauzquigu, B136 derauzte

izan: B112 gatçaitze

Azpimarratzekoa da *-zi* aldaera, Lapurdiri dagokionez, Sarako edo inguruko idazleek (Duvoisin ainhoarrak kasu) erabili baitute nagusiki (Lapurdi hegoaldeko ezaugarria zatekeen, kostara iritsi gabe). Salbuespen gisa Pouvreau euskaldun berria aipa liteke, Bidarten *egon* baitzen; ez dakigu, ordea, euskara non ikasia edo nork irakatsia zuen.³³¹

Bestalde, arkaismotzat har litekeen beste aldaera bat zerabilen Materrak, singularrean *-ka* datibo-marka duten adizkien pluraleko kideetan: *-tz(a)*.³³² Hona adibide bat aditz bakoitzeko:

B12 dagotçanac (cf. B79 dagocan)

B107 dadutçan (cf. B189 baitaduca)

B143 derautçan (cf. B267 ceraucan)

B212 baitçaitça (cf. B260 çaicán)³³³

Materrak *it-* pluralgilea ere badu, **edun* eta **ezan* [Nork-Nor] aditzetan. Aldiz, **ezanen* hirupertsonaletan ez dago garbi ezaugarri zahar bat ala analogiaren emaitza aurkitzen dugun. Forma horietan erroko txistukaria afrikaturik adierazi zuen objektu pluraltasuna (B89 *diatçagula* ‘diezazkigula’, *diatçaguçu* ‘iezazkiguzu’), baina batzuetan *-i-* bat aurrean jarrita (A87 *diatçagula* ‘diezazkigula’, *diatçaguçu* ‘iezazkiguzu’). Lehenbizikoak bakarrik kontuan harturik, esango genuke Nork-Nor formen analogiak eragindakoak direla (*deza-* : *ditza-* :: *diaza-* : *X = diatza-*), eta hori iradokitzen dute ekialdeko *dezan* : *detzan* bezalakoek, non pluralgilearen jatorrizko *-i-* aldaturik, txistukariaren artikulazio-modua besterik ez den geratu bereizgarri. Alabaina, *diat-*

³³¹ Lapurditik kanpo eta geroagoko garaietan, aldiz, Nafarroa Behereko hego-mendebalean ere aurkitzen dugu, *joanen* adizkietan bederen; Nafarroa Garai gehienera ere hedatu dira halakoak, bai eta *egonenak* ere ipar-ekialdean (Camino 2013: 131). Nolanahi ere, Materrarenak bide dira aldaera honen lehenbiziko lekukotasunak.

³³² Parentesi artean doa bokala, ezen «berez» harekin izan bazitekeen ere, datibo-komunztadurarenarekin baturik agertzen baitzaigu.

³³³ Salbuespen bakarra du; izan ere, B212 *baitçaitça* ageri den esaldia lehenago ere erabiltzen baitu, baina orduan B191 *baitzaizca* aldaerarekin.

tza- motakoek zalantza eragiten digute: horietan *-it-* osoa «iragan» ote da analogikoki ala egiazki hor egon da beti pluralgile zaharra, gerora aurreko *iak* disimilaturik galdu bada ere? Ildo horretan, aipatzekoa da A-n ugariagoak direla *-i-* dun formak B-n baino, non A-koak «zuzendu» diren, baina berri bat ere erantsi.

Azkenik, pluraltasunaren adierazpen berezi batzuk aipatuko ditugu. Alde batetik, arestian esan bezala eta euskara orokorrean gertatu ohi denez, *etzanen* pluraleko formek *-u-* dute ezaugarri (Materragan zehazki *-un-*, ekialdekoen modura); hortaz, *datçaren* ondoan *daun(t)ça* zerabilen. Bestalde, *erran* aditzaren inperatiboko formek objektu plurala hartzean, *-i-* bat tartekatzen dute erroaren eta egilearen komunztadura-markaren artean, eta txistukaria afrikatu egiten da: *erraçu(e)*, baina *erraitçu(e)*. Pentsa liteke *it-* pluralgilearen oihartzun bat dela hori, baina, batetik, atzizkiturik legoke bestetan ez bezala, eta, bestalde, kontuan hartzekoa da Leizarragaren *emainz-quiçue* ‘eman itzazue’, non *-i-* horrek ez bide duen pluraltasunarekin (beraz *it-* pluralgilearekin) ikustekorik.

Pluralgilerik gabeko forma batzuk ere erabili zituen Materrak: *zato* ‘zatoz’, *zaitte(a)* ‘zaitetz’, eta *gaitean* ‘gaitezen’. Egiazki lehena da garbiro pluralgilea falta duena (esan nahi baita, inoiz izanik, galdu duena, erroko *-r* falta izateak salatzen duenez) eta Lapurdiko autore zenbaitek erabili izan dute batik bat, baina baita Joakin Lizarraga Elkanokoak ere. Bitxikeria moduan, lehen edizioako A99 *gaitean* → B100 *gaitecin* bihurturik ageri dela aipa daiteke, eta besteak ere pluralgilearekiko aldaera izan baduela, B281 *çaitte* & B196 *çaitte* & B231 *çaiteci* hirukotea osatuz.

b) Datibo plurala

Datibo-komunztaduran pluralgilea hartzen duen bakarra 3. pertsona da (2. pertsona plural «berria», *-zue*, alde batera utzita). Bi alomorfo ditu, testuinguru morfofonologikoaren arabera. Alde batetik, *-te* aldaera darabil *-z-* pluralgilearen edota **-k* datibo-ikurraren ondoren, hots, singularreko formetan *-k-* agertzen baldin bada: B2 *derauztegun*, B121 *dagotenei*, B136 *çaitzenac*, B112 *gatçaizte*. Bestalde, *-e* da hau-tua pluralgilerik gabekoetan, datibo-ikurtzat *-i-* edo \emptyset morfema daukatentzat: B230, *derauçu*, A107 *çaiela*, A5 *çeiela*, B [xxvi] *eguiçu*.

c) Ergatibo plurala

Hau ere 3. pertsonari baino ez dagokio, eta *-te* du alomorfo bakar: B43 *dute*, A109 *ez-taquite*, B106 *diotenez*, B325 *derauçaten*, B159 *dituztenac*.

6.4.2.6. Denbora

a) Geroaldi trinkoa eta perifrastikoa

Arestian aipatu bezala, geroaldi perifrastikoan erabiltzen den aditz nagusia *-en* eta *-ko* atzizkien bitartez osatzen da, partizipioaren arabera. Horrez gain, Materrak *-ke* atzizki zaharra gorde zuen zenbait aditz trinkoren geroaldiko formak egiteko (maiz apodosi zentzuan erabilia, perifrasieta baliatzen den bezalaxe):

B[viii] bertcela eguin banu miretsi behar çatequeyela
 B[ix] hoben nuqueyela [vs hurrengo esaldiko *esquergabe içanen nincela*]
 B20 guiristinoac complitu behar dituzqueyenac

b) Iraganeko/erlatiboko atzikia

Erdi-ekialdeko eremuari dagokion moduan, iraganeko zein erlatiboko atzizki emankorra *-(e)n* da, inoiz jatorrian epentetikoa zatekeen bokala atzizkiaren parteztat hartzeraino (B181 *dioen* ‘dion’). Halarik ere, badira *-an* amaiera erakusten duten forma gutxi batzuk ere (A99 *gaitean*, A108 *dabilan*, B[xxv] *zebilan*), nahiz eta batzuetan atzizki gabeko formek ere *-a* hori hartzen duten edo hartzen zutela pentsa daitekeen, ziurrenik berranalisiagatik (Camino 2013). Ezaugarri hau gordetako arkaismoztat hartu behar dela dirudi (begiratu Ariztimuño 2013).

c) Iraganeko aurrizki bikoiztua

Aditz iragangaitz batzuen iraganeko formatako *en-* aurrizkia bikoizturik agertzen da Materraren hizkeran, beste lapurtar batzuen lanetan bezala (Camino 2013): B197 *ceneundela* ‘zeundela’, B309 *bacenenquitça* ‘bazenkizkio’.

d) Pluralgilearekiko forma sinkretikoak

Hizkera batzuetan ez da egiten Euskara Batuko *genituen/gintuen* edo *zenituen/zintuen* moduko bereizketarik. Materrarenean ere ez, beti *-init-* (< **-en-it-*) aurkitzen baitugu (Axularrek ere, adibidez, hala egiten du): B288 *baitcinituen* ‘baitzintuen’; B274 *cinituela* ‘zintuela’; B276 *guinitutçunean* ‘gintuzunean’ (cf. B333, B334, B335 *baitcinituen* ‘baitzenituen’; B334 *cinituela* ‘zenituela’).

6.4.2.7. *Aspektua*

Aditz nagusiaren forma ezberdinez gain, euskaraz badira beste perifrasi eta partikula batzuk aspektu-ñabardurak adierazteko. Materraren testuan honako hauek aurkitu ditugu:

a) Progresibotasuna adierazteko: *hari izan*

Gaur egungoa baino esanahi markatuagoa omen zuen garai hartan (nahiz eta Leizarragak badituen adibide «arrunt» batzuk; Mounole 2011), eta ez zen horrenbeste erabiltzen. Materrak adibide bakarra du, non «prestaketan» murgildua dagoela adierazten bide duen:

B233 huna prestatcen hari naiz cofessatceco

b) Ohitura: *-tzen ohi*

Gaur egun mendebalean partizipioarekin egiten den arren, ohikoa zen inperfektiboko formarekin ere, Gipuzkoaraino bederen. Lapurdin espero dena ageri da, beraz:

A4 erraiten ohi çuen, A6 eguiten ohi da, A7 eduquitcen ohi du, B91 erraiten ohi duçu

c) Gertakizun hurbila: *-tzera joan*

Nahiz eta Mounole (2011: 190)-ren arabera egitura hau xviii. mendean agertzen den («La périphrase composée d'un nom verbal à l'adlatif et de l'auxiliaire *joan* «aller» fait son apparition au 18ème siècle»), Leizarragak baditu adibide batzuk, bai eta Axularrek edo Etxeberri Ziburukoak ere; beraz, ez da harritzekoa Materrak ere erabiltzea:

Leizarraga: eta senda liezon bere semea: ezen hiltzera zioan

Axular: Hunelakoren, urliaren hiltzera noha

Etxeberri Ziburukoa: Arimaren bada pena eta gorputzarenak / Aiphatzera goazen hauk dire jeneralenak.

Materra: A38 ba-noha lehenic sinhetsi behar diren gauçez minçatcera, B261 honatcera goaci

6.4.2.8. *Modua*

a) Agintera

Lapurdiko euskararen bereizgarrietako bat dugu aginterazko adizkietako *d-* hasiera (alabaina Axularrek ez zuen halakorik erabili). Antza denez, subjuntiboko formetarik hedatu zen, baina soilik hirupertsonaletara, ez Nork-Nor motakoetara (Camino 2013). Materrak usadio horrekin egin zuen bat:

A85 Declara diaçadaçu hobequiago

B216 Beha diaçoçu, aita cerucoa, pietatezco obra handi huni

b) *Izan* eta **edun* trinko arkaikoak

Garaiko beste egile batzuek bezala, Materrak ere bi aditzon aginterazko, jusiboko nahiz subjuntiboko formak gorde zituen:

A90 Hala biz, salbatçaillea

B265 Çaren çu ene baithan, eta naicen ni çure baithan

B295 mereci çuqueyela urrundu cinen ene ganic

B232 Duçun, othoi, ceure misericordia handiaren arauaz nitçaz pietate

B305 euçue gutçaz ansia

c) Orainaldiko baldintza erreal zaharra

XVI. mendean aditzoinaren eta **edin* edo **ezan* laguntzaileen bidez adierazten zen gehienetan baldintza mota hau (*egin badezat* 'egiten badut', *joan banadi* 'joaten banaiz'). Aldiz, xviii.erako halakoak aski bazterrekoak direla esan daiteke, eta ohi-koena egungo moldea zela. Materrak bietara egiten du, eta antzeko agerraldi kopurua dute. Hemen egitura arkaikoaren adibide guztiak zerrendatu ditugu:

- B[viii] Baiña baldin considera badadi, edirenen duçue eztela gauça hunetan au-sartciaric (...)
- B218 Ceren baldin alde batean eçar baditeci gure gaixtaqueriac eta becatuac eta bertcean gure salbatçaillearen ontassuna eta merecimenduac, edirenen da (...)
- B228-229 baldin becatorea, bere huts eguinac ezaguturic eta utciric, çure gana itçul badadi, etçarela guehiago haren huts eguinez orhoituco
- B335 baldin çuc ceure bothereaç fabora ezpagaitçaçu, segurançaric ecin duquegula
- B354 Ikus badeçaçue tormenta ailtchatcen dela itsasoan, iar çaitetzte belhaurico (...)

d) Ahalera

XVI. mendeko testuetan hautazkoa zen *ahal* perpaus nagusietan; aldiz, baitezpadakoa zen mendekoetan, haietan ez baitzen *-ke* atzizkirik agertzen (begiratu Mounole 2011: 121). Materrak ia beti erabili zuen *ahal*, salbuespen pare batean izan ezik. Bestalde, *-ke* mendekoetara hedaturik ageri zaigu jada, *egin* «sasi-laguntzailearen» salbuespenarekin.

Bestalde, bada zalantzazko salbuespen bat, non *ahal* ez izateak, beharbada, geroldi gisa interpretatu behar dela adierazten duen:

- B297-298 Behar beçala eztaidiquet ez bata ez bertcea ere cerurairño, baiña bitartean, errecibi itçaçü neure ahalaren arauaz emaiten derauzquitçudan esquerrac

e) Ahalera trinkoa

Adizki trinkoen bizitasunaren adierazgarri, horiek ahalera moduan emateko aukera ere bazuen Materrak, orainaldiko formei *-ke* atzizkia gehiturik, betiere (perifrasietan bezala) *ahal* edo *ezin* partikulek lagunduta:

- B77 esperança ahal duquegula
 B96 ecin duque abantail handiagoric
 B124 ahal dohaque
 B217 Haur da ahal datequeyen offerendaric baliossena

f) Orainaldiko ahalera vs erresultatiboko ahalera

Perifrasietan, orainaldiko ahalera adierazteko, **ezan* eta **edin* laguntzaileak zera-biltzan Materrak (beranduago hedatu ziren *egi(te)n ahal du* modukoak; cf. Mounole 2011: 124-125). Salbuespen (itxurazko) bakarra *eguin ahal duqueçün* litzateke, baina, testuinguruari ondo begiratuta ohartuko gara ez dela orainaldi arrunta (hots, gaur egun *egin ahal duzun* perpausak adierazten duena):³³⁴ iragan hurbila adierazten duen

³³⁴ Pentsatu behar dugu *-ke* atzizkia ahalerazko testuinguruak eskaturik ageri dela (begiratu d) puntuan ahaleraz esandakoa). Leizarragak ere badu antzeko bat, baina atzizki modalik gabea: «hala eguin ahal dudán fidelquiéna eguin ukan dudala» (*apud* Mounole 2011: 125).

orainaldi burutua da, zehazki erresultatiboko balioa duena (esaterako, cf. B363 *erran ahal deçaqueçue*), eta egungo euskaran ‘egin ahal izan duzun’ edo antzera esango genukeena. Hona pasarte osoa:

B313 Hunen ondoan iraul eçaçu ceure espiritua, eta pensa eçaçu ea cein lecutan ibili çaren goicetic arratseraiño, norequin minçatu çaren, certain emplegatu duçun dembora, cer obra eguin duçun, geheroqui eguiten duçula gogoeta cer becatu **eguin ahal duqueçun**, eguinez, erranez edo pensatuz

g) *-te* zaharra

Bi adizki ditu Materrak *-te* atzizki hutsarekin hornituak (eta ez *-teke* pleonastikoarekin), argitalpen bakoitzeko bat. Testu zaharraoetan ohikoagoa bazen ere, xvii. mendeko Lapurdin arkaismotzat jo daiteke (cf., Axularren testuari buruz, Urgell 2015b-ko oharra). Aipatzekoa da, ordea, baxenafarrera kutsua duen Oihararden baimenak, bere laburrean, *date* eta *datela* dakartzala:

A4 non erraiten bai-tu Platonec-ere, nola irakatsia bai-tate bat-bedera bere haur-tassunean, hala (...)

B234 Eta baldin guztiez ecin orhoit banaite (...)

h) Preskriptiboa

XVI. mendeko Ipar Euskal Herriko testuetan aurrizki berezi bat aurkitzen dugu agintera-kutsuko adizki batzuetan (*albait-*), Lafonek (1999 [1966]) *formes de prescriptif* izendatu zituenak (begiratu, halaber, Oyharçabal 1997 eta Mounole 2011). Hurrengo mendean Materrak, Etxeberri Ziburukoak eta Axularrek baizik ez zuten erabili. Gerora Etxeberri Sarakoak (gramatika) eta Duvoisinek (Bonaparteri igorri gutun batean) aipatu zituzten, baina ez da horien erabileraren lekukotasunik. Hona esaldi osoa:

B298 Orduan emplega eçaçu ceure indar guztia, eta etsai guztietaric defendaturic eramán **albaitnençaçu** ceure compañian ceruco loriara.

Halako adizkiek esan-unetik kanpo betetzeko aginduak adierazi ohi dituzte. Kasu honetan Jainkoari egindako eskaera gisa ulertu behar da (cf. aitagureko *iguçu egun gure eguneco oguiá*).

i) Datibo-markaren berezitasun bat

Berriki Urgell (2015b) lanean aipaturiko gertakari baten lekukotasunak dakartzigu Materrak. Hartan Axularren berezitasun gisa ageri dena («*-(k)aió* atzizkia»), Ariztimuñok (2015) xeheki aztertu du, eta beste autore batzuetara hedatu. Materraren kasuan, Axularrek baino adibide gutxiagorekin bada ere (zehazki, bi), sistematikoa dela dirudi: labur esanda, **ezanen* hiru pertsonako formetan ez dugu *-ke* modalaren arrastorik topatuko, ezta hala eskatu ohi duten testuinguruetan ere; haren ordez, datibo-ikurra agertzea dute ezaugarri (subjuntibokoak, aldiz, *-i-* gabekoak direlarik). Bi adibide pare erkatuz erraz ulertuko da:

B87 cer ere galdeguin ahal baitiaçayogu Iaincoari ‘baitiezaiokegu’ (ahalera)

B78 ohore ekar diaçogun ‘diezaiogun’ (helburuzkoa)

B279 Baiña cer eman ahal diaçaiçut nic çuri hunen amorio handiaren ordain? ‘diezazuket’ (ahalera)

B281 hurbil çaitte, othoi, ene arimara, eta betha diaçadaçu ceure amorioaren ezitatanaz ‘iezadazu’ (agintera)

j) Subjuntiboaren erabilera arkaikoa (edo subjuntibo berezirik ez zen garaiko arrastoa)

Mounolek (2011: 320) azaltzen duenez:

En basque archaïque, ces périphrases [radical + **edin*/**ezan*] apparaissent également dans les subordinées de temps à suffixe *-ean* exprimant la simultanéité entre le procès de la temporelle et celui de la proposition principale. (...) Au 18ème siècle, les emplois en subordinées de temps sont exceptionnels.

Hona hemen Materraren zenbait adibide, molde zaharrekoak eta berrikoak:

B194 Meça erraillea aldarera ethor dadinean, erraçu debotqui eta attentoqui othoitz haur

B298 errebelan nadinean eçar naçaçu bide jugenean

B84 eguiten diogu othoitz Iangoicoari ezcaitçala utz tentatcera, eta utzten gaitue-nean ere, digula indar

B209 Eta calitça ailtchatcen denean erraçu

6.4.3. Zenbait erregimen (berezi)

Azpiatal honetan, diakronikoki nahiz diatopikoki aipagarri iruditu zaizkigun zenbait aditzen erregimen «bereziak» aipatuko ditugu, bai eta aditz arazle baten ezohiko joko bat ere.

Alde batetik, Euskara Arkaiko eta Zaharrea ohikoagoak ziren Nor(-Nori) egiturako aditzak, eta halako batzuk ditugu Materraren testuan: *eskatu*, *lagundu*, *gutiziatu* eta *uk(h)itu* aditzekin.

B111 barkamendu escatcen garela (bi absolutiborekin, Nor-Zer)

B107 laguntcen çayela

B9 guthicia ezcaquitçala (nahiz eta instrumentala datiboa baino ohikoagoa omen zen)

Beste alde batetik, Ipar vs Hego Euskal Herriko erabilerak banatzen dituzten *deithu* eta *manatu* ditugu. Materrak, espero bezala, Nork-Nor gisa erabili zituen:

B37 Eta nor deitcen duçu guiristino?

B103 manatcen gaitu

Aditz arazleari dagokionez, ohiko Nork-Nor → Nork-Nori-Nor aldaketaren orde, Nor-Nori (hiru argumentudun predikatu bat inpersonal gisa jokaturik) → Nork-Nori-Nor egin dela ikusten da adibide honetan:

B136 hei barka arazten derauzte bekatuen hondarrac

Hots, datiboa ez dagokio egitura arazletan ohi bezala egileari (*barkatzaileari*, kasu honetan), baizik eta onuradunari (datiboaren ohiko funtzioa, bestela ere):

haiei bekatuak barkatzen zaizkie → haiei bekatuak barka dakizkien egiten du nor-baitek = barkarazten dizkie

Azkenik, ohar bat egingo dugu *behatu* aditzaren jokaera ezberdinez. Aditz horrek ‘begiratu, so egin’ adiera duenean, osagarria datiboan markatu ohi da, laguntzaile hirupertsonalarekin, salbu eta perpauis bat denean (a). Alabaina, ‘ukitu (gai batek)’ adieraren egitura Nor-Nori izan ohi den arren, Materrak Nork-Nori-Nor zerabilen orobat (b); bakarra da horretan, *OEH*ren arabera (s.v. *behatu*).

- a) B216-217 Beha diaçoçu, aita cerucoa, pietatezco obra handi huni, beha diaçoçu hunen baliotasunari, beha eçaçu cer eta cembat çure aitcinean merci duten hain pena eta dolore handiec
- b) B141 «Theologal» hitz hunec erran nahi du hambat nola Iaincoari uquitcen çaicana, Iaincoari dagocana, eta behatcen dioena. Eta nola hirur verthute hec (fedecac, esperançac eta caritateac) Iaincoari behatcen baitiote, eta haren alde-rat empletacen baitira, hargatic deitcen dira theologalac

6.5. Sintaxia

Atal honetan Materraren euskararen sintaxiari lotutako zenbait egitura eta elementu izango ditugu aztergai. Sintaxiari buruzko azterlanetan egin ohi den banaketari jarraitu diogu hemen; zehazki, § 6.5.1 azpiatalean perpauis nagusietako zenbait fenomeno aztertu ditugu; § 6.5.2 azpiatalean, bestalde, mendeko perpauisei loturikoak azalduko ditugu. Amaiera aldera, interesgarri iritzi diogu Materraren zenbait erabilera sintaktiko xvii. mendeko beste zenbait lapurtar idazleren erabilerekin alderatzeari.

6.5.1. Perpauis nagusia

6.5.1.1. Hitz-ordena

Gerora ere ikusiko dugunez, bi modutako erlatiboak zerabiltzan Materrak: izenaren aurrekoak (*etorri den gizona* motakoak) eta izenaren ostekoak (*gizon etorri dena* motakoak). Nolanahi ere den, izen aurrekoak dira ohikoenak (B edizioan % 92 vs % 8), eta beste horrenbeste gertatzen da *-ko* atzizkiarekin; oro har, izenaren aurretik agertzen da. Azken atzizki horri dagokionez, bi aldaera bereizi behar dira: alde batetik, *-ko* hutsa, eta, beste alde batetik, *-zko*, instrumentalaren atzizkia ere baduena. Normalean, *-ko* hutsa izenaren aurrean dago, bi salbuespenekin: B56 *aita cerucoaren seme bakoitzça* eta B132 *Iaunco aita cerucoari*. Aldaera instrumentalduna erabiltzean, ugaritu egiten dira izen ondokoak. Aipatzekoa da, halere, egitura hau ez dirudiela oso emankorra, hitz gutxi batzuetan besterik ez baitzuen baliatu Materrak joskera hori (*egiazko, fedezko, misericordiazko* edo *bakezko* hitzekin). Maiztasunak direla eta, lagin gisa, B edizioaren lehenengo eta bigarren zatia arakatu ditugu, eta *-ko* soilaren ka-

suan 98 adibideetatik 4 dira izen ondokoak (% 4); *-zko* atzizkia, berriz, 72 adibide-tan ageri da, eta 26tan (% 36) izenaren ondotik.

6.5.1.2. *Linschmann-Aresti legea*

Linschmann-Aresti legea bete daitekeen gehienetan betetzen da Materraren tes-tuan, baina salbuespenak ere badaude, eta horietan izenordain indartuak falta ohi dira: sei aldiz dago *gure*, araua beteko balitz *geure* legokeen lekuan, birritan ordeztu du *zurek zeure*, eta *neureren* ordezko *eneren* eta *zeueneren* ordezko *zuenen* adibide bana dago. Hirugarren pertsonan sistematikoki betetzen da araua. Hona hemen salbues-pen horien zerbait adibide:

- B[xv] Hala, beraz, errecibi eçaçue, eta çuen oracinoetan eguin naçaçue partale
 B6 Ea, bada, gure arartecoa, çure begui misericordiazco horiec itçul itçaçu gure gana
 B45 Iesu Christo gure iaunac arimaren salbamenduco eracutsi derauzquigun
 gauçen declaracino bat
 B134 Lehenbicoloric behar dugu gure bekatuez bihotcezco urriquimendua, ez
 guehiago bihurtceco borondate fermuarequin
 B195 non passione saindu haren fruituac eta merecimenduc ene arimaren
 gainean errecibi ditçadan sacrificio hunen verthutez
 B222 Eta finean, eman diaçaguçu çure semearen passioneco mereximenduez on-
 gui probetchatceco garacia
 B275 Çu Iainco handia eta handitasuna bera çarelaric, nahi içatu duçu guztia-re-
 quin ere, ceure handitasuna beheititric, guere haraguiaren flacotasunarequin
 iuntatu

Beste bi adibidetan aurkako norabidean urratzen da araua; hots, izenordain indar-tuak daude araua beteko balitz arruntak leudekeen lekuan:

- B[xxvi-xxvii] Guztiaç dohaci borondate on batez eguinac: eguieçu beguitarte, eta
 errecebi itçaçu nic, ceureac balira, errecibi nitçan nahi cenduqueyen beçala
 B275 Çu, Iainco handia eta handitasuna bera çarelaric, nahi içatu duçu guztia-
 requin ere, ceure handitasuna beheititric, gueure haraguiaren flacotasunare-
 quin iuntatu, eta iuntaturic, guiçonaren forman aguertu eta ibili

Perpaua jokatu gabeetan ere badaude forma indartuak, eta halakoetan, edutezko izenordainak adierazten duen pertsona aditz jokatu gabearen argumentu bada, pertso-na-izenordain indartua agertzen da, perpaua jokatu eta bezalaxe:

- B30-31 Cerbitçariy eta languiley bere soldataren eta iornalaren goratcea, eta
 bortchaz eduquitcea
 B270 Bataz (cein baita creatcea) eman derautaçu naturaleçaren içaita, bertceaz
 (cein baita ceure hautçat hartcea) eman derautaçu garaciazco estatua eta çure
 erresuman çucen içaita
 B308 Bigarrena, Iaincoari gueure becatuen ezagutceco argui eta garacia escatcea

Sarasolak (1980) Linschmann-Aresti legea hizpide zuela zioenez, Etxeparek, Lei-zarragak eta Tartasek *ene* eta *hire* izenordainekin baizik ez zuten bete legea. Axularren testuan, aldiz, pertsona guztietara hedaturik agertzen da, salbuespenik gabe. Hariz-

mendi eta Argaiñaratzen testuetan ez da araua beti betetzen, batez ere *gure* eta *zure* pertsona-izenordainekin askotan ageri baita forma arrunta indartua espero zitekeen lekuan. Gure aztergaiari gagozkiolarik, Materra, funtsean, bat dator Leizarraga ondoko Lapurdiko egileen erabilerarekin: alde batetik, pertsona guztietan betetzen da legea; beste alde batetik, salbuespen gehienak *gure* eta *zure* pertsona-izenordainekin agertzen dira.

Materraren edizioen arteko aldaketei begiratuta, interesgarri da nabarmentzea A edizioeko zenbait arau-hauste (baina ez guztiak) zuzendurik daudela B edizioan; esate baterako, A73 *Noren baithan behar dugu gure esperantça eçarri eta eduqui* esaldiko *gure* → *gueure* bihurtu da B74 orrialdean.

6.5.1.3. *Objektu zuzenaren genitibizazioa*

Euskal testu zaharretan eta egungo hizkeretan objektu zuzenaren genitibizazioak zuen eta duen hedadura ezagututa, espero zitekeen erabilera aurkitu dugu Materraren testuetan, non genitibizazioa ia sistematikoa baita:

B160 guztien adisquidctera enseyatcen direnac
 B252 Aithortcen dut ez-naicela çure errecibitceco gay
 B278-279 penatu çara, penetaric ene atheratcea gatic

Salbuespenak oso gutxi dira:

A46 Guri fedezco gauçac eracutsteagatic
 B166-167 Lehenbicoloric gure Iaincoa ganaco amorioa, caritatea, eta debocinoa hozten eta gutitcen deraucute, eta guero hequen satisfacinotan cerbait pena mundu hunetan edo purgatorioico lekuan pairatcera obligatcen gaituzte.

6.5.1.4. *Elipsia*

Bi perpaus koordinatzen direnean, bigarren perpausko aditza askotan ostentzen da:

B[xxv-xxvi] Eta ceren añhitz baita Euscal Herrian iracurtcen daquienic, baiña ez euscara baicen bertce hitzcunçaric aditcen, halatan eguin ditut halacoençat
 B13-14 Lehenbicoa, Iaincoaren semea concebitu cela, eta eguin guiçon Virginia Mariaren sabelean Espiritu Sainduaren obraz
 B227-228 baiña çuc emequi eta amoriozqui deithu nauçu ceure gana, eta çure ontasuna gatic barcamendu prometatu
 B269-270 Bi arraçoïn gatic dei ahal çaitçquet aita: bata ceren creatu baynaçu eta munduan eçarri, eta bertcea ceren adoptatu eta ceure haurtçat hartu bainaçu
 B311 ceren ceure idurira eta imaginara creatu bainaçu, ceure odol preciatuaz redemitu, guiristino eguin, eta bai çure sagaramenduetan ere partale

Kasu batzuetan, postposizioen elipsia aurkitzen dugu:

B173 flacotasunezco bekatuac baitira aitaren contra, eta ignoranciazcoac semearen (non *kontra* ezabatuta baitago bigarren osagaien: *ignoranciazcoac semearen [contra]*)

B2014 ene guthicia gaixtoen arauaz ez nadin guehiago bici, çure borondatearen baiçen (non *arauez* ostendu baita).

6.5.2. Perpaus konplexuak

6.5.2.1. Perpaus erlatiboak

Arestian hitz ordenaz aipatu dugunari jarraikiz, erlatiboak izenaren aurrean zein ostan ager daitezke, lehenengoak nagusi izan arren. Materraren B edizioan 166 erlatiboak perpaus daude: % 92 izen aurrekoak dira, eta % 8 izen ostekoak. xvii. mendeko lapurtar idazleen lanei begiratuta, egitura baten eta bestearen maiztasuna oso antzekoa dela ikusi dugu: Haranbururen eta Axularren lanetan, esate baterako, % 9 eta % 4 dira izen osteko erlatiboak, hurrenez hurren. Hona hemen Materraren izen osteko egituraren adibide batzuk:

B4 iarriric dago Iainco aita bothere guztia duenaren escuiñeco aldean
 B224 Ni naiz seme gazte desordenatu çure ethetic ilqui cen hura, eta çuc eman cenerauzquidan ontasunac, munduco placeren ondoan nembilala, aiccin-guibel behatu gabe gastatu ditudana

Aposizioan ere badaude erlatibo batzuk:

Bi Hirugarrenean eçarten dira debocinozco othoitz eta oracino batçuc bere demoboretan eguin eta erran behar direnac
 B126 Seiñale bat campotic agueri dena, ceinec barrenean emaiten baitu Iaincoaren garacia agueri eztena

Halaber, badira *bait-* aurritzkiaren bidez eratutako erlatiboak eta erlatibo libreak, [izenordain galdetzaila + *ere* + *bait-*] egiturakoak:

B39-40 cein ala baiña baitago hirur presunatan, deitcen baitira aita, seme eta Espiritu Saindu
 B82 Gorputçaren oguia da cer ere bicitceco bianda eta bestimenda behar baita

Egitura korrelatiboen adibideak ere aurkitu ditugu:

B313-314 Eta cer ere becatu edirenen baituçu eguin duçula egun hartan, eçar eçaçu ceure memorian, eta har eçaçu ceure bihotcean urriqui handia
 B326 ceren cenbatenaz eta halacoac periletan ago baitabilça itsasoan, hanbatenaz Iaincoari gomendatceco iratçarriagoac eta icassiagoac behar dute egon

Zein partikularen bidez eraikitako erlatiboak erruz baliatu zituen Materrak, xvii. mendeko beste hainbat egilek bezala; zehazki, halako berrogeita hamabost adibide aurkitu ditugu B edizioan. Izenordainaren formari dagokionez, aipatzekoa da *zein* mugagabea dela forma bakarra (ez dago *zeinarik*). Instrumentalarekin, *zeinez* & *zeinetzaz* aldaerak daude:

